

Antonio Zavala

# PELLO ERROTA

PEDRO ELIZEGI MAIZ



B0-2191

10264

# PELLO ERROTA

(Bizitza, bertsoak eta itzala)

Auspoaren Sail Nagusia

---

Auspoa Liburutegia  
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)  
Tfno. (943) 67 12 82



Antonio Zavala  
(Bizitzaren egille eta bertsoen biltzaille)

**PELLO ERROTA**  
**Pedro Elizegi Maiz**  
**(1840 - 1919)**

Auspoaren Sail Nagusia

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)  
Fotokonposatzaile: Cometip fotocomposición, S.L. - Pamplona  
Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)  
ISBN: 84-7158-162-0  
Depósito Legal: NA. 385-1992



Pello Errota (1840-1919). (Eibarko Indalezio Ojangurenen argazkia, 1916-an).

# **ITZAURREA**

## ITZAURREA

Pello Errotaren izena umetan ikasi nuala uste det. Udara igarotzera Tolosatik Adunara joaten giñan urtero, eta erri ontan Otañotarrak eta Pello ziran bertsolaririk aitatuena. Aietaz zer esaten zan gutxi ajola zitzaigun guri orduan, mutil koxkorak aurreragoko lanak izaten ditu ta. Baiña neri beintzat izen oiek buruan itsatsita gelditu zitzaizkidan.

Beste gertakizun bat ere kontatzen zan gure etxean Pello Errotari buruz: gure ama zana, bein batez, Asteasura joan zala alboko baserriko etxeokandreakin, eta Pello Errota agurtzeko egokiera izan zutela.

Beste oroipen bat ere badaukat. Nik amaika urte bat izango nituan. Udara arratsalde batez, anai zaarrena eta biok ibillaldi eder bat egin genduan oiñez. Tolosatik irten, eta Anoetara. Emendik, ez dakit nondik, baiña mendiz-mendi –guk orduan ibillitako bideak galduta egongo dira onezkero–, Asteasura. An zerbait artu eta Billabona alde-ra jo genduan, trena edo garai artako tranbea artzera. Bidean gentozela, alako batean, ur putzu eder bat ikusi nuan, kamioaren eskubiko bazterrean, etxe koxkor baten gaineko aldetik. Ari begira inbiritan egon nintzan. Ura zala, ura, leku egokia igeritarako!

Andik urteetara, bertso biltzeari ekindakoan, Asteasura joan eta Pello

Errotaren etxearen galdera egin nuan noski. Erakutsi zidaten eta abitu nintzan. Bertara iritxitakoan, berriz, antxe azaldu zitzaidan mutil koxkorretan ikusitako ur putzua. Errekako ura biltzeko botana izan, errota lanean jartzeko. Berriz ere begira-begira egon nintzaion, askotan gure bizitza uste gabeko bidetatik ibiltzen dala pentsatuz.

Bertsoak argitaratzen asi nintzean, berriz, bitatik bat aukeratu bearrean arkitu nintzan. Jose Bernardo Otañoren alaba, Adriana izenez, Donostian bizi zan orduan, larogei ta iru urterekin. Bertan bizi zan, baita ere, Pello Errotaren alaba, Mikela beraren izena, larogei ta amairu urterekin. Norengana joango nintzan lenengo? Zaarrenetik astea erabaki nuan noski.

Bañan okerbidea artu nuala uste det. Adriana Otaño bereala il baitzan. Pello Errotaren alaba, berriz, beste bost urte bizi izan zan.

Pello Errotari buruz an eta emen bildutakoak, *Auspoa* liburutegiaren lau zenbaki betetzeko ainbat eman zuten: 32, 33 eta 49-50-garren aleak alegia. Zenbaki oiek liburu onek dituan lau zatiak dira.

Lenengo zatia, *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* du izenburuztat, eta nola egiña dan, zati orrentzat orduan egindako itzaurreak adierazten du.

Aren etxera magnetofono batekin joaten nintzan; orduko magnetofono aundi eta astun aietako bat noski. Sukaldeko maiaren gañean jartzen nuan, eta bereala asten giñan, ni galdezka eta Mikela erantzuten. Nik ez dakit zenbateraino oartzen zan bera mai gañeko tramankulu ura zer zan. Alabak bai noski, Anttoni eta Joxepa. Baiña aiek nere alde zeuden eta etzioten amari ezer ere salatu.

Bigarren zatiak *Auspoa*-ren 33-garren zenbakia du oiñarriztat. Izenburuak ere ederki adierazten du zer dan: *Pello Errotak jarritako bertsoak*.

Asteasuko errotariak, izan ere, bertsogintza bigarren ogibidea zeukan. Batetik, kantuan plazarik-plaza ibilli eta andik ekartzen zuan soldata. Bestetik, berriz, Gipuzkoatik ez-ezik, Naparroatik ere jendea etortzen zitzaion bertso-aren batzuk jarriko ote zituan, gero paperetan argitaratu ta zabaltzeko. Arazoa zer zuten adierazten zioten, eta Pello bertsoak moldatu. Berak idazten bazekian, bañan sarritan beintzat alabaren batek-edo papereratzten zizkion. Ondoren, bere lanagatik bost duro ko-bratzen zituan.

Bertso sail oietako batzuei Pello Errotaren alaba Mikelak adierazpen jakingarriak eman zizkien: bertso eskenor etorri zan, nungoa zan, aitari zer esan zion, zer istillu zuten eta abar eta abar. Bera artean jaiotetxean bizi zan, eta aitaren bertsoak berak kopiatzen zituan, geienetan beintzat. Arek esandakoekin itzaurretxo bana egin genien bertso sail batzuei.

Beste batzuetan, berriz, guk paperarik izan ez eta berak eman zizkigun bai aurreko argibideak eta bai bertsoak ere.

Saillaren bertso guztiak ez noski. Bañan arrigarria zan, ia larogei urteren buruan orrenbeste bertso buruan gordetzea.

Ala ere, Pello Errotaren bertso sail guztiak ez dira enkarguz jarriak. Inork eskatu gabe, barrenak ala agintzen ziolako moldatuak ere baditu: Arantzazukoak, Asteasuko Mixioarenak eta abar.

Bañan dalako liburu ori, *Pello Errotak jarritako bertsoak* izenekoa alegia, 1963 urtean argitaratu genduan. Ia ogei ta amar urte, beraz. Geroztik, ordea, Jaunari eskerrak, Pello Errotaren beste bertso sail batzuk agertu dira. Edo-ta alabak iru-lau bertso eman bazizkigun, ondoren bertso-papera nunbaitetik eskuratu degu. Alde ontatik asko aberastu da argitaraldi au. Bertso pilla berria eskeintzen diogu irakurleari.

Irugarren zatiak *Pello Errota - Erriaren aotik jasotako bertso eta gertaerak* du izenburua. Beste bertsolariekin egin oi degun bezela, Asteasuko bertsolaria- renak ere andik eta emendik biltzen alegindu gera. Oiekin ornitu zan *Auspoa*-ren 49-50-garren zenbakia. Bañan liburu ori 1965 urtean argitaratu genduan. Arrezkerostik, arritzekoa ere ez danez, beste bertso eta gertaera asko jaso ditugu erriaren aotik. Auekin ere asko aberastu da zati au.

Pello Errotaren beste bertso eta gertaera batzuk, erriaren aotik jasotakoak oiek ere, Txirritaren liburuan arkituko ditu irakurleak. Bi bertsolari auek alkarri kantatuak baitira; edo-ta alkarrekin zirala gertatuak. Oiek berez irugarren zati ortan bear luteke. Baiña liburu artan sartu genituan, eta ezin asiko gera gauza bera emen berriro argitaratzen.

Laugarren zatiari, *Pello Errotaren itzala* jarri diogu izenburutzat. Famili

artan, izan ere, bera gaillurra izango zan noski, baiña beste bertsolari batzuk ere baziran. Lenengo, Oiartzunen bizi izan ziran bi senide: Sabina eta Juan Krutz. Onek askotan laguntzen zion anaiari, kanpora kantu lanera zijoanean. Bi alaba ere bertsoan moldatzen ziranak ziran: Joxepa Iñazi, Ameriketara joan zana, eta Mikela, liburu au osatzeko ainbeste lagundu ziguna. Semea, berriz, Miel Anton, bertsolari osoa zan, irakurleak ikusiko duanez. Pelloren Oiartzungo illoba bat ere, Lukasia, Juan Krutzen alaba, bertso jartzen saiatzen zana izan zan. Eta, azkenik, Bautista Kortajarena, beraren jaiotetxeaz «Ondartza» esanda ezagutzen zana. Pello Errotaren billoba genduan, aren alaba Mikelaren semea. Gerra ondoan asko kantatu zuan onek Euskalerriko plazetan, Uztapide, Txapel, Zepai, Ernaniko Txikia eta abarrekin.

Zati au ere askoz ornituagoa eskeintzen diogu gaurkoan irakurleari. Urteen buruan bertso asko eskuratu baiditugu.

Pello Errotaren famili artekoa ez bazan ere, beste bertsolari batekikoak ere liburu ontan sartu nai izan ditugu: Agustin Zakarrarenak. Bera ere Astea-sukoa baitzan, eta Pelloren denborakoa, Zakarra zerbait zaaragoa bazan ere.

Liburu au, len ere esan degunez, orain urte mordoa *Auspoa* liburutegian argitaratu genituan aietan oiñarritzen da. Bañan aien aldean askoz ere ugaria-goa eta beteagoa dator.

Bertso eta gertaera berri oiek bildu eta gero illunpean gordeta euki bearrak pena ematen zigun. Argitara ateratzeko egokiera orain etorri zaigu eta pozik gera. Bestetik, berriz, liburu aietan oker eta utsegite batzuk bazeuden. Oiek zuzentzen alegindu gerala esan bearrak ez dago.

Beste oar bat egin bearrean gaude. Garaian garaikoak izaten diran ezker, liburu aietan erabilli genituan ortografia eta idazkera ordukoak dira. Liburu ontarako aldatu edo ez aldatu zalantzan egon gera. Azkenean, ordea, alik eta geiena bere artan uztea erabaki degu.

Pello Errota –Jose Bernardo Otaño eta Udarregirekin batera– bertsolaritzaren aro baten gaillurra dala esan genezake, eta aren emaitza nai ta nai ez kon-tuan artu bear dana, gure erri literatura ondo ezagutu nai bada.

Emaitz ori len *Auspoa*-ren lau zenbakitan agertu genduan; orain, berriz, liburu batean bilduta. Len urriagoa eta pobreagoa; gaur, berriz, esan bezela, askoz aberatsagoa eta oparagoa, guztion mesedetarako.

**PELLO ERROTAREN BIZITZA  
BERE ALABAK KONTATUA**



# ITZAURREA<sup>1</sup>

Liburu onek ez du itzaurre luzerik bear. Nola egiña dan itz bitan adieraztea asko du.

Pello Errotaren seme-alabetatik bakarra bizi da, Mikela, larogei ta amalau urterekin. Jaungoikoari eskerrak, urteak ez diote batere burua illundu, ezta ere mingaña lotu.

Makiña bat arratsalde goxo pasa degu bera kontari ta ni entzule. Ta, obe bearrez, bereala asi nintzan magnetofon bat eramaten. Arrezkero, arek jasotzen zuan gure berriketa guztia.

Gero, etxerakoan, ariak jasoa pape-rera pasatzen nuan. Ori izan da nere lana; besterik ez. Aldaketa bat sartu da: ariak gure alkar-izketa jasotzen zuan, alegia nere galderak eta Mikelaren erantzunak; ta liburua moldatzeko, alkar-izketan esana kontaeran jarri bear izan det noski.

Esan bearrik ez dago, Mikelaren itz bat edo esaera bat ez dedala, ezin bestean baizik, ikutu.

Beraz, liburu au Mikelari zor zaio oso-osorik. Orregatik du izena: *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*.

Urrena, Pello Errotaren beste liburu

bat dator: *Pello Errotak jarritako bertso-paperak*. Paperak zergatik eta nola jarri zituan, Mikelak berak adierazi digu.

Bañan askok erreparatuko dute Pello Errotaren bertso ta gertaera danak ez daudela bi liburu auetan. Bai, ala da; gerok ere badakizkigu beste asko. Zergatik ez ditugun jarri? Mikelak emanak ez diralako.

Oiek irugarren liburu baterako gorde ditugu. Ontan, erriaren aotik jasotako Pelloren bertso, pasadizo ta ateraldi guztiak jarriko dira. Erdi egiña dago, bañan denbora pixka bat bearko du osatu artean.

Laugarren liburu bat ere izango da. *Pello Errotaren itzala* jarriko diogu izena. Pellok, bere ondorengoetan, oraindik ere aitu ez dan bertsolari jatorri bat osatu zuan. Bere ondorengo oien bertsoetan osatuko da laugarren liburu ori.

Lau liburu auek gordeko al dute Pello Errotaren izena gure artean betiko!

1. Itzaurrean esan degun bezela, liburu onen lenengo zatia, *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* alegia, 1963 urtean argitaratu zan, *Auspoa* liburutegiaren 33 zenbakian. Aurretik onako itzaurre au ezarri genion.



Mikaela Elizegi Bengoetxea (1869-1967). (*Paskual* argazki-etxean egindako argazkia).

## GURE AITON AMONAK

Gure aitaren aitak Jose izena zuan. Errotaria zan; da gure aitari Pello Errota bezela, ari Jose Errota esaten zioten.

Jaiotzez Larraulko semea zan, Larronbide-etxeberri baserrikoa; bañan gero, gu danok jaio giñan errota ortara etorri zan bizi izatera.

Karta jokuan izugarri gustatzen ziztaiona zan; da gure aita, berriz, karta bat jokatzen etzekiena.

Egun batean, Karidadeko bentan jokuan ari zala, zeuzkan diru guztiak galdu omen zituan. Gure aita, berriz, begira zegoan.

Bere esan guzia «Makabo!» omen zuan aitonak; eta, xoxik gabe gelditu zanean ere, ala esan omen zuan:

–Makabo!

Ta gure aitak:

–Danak galdu ditu ta akabo!

Beste egun batean, Karidadeko benta ortan bertan, jokuan asteko zeudela, gure aitak zer egin zuan? Aitonak dirua zuala antzematen ziotenean, engañatu egiten zuten; da, bere aita postura artan ez ikusteagatik, kartak arrapatu ta balcoititik saltatu zan gure aita.

Beste batean, txerri gizenakin joan omen zan aiton ori Tolosara.

Garai artan kamiorik etzan, da menditik joaten zan jendea Tolosara. Bide *extravagante* bat zan. Astiasuko Zabale-

tik pasa ta aurreraxeago, Anoetako partean, bide buelta batean, benta bat zan: Auzibarko benta. Ara noiz edo noiz lapurrak allegatuak ziralako-edo, Lapurbenta ere esaten zioten. Alako tokian zegoan.

Ba, andik pasatzen ikusi zuten gure aitona bi gizonak, ta ala esan zioten alkarri:

–Jose Errota txerri gizenakin pasa dek, eta onuntzean dirua ekarriko dik.

Ala, alkarrekin entendituta, biren artean batekikoa errez egin zuten. An utzi omen zituan txerrien diru guztiak. Orduan jende gaiztoa ere bazan.

Alare, etzuan buruan sartzen tranpa egiten ziotenikan.

Zazpi seme-alaba izan zituan: Manuela<sup>1</sup>, gure aita<sup>2</sup>, Sabina<sup>3</sup>, Josepa Luisa<sup>4</sup>, Maria Antonia<sup>5</sup>, Jose Agustin<sup>6</sup> ta Juan Krutz<sup>7</sup>.

Gure aita ez-ezik, Sabina ta Juan Krutz ere bertsolariak izan ziran.

Gure aita ezkondu zanean, ura etxean utzi ta fameli guztia Zizurkilko errota batera joan zan bizi izatera: Akeskoagara. Billabonako kamio ondoan dago.

Andik Adunara pasa ziran. Orain Sorondoren fabrika dagoan ortan, zubi ondoan, bazan garai artan errota bat. Aduna-errota esaten genion guk ari. Or denbora gutxi egin zuten.

Urrena Oiartzuna joan ziran, Zuloagako errotara.

Ta Juan Krutz ezkondu zanean, beste errota batera pasa zan gure aitona. Bein allegatu nintzan ni ara, neska gaztea nintzala. Etzegoan alde-aldean ere. Ergoin guztitik barrena joanda, mendiko errota zulo bat zan. Ez jakin orain, ordea, zer izen zuan.

Bazan orduan Oiartzunen gizon xelebre bat, *Eperra* esaten ziotena. Aren etxea zein zan erakusten aritu zitzaidan aitona. «Ori da Eperraren etxea» esaten zidan. Goiko malkarrean etxe beltz zar bat zan.

Beti alaba zarrena, Manuela, izaten zuan etxerako.

An il zan gure aiton ori.

☆ ☆ ☆

Astiasuko festak San Pedrotan dira. Urte batean, bere pobrezan ainbeste gastu eginda, etzitzaion Oiartzundik iñor ere etorri: ez aitarik, ez seniderik. Orduan bertso au bialdu zion gure aitak bere anai Juan Krutzi:

San Pedroz pasatzeko  
neukan umoria,  
arrigarriya izan dek  
tristura neria:  
gure parienterik  
etorri gabia;  
aitari aztu zaiok  
onera biria,  
onuzkero biarko  
nik bakardaria.

☆ ☆ ☆

Gure aiton orri emaztea gazterik il zitzaion. Joxepa Ramona zuan izena. Sorabillako alaba zan.

Egun batean, Ernioko gurutzera igo zan. Andik bueltan, egarriak eta izarditan zetorrela, Iturriotzen urez bete-bete egin omen zan. Gero kasorik egin ez, ta andik petxutik il zan.

Gure aitonak onela esaten zuan gero askotan:

–Bai; ni ogei ta amairu urterekin ta zazpi kriaturakin alargundu nintzan.

Gure aitak ori enkargatzen zigun gero beti:

–Erniora joan bear badezute, zoazte. Bañan ez edan gero Iturriotzen urik, nere ama orregatik il unan da.

☆ ☆ ☆

Gure ama Zizurkilkoa zan, Galardi baserrikoa. Ango aitonaren berri ez dakit; amonarena bai.

Arek, taloak erretzeko egurrik ez bazuan, iñor ez molestatzeagatik, atariko aranari aizkorarekin adar bat berdeberdean kendu ta egur arekin sua egiten zuan, danak arritzeko moduan; baita ere su arekin talo pilla ederra erre fameli guztiarentzat.

Aren aitak –Lexo-Errekalde esaten zioten– alaxe esaten omen zuan askotan:

–Alkatearen bararen gañean juramentu egingo nuke, nere alaba orrek bere denbora guztian kontestazio bat egin ez didala.

Bizi zalarik, ala esaten zuan gure amona orrek askotan:

–Jaungoikoak eman deigula argia illean da bizian.

Petroleozko kinke ta krisalluak izaten zituzten aiek gauerako; ta gaurko eletrika baño kaxkarragoa bazan ere, geiago estimatzen zan orduan argia.

Gaixotu zan, da barrenak txistu egiten zion. Udaran sagastian egiten zuan siesta; ta, bere barrengo txistu ura adituta, errezeloa jarri zitzaion, an sagarpean lotan zegoala, sugeren bat edo suangillaren bat barrena sartua izango ote zuan. Ta medikuai itza atera zien, iltzen zanean gorputza askatzeko, ta barrenean zer zuan ikusteko.

Ala, il ondoan askatu zuten, da minbizia billatu zioten saietsean. Putzu-zulo bat omen zeukan.

Gorputzez zegoan gauean, errosarioa esatera etorri zan jendea, ta argizerilla –erroskako kandela oria– plater batean jarri ta piztu zioten.

Errosarioa esan da jendea joan zanean, argizerilla oraindik bukatu gabe zegoan, da aren alabak –Mikaela Iñaxi ta Joakiña Anttoni, nere amandrea ta ama– pentsatu zuten ura aitutzerako ekarriko zutela berria.

Akordatu ziranean, ala esan zioten alkarri:

–Onezkero errea izango da ta goazen.

Eskalletan gora zijoazela, goien, gorputza zegoan tokian, bazter guztiak argitan zeudela ikusi zuten. Ala esan zuten:

–Ai ene! Sutan zeon kuarto guztia!

Alderatzen atrebitu gabe egon ziran puxka batean; bañan joan egin bear ta sartu ziranean, arkitu zuten argizerilla dan-dana aituta zegoala, ta plater utsak argi egiten zuala. Ala esan zuten:

–Gure ama santa bat zan! Bizi zala, «Jaungoikoak eman deigula argia illean da bizian» esaten zuan, da au milagro bat da!

Korrika jetxi ta danai kontatu zieten. Gero, igo ta argizerilla berria jarri zioten.

Gure amona ori Jose Bernardo Otaño Errekaldekoaren lengusu propioa zan; amak aizpak.

1. Juana Manuela, 1839-II-8-an jaioa.

2. Pedro Jose Elizegi: «*El día 23 de Diciembre de 1840 a la una de la mañana nació y dicho día fué bautizado por mí, el infrascrito Rector de la Parroquia de la Villa de Asteasu, Pedro José, hijo legítimo de José Santiago de EliceGUI, natural de Larraul, y Jose Ramona de Maiz, natural de Soravilla: Abuelos paternos Gabriel de EliceGUI y Maria Josefa de Aguilalde, naturales de Larraul; Abuelos maternos Pedro de Maiz, natural de Arbizu en Navarra, y Teresa Antonia de Urrestarazu, natural de Ataun: Siendo padrinos el abuelo materno y la abuela materna, a quienes advertí el parentesco espiritual y demás obligaciones. Y para que conste firmé: Manuel de Usabiaga*». (Astiasuko parrokian, laugarren bataio-liburuan, 177 orrian).

3. Teresa Sabina, 1842-X-27-an jaioa.

4. Josefa Luisa, 1844-XII-19-an jaioa.

5. Maria Antonia, 1846-XII-20-an jaioa.

6. Jose Agustin, 1848-II-9-an jaioa.

7. Juan Krutz, 1851-I-27-an jaioa.

## SENIDEAK

Senideetan zarrena neska izan genduan, Joxepakiña –Josefa Joakina–, bañan umea zala il zan. Nik ez nuan ezagutu<sup>1</sup>.

Bigarrena ere neska: Joxepa Iñaxi. Au Ameriketan il zan<sup>2</sup>.

Iruigarrena, berriz, mutilla, Juan Tomas; bañan au ere oso umea zala il omen zan<sup>3</sup>.

Laugarrena ni izan nintzan<sup>4</sup>.

Bostgarrena, Miel Anton anaia, anaietan gelditu zan bakarra<sup>5</sup>.

Seigarrena, Juan Krutz. Oso mutil polita zan. Gogoan izaten det. Osaba Juan Krutzen besoetakoa zan, da aita-jaunak nai izan zuan Oiartzuna pestetara San Estebanetan eramatea. Ta etxean karroa prestatu ta an abiatu ziran aita ta amarekin. Ta, bidean zijoazela, eguzkiak pasa omen zuan. Etxera ekarri zuten, medikuak makiña bat jornada egin zion, bañan alperrik: burua ta muñak eguzkiak paseak zeuzkala. Esteetakoa ere izan zuan. Ta ala il zan. Aitak eta amak pena aundia artu zuten<sup>6</sup>.

Zazpigarrena, Maria izan zan, Napparroako Leitzera ezkondu ta orain denbora gutxi dala il dana<sup>7</sup>.

Zortzigarrena ta azkena, Dolores, neska ederra<sup>8</sup>.

Beraz, iru gazterik il, ta bost senide gelditu giñan: Joxepa Iñaxi, ni, Miel Anton, Maria ta Dolores.

Ta orain danak ere il dira, ta ni bakarra nago munduan.

1. 1862-ko maiatzaren 15-ean jaioa ta 1866-ko martxoaren 28-an illa, *garrotillo* deritzaion gaitzarekin.

2. 1864-ko ilbeltzaren 12-an jaioa.

3. 1867-ko martxoaren 7-an jaioa ta 1868-ko maiatzaren 20-an amalau illebeterekin illa, *congestión cerebral* gaitzarekin.

4. 1869-ko abuztuaren 19-an jaioa.

5. 1872-ko martxoaren 28-an jaioa ta bere jaiotetxean bertan 1936-ko otsaillaren 12-an illa.

6. 1875-eko ilbeltzaren 30-ean jaioa ta 1876-ko agorraren 2-an illa, *gastritis* gaitzarekin, eliz-paperak diotenez.

7. 1877-ko urriaren 25-ean jaioa ta 1963-ko otsaillan illa.

8. 1881-eko apirillaren 8-an jaioa ta 1901-eko agorraren 16-an ogei urterekin illa, *tuberculosis pulmonar* gaitzarekin.

(Argibide auek danak, Asteasuko eliz-liburuetatik atereak dira).

## GURE BIZIMODUA

Gure jaiotetxea Billabonako kamio ondoan dago, Astiasutik kilometro bat.

Bi etxe daude: bata aundia, baserri galanta, bere arma-arri ta guzti: Konporta; bestea txikia, errota gurea, Goi-errota<sup>1</sup>.

Biak nagusi batenak ziran: Don Luis Zabala jaunarenak. Larraulen ta Astiasun ogei ta amaika etxe bereak zituan jaun orrek.

Gure jaiotetxe ori orain ere txiki askoa da; bañan gure ume denboran are txikiagoa zan: etxe xar-xar-xar bat, ta an sukaldea ta kuarto xar pare bat.

Orain daukan atzeko bigarren puska ori, gure aizpa Dolores jaio zanean erantsia du. Gu maizterrak giñan, da nagusiak egin zuan gure etxeko obra ori. Gero, errenta pixka bat geituko zion noski gure aitari.

Lenago etzuan garia garbitzeko makiña-ta sartzeko tokirik; bañan arrezkero goien, ganbaran, jarri zuan.

Errotaren gañeko aldean botana dago. Ura ni baño lenagokoa da; bañan gero, nere ume denboran, altatu zuten.

Botanako ura gero turtokia esaten zaionetik joaten zan, ta orduan errotarria bueltaka *tlak-tlak-tlak* asten zan.

Antxe izaten ziran errotarria jasotzeko errota-agak, garia garbitzeko galbaiak, arria pikatzeko alpikuak eta

errotan ibiltzen diran gañerako erre-minta guztiak.

Alpikuak, olaxe erdian, malluak bezelaxe, zulo bat izaten dute, ta bi aldeetan aoak. Oiek sutegian zorrotzu bear izaten ziran; sutegia errietako errementeriarri esaten zaio.

Errotarri pikatu berriak askoz geiago eotzen du. Gañeko arria jaso ta azpikoa pikatu bearra izaten zan; gero, gañekoa ta azpikoa, bi errotarri ibiltzen baitziran.

Errotarria pikatzen ari zala, bertso kantari aritzen zan gure aita. Jesusen Pasioarenak ere orduan kantatzen zituan.

Ogi-arria, arta-arria baño maizago pikatu bear izaten zan. Ogi-arria garia eotzekoa zan; ta arta-arria, berriz, artoa eotzekoa.

Arta-arria, obexeago edo gaizkixea-go edo lakarra egiten ari zan edo zer ari zan, dana antzematen nion nik; errex gañera. Errotarritza ikasi nuan, bai, nik. Bañan ogi-arriari ez nion antzematen. Gure aitak bai; gure aitak begiratu utsean antzematen zion ogi-arriari ere.

Gure etxeak iñoiz kalterik izan ez bazuan ere, neguan ujolde ikaragarriak izaten ziran.

Bañan udarako legorteetan errekek ur gutxi ekartzen zuan, da errotak ura

bear, ibilliko bazan. Ta guk iriña bear, jango bagenduan.

Orregatik, botana bete ta ustu, bete ta ustu ibiltzen giñan, gau ta egun eten gabe.

Errota, botana betetzean, asten zan *tlak-tlak-tlak* egiten. Ta, ustutzen zijoan, otsean antzematen genion: *tlak — tlak — tlak*.

Olako legortetan, betetzeko ordu pare bat bear izaten zuan, da bete-aldi bakoitzean anea bat arto eotzen zuan.

Ama gelditzen zan gauean ur zai. Botana betetzen zanean, eotzen asi; ta, ustutzen zanean, berriz bete arte itxoin, garia galbaien garbituaz eta botanari kontu egiñaz.

Gau guztiko alimentua, sagar bakar bat jaten zuan, sukaldeko auts-tokian biguntzen eukita.

Goizean ordu pare batean lo egingo zuan, da jeiki ta etxeko lanetara. Siesta gutxitan egiten zuan.

Eotezagatik, anea bakoitzean sei libra, alegia iru kilo, artzen genduan. Orri esaten zitzaion «lakak kentzea». Artatik famelia azi bear.

Garai artan, anea bat arta-irin zazpi pezta izaten zan; ta, garia bazan, pezta pare bat geiago. Etzan gaurko konturik.

Baserrietakoak etxera etortzen zitzaizkan. Etorri ta iriña baldin bazeogan, lakak kendu, trukatu ta etxera eramaten zuten. Ez baldin bazegoan, berriro etorri bear izaten zuten. Bañan Andoaingo, Aiako, Billabonako, Zizurkilko ta olako panaderitara, gure aitak berak eramaten zuan.

Artarako asto bat izan genduan. Ta, Aiara ere joaten asi zanean, idia ekarri zuan.

Egun batean, gure aita kanpoan zala, Zizurkildik, erremedio gabe iriña bear zuala bat edo bat etorri zan. Gure amak eskribitzen etzekian; da alaba, nere aizpa, bialdu zuan, iriñarekin erri batetik bestera joateko bear izaten zan txartela gabe. Ta bidean mikeleteak arrapatu ta kontrabando egin zion. Zakuak, astoa ta danak kendu zizkan. Kendu ta Luzuriagan sartu zituan.

Aita etorri zanean, zer gertatu zan esan genion, da mikelete orrengana joan zan. Ola esan zion:

—Adiskidea, neri kalte aundia egiten zait oiek danak kenduta. Ixil-ixilik pasa zazu ta bost duro emango dizkizut.

Bañan mikeleteak ezetz; bere obligazioa egin bear zuala.

Garai artan, mikelete guztien printzipalena Tolosan izaten zan, Arnao zeritzan bat, eta arengana joan da ola esan zion:

—Nere emazteak ez daki eskribitzen; umeak ere ez oraindik; ta, ni kanpoan nintzala, erremedio gabe iriña bear zuan bat etorri zan, da andreak eman egin zion; da gero olako mikeletek kontrabando egin digu. Agindu diot, bañan ez dit eman nai. Zakuak, astoa ta danak kontrabando egin dizkigu, ta oso nereztako atraso txarra da, ta zenbat bear duan esan bear dit.

Ta Arnao orrek ala erantzun zion:

—Zerorri etorri zeralako, barkatu egiten dizut.

Lurrik ez genduan, atariko baratza pixka-pixka ura besterik. Ni Ondartzara ezkondu ta gero, Ondartza ondoan soro txiki bat utzi zieten.

Etxeko nagusiak Konportako men-



dia libre uzten ziguten astoarentzat. Egurra ere andik ekartzen genduan.

Gure aitak idia ekarri baño len, bei bat ere izaten genduan. Oiek ere Konportako mendi ortara bialtzen giñuzen larrera. Antxe mantentzen ziran.

Gañerakoan, txerri ta ollo batzuk izaten giñuzen.

Ta ni gazte-gazterikan Donostira neskame ekarri niñun aitak. Bañan etorri orduko anak izugarri aunditu zitzaizkidan, da medikuak ola esan zidan:

–Sekulan ere itxas-aizeak etzaitu ondo artuko, neskaxa.

Ta egia; ni ondo-ezik jartzen nintzan kosta aldera ninjoan aldi bakoitzean; ta orain, berriz, zartu ta gero, Donostian bizi naiz.

Alaxe, Astiasun bertan josten ikasi ta josten aritu nintzan ezkondu bitartean, xox batzuk etxera ekartzeagatikan.

Orra, ba, gure bizimodua zer zan. Errotarien bizitza zer izango da, ba? Ekartzen zuten gari ta arto-lakakin bizi bear gu danok. Fameli aundia giñan, da orain aña pantasi gabe azi giñan, bai!

Gure aita gizarajoak etzion bere buaruari asko barkatu. Al zuan modu guz-

tietara saiatu bearra izan zuan, gu dantontzako sortuko bazuan.

Orregatik, bertsotara joan da dirua ekartzen zuanean, pozak gu danak.

Orain urte asko ez dala, San Pedro bigarren batean, Uztapide gure etxean, Astiasun, bazkaltzen izan genduan.

Ta bazkalondoan bertsoa bota zidan, «amona, zer moduzko bizia» galdetuaz, ta nik olaxe erantzun nion:

Pobriak jaio eta  
pobriak biziya,  
iñork eztit ukatzen,  
eman nai guziya;  
nunbait izango ditut  
danak mereziya,  
zor-artzekotan kito,  
Jaunari graziya.

Ala bota nion. Ori, edozein tokitan botatzeko ere bertso ederra da. Iñork berriz toriatzen banau, orixe botako diot. Gure bizimodua, bai jaiotetxean ta bai gero ere, ola izan baita.

1. Orain urte batzuk biak ere boteak, fabrikaren bat-edo jartzeko.

## GURE IDI TXIKITO

Len aitatu detan idiak badu bere istoria.

«Txikito» ta «gure idi Txikito» esaten genion. Orrekin kaso egiten zuan.

Egun batean, aita iriña eramatetik Aiatik zetorrela, arrantxu egitera Astiasuko Panaderi esaten zitzaion tabernan sartu zan, idia ta karroa atarian utzirik.

Andik atera zanean, ordea, etzuan ez idirik eta ez karrorik arkitu; ta, etxera joana izango zalakoan, etxera etorri zan bera ere. Bañan etxean etzan idirik ageri. Orduan billa asi zan. Illundua zan.

Bazan, Txortu esaten zitzaion kamio bueltan, andik bera errekarano zijoan bide txar peligroso bat. Oraindik ere an dago ura.

Ba, antxe billatu zuan idia karroarekin; bañan bruxa batekin burua tapatuta.

Bat edo batek idia ara eraman, bruxarekin itxutu ta an utzi zuan, pixka bat mugitu ta malkarrean amilka erori zedin.

Idia eskubitara pittin bat bada ere mugitu izan balitz, etzeukan errekarano

geratzerik, eta milla puska egingo ziran idi-karroak. Bañan ezkerretara pauso bat-edo mugituta, geldi-geldi zegoan, da etzan deskalaborrik gertatu.

Bruxa zeñena zan ezagutu zuan gure aitak: erriko ezagun aundi batena. Bañan etzion iñori salatu, ta nik ere ez det esango. Bañan idiari opa izan zion bezelako errematea izan zuan berak ere. Lanean ari zala, lagunen deskuidorengatik il zan.

Gure aitak milagrotzat artu zuan idia ez amildua. Ola esaten zuan askotan:

–Nik berriz ere errosarioa esango zitzonot Ama Birjiñari, bai, bidean nijoala.

Ura beti bidean erreztatzen edo bertso kantatzen joango zan.

Egun batean, ordea, gure idi ori Aiara karga aundiarekin eraman zuan. Animaliak plumonia izaten omen dute pertsonak bezela, ta bidean izarditu ta plumoniarekin il zan. Ta larrutu egin zuan gure aitak. Pena aundiarekin gelditu zan.

Erremate ori izan zuan gure idi Txikitok. Asko maite genduan.

## «BEJONDAIALA, MUTIL!»

Kolerako denbora ez daukat nik go-goan. Aitak bai; aitak askotan kontatzen zituan orduko kontuak.

Koleraren kontra oso ona zalakoan, kolkoa babatxuriakin betea ibiltzen zuan gure aitak.

Egun batean, Astiasuko Agerre-beko parean pasa zan, iriñarekin zijoala; ta ango semea oso laguna zuan, da atarian jardun ziran alkarri esaten:

–Olako ta olako il omen dituk.

–Bai; il omen dituk, bai. Ez dakigu gure sententzia nun da noiz dagoan.

Gure aita joan zan, ta iriñak utzi ta bueltan etorri zanerako, ilda arkitu zuan atarian Agerre-beko bere lagun ori.

Urrena Tolosara perira zijoan. Len

esan dedan bezela, astoarekin iriñarekin-eta zijoala, bertso kantari edo errosarioa errezatzen ibiltzen zan beti. Orduan ere, txapela eskuan artu ta Agerre-beko lagunarentzat errosarioa esaten omen zijoan.

Ta askotan esaten zuan, Anoeta baño lenago, Legarretako parean, txapela zeraman beatzean tira bat sentitu zuala ta «Bejondaiala, mutil!» aditu zuala; buelta osoa eman ta etzuala iñor ikusi.

Ala esaten zuan:

–Nik «Bejondaiala, mutil!» aditu nin, eta nik buelta osoa eman eta ez nin iñor ikusi.

Agerre-beko semearen anima izango zan errezeloa izaten zuan.

## KARIDADEKO BENTAN

Karidadeko bentan  
gu sei bertsolari:  
Errekalde zarra ta  
Juan Jose Udarregi,  
Bernardo Zizurkilko,  
Gazteluko Gorri,  
Errenterikua da  
Xenpelar jaun ori,  
ni Astiasukoa  
Pello Errotari.

Bertso au aurrena Karidadeko bentan kantatu zuan gure aitak, an sei bertsolari juntatu ziran batean.

Urrena, berriz, Tolosara teatroan-

-edo kantatzera joanda, an inportantzi-ko gizonen batzuk esan zioten, izugarria zala sei bertsolariren izenak berea atzena zuala kantatzea, ta ea egia al zan.

Baietz gure aitak; egia zala; sei bertsolari juntatuak zirala, ta ala botea zuala.

Ta bai an ere ala kantatu arek. Orduan ala esan zioten:

-Ba, bertso orrekin premio dana irabazten dezu.

Pasadizo ori aitari aditua nuan; eta, orain denbora asko ez dala, olakorik aditzea batere pentsatzen ez nuan gizon bati aditua ere bai.

## KARLISTEN GERRATEA (1872 - 1876)

Konportako gizona zegoan orduan Astiasun alkate: Jose Antonio Ugalde. Gau batean, Konportara etorri ziran soldaduak, karlistak, esanaz:

–Olako lekutara bidea erakusteko bat edo bat bear degu.

Ango gizona *beltza* zan; da karlisten bildurrez etxeko «alanbreran», alegia tellatura igotzeko zeran, gordeta zegoan.

Ta andreak erantzun zien:

–Pello Errotak erakutsiko dizue.

–Zein da Pello Errota?

–Aldameneko errota ortako gizona.

Ala, gure etxera etorri ziran. Gu danok oiean giñan. Zer nai zuten esan ta an eraman zuten gure aita, alpreta jazteko beta gabe anka bat ankutsik zuala. Ama negarrez gelditu zan.

Bidean zijoazela, ala esan zion aietako batek:

–Ez ikaratu, Pello; ez dizugu ezer egingo.

–Zer ba?

–Olako lekutara olako ordutarako joan bear degu erremedio gabe; ordena degu eta ez dakigu bidea; ta zuk erakutsi bear diguzu.

Poza artu zuan.

–Bidea erakutsiko dizuet, bai –esan zien, ta orrela joan ziran.

☆ ☆ ☆

Beste gau batean, karlistak Lizarraga beren jeneralarekin etorri ziran. Onela esan zuten:

–Tira, Pello: Urkamendira joan da beltzak an diran edo ez diran ikusi bear dezu.

Urkamendi ori Adunako erreka aldetik dago, Aduna ta Zizurkil tartean. Izen ori omen du, antziñako gerrate zar batean jendea antxe urkatu ta ito egiten zutelako.

Ezetz esaterik ez, eta agindu bezela joan zan gure aita.

Gure etxetik ez da mendi ori ikusten; bañan aldameneko etxetik, Konportatik, ederki ikusten da. Andik begira jarri giñan gu danok. Gure ama negarrez; ta gu, berriz, umeak.

Errotariak irin kutsua beti izaten du, ta gure aita txuri-txuri egiña zijoan, ta gogoratu ez ala zijoanik. Ta gauean oso agiri zijoan.

Gain artara iritxi zanean, liberalak antxe izkutuan jarrita egokitu, ta bat-batean alkar topo egin zuten. *Dik-dak* tiroka asi zitzaizkan.

Aidean itzuli abiatu zan, ta liberalak *dik-dak* atzetik.

Luzuriagako karobia saltoan pasa zuan, ta gero bere burua amilka bota zuan aldapan bera.

Bitartean, gu ori dana ikusten Konportako leiotik. Ta alako batean bistatik galdu zitzaigun. Orduan etsi zuan gure amak gure aita bizirik ikustea. Ta Lizarraga ori an bertan zegoan ta onela esan zuan:

–Gure paixanua il izain da.

Gure ama zanari etzitzaion Lizarragaren esana aztutzen. Onela esaten zuan:

–Ori esan bear al zuan, ba, nere aurrean, patxara guztiarekin?

Lizarraga ori etzan emengo umea; Oiartzun aldekoa edo naparra izango zan.

Ta alako batean an agertu zitzaigun gure aita, gizarajoa. Ainbeste tiro aldamenetik bota izanagatik, balak etzuten ikutu ere; bañan elastikoaren puntak zuloz beteta zituan.

☆ ☆ ☆

Gero, karlistak aldegin ta liberalak Urkamenditik jetxi ta etorri ziran.

Konportan sartu ta eraman zitezken gauza guztiak artu ta eraman zituzten. Aiek ere aldegin zutenean, onela zionango etxeoandreak, Xalbadorak:

–Ene! Bataioko txapela ere ostu digute. Andrea aurdun duan bat edo batek eramango zuan ori.

Etziran gure etxera etorri. Etxe txiki artan etzala ezer izango pentsatuko zuten.

Gerrate artan errespeto gutxi zegoan. Baserrietatik txekorrak artu ta eramaten zituzten. Emakumeak kutxen barrenean izkutatzen ziran, soldaduen bildurrez.

☆ ☆ ☆

Soldaduak olloak il da jaten zituztela-ta, gure etxean zer egiten zuten? Orain ez dira ikusten, bañan garai artan baziran *kuela* izeneko ontzi aundi batzuk; zurezkoak ziran da gaña irikia zuten. Antigualeko amonak zapi zuriak egosteko ziran.

Ba, etxeko olloak kuelan sartu, gaña tapatu ta errota-pera eramaten zuten. Ura an burrundan, zorrotan, joaten da, ta aren azpian jartzen zuten kuela.

Tanta batzuk sartuko ziran, bañan gutxi.

Zeni gogoratuko zitzaion an olloak zeudenik? Ala, gerra-denbora guztian ollo gutxi paltatu zan gure etxetik.

Zituzten arropa pixkak gordetzeko, berriz, orduan baulik etzan izaten, da antigualeko kofre aundi batean arropa danak sartu ta Tximelaeneko baratzara eramaten zuten.

An zulo bat egin, kofrea zuloan sartu, lurra gañetik bota, ta gero txorko-txakin tapatzen zuten. Txorkotxa artoaren zuztarra da.

Noizean bein, gauean, aita kofrea ta arropak an segitzen ote zuten ikustera joaten zan.

Amak onela galdetzen zion gero:

–An al daude?

–Bai; ikusi ditut. Ez da ezer paltatu. Txorkotxakin tapa-tapa eginda utzi ditut.



Nik sei bat urte izango nituan orduan, eta gogoan izaten det nola egon nintzan egun batean Konportan, mapillaren azpian, taloak egiteko kajaren azpian alegia, *beltzak* Eizmendiko Manuela Antonirekin erderaz itzegiten zuten bitartean. Besteekin etziran entenditzen, da arekin bakarrik. Gu artean *si* ta *no* ere ikasi gabeak izango giñan. Gure aitak erdera pixka bat bazekian; bañan amak batere ez.

Gure atariko intxaur ondoan soldaduak sua eginda, batere zuritu gabe ta batere oliorik bota gabe, patatak lata batzuetan zerrientzako bezela egosi ta jaten zituzten. Ez dakit karlistak edo *beltzak* ziran.

Gu, ume koxkorak ere, an ibiltzen giñan, da guri ere ematen ziguten, da aiek bezela jaten giñuzen.



Ameriketara il zan aizpa, egun batean bazijoan errotatik Konportara, ta Pete sagastian zeuden bi soldaduk ola esan zioten alkarri:

–Bi mototxakin dijoan arako nexka ari baietz apuntatu!

–Ezetz!

Ta *dik-dak*, bi tiro bota zizkaten, bañan etzioten apuntatu. Gero jakin genduan guk ori, soldaduak berak kontatuta.

Ura ere bizimodua zan!



Tiroka ere aritu ziran, batzuk Larraul aldetik eta besteak gure etxe ondotik. Bitartean, gu gordeta bazterren batean.

Gero, bide zarra ta ango bazter guztiak kartutxo utsez beteak gelditu ziran. Kartutxo-azal oien truke diru pixka bat ematen zuten, da gu danok aiek biltzen ibilli giñan.

Beteak ere arkitu zituan gure amak; eta, utsak baño obeak ziralakoan, eraman zituan. Bañan etzizkaten artu; baliotz etzutelako boteak zirala esan zioten.



Santa Krutz apaiza ere ezagutu nuan. Apaiz beltz-beltz bat zan.

Santa Krutz eta Lizarraga etziran ondo konpontzen; eta Santa Krutzen mutil bat, Antxuxe, Oiartzungo semea, orregatik afusillatu zuten. Antxuxe ori kapitana omen zan, oso mutil fiña. Il zutenean, arek bi itz bakarrik esan omen zituan:

–Motellek, ni fiña naizelako niak iltzera. Izan fiñak aurrera ere. Nik ez daukat penik fiña izana.

Ta *dik-dak* bota ta il zuten.

Ta aren lagunai bi buelta gorputzaren jiran eman arazi zizkieten, ari negar egiten ziotenak ainbesteko paraderoa izango zutela esanaz. Orduan ere kome-riak ziran!

Karlistetan ibillia zan da ori dana osaba Juan Krutzek kontatzen zigun. Ura karlista enteroa zan.

## ZAKUR AMORRATUEN KONTUAK (1876)

Zakur amorratuen kontuak badakizkit nik iñork bezin ondo.

Nik ama Zizurkilko Galardikoa nuan, eta an bizi zuan anaia ezkondata. Anai arek iru seme ta alaba ura bakarra zuan, dozen erdiren bat urteko nexka. Anttoni zuan izena.

Ta San Juan egunean, auzora jostatzera umea zijoala, gari tartetik zakur zuri aundi bat atera omen zitzaion, da bota, aoz gora jarri ta usai-usai egin omen zion muturrean; baita ere arramaska batzuk egin ankakin masallean. Ez egon nunbait zakurra amorratu-aldian, da eldu gabe utzi zuan.

Etxera joan zanean, ala esan omen zuan nexkak:

–Izugarrizko zakurra atera zait, eta lurrera bota nau, ta ara nolako arramaskak egin dizkidan.

Bañan ez omen zioten umeari kasorik egin.

Andik laugarrena edo bostgarrena, San Pedro, Astiasuko pestak; eta astoaren gañean aitarekin ta amarekin etorri ta gure etxean bazkaltzen izan zan.

Konta arazi zioten orduan ere:

–Zakur aundia al zan, Anttoni?

–Bai; aundia zan; zuri-zuria gañera. Ikaratu niñun. Negarra egiten nuan, bañan bota niñun da...

–Eta nola etziñan, ba, gero etxera joan?

–Ez; Zubiaurretxo alderago neukan da ara joan nintzan.

Ta, andikan berrogei egunera, berrogei-aldia bete zitzaion. Jesus! Ura edaten asi ta an zakurra ikusten zuala. Ta begiratu bat... Arrapatzen zituan guztiak ere ozka asi omen zitzaien.

Orduan jakin omen zuten zakur amorratua zala ura.

Salutadorea ekarri zuten. Albizturkoa zan, gizon txiki-txiki bat, gure aitaren tamañakoa, bruxa urdin motx batekin ibiltzen zana. Gogoan daukat nolakoa zan.

Arritzeko gauza da, bañan egi aundia ala ere: zazpi seme segiduan baldin badira, zazpigarrena salutadorea da; zakur amorratuen kontrako birtutea arek du. Gero, ura estudiatzera bialdu bear omen da. Ta batzuek mingain azpian da beste batzuek gañean, gurutzea izaten dute. Arek gañean zuan.

Salutadoreak umea ola, bazter guztiak puskatzen, ikusi zuanean, esan omen zien:

–Olioia ekatzute.

Ta olioia irakiten jarri, bere orazioak egin, da irakiten *gal-gal-gal* zegoan olioia bere mingañera bota omen zuan



arek. Eta gero umeari arramaska guziak sendatu edo igurtzi zizkan mingañarekin.

Ta ori egin da ola esan zien:

–Ume onek gaiztorako danak kenduta dauzka. Onek ez du jango, ez du edango, ez du lorik egingo. Olaxe-olaxe ilko da. Gaiztorakoak kendu dizkat, bañan arnasa pasea dauka.

Ta arek esan bezela gertatu zan. Gaiztorakorik ez, miñik ere ez, ta kantari egoten zan:

Ardoa eranda mozkortzen naiz,  
pipa artuta txoratzen naiz,  
kortejatzia lotsatzen naiz,  
nola demontre biziko naiz?

Kanta ori aditzen nion nik beti.

Bañan orduan medikua ekartzea pentsatu zuten gurasoak. Bi mediku etorri ziran; ta, salutadorearen aunditasuna ezin eramanik, alegia gaiztorakoak arek kendutzea, arek ainbeste birtute izatea, zer egin dute?

Nere ama bialdu omen zuten Billa-bonara, errezeta egin da botikaren eske, da esan omen zuten kutzare aundi bat emateko andik. Nere ama ango alaba, ta lanak egiten laguntzera joaten zan. Gure aita ere joaten zan, bañan gutxiago noski.

Ta botikarioak ala esan omen zion gure amari:

–Andrea, botika ori kontuz ibilli zazu gero.

Ura esan zionean, andik irten da Billa-bonako zubian ibaira begira jarrita, pentsatzen egon omen zan:

–Nik botika au orrera botako al det?

Bai; bañan gero zer egin diodan galde-tuko didate ta etxera eraman bearko det.

Etxera joan da anaia topatu zuan:

–Aizak: au ta au ta au esan zidatek, eta bota edo ez bota duda-dudan egon nauk. Au gauza peligrosoa izango dek.

–Bueno, kutzare aundia bete emateko esan ziguten, da txikia bete emango zionagu.

Ta ala, txikia bete emanda, Jesus!, dana auditu ta deadarrez martiri egon zan neska gizarajoa, ezin illik. Aundia eman izan baliote, ilda geldituko zan.

Gero gure osaba, alkate ez bañan errejidorea izango zan da, bereala medikuak aiek kastigatzeko asi zan; medikuak etzeukala ordenik –enteratu ziran aiek ondo– benenorik pertsonari emateko. Gure osabak esaten zuan etzala kontu ura ola geratuko, bañan medikuak tapatu zuten dana nolabait ere. Betikoa: pobrearen arrazoia, utsa.

Ta nexka gaixoa il zan<sup>1</sup>. Orduan nexka ura bakarra zuten, nexka polita; gerokoa zuten, orain Zizurkilko Iturralden il dana, Balentina.

☆ ☆ ☆

Neronek ere eskapada ederra egin nuan beste batean.

San Pedro bigarrena zan, da pestara ginjoazen. Zakur bat etzanda zegoan sagar baten azpian, da mutil koxkorak, gure anaia Miel Anton-da, Konportakoa-ta, arrika ekin zioten.

Gu neskak atzetik, eta «Utziozute zakurrari» esan genien. Bañan zakurra jeiki ta guregana asi zan. Guk korri egin

genduan; bañan, *dak!*, gona arrapatu zidan, da puskatu. Korrika aldegin, da Astiasuko kaletikan bide zarrean dagoan etxe zar artan sartu giñan.

–Ni orain onekin nola joango naun pestara? –esan nuan; da etxera joan da amaren gona jantzita joan nintzan. Oraingo neska gazteak joango lirake!

Ta Astiasun, eliza igoeran, ezkerretara, Santa Krutz deitzen zaion ermita txiki bat dago. Mutil koxkor bat, Illobate baserrikoa, ermita artan zegoan itzalean jostatzen. Ta barrena sartu ta zakurrak eldu egin zion.

Andik atera ta sagardotegia zegoan Muñoko aldean, da an meriendatzen ari omen ziran billabonatar batzuk, eta ara sartu zan zakurra. Billabonatar batek zakurra ikusi ta jana bota zion; da zakurrak, *dak!*, eskutik eldu zion.

Gero bereala zabaldu zan ura zakur amorratua zala. Egiñak euki arek toki geiagotan aberiak.

Ta ala esan omen zuten:

–O! Emengo salutareenak txoro-kontuak dituk. Parisen jartzen omen dizkitek auek ondo.

Ta ala, billabonatar ura ta Illobateko mutil koxkor ura Parisa eraman zituzten. Ekarrri zituzten gero andik, oso ondo jarri zirala esanaz. Bañan, egun batean, mutil koxkor ura, aitarekin itzalean zebillela, an ziran arri koxkorrak jaten asi zan. Berrogei-aldia bete nunbait. Ikaratu ziran orduantxe!

Gero kuarto txiki batean eukitzen zuten, ez jan da ez lo. Neronek ikusia da ura. Leioak denbora bateko burni lodi-lodi batzuk zituan, ta aiek eldu ta... Jesus! Ura erioa! Gure lengusu Anttoni beñepein, Parisa eraman ez bazuten ere, kantari egoten zan, batere miñik

etzuala, salutareak gaiztorakoak kenduta. Bañan ura, paretai puskak kentzen da zakurrak bezela zaunka egiten, dana amorratua. San Bartolome egunean il zan mutil koxkor ura.

Orain badira salutareena sinisten ez dutenak; bañan nere aurreko aldean jarriko balira, aditu bearko luteke. Oiek danak nere denboran paseak dira.

☆ ☆ ☆

Ameriketari il zan aizpak ere eskapada ederra egin zuan, nik bezelaxe.

Oiartzungo osaba ere gure etxean zan egun batean gertatu zan.

Txakur txiki-txiki bat, aparra zeriolara, goitik bera ateondora etorri zan. Gure amak ikusi ta atea itxi zuan. Bañan neska etxetik falta zuala konturatu zanean, karraxika asi zan:

–Orra, ba: guk alaba kanpoan degu!

Gure aita ta Juan Krutz osaba errotarria jasotzen ari ziran; da, amaren ojuak aditu zituztenean, kanpora atera ziran, aga bana bizkarrean artuta.

Nexka billatu zuten da:

–Umea, ez al den or txakurrik-edo ikusi?

–Bai; putzuan ura edan da edan antxe ari zan, ni pasa naizenean.

Ez ikusi zakurrak umea.

Orduan zakur amorratuen soñu aundia izaten zan.

1. Juana Antonia Bengoetxea Barriola, Juan Tomas eta Juana Josefaren alaba, 1876-ko abuztuaren 4-ean il zan, lau urte ta amaika illebeterekin, «*a resultas de haberle mordido un perro*». (Zizurkilko elizako bigarren eriotz liburuan, 148 orrian).

# ELIZONDORA

## (1879)

Elizondora bertsozara joateko abisatu zioten. Jose Bernardo Otaño ta biak ziran. Santa Ana egunarekin joan ziran<sup>1</sup>.

Garai artan Billabonan etzan estaziorik izango, ta Andoainñen artu zuten trena.

Izugarri ondo tratatu omen zuten; da, ango buelta eginda, kankak inprentatu ta bialdu zizkien.

Ni orduan txikia nintzan, da aizpak eskribituak izango ziran oiek danak.

Asi ezkerro, danak esaten nituan; bañan orain aztu xamartu zaizkit. Bañan osorik edo puska falta dutela, gogoan ditudanak esango ditut:

Santa Ana egunian  
jun giñan emendik,  
amarretako trenan  
martxa Andoaindik;  
gero Elizondora  
kotxian Irundik,  
ardit bat bakarrikan  
eman gabetandik.  
Alako gizonik  
iñun bizi zanik  
ez nuben uste nik;  
ain prestu ta onik  
guretzat ez da izan  
iñun oraindik.

Lekarozko seme bat,  
bera Martin Plaza,  
zierto badakit nik  
eztala eskasa.

Pruebetan eman nion  
formalaren traza,  
aren bitartez gera  
Elizondora pasa.

Izan degu gauza  
izugarri lasa;  
ark daukan frankeza  
neurtzen ezta erreza;  
berriz ere nai badu  
abisa beza.

Plazan, geunden bezela,  
gu erretratatu;  
dirurik ez artu,  
gañera kontentu,  
grazi partikularra  
orrek berak-tu.

Beste juzkalari bat  
zan sazerdotia,  
gure iritzirako  
korrientia;  
gorputza ere zuban  
oso dezentia,  
buruko talentuba  
supizientia.  
Eman du kortia  
nork daukan artia;

ark borondatia  
guri ematia;  
ala izan zan gure  
errematia.

Don Santiago Almandoz  
bazan juzkalari,  
erreparatutzeko  
gure lanari:  
bertsolariak nola  
ote giñan ari;  
ark kanpotarrari  
mesede ugari  
egin digu guri;  
berdin merezi du ta  
ondo izan bedi.

Larogaina duro fuerte  
eman dizkigute,  
aitortu gentzake  
bizi geran arte,  
justizia onraduak  
ondo bizi bite.

«Fuente Hermosa» zeritzan  
iturri batera,  
ez giñaden juanak  
ura edatera.

Plazan bi bertsolariak erretratatu zituzten. Bertsoetan esaten du. Gurea, silla atzekoz aurrera artuta erretratatu zuten.

Gure aitak ala esan zigun:

–Zapatak ekarri bear dizkidazute.

–Zer ba? Apaindu bear al dezu?  
–gure amak.

–Bai. Jose Bernardo ikusten dezute nolako ederki dagoan; da ni, berriz, alpargatakin. Berriz erretratatzea egokitzten bada ere, zapatak nai ditut.

Ala, zapatak ekarri zizkion gure

amak, garai artan besterik etzan da zapata beltzak; bañan, nere goraintzian beintzat, etzan geiago erretratatu.

Nik gaztetan euki nituan zapatarik onenak, festetarako zapata zuriak, ama-lau errial kostatu ziran; da gure aitaren oiek ere etziran askoz geiago izango.

Gure aita beti alpargatakin ibiltzen zan. Eguraldi txarra bazan, bazituan botak; bañan ez ola apaintzeko orain bezelako apañak.

Orduan dana alpargata zan. Komunioa ez bazan, gañontzean alpargatakin ibiltzen zan jende gutzia.

Emakumeak alpargata grisak, gañean lore gorriarekin edo txuriarekin edo urdiñarekin, ibiltzen zituzten. Alpargaterira joan da «ea zein nai dezun» galdetzen zuten; da «nik lore au nai det», eta lore ura aiek berak bordatzen zuten. Orain baño alpargata dotorea-goak ziran orduan.

Gizonezkoak, berriz, ondo bear bazuten, alpargata txuriak ibiltzen zituzten. Geró ere, nere gizona, apustua jokatzerara alpargata txuriakin joaten zan.

Gure aitak etzuan abarkarik ibiltzen. Jose Bernardo Errekaldeko orrek bai; bañan Donostirako. Ala esaten zuan gure aitak:

–Bai; orrek bazekik nun nola apaindu. Donostira traje ederrarekin bai, bañan abarkakin, azpantar txuriakin eta ia belaunetaraño bueltaka-bueltaka lotutako sokakin joango dek, *como casero*. Bañan Amezketara, an danak abarkakin ibiltzen dituk eta zapatakin joaten dek. Orri *distinto* gustatzen zaio; *distinto*.

Gure aita bertso kantatzera txamarrarekin –txaketarekin– joaten zan; bañan gañontzean bruxarekin ibiltzen zan.

Jose Bernardo orri, berriz, nik ez nion iñon bruxarik ikusi; beti txamarra.

1. Elizondon euskal festak 1879-ko uztaillaren 25, 26, 27 eta 28'an izan ziran. Erriko festetan, beraz, Santiagotan.

Aurretik onela gaztigatu zan bertsolari-saioa: «Elcargok emanen du 80 pezetaco saria Biltzar batec berehico duen gaiaren gañean cantuz bertso oberenac egiten dituzten bi bertsolarieri». «Elizondoco Bestac», Pamplona, 1 de Mayo de 1879, (Programa), «Revista Euskara», año 2, Pamplona, 1879, 151 orrialdean.

Oso festa ederrak izan ziran: euskal idazleentzat sariak, pelota partiduak, euskal dantzak... Jendea erruz. Iparragirre ere an zan.

Jose Bernardo ta Pello Errota aritu ziran bertsoetan. Aien lana onela juzkatua izan zan:

*«A las tres de la tarde se celebró, en la plaza pública, el certamen de versolaris o improvisadores, tomando parte en él José Bernardo Otaño y Pedro José Elicegui, de Cizurquil y Asteasu, en Guipúzcoa, respectivamente, a los cuales se adjudicó por mitad el premio de 80 pesetas, entregándoles además una cantidad de consideración que reunieron algunos aficionados.»*

*Otaño y Elicegui improvisaron durante horas, con una rapidez, una oportunidad y una perfección notabilísimas, en diferentes metros, siendo este espec-*

*táculo, tan genuinamente euskaro, el que más agradó al público y más sorprendió a los que hasta entonces no lo habían presenciado, pues es verdaderamente admirable el ver a unos hombres sin instrucción alguna literaria, rudos y dedicados a oficios mecánicos, versificar correctamente y emitir conceptos poéticos, satíricos o profundamente filosóficos con la misma o mayor facilidad con que en otros países se habla en la prosa más vulgar. Otaño y Elicegui no son una rara excepción en la Euskalherria, donde se encuentran innumerables improvisadores en aldeas, caseríos y montañas; pero su facilidad es asombrosa y así lo comprendió la inmensa muchedumbre que les escuchaba, prodigándoles entusiastas aplausos y aclamaciones».*

*Las fiestas de la Asociación Euskara en Elizondo», «Revista Euskara», Año II, Pamplona, 1879, pág. 232.*

*Los versolaris guipuzcoanos Pedro Elicegui (a) Asteasuco-errotaria y Bernardo Otaño, de Cizurquil, que concurrieron a las fiestas de Elizondo, han hecho verdadero furor en aquel valle, donde va desapareciendo la raza de los improvisadores en lengua vascongada. Así es que, no solo alcanzó el premio de las 80 pesetas, anunciado por la Asociación euskara, sino que se les hizo cantar en el Casino, en la plaza y en buen número de casas particulares, obteniendo en todas partes grandes aplausos. Los versolaris han regresado a sus casas justamente orgullosos de su triunfo. (Donostiko El Urumea egunkaria, 1879-VIII-3).*

## PARTE GAIZTOKOAK

Sorgiñak larri ibilli zuten gure aita. Bazirala esaten zuan arek, bañan diranik ez dala esan bear.

Batean bertsotara omen zijoan norabait, Andoaña edo orrera; ta orduan orain aña modu ez ta oñez zijoan.

Bide bazterrean atso bat omen zegoan, atso erdi mozkor olakoren bat, eta lagunak esan zioten:

–Pello, bertsoa botaiok orri.

Ta ari gustatzen etzizaion bertsoren bat bota zion, ta Jesus! Sekulako maldezioak atso arek esan omen zizkan: akordatuko zala ta akordatuko zala.

Ta askotan esaten zuan, bazekiala seguru –edan etzuan arek egin da– bueltan gauean nola zetorren, ta noraño etorri zan ere bai; ta urrena bere burua bi anak belaunetaraño ulean ibaian zitualea ezagutu zuan.

Andik zalapartaka atera ta aurreneko baserriaren ateak jo zituan.

–Zein da? –galdetu zioten.

–Pello Errota.

–Zer zabilta garai ontan?

–Nun nagoan ere ez dakit, ba.

–Adunako Aizpiran zaude.

–Adunako Aizpiran? Ez dala sorgiñik, bañan badituk galantak! Gaur atso batek berebiziko maldezioak tira zizkidak, eta nere burua bi anak putzuan nituala ezagutu det.

☆ ☆ ☆

Beste batean, gure etxetik gora astoaren gañean zijoala, sorgiñak sentitu omen zituan. Ango krikkitiñak eta irrintziak eta txaloak eta burlak!

Astoari gurutzeta sokarekin aurreko besoen artean egiten zaio, ta orregatik –esaera zarra dan bezela– astoarengana ez da sorgiñik arrimatzen.

Gure aitari ere, ainbeste sorgin soñu eginda ere, etzioten ezer egiten, astoaren gañean zijoalako.

Ta, sorgiñak bere ondotik uxatzeagatik, «Aita Santua gizona al zan?» otsegin omen zien. Ta ori esan ta danak aldegin omen zioten, da ez txintik aditu ta ez kinkik geiago ikusi etzuala askotan esaten zuan.

Astiasuko kaletik gure etxera bitartean gertatu zitzaion ori, gure etxera baño goragoko bueltan, Urtzoko esaten dioten ortan.

☆ ☆ ☆

Urrengo pasadizo au geroago gertatu da. Ni Ondartzan nintzan aspalditik. Ez dakit gure aita ordurako illa ez ote zan ere.

Gure inguruko gizon bat gaixo zegoan, ta Don Lorentzo, Astiasuko erre-

tore zana, ari lagun egitera joan da etxera berandu omen zetorren. Guardasola ere eskuan zuala esaten zuan.

Ta, bidean zetorrela, sorgin bat iru bider atera omen zitzaion: lenengo aldiz, gure etxea –Ondartza– baño goragoko Mandaska-zuloan, Urkizarko ollo-etxeko parean; urrena, Aitzeko arrobiaren ondoan; ta irugarrena, Arbiden, Astiasuko sarrerako bueltan.

Aurrean jarri ta egon egiten omen zitzaion. Apaiza martxa aundian asten zan, sorgiña pasako ote zuan; bañan ura beti aurrean. Izututa eldu zan etxera.

Beste apaizak ala esaten omen zioten biaramonean:

–Guk aditu izan degu, ebanjelioak dituan liburua idiki ezkeru, sorgiñak alde egiten dutela. Zergatik etzenduan idiki, ba?

–Ara, ba: liburua baneukan, bañan ezta gogoratu ere.

Meza liburua meza ondoan aldarean zabalik utzi ezkeru, elizan sorgiñik bada, ezin aterarik gelditzen dala esaten da, ta ala egin zuten urrengo igandean.

Ta bigarrengo mezan, zortziretakoan alegia, erriko atso zar bat elizatik ezin aterarik gelditu zan. Orduan jakin zan atso ura sorgin biurtu zala, ta Don Lorentzori bidera atera zitzaiona ere bera zala.

Arrezkeru, Don Lorentzo gaixorik egon zan pranko denboran. Lorik egiten etzuala ere, ez dakit zenbat denbora pasa zuan. Azkenean, medikuak jaioterri bialdu zuan, bolara bat an pasa zezan.

Gure sukaldean kontatzen zuan gero bere gertaera ori, ta guk esaten genion:

–Esaera zarra da, ba, Don Lorentzo,

sorgiñik ez danik ez dala esan bear, bañan danik ere ez.

Ta Don Lorentzok esaten zuan:

–Ni larri ibilli nitxeuen, ba!

☆ ☆ ☆

Mateo Txisturena ere esaten zuan gure ama dipuntak.

Aita palta omen zan; ta, etzala agiri ta, omen zegoan leio-zulotik begira, ta alako txistu ikaragarri bat aditu omen zuan; ta gero txakur txiki bat, «yeu! yeu!» egiñez, goitik bera zetorrela; ta aren atzetik beste zakur ikaragarri aundi bat, «uaau! uaau!» egiñez.

Illargi argi-argia zegoan; ta urrena eiztaria bere eskopetarekin, *yixt!*, pasa omen zan.

Aita kanpoan, da oso estu gelditu zan gure ama.

Andik pixka batera sartu zan gure aita, ta ala esan zion:

–Au ikara pasa det, Pello!

–Zer ba?

–Ez al dezu ezer ikusi?

–Ez nik; txistu izugarri batzuk aditu ditut, bañan ez det ezer ere ikusi. Txakur txikiaren zaunka ta zakur aundiaren zaunka ere sentitu ditut. Oien atzetik eiztaria ibiltzen dala esaten dute, ta Mateo Txistu izango zan.

–Bai; atzetikan pasa da eiztaria ere.

Gero, bereala zabaldu omen zan Mateo Txistu pasa zala.

Aren istoria esaten dute: meza ematen ari zala, zakurrak erbia zutela ta meza utzita erbiarengana joan zan; ta sententzia eman ziotela, guk aditu izan

genduan, beti orrela ibilli bearra, mundua mundu dan arte.

Aize ikaragarria ekartzen omen du bera bertara baño lenago, arbolak eta etxeak botatzeko modukoa.

Eskopeta ola tente-tente jarrita eramaten omen du.

Bi zakur ibiltzen ditu beti: bat txikia ta bestea ikaragarri aundia.

Orain, konparazio batera, «*yau!*

» emen, eta urrena «*yau! yau!*» urruti. Ura, *yiiii!*, joaten omen da.

Amerikan ere ibiltzen dala esaten dute. Aguro joango da ura, bai! Mundu guztia korrituko du.

Makiña bat olako aditzen zan garai batean. Orain gutxi aditzen da. Parte gaiztokoak indar geiago izango zuten orduan.



## KONPORTAKO MORROIA

Gure errotako botanaren eskiña guztian muxikak ziran; ta gu, ume danak, aiek jatera joaten giñan. Egun batean, ordea, gure aitak danak ipurditik moztu zizkigun.

Alako muxika ederrak ziran da gu negarrez egon giñan. Aitari esaten genion:

–Zergatik moztu ditu?

Ta arek, umeai beti kasorik egin nai izatea alperrik zala, ta bat edo bat putzura erori ta ito egingo zala, ta orregatik moztu zituala.

Ta eskiña guztian ar-losa zan, da egun batean Konportako morroia –Alejandro zuan izena–, ar-losa artan exeri ta ankak garbitzen ari zala, putzura erori zan.

Ni antsi soñua aditzen asi nintzan, da ala esan nion amari:

–Or izugarrizko antsi soñua aditzen da, ama.

Astelena zan da ala erantzun zidan amak:

–Bai; Konportan sagardoa saltzen

asi ditun, da atzo sagardotegian sartutako mozkorren bat izango den.

–Ez; antsi tristeak dira.

Ta botanara joan da txapela baka-rik ageri zan.

Gure aita oiean zan; bañan ura aditu zuanean, oietik saltatu ta korrika joan zan. Ta zer egin zuan? Asta soka gerrian lotu zuan, da gero ola esan zigun:

–Orain prime eutsi oni!

Ta putzura saltatu zan. Gure aita txikia zan; da ura, berriz, mutil aundia; erioan zan gañera, ta gure aitari eldu ta larri ibilli zuan. Jendeak sokari tira ez balio, aita galdu egingo zuan.

Atera zutenean, zerbait ere esaten zuan; bañan urez betetzen asia zan; da, gure aitak atera ez balu, etzan luzaro biziko. Arek etsi zuan, bai.

Gero, ondorenean, «zuen asto orri orrera gabe kontu egion» esaten bazidan, nik ola erantzuten nion:

–Nik piztutakoa aiz gero!

Ni akordatu bainintzan; da ori esanda lotsa egiten nion.

## SAN MIGEL

Bazan errian indiano zar bat, eta arek gure aitari esan zion, ea San Migela lagun egin naiko zion.

Gure aitak baietz; etzala bein ere izan, bañan sumatuko zuala.

San Migel bezperari<sup>1</sup> «asolbiziyo eguna» esaten zitzaion. Guk beti ala aditu genduan Leitzen gero ere: «Asolbiziyo gaur da». Inñun asolbitzen etziran pekatu guztiak, egun ortan an barkatzen ziran. Ta an izaten ziran indiano zar guztiak.

Astiasuko indiano zar gizarajo arek ere eukiko zuan nunbait mordoxkaren bat, eta gure aita lagun artuta joan zan.

Nere gizonari gero aditu izan nion, gaztetan Naparroako mendi oietan zerran aritua zala; ta egunez, emen zakurrak bezela, an otsoak ibiltzen zirala espazio-espazio. «Ara: or otsoa ziak» alkarri esaten aritzen omen ziran.

San Migel induljentziz betea omen zegoan. Bañan grazirik aundiena Goñiko zaldunaren kate ura bera ikusteak eman omen zion gure aitari; lodi-lodia zala esaten zuan, eta etzeukala gizarajoak arrastaka bereala urraturik.

An zulo bat oso itxusia omen dago; begiratzeak ere ikara ematen duana. Ango batek ala esan omen zion:

–Emen orain leioa dago; bañan esaera zarra da, eskola-maixua bere

umeakin zulo ontara sartu ta geiago etzala ikusi.

Irensugea andik ateratzen omen zan.

Gure aitak kontatu zuan, izan zala gizon bat Goñiko zalduna esaten ziotena, ta soldadu joan omen zan; ta, soldaduskatik etorri zanean, bidera norbait atera ta ala esan ziola:

–Famelia ikusteko pozean baator i ere! Ez abil alperrik! Ire andrea ordu ontan ere olako beste gizon batekin oiean ziok.

Sartu omen zan etxean; da aita ta ama, bere gurasoak, bera joan zan ezker, aren oiean lo egiten omen zuten; ta, an bere emaztea beste batekin zegoalakoan, *ras!*, biak ezpatarekin il omen zituan.

Andik atera zanean, andrea buru-sullarekin iturritik zetorrela topatu zuan.

–O! Nun ziñan?

–Uretan.

–Orduan izugarria egin det! Au ta au ta au pasa da.

Gero konpesatu omen zan; da sententzia eman omen zioten, kate ura urratu arte mundurik mundu eskean ibiltzekoa, ta ala omen zebillen.

Ta San Migeleko ortan irensugea omen zan. Arek noizean bein pertsona bat bear izaten omen zuan. Orduko jen-

dea oso atrasatua zan, pizti ura etzan xamurra egongo, ta usarioa ala omen zan.

Egun batean, Goñiko zaldun gizara-jo orrek neskatxa bat negarrez topatu zuan bidean, eta ala esan zion:

–Zer dezu, neskatxa?

–Jauna, nere sententzia atera da ta irensugearen atzaparretan il bearko det.

–Ni munduaz aspertua nago; ni jarri-ko naiz zure ordez.

Ala, bera jarri zan; eta, irensugea zulotik atera ta estutu zuanean, Aita San Migeli eskuak goratu ta ala eskatu zion:

–Aita San Migel, anpara nazazu!

Ta Aita San Migel azaldu; ta aurre-na irensugeari lepoa kendu, urrena ber-rari katea moztu, ta barkatuta utzi zuan.

Gero, urrengo egunean, ingurumari guztian ezkillu danak bere gisa jotzen asi ziran. Zer pasatzen ote zan danak galdezka, ta iñork etzekian ezer. Bañan Goñiko zaldunaren andreak ala esan omen zuan:

–Gure etxean bart gaueko ostatu es-kean aiton bat bazan, da gure neskak etzuten nai ematea; ta nik, berriz, esan nien «gurea ere or nunbait ibilliko den», eta auntzaren ondoan jarri genduan.

Ura esan zuanean, joan omen ziran; da aiton ura ilda omen zegoan, da es-kuan paper bat omen zeukan.

Danak tiratu omen zioten, bañan iñork etzion papera kentzen, da an-dreak kendu omen zion; da paper artan esaten omen zuan Goñiko zalduna zala ta San Migelek nola barkatu zion.

Gau artan bertan bere etxera joan ura, ta etxeakoak ez ezagutu.

Istori oiek danak gure aitak andik etorri ta esplikatu zizkigun. Ni artean amar-dozenaren bat urteko neska kox-korra nintzan.

Oso pozik egin zuan gure aitak San Migeleko buelta ori: paraje ura ezagu-tu, jan da edan ondo egin...

Ba omen ziran geiago ere indiano zar galantak. Ala esaten zuan gure ai-tak:

–Baitunan deskarga ederrak egin zi-tuztenak an, bai!<sup>2</sup>

1. San Migel bezperan ez, baiña abuztuaren az-ken igandean izaten da.

2. Asolbizio eguna zer zan obeto jabetu gait-ezen, on izango da 1980'ko azaroaren 14'ean, Iruñeko *Diario de Navarra* egunkarian eta «Asolbizio» izen-buruarekin agertu zan idazlanaren zati bat onera aldatzea. Artxueta'ko Unaia-k izenpetzen du; aspal-ditik San Migeleko kapillaua dan Inozentzio Aierbe apaiz jauna alegia. Onela dio:

«Aralar'go San Migel'go elizan egin oi diren ur-tean beingo jaietan aundienetakoa, aundiena ez ba-da, Asolbizio izenarekin ezagutzen duguna da.

Abuztuaren azkeneko igandean egiten da, eta eliza onen sagaratze eguna gogoraazi nai digu. Garai batean eliza bat sagaratzea gorabera edo garrantzi aundiko gauza zen ezgeroz, sagaratze edo konsagra-tze ori zela ta, ontasan, opari eta opide asko artzen zituen, bai eliz-gizon nagusiengandik, bai batez ere errege eta aundikiengandik. Gure elizak ere, egun ori zela ta, besteak beste, animei buruz artu zuen eskubiderik gallenena auxe izandu zen: egun ortan konfesatzera etortzen zirenak beren pekatu guzian barkamena iritxi aal izatea, baita Gotzaiari ala Aita Santuari berari bereziki egotzirik zeudenak, erderaz «pecados reservados» esaten zaienak.

Lengo garai aietan pekatu berezi edo «reserva-do» asko baitzen, berezko zen «Asolbizio» egunean eliza ontara jendea eruz etortzea, beren pekatuak aitortuz eta asolbizioaren bitartez lasaitasun eta pa-ke billa.

Gaurko egunean ainbeste pekatu berezi ez izanik ere, Aralar inguruetakoa jendea etortzen da orain ere, «Asolbizio» dela ta, aitortu, jaunartu, meza en-tzun eta San Migel'i agur egitera; bai eta, jangelan

tokirik baldin ba-dago beintzat, bazkari-lege bat egin-da, eguna goxo-goxo bete eta Jainkoaren aurrean pake naro, ezti, lasai gelditurik, etxera itzuli.

Noiztikoa ote dugu «Asolbizio» jai au? San Mi-

gel'go elizaren asierari dagozkion xeetasun guziak bezala, au ere illunpean dagokigu. Ala ere esan de zakegu oso aspaldikoa dela, agian XI'garren mendekoa...».

## «NERE GURASO ZARRAK»

Bertso onek gure aitak gaztetan bo-  
tea izan bear du.

Gertaera zer izango zan? Gure aita  
norabait joan da ango gizonak esan zio-  
la:

–Bai; alaba bazeukagu ta moja bial-  
du nai genikek; bañan arek, berriz, ez-  
kondu egin bear omen dik.

Ta gure aitak orduan:

Nere guraso zarrak,  
au entzun kontuan:  
gogo gabeko gauzak  
zer lanak dituan.  
Sartu izan balitz au  
moja komentuan,  
au edukiko zuan  
ark pentsamentuan,  
ia zenbat pekatu  
egingo zituan.

## APUSTUA

Gure aitak apustua egin zuan bein batean Zizurkilko Unentsoroko gizon zarrarekin. *Akerra* esaten zioten gizon ari.

Onenbeste anea gari, *Akerra* orrek ganaduakin atzeraka ta gure aitak astoarekin, alako tokira zeñek lenago eraman. Ori zan apustua.

Nai bazuan berak ere bizkarrean eraman, gure aitak libre zuan. Berak eta astoak, bien artean eraman bear zuten.

Ondo gogoan izaten det: *Loma* izena zuan astoak.

Ez dakit zenbat diru zuten, ez dakit orixe, bañan etzuten asko izango.

Zizurkilko kamioa egitean kendu zuten ura ere; bañan lenago an aldapa zan, ta an egin zuten apustua. Bikatxezarko aldapa esaten zitzaion.

Bizkorrak omen zituan *Akerra*-k atzeraka ere ganaduak, bañan gureak irabazi zuan.

Apustuan ari zirala, *tak!*, zakua lertu, gari pixka bat lurrera erori ta bi mokadu egin zituan astoak.

Ta kontrarioak auzi eman zion:

–Aoan sartua palta du –esaten omen zuan.

Bañan gizon juzkalariak esan omen zuten:

–Bai, bañan barrenean pasa dik orrek lurretik artu duana.

Noski! Tripan pasa baitzuan. Arraian pasa zuala beñepein, ta juzkalariak gure alde erabaki zuten.

Juzkalari bat artzaia zan.

Nik ez dakit batere zenbat bertso izango ziran. Apustu ori guk gogoan ez degula izan zan, ta bertsoak ondorenean aditu egiten giñuzen. Toki oietan makiña bat bider astoarekin ibillia naiz geroztik. Bi bertso auek besterik ez dauzkat gogoan:

Zaku lertutik astoak egin  
zizkiraden bi mokaru,  
nere artian pentsatu nuen:  
«Pesta ederra zeukagu».  
Kontrariyuak esaten ziran:  
«Orrek sartua palta du».  
Gizonak berriz juzkatu zuten:  
«Jana arraian pasa du».

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
juzkalariya artzaia zan da  
botillerua etxetik,  
a zer traguak egin zituan  
*Akerra*-k txarro motzetik!



Zizurkil (A. Z. ren argazkia).

## LAURKIÑEN

Urte batean, Laurkiñeko festetara gure aita ta Zizurkilko Juan Jose Ugarte deitu zituzten bertsotarako<sup>1</sup>.

Gaztaindizabalko Iñaziok abixatuta joan ziran. Bañan jornalarekin etzi-tzaien ondo portatu.

Etxera etorri ta bertsoak jarri zizkan gure aitak. Danak ez, bañan batzuk beintzat badakizkit nik buruz:

Illaren oi ta bederatzian  
San Migel zan agorrian,  
bi bertsolari izandu giñan  
Laurkiñ deritzan ballian.  
Kantariyena jakiña dago:  
jornal artzeko idian;  
diruan kargak ez gaitu asko  
nekatu etxera bidian.

.....  
.....  
.....  
.....

allegatzian esan ziguten  
komeni zana artzeko,  
famili txarra daukat etxian  
mantendu truke egoteko.

Iñazio orren komixiyoiz gu  
joan giñaden Laurkiña,  
Gaztaindizabalkoa omen da bera,  
jendia dago jakiña;  
oraindikan e damutan nago  
orrek burla ori egiña,

gurekin beintzat ez da portatu  
entero gizon bikaiña.

.....  
.....  
.....  
.....

Iñazio ere motel ustian  
entero gizon azkarra,  
aren partez bai Argiberri ta  
Manterolako maiztarra.

Iñazio orrek festetarako zezen zar  
bat illa omen zuan, eta geien-geiena jan  
zuana bera izan omen zan. Ori ere esa-  
ten zion bertsoetan:

.....  
.....  
.....  
.....

egun oietan tragatua da  
zezena-puska ederrik,  
arru erdi bat irabazi du  
okelak badu indarrik.

Iñazio ori oso itxusia omen zan; da,  
Donostin arkume saltzen zegoan ba-  
tean, erretratatu egin omen zuten.  
Orregatik, orra nola zion azkeneko  
bertsoan:



1. Laurkiñ, Aiako ballara bat da. Juan Jose Ugarte, berriz, oso bertsolari ona izan omen zan.

.....  
.....  
.....  
.....  
erretratatu egin ziñuten  
Donostiako atsuak,  
danak merezi dituzulako  
Pello Errotak bertsuak.

## MEZA-DIRUA

Orain ere, erri txikietan, mutillen bat edo neskaren bat ia illean baldin badago, aurrera edo atzera egin dezan, auzoko emakumeren bat etxez-etxe ibiltzen da meza baterako dirua biltzen. Neroni ere ortan ibillita nago.

Zizurkillen mutil koxkor bat gaixorik zegoala ta neska bat ibilli zan meza-dirua biltzen.

Andik egun gutxira, aita errotarria pikatzen ari zala, gure etxeko atarira azaldu zan neska ori.

–Zer? Diru asko bildu al unan?

–Bai; lotsa ederrak pasa nituan.

–Zer ba?

–Bai; gutxi ematen zidaten bestiak, eta poza neukan apaizengana joateko; ta joan ta aiek gutxiena eman.

–Zenbat eman ditin, ba?

–Zenbat? Bikariogana joan da kuarto bat eman zidan; Endaiagana joan da onek ere beste kuarto bat eman; gero prailleagana joan ta onek purrustada batez «orain ere eskean?» esan ta ardita eman.

Bikarioa, Lakatxe, Sorabillako semea zan; Endaia koadjutorea zan; ta irugarrena, berriz, garai artan Zizurkillen bizi zan praille zar bat.

Bi kuartorekin txanpon bat egiten zan, eta ardit bat geiagorekin amar marabedi.

Ta gure aitak esan zion:

–Kantak jarri bear dizkiñagu.

Ala, kantak inprentatu zituan, ta jendeak ere pozik erosi olako paperak.

Ni neska koxkorra nintzan. Astoari kontu egiten egoten giñan gure etxe gañeko mendi kaxkoan. Astiasu ta Zizurkilko apaizak, berriz, kamioz pasioan etorri ta Konporta etxeko atarian billera egiten zuten.

Gu, umeak, apaizak ikusi ta bertso oiek kantari asten giñan. Apaizak aditu ta eskuarekin jotzeko desapioa egiten ziguten, ta gu orduan izkutatu. Ta gero, Zizurkilko apaizik ikusten bagenduan, itzuli korrika abiatzen giñan.

Gaixorik zegoan mutillari on egin zion mezak. Sendatu egin zan; bañan orduan il izan balitz, obe.

Ama ere etzuan erreminta ederra, ta bera ere ez. Ezkontzean, amarekin asarretu zan. Onela zion egun batean:

–Nere ama Agaitzko zubipean –Adu-nako zubia– urak eramaten ikusiko banu, a zer poza artuko nukean!

Ta, denboraz, amari deseaten zion toki artan bertan bera erori ta urak eraman zuan. Ez dakigu nola erori zan; bañan or beñepein erori zan eta or ito zan. Gorputza ere nekez arkitu zuten.

Gogoan ditut oraindik ere bertso batzuk:



Asteasu. (A. Z.-ren argazkia).

Emakume bat juan zan  
bildutzera meza,  
gaizki dagon argatik,  
senda al baleza.  
Sazerdotenganako  
ark zedukan poza!  
Ez da bueltatua  
juan zan bezin lasa.

Guk egingo bagiñu  
orrelako lanak,  
ots egingo lituzke  
kulpitotik danak.  
Bost ikusi bear du  
allegatzen danak,  
kuarto bat eman dio  
bikariyo jaunak.

Juan zan beste sazer-  
dotiarengana,  
errezibitutzera  
eskeintzen ziyona.  
Aditzerak baditut  
ez dala urtu dana;  
ark ere kuarto bat  
omen du emana.

Ara nun pasa zaigun  
komeri polita,  
gauza arrigarriya  
pentsatzen jarrita.  
Lotsa artu lezake  
orla ibillita,  
purrustara eginda  
prailliak ardita.

Zeñek nun aditu du  
oinbeste komeri?  
Ejenplua ematen  
ai zaizkigu guri.  
Sokorrua egiteko  
premi duanari,  
berak, iru apaizek,  
amar marabedi.

Jateko ez zeukanak  
lakari bat arto,  
txanpon bat gutxienaz,  
ori zan zierto.  
Meza osatuko bazan  
norbaitek biarko,  
sazerdote jaun oiek  
ardit eta kuarto.

Eskeñitzen bazaie  
meza merke antza,  
buruari eragin  
aguro balantza,  
Txikiyai utzi eta  
aundiyai arrantza,  
beragatik daukate  
oraingo mudantza.

Kulpitotik otsegin:  
«Ein karidadia!».  
Berak jeneralian  
gordetzeko idia.  
Kadrilla ori etzegon  
dirurik gabia,  
obeto portatu da  
jende memoria.

## URNIETAKO ALKATEARI

Urnietara San Migeletan festetara  
joan ta ango plazan bertsoen asiera gure  
aitak eman bear izan zuan.

Alkatea ezkonberria zan, Zegama-  
koa zuan andrea, ta alkatea ondratzen  
asi bearko zuala ta onela asi zan:

Alkate jauna nai nuke  
ondratzen astia,

ondo bizi da eta  
eztago tristia.  
Zegamatik ekarri  
zuan emazia,  
ederra ta aberatsa,  
gañera gaztia.

Aiek txaloak jo zizkaten! Larogei ta  
lau urte izango dira au bota zuala.

## «LARRU GORRIAN...»

Urrengo bertso auk Donostiko Teatroan nik neronek adituak dira. Ama-sei bat urte izango nituan nik orduan.

Ameriketan il zan aizpa ta biok, aita-k pagatu gabe sartu giñun, eta goi-goien egon giñan bertsoak aditzen.

Aurretik esan ziotena, arrezkero nunbait ere aditu izan det, bañan orain ez daukat gogoan. «Zer moduz bizi zera?» edo olako zerbait zan<sup>1</sup>.

Ta gure aita-k bi bertso aukin erantzun zion:

Larru gorrian jaio nintzan da  
ez det aberastasunik,  
nigatik eztu iñork esango  
kaballerua naizenik.

Gure Jainkuak gau eta egun  
ez dit palta osasunik,  
tamaña onetan naizen artian  
ez daukat estuasunik.

Lenago esan det jaio nintzala  
ni ere larru gorriyan,  
mundu onetan ez naiz bakarrik,  
beste askoren neurriyan.  
Ziudade ez da aundia agertzen  
Astiasuko erriyan,  
bolara ontan bizitutzen naiz  
oso kontentu aundiyan.

1. Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak orain ogei ta amar bat urte Asteasun jaso zuanez, Jose Bernardo Otañok kantatu zion aurretik, ta onela esan omen zion atzeneko puntua:

Pello Errota, aspaldi ontan  
zer moduz bizitzen zera?

## «GIZONARI EGIOZUTE ONDO»

Arrats batean ebia ikaragarri txarra botatzen ari zan, ta aizea ere izugarria zan; denboralik beltzena alegia. Illundu ta gero zan, da gure aita Zizurkildik zetorren, astoa aurrean zuala, dana blai-blai ginda, gizarajoa.

Ta, Konportako parean pasatzean, ango ateetan antsia aditu zuan. Antzeman zion an gizona zegoana, ta ola esan zion:

–Zer egiten dezu or?

Ta erdalduna izan, da erderaz erantzun zion: etziotela an lekurik ematen eta antxe ito bearko zuala.

Gure aitak berari segitzeko esan zion, da etxera jaso zuan. Sartu ta guri ola esan zigun:

–Ea gizon oni zeozer, alkandora legor bat-edo, emaiozute.

Bañan arek ezetz esan zuan; aldatzeko arropak berak ibiltzen zituala.

Gure errotak toki txikiak zituan, gerontzako ere nekez; bañan gure aitak errotara ekarri zuan.

Konportan, berriz, oinbeste aundiko etxea izan, da bazuten, ba, ainbeste toki; bañan etzioten eman. Ta ango beko atean eman etziotenean, mandioko atearen kontra jarri omen zan; da an zegoan, ebiak itotzen, gure aitak jaso zuanean.

Goiko ganbaran jarri zuan gaba pasatzen, mantakin ta al zuan bezela.

Urrengo goizean eskerrak ematen asi zitzaion: alakoaren bearra bazuala, bestela an il bearko zuala...

Ta gure aitak galdetu zion:

–Zer dezu izena?

–Fabian.

–Nik sartu ziñudan gabian.

Ta urrena:

–Zer dezu apellidua?

–Gil.

–Nik sartu ezpaziñudan, il.

Gizon arek esan zuan eskean ibiltzen zana zala; emaztea il, bi semerekin gelditu ta aiek eskolan zeuzkala; beste aldetara irabazi aundirik etzuala; bañan bera ibilkari aundia zala ta eskean asko biltzen zuala; alako ta alako tokitatik, Eguberrietan-eta, dirua bialtzen ziela semeai.

Etzan ain zarra ere. Oso gizon polita ta txukuna zan; ez olako zorritsu oieta-ko bat.

Zaku bat ibiltzen zuan burutik sartuta, atzean da aurrean poltsa aundi bana zuala. Poltsai *mi maleta* deitzen zien. Arropak ez-ezik, an eramaten zituan bere lapikoak, zartagiak, olio-ontziak eta danak.

Egokitzen zan tokian, biltzen zuana, berak maniatu ta jan; iñularrean bazterren batera arrimatu ta lo egin. Ola bizi omen zan.

Gero dirua sobratu semeai bialtze-ko. Oietan ere, eskekoak izanagatik, gordetzen dutenak ere izaten dira.

Arrezkeroztik askotan etorri oi zan gure etxera eskerrak ematera.

Bai; gure aitak pobreentzako bazuan gogo.

Ijitoak ere maite izaten zuten ura; ez dakit nun ere kaso egin ziotela esaten zuan.

Arek etzuan, beste batzuek bezela, kanpoko bat ikusi ta ura jo egin bearra. Errezillen omen zan, garai batean beñe-pein, jenio ori: kanpoko bat ikusten bazuten, erremedio gabe jo egin bear. Pestara ere joan, da:

–Zer pesta-modu ikusi dezute?

Ta:

–Utsa; borrokarik ez dek izan, da utsa.

Arek, berriz, beti esaten zigun:

–Gizonari egiozute ondo! Beti egiozute gizonari ondo! Etorriko zaizute andik edo emendik ondo egiñarena; bañan bai gaizki egiñarena ere.

Bai; arek famelia kristandadean azizuan, da kreditu txarrik etzuan utzi.

Gure aita gizarajoak etzuan pobrea izatea besterik.



## AIAKO APUSTUA

Bein batean, Aian apustua zan: Astiasuko Ibarrazpiko beiak eta Aiako idiak; ta ara joan zan gure aita ere.

Asi zan proba. Astiasuko beiak indarra ba omen zeukaten; bañan etxeko itzaia zuten, da arek ez eragiten; etzien ez miñik ta ez bildurrik ematen. Kanpoko itzaia izan balute, joko zituan; bañan etxeko beiak izan, da animalirik ez jo nai.

Ola, beiak galdu zuten apustua, ta Astiasu guztiak diru pranko ere bai.

Proba bukatuta, gure aita tabernan zegoan, triste noski, dirua galduta.

Ta aiarrak kantatzeko esan zioten.

Gure aitak, berriz, ala erantzun zien:

–Nituanak ez ditut, eta ez det kantatzeko batere gogorik.

Bañan kantatzeko ta kantatzeko etzizaizkan ixiltzen, da bertso au bota zuan:

Kantatuko'izuet bañan  
ez oso umorian,  
gizona tristia dek  
galdu ondorian.  
Etorri gaituk zerbait  
eitoko idian;  
lapurrik ateratzen  
bazaigu birian,  
marabedirik eztek  
nere poderian.

Orduan gizon batek ala esan zuan:

–Pello, marabedirik ez badek, jarri zak txapela.

Bai arek pozik jarri ta pasa ere, ta galdu zuan baño diru geiago bildu zuan.

Urrena, berriz, bei aiek Andoaiñen izan zuten proba; kanpoko itzaiarekin, ordea, ta erdi denboran irabazi zuten.

Ta sedazko zinta gorriak adarren puntan zituztela ekarri zituzten Astiasura.

## FIDEL LIZARRAGA

Bein batean, Fidel Lizarraga ori Astiasura zetorren bere zaldi, eskopeta ta guzti. Gure ollarra ta olloak an ageri ziran, ta tiroa tira zion ollarrari, ta mo-koan eritu zuan.

Etzion egin esateko ezer, bañan gu-re ama armonin asi zan. Ta gure aitak ala esan zion:

–Ixo gizon oiekin. Ollarragatik ez kasorik egin.

Etorri ziran gero Astiasutik bueltan, da ola esan zion Fidel Lizarraga orrek gure aitari:

–Pello, ollarra eritu ta meriendarik gabe.

Ta gure aitak:

–Tiroa gastatu ta ori ez da obe.

Ta orduan Lizarraga orrek dirua eman zion, duro bat edo. Orduko duroa aundia zan. Edo bi eman zizkan ez da-  
kit.

Kontentu gelditu zan gurea, ollarra etxean eta dirua patrikan zuala.

Lizarraga ori oso aberatsa zan. Ia Billabona guztia berea zuan.

Arena zan Irurako Ama Birjiña Erremediatako ermita. Orain etxea da-go egiña, bañan lenago xoxa botatzen aritzen giñan. Ermita ura arek jarria zan.

Arek bazuan fedea. Fedeak obrak bear ditu; ta ura Erniora bazijoan ere,

patrika guztiak diruz beteta eramaten zituan. Orduan millaka pobre egoten zan bide bazterretan. Orain ez da ego-ten, bañan orduan inbalio guztiak ego-ten ziran. Eta danai ematen zien, patri-  
kak ustu artean.

Bai; oso-osu limosneroa zan, da Bi-llabonan pobre guztiak negar egin omen zuten, ura il zanean.

Bañan Billabonan, apaizari erres-  
puesta eman ziolako, etzeukan arek an-  
go kapillan sartzeko ordenik.

Billabonako eliza Amasan zegoan orduan; ta bean, orain plaza dagoan to-  
kian, alako kapilla txiki bat zan, da an  
meza ematen zan jaietan, da meza en-  
tzutera ara joaten zan jendea. Bigarren  
meza bederatzieta zan.

Bera meza ematen da bera sermoi egiten izaten zan; da egun batean, ser-  
moia asi zanean, ola esan zion Lizarraga  
orrek:

–Berriketa gutxiagorekin segiozu ze-  
re lanari!

Ta apaizak:

–Zer da ori emen? Atera gizon ori!

Lizarraga ori diputadua zan; Billa-  
bonan zan aberatsena ere bai; bañan  
arek sententzia omen zeukan, bizi zala  
ez Billabonako kapillan sartzeko. Etzan  
sartu ere bere denbora guztian geiago.  
Ea errespetua zan edo etzan orduan!

Izeba ta arreba eukitzen zituan etxean. Bera mutil zarra zan.

Bein batean, gure aitak aiei garia erosi zien. Ta, galbalian garia garbitzen ari zala, berebiziko zillarrak arkitu zituan. Bat edo batek gari pillan gordeak zeuzkan.

Ala esan zuan gure aitak:

–Zillarra ere sobran al ditek? Guk ez, ba!

Berriz ere joan zan gure aita Lizarragaren etxera, batere bear etzuala, garia eroatera. Bañan geiago etzuan billatu. Aurrenekoan ziran zillar danak.

## BILLABONAKO JIBOSO BATI

Billabonan ba omen zan gizon jiboso bat, eta ura gure aitari ixiltzen etziztaion, bertsoa botatzeko ta botatzeko.

Gure aitak ala esan omen zion:

–Nik esana libre det, eta ez noa botatzera.

Ta arek:

–Ez dio inporta, Pello.

–Ez al zera asarretuko?

–Gizona! Bertso batengatik asarretu bear al degu, ba?

Ta gizon jiboso ura ezkonberria zan, da emaztea aur egiteko zeukan; da gureak bertso au bota zion:

Matrimoniuk badu amaika lardaska, zure andre gaxuak ixilluak dauzka; ibilli biarra da marruaz ta oska, zuk bezela badakar bizkarrian koska, uste baño azkarrago libratuko ezta.

Ta izugarri asarretu omen zitzaion gizon ura.

Bañan ez gure aitak jakiñaren gainean jarri etzualako.

## ASTOAREN PASADIZOA

Egun batean, astoarekin zetorrela, Alkanitzen sartu zan gure aita, pipa piztu ta berriketa pixka bat egitera. Etziran parienteak, bañan familikoak bezela tratatzen giñan.

Alkanitz etxe ori Zizurkilko partean dago, Astiasuko kamiotik lendabiziko etxea ezkerretara.

Astoa Portxetaren estalpean utzi zuan. Portxeta nagusia zan. Orain ere orrela deitzen diote estalpe orri.

Ta, etxe artan zala, zer egin zioten? Astoak gañean zeukan gari zakua, asta sokak, kabrestuak, kate ta zera danak ostu egin zizkaten.

Etxera etorri ta gertaera orren gañean bertsoak jarri zituan.

Oietako batzuk badakizkit:

Pipa piztutzen nitzan  
Alkanitzen sartu,  
Portxetan estalpien  
astua geratu,  
gurdiyan ezpatari  
katez amarratu;  
geienaz pasa nitun  
amabost minutu,  
guardiyan zegoanak  
artu zidan kontu.

Gauzaen baliyuak  
ziraden aundiyak:  
iru pezta pasiak  
asta soka zuriyak,

bizkarreko zakuko  
amabost gariyak...  
Pobria luzitzeko  
ai zer alderdiyak!  
Au etzuan merezi  
Pello Errotariyak

.....  
.....  
zakua eta soka,  
kate ta kabrestu,  
bat ere utzi gabe  
astoari ostu;  
ori egin duanak  
barren txarra eztu,  
ola gizon pobria  
nola aberastu?<sup>1</sup>

Beste bertso batek onela zituan azkeneko puntuak:

guardianoak ere  
etziran aparte,  
Zizurkilko lurrian  
arrobatu naute.

Alkanitzen ondoko etxe batean, Saluaten, pobreak bizi ziran ta ango errezeloa eukitzen zuan gure aitak. Aldameneko beste etxe bat Altziturri zan, bañan aberatsak ziran ta ango errezelarik ez<sup>2</sup>.

Bañan Ameriketara joan zanean, to-

po egin zuan bein batean Altziturriko morroia. Ura ere ara joana izan.

Morroi orrek onela esan omen zion:

–Pello, zuri ostu zizkizuten, ba, astoaren gañeko zera danak...

–Bai; ala ostu zizkidaten.

–Ba al dakizu zeñek ostu zizkizun?

–Zeñek? Saluateko *Ipurtxulo*-k se-guru asko.

Ala zuan izengoitia etxe artako gizonak.

–Ez; Saluateko inork etzizkizun ostu.

–Zeñek ostuko zizkidan, ba? Erdi goseak ibiltzen zan ura ta...

–Ez, ba, ez. Nik ostu nizkizun.

–Zuk? Zer ba?

–Badakizu ni Altziturriko morroia nola nintzan. Bañan etxe ura, ona izanagatik, gain-bera asia zan. Ta nagusiak ala esan zidan: «Aizak: Pello Alkanitzera pipa piztutzero joango dek, eta astoak gañean daukan anea t'erdiko zakua ostu zaiok. Bizkarrean artu ta ekar zak etxera. Emango genikek zerbait iri ere. Beste baten errezeloa igual egingo dik, eta sokak eta kabrestuak eta danak ostu biazkak». Eta alaxe egin nizun.

Geroztikan gure aitak guztiz damu zuan Saluateko errezeloa egiña, ta alaxe esaten zigun askotan:

–Etzazutela sekula inorentzat errezelo gaiztorik egin!

1. Bertso au eta gertaera beste onela jaso nizkion Irurako Inazio Arregi segalari izandakoari:

«Or, Billabonan, Astuane esaten zaion taberna bazan, da egun batean or geratua izango zan Pello Errota, gariarekin etorrira.

An gonbertsazioan edo bertsoan asiko zan, da lagunak zer egin diote? Astoari zakua ta garia ta soka ta kabrestu ta danak ostu. Kabrestua, astoak muturrean eramaten duan zera orri deitzen zaio. Ta astoa bialdu dute etxera.

Bera etxera allegatu danean, Pellok:

–Astoa etorri al da etxera?

Ta:

–Bai. Ortxe da ikulluan ezer gabe.

Bitartean, lagunak an zai zeuden, Pellok zer esaten zuan. Ta jarri da kanpora begira ta onela kantatu zuan:

Zakuba ta garia.  
soka ta kabrestu,  
batere utzi gabe  
astuari ostu;  
neri kalte egin dit,  
bera ezin aberastu,  
ori egin dubenak  
biotz ona eztu.

2. Orain, ez Altziturri eta ez Saluaten, ez da orduko ondoarengorik bizi.

## BI TRATALARIRI

Bein batean, bi tratalari arkitu ziotuan gure aitak, eta ola galdetu zien:

-Zer moduzko peria izan da?

Ta bi gizon aiek koitak kontatzen asi omen zitzaizkan: etzegoala irabazterik ezer, peria txarra izan zala, ta orrela.

Ta gero, bertsoa botatzeko esan omen zioten.

Ta ainbeste koita kontatu ziotenean, gure aitak bertso au bota zien:

Pobre ta aberats, zar eta gazte,  
maiztar eta nagusiyak,  
ez gaitzala inor despreziatu  
Jaungoikoaren graziyak.  
Zertako dira mundu ontako  
tratu ta irabaziyak?  
Ementxe utzita joanak dira  
oraindañoko guziyak<sup>1</sup>.

1. Pello Errotak bearbada bertso au kantatuko zien tratalari oiei, baiña Xenpelarrena da berez.

## GURE AIZPA JOXEPA IÑAXI

Gure aizpa Joxepa Iñaxi senideetan bigarrena genduan, eta bertsotan zekiana zan.

Garai artan, Astiasuko plazan bi sagardotegi ere baziran. Sagardorik ez genduan etxean, errotan, eta kaletik eramaten genduan. Ni ere joaten nintzan.

Ta gure aizpa ori sagardo eske joango zan, da an bi mutil zar bertsotan ari omen ziran.

Aitaren gañean-edo ariko ziran, da orduan gure aizpa orrek bertso au bota zien:

Bertsotan ari dira  
bi galtza-jariyo:  
bat .....,<sup>1</sup>  
bestia Antoniyo;  
jendia emen dago  
oik diala meriyo,  
aita guriarentzat  
ez dute baliyo<sup>2</sup>.

Bañan ogei urtetikan aurrera asko etzuala, Ameriketara joan zan; Arjentinara.

Orduan neskatxa kuadrillak joaten ziran, ta ura ere bere neskatxa lagunekin joan zan.

Orain emen edozeñek ogei duro

dauzka, eta orduan etzan emen ogei pezta irabazteko kozinerarik ere; eta an, berriz, asko irabazten omen zan.

Ta ogei duro irabazten zuala abisatu zuan; da gure aitak, egun batean tolosar batekin izketan ari zala, ala esan zion:

–Ogei duro gureari jarri dizkate.

–Zureak ogei baditu, nereak ogei ta amar izango ditu.

–Zergatik ba?

–Nik ikasia bialdu nuan da...

Ta nik gero aizpari abisatu nion zer esan zion beste arek gure aitari, ta ala erantzun zigun:

–Bai; ikasita datozenak ogei ta amar duro ere baditu. Bañan «*se gana, pero se gasta*». Alegia, lo ta dana kanpoan egin bear zala, ta irabazi ala gastatzen zala.

Arek ni ara eraman nai niñun; bañan neri etzitzaidan gogorik egiten, da bakarrik ezin joango nintzala esaten nion.

Ta bertsoa ere bialdu zidan:

Nere aizpa Mikela  
nik abixaturik,  
etzuela etorri nai  
birian bakarrik;  
etzet nai eukitzia  
etxian negarrik,  
or gelditzen bazera  
zeretzat alperrik.



Nik, berriz, onela erantzun nion:

Aizpa, bialtzen dizut  
orren errespuesta,  
oraindik ni juatia  
seguruba ezta;  
orrenbeste enpeñoz  
gelditzia gaitz-ta<sup>3</sup>,  
akaso juango naiz  
mudakorra naiz ta.

Ta, Ameriketara joan zanean, aítak ekarri nai izan zuan; bañan arek ezetz. Ezkontzeko baitzegoan orduan.

Gizona gallegoa izan zuan: Agustin Primor.

Seme-alabak izan zituzten.

Alaba komulgatu zanean, bere komunioko jantziekin erretratuak bialdu zizkigun.

Bañan emezortzi urterekin, eskalletan erori ta ilda gelditu zan, lepa-ezurra autsita.

Senarra ere il zitzaion, ta gizona ta alaba zeuzkan sepulturaren erretratua ere bialdu zigun. Danak bazituan, bañan...

Semeak andre gazte gallega artu zuan emazte; bañan gure modukoa etzala esaten zuan.

Gure aizpa ori oso erlijiosa zan, ta erraña ez. Gure aizpak egiak garbi esaten zituan, ta errañari egia esaterik ez gustatzen. Ura emen zalarik, egunero elizako buelta egingo zuan, ta an ere bai. Bañan apenas joango zan aren errañik.

Guk emendik bialdutako kartak errañak gelditzen zituan, ta gure aizpari eman ez.

Triste bizitu zan ura.

Abisatu genion onera etortzeko; ta alaba lur artan zeukala ta ezetz erantzun zigun.

Denbora luzean aren kartarik gabe geunden, ta nik banekian erriko alaba bat an aberatsa zegoana; ta aren señaik bildu ta ari abisatu genion nola aizpak etzigun kartarik bialtzen, ta ea zer moduz zegoan.

Ta señoira arek eskribitu zigun illa zala. Nik bezela, bista falta zuala; ta an, norabait zijoala, motoak jo ta bota zuala, ta artatik illa zala. Ni motoak bota ta bizirik atera nintzan; bañan ura motoak bota ta illa omen zan.

1. Mikela ezin oroitu zan emen zein aitatzen zan.

2. Errenteriko Juan Zabaleta bertsolariaren alargunak esaten zuanez, bertso au Xenpelarrek bere alabari esan da onek eskall-burutik kantatu zuan:

Bertsotan ari dira  
bi galtza-jariyo:  
bat da astiarra ta  
bestea Xanbuyo;  
gizonaren gradura  
nai luteke iyo,  
nere aitarentzako  
ez dute baliyo.

Bañan Oiartzunen, Pello Errotaren anai-arreben ondorengoak ere, Astiasun kantatua dala esaten dute; bañan Mikelak berak kantatua. Beraz, onek bere aizpak kantatua dala badio, ez dago zer dudarik egin onela izango dala. Oiartzunen era ontara ematen dute:

Bertsotan ari dira  
bi galtza-jariyo,  
.....  
.....  
kantuan nai luteke  
oiek gora iyo,  
aita guriarentzat  
ez dute baliyo.

3. Gaitz-ta: gaitz da.

## JOSE JOAKIN KORTA

Jose Joakin Korta seme bakarra ta pobrea omen zan, ta bertsolaria gañera. Ama alarguna emen bakarrik utzi ta Ameriketara joan zan.

Ama jostuna zuan, Manuela Iñaxi, eta eguneko bi errialean etxez-etxe ibiltzen zan. Nik ezagutu nuan.

Semearen notizirik etzuan eta triste zegoan. Gure aizpa ere an zan, ta gure aitak bertsoak bialdu zizkan, ama orren bizitza zer zan adieraziaz, eta Jose Joakin Korta ori ikusten bazuan ari emateko esanaz.

Ta gero, Korta orrek erantzuna bialdu zion gure aitari: emendik zijoan baporeari ez omen zioten Amerikan bereala sartzen utzi; geldituta euki omen zuten Buenos Airesko portuan, gaitzik bazijoakion ala ez.

Gisa ortan berrogei egunean egoten ziralako, *cuarentena* esaten zitzaion orri, ta ola esaten zuten gero:

–Kuarentenan egon gaituk.

Gure aitak bertso auk bialdu zizkan:

Ikusitzen badezu  
Jose Joakin Korta,  
bi dala esaiozu  
aita Pello Errota.  
Kasoik ez eiteko nik  
zertan detan kulpa?

Nere erretratua  
nunbait e or du ta,  
ia kentzen diozun  
zuk ezagututa.

Bertso bakar batzuek,  
Jose Joakin, zuri,  
ipiñitzen dijoa  
Pello Errotari.  
Zure notiziarik  
etzaigu ageri,  
nitzaz aztu zerala  
trazak badiruri.

Aparte zaudelako  
nik dedan damua!  
Zergatikan ziñaden  
zu lagun sanua.  
Ikusi ordurako  
amerikanua,  
zure galde egitera  
de repente nua.

Ama Manuela Iñaxi  
dago alarguna,  
seme bakarra izan da  
ura emendik juna.  
Biotzez eskatzen du:  
«atoz neregana»,  
zartzerako sikiera  
nai luke laguna.

Jostunen enpliuak  
oso dira galdu,  
zergatikan makinak  
diraden ugaldtu.

Biziko danak beti  
zerbait e biar du,  
ama kontsolatzeko  
dirua bialdu.

Beste lagun bat badet  
or Anastasiyo,  
neri abisatzeko  
dago despaziyo;  
alkarrekin pasiak  
amaika funtziyo,  
ni naizela guztiya  
aztu ezpazayo,  
karta bat egiteko  
esan bear zayo.

Ta Jose Joakin Korta orrek onela  
erantzun zion:

Galleta gogorra ta  
aragia jaki,  
kuarentenako berri  
probatuak daki;  
seireun pasajero  
ez giñan urruti,  
buruko miñ bat ere ez  
danetatik bati,  
premiyan laguntzen du  
Jaungoikuak beti.

## ANAIAREN SOLDADUSKA

Besteak ordurako illak ziran, ta Miel Anton genduan orduan anaia bakarra.

Ta kinto-eguna etorri zitzaion. Jai goiza zan, ta Donostin tiratzen zituzten suerteak.

Ama etzan gauza elizara ere joateko, ta bildurrez ta kezketan zegoan.

–Au lana! Seme bakarra etxean, da orain zer ikusi bear degu? –esaten zuan.

Aita, berriz, bezperan nonbait ere kanpoan izana zana badakit, ta artean gaita xamarrean zegoan. Ta jeiki baño len, oiaren eskiñan jarri ta bertso au kantatu zuan:

Nere etzan-lekua  
izango da oia,  
emendik egin biar  
lenbizi pregoia:  
eztakit dedan poza  
edo dan jipoia,  
libre ateratzen bazat  
ilko det kapoia.

Bañan egun ura joan zan, urrengoa ere bazijoan ezere berririk gabe, ta triste orratikan gure aita ere.

Esan nion:

–Ez da agiri notizirik, aita.

–Ez; etxera etortzeko bildurrak egongo dek gizarajoa, katigu aterako unan da...

Ala, aita ta ama ta danak oso triste giñan orduan.

Ta astelen gauean bageunden; ta Larraulko mutil gazte batek, atea idiki ta bera sartu baño len, muturra besterik sartu gabe, ots egin zuan:

–Pello, semea libre dala!

Poza ematera bera baño len etorri zitzaigun. Jesus! Etzan gure etxean orduan ezere paltik!

Gero anaiak kontatu zigun, ingurukoak bi gelditu zirala libre: bat Zizurkilkoa ta bestea gurea.

Mutil batek esaten omen zuan:

–Nik ez diat, katigu aterata ere, ajolik.

Ta lepoan pañuelo gorria jantzi ta pilarmonika joaz kalerik-kale omen zebillen.

Ta gurea libre ta bera katigu gertatu ziranean, orduan negarra ta marru.

–Nun dituk lengo arrokeriak? –esan zion gure anaiak.

Beia baño len zintzarriak. Orixe!

Ta kastillano soldadu pobre asko omen zegoan kuartelean; ta, libre atera zanean, bere pozarekin, zituan diru guztiak eman omen zizkan.

Orduan erriko kamioa egiten ari ziran, ta gure etxean gizon asko zegoan apupillo, errezildarrak-eta.

Ta zelebratzeko berebiziko pesta ta



Asteasu ingurua. (A. Z.-ren argazkia).

banketea egin genduan danen artean. Boda bat baño geiago kasik. Ta kapoi bat baño geiago il giñuzen.

Gure anai ori bertsolari ikaragarri ona izan zan, erririk-erri ibiltzen ez ba-

zan ere. Oso etorri onekoa. Ordurako ariko zan ta aita-semeak botako zizkaten alkarri bertso eder askoak; bañan gogoan artu ez guk.

## NERE EZTAIETAN (1893-X-14)

Urte ura oso sagar urte aundia zan, da nere nobioa, Antton Kortajarena, Tolosara egunero joaten zan, Astiasuko sagardoa idiakin da gurdiakin eramatera.

Orduko eztaietan, zaragi ardoa aita-jaunak pagatu bear izaten zuan, da onek ala esan zion:

–Aizak: alondegiaren atarian an utzi diat zaragia; ta, urrena Tolosara joaten aizenean, artu ta ekarri zak.

Baietz, ekarriko zuala; ta egun artan bertan joan zan ekartzera. Bi zaragi arkitu zituan, paper bana gañean zutela, pasea alegia, beren izen, apellido ta guzti; bañan arek inprentako letra bai, bañan besterik etzuan ezagutzen, da aundiena artu ta ura ekarri zuan.

Aitajaunak, ordea, txikia pagatua zuan; ta aundi ori, Ibarreko erretore etxerako, elizan artzen duten ardo klase ori zan.

Ta nere nobioari bereala kargu artu zioten errian:

–Au ez uan onerako, ta nola ekarri dek? Ik kontrabandoa egin nai uan!

–Nik kontrabandoa ezta pentsatu ere. Aitajaunak utzitakoa ekarri det.

–Ez; au ez uan iretzat. An egongo uan besteren bat.

–Bai; txikiagoa zegoan da nik aundiena ekarri det.

Aitajaunari ere kargu artu zioten, bañan onek ala esan zien:

–Nik bestea utzi nuan, da ekartzea zeukan ura.

Etzan ura txoroa pagatzeko.

Ezkontzeko kaso ori izan ez balu, kontrabandoa egingo omen zioten; bañan inozentzian egin zuala jakin, eskolik etzuala ere bai, ta libre utzi zioten.

Ibarreko erretoreak batere gabe gelditu bearko zuan. Ez dakit iñork pagatu bazion ere. Bañan ardo ura gure eztaietan edan zan. Azkar gañera!

Ezkondu bear nuan bezperan, jaiotetxea-ta utzi bear nituala edo nik ez dakit zer nuan, bañan tristurak artu ninduan. Ia egun guztian ixildu ez nintzan negarrez.

Nere amandrea bezperan etorri zan, da nerekin jarri zuten gauean, da goizean ala esan zion bere aizpari, nere amari:

–Ume oni zer egin diozute? Ia gau guztian ez du negarrez begirik itxi.

–Guk ez diogu egin ezer ere.

–Atzoko eguna ola pasa du.

Aitak burla egin zidan:

–Obe uken astoarekin Zizurkilla iriñarekin joango baintz.

–Ea ba: jarri zakuak eta joango naiz –esan nion.

Garai artan, goizeko seiretan ezkonzen ziran danak. Illunpetan joaten ziran. Gu, berriz, amarretan ezkondu giñan.

Nik azabatxez, alegia perlazko puntillaz, bete-betetako txaketa nuan. Errian aurrena nik izan nuan. Elizarakoan, kristalezko zera aiek eguzkitan *dris-dris-dris* egiten zuten, da plazan zeudenak ala esan omen zuten:

–Ara: Mikela ber-bertan zio.

Elizatik atera orduko, etxfuegoka asi ziran. Egun artan erre zituztenak! Atertu gabe aritu ziran eliz ataritik gure etxeraño.

Gosaria andregaiaren etxean izaten zan. Gogoan daukat guk zer izan genduan: baratxuri-zopa aurrena, aragia tomatearekin urrena, ta gero gazta zarra. Edaria, berriz, ardoa.

Arrioa gurdian eramaten zan, da auxe izaten zan: oia, lastaira, sobrakoltxa, sobrakama –batzuek eskuetan egindako arizko oietakoa eramaten zuten–, bi almoeda, bi silla, komoda, mesanotxea ta baula arroparekin. Usarioa ala zan.

Lastaira etzan gaurko koltxoiak bezela. Artoaren txurikiñez betetzen zan. Gero, bat iltzen bazan, gorputza oietik atera, lastaira ura bide gurutze batera eramán, da an su eman da erretzen zan. Gero, an pasatzen zanak anima arentzako aitagurea errezatu bear.

Nik, trasteri guztiaren gañean, nere josteko makina jarri nuan. Bezpera gaueko amabietan, ura garbitzen aritu

nintzan, biaramonean garbi-garbi eramateko.

Idiak, al ziran ederrenak, eta zintzariakin da bizkarrean manta borla gorri dunakin, ondo apainduak izaten ziran. Guk Ondartza-barrenakoak izan giñuzen.

Nobioaren etxera joateko, ezkonberririk, gurasoak, aitajauna ta amandrea ta danak, gurdiaren atzetik abiatzen ziran. Baita pilarmonika ere soñu jotzen.

Esan bezela, kamioa orduantxe egiten ari ziran, da kapatazak-eta ostaturuz gure etxean zeuden. Oraindik bukatu gabea zan; bañan aiek lizentzia eman ziguten, bide zarretatik joan gabe, kamio berritik joateko. Beraz, nere arri-oak estrañatu zuan kamioa.

Abiatu bezin laster, etxfuegoka asi ziran berriz ere. Egundaño baño geiago erre zala juzkatu zan. Kapataz aiek, berriz, gure mandioa munizioz bete zuten, da artu andik nagusiaren munizioak eta aiek deskargak egin zituzten!

Gurdia iñoren etxearen parean pasatzean, ezagunak izan ezkerro, bidera bandeja ardoa ta pastelakin edo ogiak ateratzen zuten.

Allegatu ta arrioa mandioan uzten zan, bazkaldutakoan zabaltzeko.

Orduko eztaiak egun batekoak, bikoak edo irukoak izaten ziran. Nerea bikoak izan zan.

Lagun asko izan giñan, da bigarren egunean geiago oraindik. Geren gurasoak ezagun guztiai deitzea pentsatu zuten. Orduan olako asiera, ta gero geroak.

Egiten zan txal bat gizendu, ta ura jan bitartean bertan danak. Gurea ogei ta bost erraldekoa izan zan.



Zestakada bat ollo baño geiago ere jan zan.

Makiña bat eztaietan izan nintzan ni gero; bañan toki batean bakarrik egazitikiko eztaiak ezagutu nituan. Olloa lujoa zan orduan, da egaztirik gabeko eztaiak izaten ziran.

Orduan, zer zan ere etzekiten da, etziran entremesak edo itxura gaiztoko jaki oiek izaten. Ia dana okela izaten zan. Guk izan genduan zopa; garbantzua eta azak ere bai odolki pilla ederra-rekin; gero aragia tomatearekin eta aragia piperrakin –besteetan aragi egosia, prejitua edo gixatua izaten zan, dana aragikia–; gero egaztia, ta egaztiaren gañean arrozkoletxe ta gazta zarra.

Ta amairu arroa ardo edan ziran gurean. Tolosatik ekarritako zaragi galanta ura ta beste geiago ere bai noski.

Sagardoa, berriz, auskalo zenbat. Guk zazpi peztan erosi genduan gurdi sagarra; bañan ona aukerakoa zalako. Urte abundosoan ezkondu nintzan ni.

Ardoa, ez orain bezela litroka; pitxarreko botillak jartzen ziran maiean. Ta amar lagun baziran ere, baso bat; baso bat eta platera bat, eta danak bate-tik aritzen ziran. Baita eztaietan ere. Emen zazpi lagun baziran, zazpi lagunentzat zera bat jarri; ta, an beste zazpi baziran, aientzat beste zera bat jarri, ta orrela.

Bazkal ondoan, mandiora joan da auzoko etxeoandre batek arrioa zabal-tzen zuan. Gurea Ondartza-barrena-koak, idiak ziran etxeo andreak, zabal-du zuan.

Zabaltzen asitakoan, arrioaren gañean bandeja bat jartzen zan, da aitak dotea artan uzten zuan.

Gero, etxeoandre arek, arropak-

-eta erakusten zijoan bezela, arrioaren alabantzak egiten zituan:

–Ara cmen gauza ederrak, eta bera ederragoa!

Andregaiarengatik alegia. Usarioa alaxe zan.

Gero, arratsalde guztian, pilarmonika soñua, dantza, bertso, naiko edari... Izaten zan an zernai festa.

Apalondoan lotara. Ainbeste jendarentzat oirik ez, ta sapaian-eta, mandioan-eta etzaten ziran, belarraren gañean. Ondo gobernatu ezkeru, nunai ondo lo egin.

Nere arrioa mandioan zegoan, da ala esan zidaten goizean:

–Mikela, zure arrioa guk estrañatu degu. An egon gera danok, aren gañean lotan.

Gu larunbatarekin ezkondu giñan, da biaramonean eliz-sartzca cgin genduan. Ori izaten zan, ezkonberriak meza nagusira joan da beren sepulturan lengo illentzat argiak piztu ta oprenda egitea. Oprenda ondoren, etxeko ildakoen izenean, apaizak pater nosterrak errezatzen zituen sepulturaren aurrean, ur bedcinkatua botceaz.

Gero, bazkaria ta festa berriro, bezperan bezela.

Nere nobioa etxe oneko mutil eder galanta zan; kontrariorik gabe zegoan pultsolaria. Orregatik, alkarrekin tratatzen asi giñanean, ala esaten zioten gure aitari:

–Ire alaba ez dek ara sartuko, ez.

Eztaietan, berriz, ala esan zioten:

–Orain kontentu egongo aiz, alaba emen sartuta.

Ni josten ondo ikasia nintzan, bañan baserriko lanetan gutxi nekian.

Aitak eta amak kalera ezkontzea nai zuten, da asieran etziran guztiz konforme ni Ondartzara ezkontzeaz.

Orregatik, gure aitak, ola tentatu zutenean, bi bertso aukeratu zituan:

Amari esan zion  
ezkontza au lenengo,  
baserrira joatia  
ez zeritzan ondo:  
«Arriua besterik  
ez diñat emango;  
naio nuke, alaba,  
ez baziña juango».

Aditu zuanian  
aman albistia,  
alaba au gelditu zan  
entero tristia:  
«Ama, ez da posible  
nik ori uztia,  
guztiak kalietan  
bizitzen ezta».

## AMERIKETARA (1895)

Amerikano batzuek gure aita bertso kantari aditu zuten or nunbait, gustatu ta ara eraman zuten, Arjentinara. Ori 1895 urtean gertatu zan, ni ezkondu ta gero.

Goiko atetik, alegia mandioko atetik, atera zan. Txamarra nik ekarri nion jazteko. Ta nik tira ta arek tira gelditu giñan puska batean. Goiko leiotik begira, berriz, gure ama. Ura ere negarrez. Beste bi aizpak korajez ta fuerteenak.

Oñez Billabonaraño joan zan, ta andik Donostira trenean. Semea ez du bertsoan aitatzen, ta aitari laguntzen joana izango zan gure anaia.

Oiartzungo anai-arrebak Donostira atera zitzaizkan.

Bertsoak kartaz bialdu oi zituan. Maiz eskribitzen zigun. Emendik ere laster erantzuten genion. Baporea nolakoia zuten, Dakar-en nola jo zuten ta beste gauza asko, bertsoan esaten ditu.

Ari kartak bialtzeko señak auek ziran: *Fonda de Buena Sopa, Buenos Aires, Tandil*<sup>1</sup>.

Etorritakoan kontatu zigun bazala an, Buenos Airesen, *Calle Buen Orden* zeritzaiona, oso kale luzea; egun guttian joan ta joan ta bukatzen etzana.

Ba omen ziran komentu ederrak ere. Pelegrinazioan ere joan omen zan tokiren batera, ta askotan esaten zigun

zer jende izaten zan toki artan, ta zer funtzio ederrak egiten ziran.

Bañan ango jendea otz xamarra omen zan elizako gauzetan. Gure aita elizara joaten zanean, danak atzetik burlaka. Emendik joanak okerrenak askotan.

Bein batean, elizara zijoala, Zizurkilko emakume bat topo egin omen zuan, da onela esan zion gure aitari:

–Nora oa?

–Elizara.

–Txoratu al zak? Ni ogei ta amar urte ontan ez nauk elizan sartu.

Denbora geiago eduki nai zuten, bañan gure aitari apenas gustatu zitzaion ango izatea. Aruntzean, illebete bat; onuntzean, beste illebete bat; ta Buenos Airesen zortzi. Guztira, amar illebete etxetik kanpora.

Egun batean jakin genduan Pello Errota Donostin ikusia zutela. Ta egun artan bertan, illunabarrean, etxera alle-gatu zan. Poz ederra eman zigun!

Erregaliak ere ekarri zituan: erloju aundi bat, urrezko erloju txiki bat, eta abar.

Aundia berak ibiltzen zuan; ta, egun batean, katea ebaki ta ia-ia ostu zioten.

Txikia, berriz, Tolosara konpontze-

ra craman, ta urrezko minuterora kendu ta ojalatazkoa jarri zioten.

Bialdutako bertso batzuk gogoan ditut:

Atera nintzanean  
goiko atetikan,  
Mikela ori asi zan  
negar gogotikan;  
ama suspiriyoka  
leio-zulotikan,  
Maria ta Dolores  
koraje orratikan,  
eskumuñak danairi  
nere partetikan.

Konportatik asi ta  
Beko-errota paria  
baña luziago da  
gure baporja;  
gañera an dagoan  
kurirosidadia,  
arrituko litzake  
ikusi gabia.

Zer ikusi lezaken  
mundu korrituak?  
Oso ta bizi gaude,  
gañera arrituak.  
Dakar-en irten zaizkigu  
larru-gorrituak,  
trapu bana aurrian  
beste gabekuak,  
gu gera mundu onetan  
zoriekuak.

Jaija zelebratutzen  
dute arratsaldian,  
lana egiten dute  
eguardi artian;  
gero pikardiyara  
mezaren ordian,  
orra Amerikako  
kontuak zer dian.

Ikusitzen banaute  
sartutzen elizan,  
atzetikan burlaka  
txoratu al naizan;  
nik berdin korritzen det  
lenagoko gisan,  
baita segituko're,  
ez bildurrik izan.

Aitatutzen badet nik  
konfesiyan, danak  
ibiltzen naute  
ito bearrikan;  
apaizak ez daukate  
ortantxe lanikan,  
gutxi ikusten ditut  
joaten diranikan.

Oi t'amairu urte ontan  
konfesatu gabiak,  
Pellok ikusi ditu  
atso ta aguriak.  
Zer ikasiko dute  
aien landariak?  
Erremedi ditzala  
guztion Jabiak.

☆ ☆ ☆

Urrengo bertso au ez dakit Ameriketatik norbaiti bialdu ote zion edo nunbait ere kantatu zuan:

Kartaz abisatuta  
nabilte kotxian,  
deskantsu aundirikan  
ez daukat etxian;  
ateratzen gerade  
zerbaiten pozian,  
iya aberastu nauk  
premiyo utsian.

1. Tandil: «Ciudad en la prov. de Buenos Aires, capital del partido de su nombre, con unos 37.000 h.

según datos de 1926. Sit. a 331 kms. de Buenos Aires...» (Dic. Espasa)

## GURE ANAIAREN EZKONTZA (1897)

Gure anaiak lenengo emaztea emeretzi urteko neska eder bat izan zuan. Aiarra zan, Olaetxekoa. Olaetxe ori San Pedroko ermita ondoan dago.

Arengana joateko, mendian gora igo, Bulano baseritik pasa ta mendia-  
ren beste aldera jetxi bear izaten zuan,  
ordu pare bat baño geiagoko bidean.

Ango neskatxarik ederrena eraman  
nai zualako-edo, ingurumari artako mu-  
tillak gure anaia begitan artua zuten.

Gau batean, andregaiia ikusi ondo-  
ren, ango tabernan karta jokuan ari  
zan. Alako batean, ango mutillai kiñuka  
ari zirala antzeman zien. An gauza onik  
etzegoala-ta, pixa egitera zijoala aitzeki  
eginda, tabernatik atera zan; da, kan-  
pora orduko, ekin zion mendian gora  
aldapari, bere egiñal guztian.

Bazijoan da, alako batean, bide-baz-  
terrean norbait bazala iduritu zitzaion.  
Makilla gora jotzeko posturan jaso, ta  
ola galdetu zuan:

–Zein da emen?

Lendabizikoan, an zanak etzion ka-  
sorik egin. Berriro galdetu zuan:

–Zein da emen?

Orduan ala aditu zuan:

–Kaixo, Miel Anton!

Bulano-etxeberriko gizona zan, bere  
lagunik aundienetako bat.

Ala esan zion gure anaiak:

–Zertarako ez didazu lendabizikoan  
kasorik egin? Eskapada ederra egin de-  
zu! Ia galanta eman nizun!

–Pauso otsa aditu det, norbait korri-  
ka zetorrela; ta, bada ezpada ere, baz-  
tertu ta makurtu egin naiz. Bigarren-  
goan ezagutu dizut boza.

Gure aitak, Ameriketara joan za-  
nean, bera andik etortzean ezkonduko  
ziralakoa utzi zituan.

Andregaiaren amak erregalo asko  
bialdu zion aitari barkurako, ta orrega-  
tik bertso au bialdu zion gure aitak  
Ameriketatik:

Eskumuñak, Ibarbia  
Mikela Iñaxi,  
zere esposuarekin  
fameli ta guzi;  
etzidazun bialdu  
erregalo gutxi,  
oiek aitu baño len  
Pello zan iritxi,  
etorriko naiz eta  
ez luze iritzi.

Bañan gure aita andik etorri zanean,  
anaia andregaiarengana joan da oso  
triste billatu zuan. Galdetu zion:

–Zer pasatzen da?

–Ni ezkonduko nintzake, bañan amak ez du nai.

–Amak nai ez badu ere, zuk nai badezu ezkonduko gera.

–Bai; bañan zure aitak naiko al du?

Ala partitu ziran. Gurea baño aberatsagoren bat billatu naiko zioten. Gure anaia triste bueltatu zan. Oso berandu, goizeko lauretan, sartu zan etxean.

Aitak ala galdetu zion oietik:

–Zer berri dakarkik?

–Au ta au ta au pasatzen da, ta ea berorrek naiko duan.

Ori aditzean, gure aitak, *ras!*, oietik saltatu, galtzak jantzi ta bideari ekin zion.

Allegatu zanean, neskatxari ala esan zion:

–Atera zaitetz etxetik, ezkontzen uzten ez bazaitue.

Ala, ni ordurako ezkondua nintzan, da nere etxera, Ondartzara, ekarri zuan. Ta ezkondu bitartean gurean euki genduan.

Pregoa egin bear zan bezperan, Miel Anton, gure anaia, andregaiia ikusten gurean izan zan. Illundu ta gero etxera kamiotik zijoala, aiarrak bidera atera zitzaizkan, Artzubiko bueltan.

Gure anaia astoaren gañean zijoan; da, aien kuadrilla ikusi zuan bezin laster, astoa utzi ta bide zarrera korrika pasa zan.

Lekuko berri zekiana zan noski; ta botanako eskiñatik pasa, leioan gordeta zegoan giltza artu ta etxera sartu zan.

Aiarrak astoaren billa etorriko zala uste zuten. Bañan gure anaia leioan zan; da, illunpetan ezer ikusten ez bazuan ere, sumatzen zuan, astoa arran-

tzan asten zanean, muturra txapelarekin-edo nola ixten zioten.

Egun-txintan, astoa utzi ta alde egin zuten aiarrak. Astoa orduan atarira etorri zan.

Gero jakin zuan gure anaiak aiek zein ziran. Ikusi baitzuten kuadrilla ura goizaldera pasatzen.

Geroztik, eta ezkondu bitartean, bildurrak zebillen gure anaia. Pregoi aparira joateko ere, auzoko mutilla, Konportako Jose Mari, lagun artu zuan. Bañan, bidean zijoazela, arek ala esan zion:

–Lengoan bezela ateratzen bazaizkigu, zer egin bear diagu?

Laguntza ustean artu, ta ura ere kobardiatu!

Ala, Astiasun izan ziran eztaiak. Andregaiia gure etxetik ezkondu baitzan!

Andregaiaren amak olaxe esan omen zuan:

–Naiago nitek an ezkondu baño, il-da ikustea!

Zazpigarren illebetean, gure koñata orri anaia tipusarekin zuala abisatu zioten, da bisitatzera joan zan.

Etzuan ikusi. Atearen zirrikituetatik ala esan zion:

–Rupino, ondo al ago?

–Bai.

Aiako erretore jauna an zan da ala esan zion:

–Tokirik txarreanean zaude. Aurrera edo atzera egin zazu.

Ba, besterik gabe, andik kutsua artu zuan. Tipusa arrapatu ta ortatik il zan, egun asko gabe<sup>2</sup>.

Aiako erretoreak bazekian nunbait

aren ama zer esana zan, da ala esan zion:

–Mikela Iñaxi, Astiasura joan ta ikusi alabaren il-oia zein tristea dan.

Gure anaiari burutik egingo ote ziztaion bildur izan giñan. Beti kanposantuan zan, da azkenean galerazi bear izan zioten.

Andik lau bat urtera, berriz ezkondu zan. Bigarren emaztea ere aiarra zuan, Maria Pilar Izeta, ta amar seme-alaba izan zituzten.

1. 1897-II-27-an ezkondu ziran. Beren izenak: Miel Antonio Elizegi Bengoetxea, errotaria, astiasuarra, ogei ta lau urtekoa, ta Basilisa Aldabaldetrekua Ibarbia, nekazaria, aiarra, emeretzi urtekoa. Andregaiaren gurasoak: Juan Inazio, aiarra, ta Mikaela Inazia, zizurkildarra. (Asteasuko elizako laugarren ezkontza-liburua, laugarren orrian.)

2. 1897-IX-20-an, il zan, emeretzi urterekin, Goikoerrotan, *fiebre tifoidea* gaitzarekin. (Asteasuko elizako eliz-liburuetatik).



## GURE AMAREN ERIOTZA

### (1897)

Gure ama galbaian garia garbitzen aritzen zan, da saietsean *bulto* bat atera zitzaion. Errotako autsarena omen zuan, da ura bere bidea ezurretara egiten zijoan.

Ordua etorri ezkerro, orain ere, orduan bezelaxe, il egiten dira. Bañan orain adelantu aundiak daude, ta orain ainbeste modu etzegoan orduan, ura sendatzeko.

Alare, saietsetik ebaki, ango zor-neak atera ta urtebete bizia luzatu zioten. Bañan gero ere arek eraman zuan.

Gaixorik zegoala, Anastasi nere alaba bigarrena izan nuan. Jaio baño len, aur ura berak jaso bear zuala esaten zuan; da ala, bataiora astoaren gañean joan zan.

Orduan esaten zan Josepetako zelaiian emendik joaten zan bezela azaltzen zala. Orregatik, ildakoen gorputzak bedeinkatutako erramuakin da ur bedeinkatuarekin garbitzen ziran aurrena. Urrena, kamixa zuriz-eta azpitik gañera apain-apain jazten ziran. Gero gañean, abitua zuanak, abitua; eta etzuanak, zuan onena.

Orain, berriz, illa dagoan maindire ura bera, garbia bada, zikiña bada, bi aldeetara bota ta oso-osorik kajan sartzen asi dira. Orain ala asi dira: erre-

kerira. Ez nazatela ni beñepein ola sartu!

–Ni apain-garbia izan naiz, ta ni ondo jantzi bear nazute! –esaten zigun gure amak.

Ta galtzerdiak eta botak eta soñekoak eta danak, zituan onenak, oi gañean eukitzen zituan, iltzen zanean jazteko.

Ta egun guztian, mixio bat bezela, kontseju onak ematen aritzen zitzaigun, umeak ondo azitzeko ta ola. Bañan mixio bat bezelaxe!

Inguruko jendea ere joaten zitzaion, da zeukan konformidadearekin danak arrituta eukitzen zituan.

Bezperan ere jendeari esaten aritu zitzaion nola sentitu zuan lendik gaitza, ta mundu ontatik bazijoala, bere denboran zenbat gari-garbitze egin zituan, da bere bizimodua zer izana zan, da orrela. Ezagueraren paltik etzuan arek izan, ez.

Guri gutxiena aritzen zitzaigun; tristetu egiten giñan, da tristura ez emateagatik. Ta ni kanpoan nintzan, da neri gutxiena esaten zidan.

Ta ola, ezaguera onarekin, agorreko Santa Krutz egunean il zan.

Gure aita oso triste gelditu zan. Txiritaren bertsoa ere bada:

Pello, zertako zaude  
triste eta umil?<sup>1</sup>

Ta gero, norabait kanpora joanda,  
Txirrita edo beste bi bertsoaren au-  
rrean, bertso au bota zuan gure aitak:

Gazterik egin gendun  
alkarrekin junta,  
ogei urte baño len  
giñan ezkondata<sup>2</sup>;  
orain bakarrik nago  
Jainkuak kenduta,  
ai, zeruan balego  
emazte dipunta!<sup>3</sup>

1. Ikus: *Auspoa* 18-19, 111'garren orrialdean.

2. «Día veinte y cuatro de Julio de mil ochocientos sesenta, habiéndose publicado en la Iglesia Parroquial de Asteasu, y en esta mi Parroquia, las tres proclamas que dispone el Santo Concilio de Trento, de las que no resultó impedimento, enterado

del consentimiento gradual de los interesados de los contrayentes, y de que habiendo sido aprobados en doctrina cristiana, recibieron los santos sacramentos de penitencia y comunión, yo, el infrascrito Vicario de la Parroquial de San Millan de esta villa de Cizurquil, asistí al matrimonio que, por palabras de presente y como lo manda la Santa Madre Iglesia, contrajeron Pedro José de Elícegui, soltero, natural y residente de Asteasu, hijo legítimo de José Santiago, natural de Larraul y residente en ésta, y de Josefa Ramona de Maíz, natural de Soravilla, ya difunta, y Joaquina Antonia de Bengoechea, también soltera, natural y residente de ésta, hija legítima de José Antonio y de Josefa Ignacia de Lasa, naturales y residentes de ésta. Fueron testigos Jose Lorenzo de Zabala y José Ignacio de Tejería, naturales y residentes de ésta, y otros varios. En fe de ello firmé. Dn. Ramón Buenaventura de Atorrasagasti». (Zizurkilko eliz-liburuetatik artua).

3. Pelloren emaztea, Joakina Antonia Bengoetxea Lasa, Zizurkillen jaio zan, 1840 urteko apirillaren 24-an, goizeko lauretan, Galardi baserrian. (Zizurkilko eliz-liburuetatik.)

Ta 1897 urteko maiatzaren 4-an il zan, Astiasuko Goikoerrotan, goizeko iru t'erdietan, *tuberculosis pulmonar* gaitzarekin, bertako eliz-liburuak diotenez.

## ITZETIK ORTZERA

Bertsolaririk geienak badituzte ola-koak, eta gure aitak ere bai.

Don Braulio Arozena, Tolosako erretore izan baño len, Astiasukoa izan zan; da ala galdetu zion gure aitari, txarteletara joan zitzaion batean:

–Pello, zer nai dezu galdetzea?

–Txartela eman da azkar bialtzea!

Ta azkarrena orduan bialdu omen zuan.

☆ ☆ ☆

Beste batean, alkarrekin topo egin-da, onela esan zion Don Brauliok, bizkarrean joaz:

–Pello, urteak bizkarrean?

–Kargamentu txarra, jauna; naita ere ezin utzi baztarrean.

☆ ☆ ☆

Beste egun batean, txarteletara joan da onela galdetu zion apaizak:

–Zer gauza da fedea?

–Sinistea ikusi gabea.

☆ ☆ ☆

Bolara batean, Astiasuko medikuak bere kargua ondo kunplitzen etzuala ta apaizak kontra zituan.

Errikoak ere, batzuk apaizen alde ta besteak medikuaren alde zeuden.

Ta, azkenean, bototara etorri zan auzi ori.

Ala, gure aita etxeko ate ondoan zegoan, da apaiza etorri ta ala esan zion:

–Pello, oik lanak! Oik lanak!

Ta gure aitak:

–Berori dalako danak!

☆ ☆ ☆

Egun batean, Tolosatik Billabonara trenean billeterik gabe zetorren.

Interbentoreak etorri ta onela esan zion:

–Billete!

Gure aitak:

–Galdu izan zitzaioite!

Gero izen-apelliduak esateko interbentoreak; ta gure aitak:

–Pedro Elizegi,

gaur ez netxabilek errezegi!

Urrena, nun bizi ote zan galdetu zion, da:

–Molino Konporta,

zuek ari zerate, baña neri gutxi in-porta!

Interbentoreak ezer entenditzen ez,  
ta zer zion galdezka. Jende dana, berriz,  
parrez. Saltsa orrekin Billabonaraño  
allegatu ziran, da an ez dakit barkatu  
edo zer egin zioten.

☆ ☆ ☆

Bein batean, atso xar bat gure etxera  
eskean etorri zan, pañuelo bat buruan  
zuala.

Gure aitak galdetu zion:

–Nungoa zera amona: naparra?

Atsoak:

–Ez naiz munduan bakarra!

Ta gure aitak:

–Ez biziro leguna ere: lakarra!

Urrena gureak galdetu zion:

–Elur aundiak izango ziran an?

Ta atsoak:

–Elurra? Bai, jauna, bai! Lepo-lepo  
egin da *quieto, coño!*

Goxoa izango zan atso ura!

## SANTA AGEDA BEZPERAN

Errezildik-eta, Aiatik-eta, askotan deitzen zuten gure aita, Santa Ageda bezperan koplari ibiltzeko.

Bost durokoa aginduta eramaten zuten. Astiasun etzioten jornalik agintzen, da errian ez nuan bein ere orrela ikusi.

Aopetik ala salatzen omen zioten:

–Etxe ontako nagusia Ameriketan izana da. Etxekoandreak izen au du. Neskatzak nobioa alako du...

Ta gure aitak bakoitzari bertso edo kopla bana kantatu bear. Zenbat lagun etxean, ainbeste bota bear. Aurrena nagusia koplatu bear zan, urrena etxe-koandrea, gero seme-alabak. Gogoan det neskatzak bati zer kantatu zion:

Egunez ere ederra zera,  
gaubian berriz apaiña,  
beste guztiak utzi litezke  
zu neretzako baziña.

Ala esaten zigan:

–Lorentxa izeneko pranko bazion mendi oietan. Laantxa esaten zietenan.

Batek ogi osoa ematen zien, besteak lukainka, urrengoak gazta, edo urdai-azpikoa, edo dirua... Al zuanak al zuana. Arraultzakin xesto aundi bat betetzen zuten.

Gero, aiek danak ostatura eraman, maniatu arazi ta bankete izaten zuten Santa Ageda egunean.

Kopla bat onela bota zuan:

Sei lukainka ta zazpi urdai puska,  
gañera berriz zeziña,  
alkate jaunak agindu eta  
Kaxildak egin kuziña.

Mendiko baserrietan, kalean baño geiago biltzen zuten, da azken baserrieta-raño joaten ziran. Ordubeteko bidea bazan ere, ara joan bear izaten omen zuten. Ta Errezilko ta Aiako partean izugarri baserri bakanak daude, Altzola, Erdoizta ta Beama alderdi ortan. Basamortuan da tokirik tristeenean bizi dira.

Basarri jaio zan etxea ere or nunbait dago; Granada-erreka deritzaio. Gure anaiak etxe artan gaua bein egin zuan, da goizean jeiki ta etxeoak atari ondo-ko estratan makurtuta arkitu omen zitan, alkarri ola esanaz:

–Ara, ara: emen anka-arrastoa zekok... Zein pasa ote dek? Astoa! Bai, bai! Baita gizonezkoa ere! Oña aundi xamarra uan gañera... Ene! Bart pertsona pasa dek emendik!

Beraz, gau guztia ibiltzen pasa bear. Lagunak sasoiko mutil gazteak ziran; bañan gure aita gizarajoa ler egin da petxutik izugarri nekatzen zan. Etzan txorakeria. Urte batean oso aspertuta etorri zan.

–Ni ez naukate berriz ola ibillirik  
–esan zuan, da etzan geiago joan.

## GURE AIZPA DOLORES (1881-1901)

Gure aizpa Dolores ogei urterekin ilzan. Ama Birjiña Doloretako egunekoa zan.

Uraxe genduan neskatxa ederra ta bikaña, ez lan gutxi egiten zualako banna.

Orduan etxean bera emakume bakarra zegoan; da, izotzarekin ta edozein eguraldi gaiztoarekin ere, erre kara joan da lixiba jotzen aritzen zan. Zaku galantakin astoa kargatzen ere indarra arek zuan.

Mezetara goizero joan bearra izaten zuan. Don Tomas ura, berriz, urte guztian erremediorik gabe meza illunpetan eman bear izaten zuan apaiza zan; da bolara artan zakur amorratuen soñu aundiak ziran, da gure aizpa ori asto gañean joan da asto gañean etortzen zan.

Ta kantak ere bai; kantak ikasiko zituan ez dakit nundik ere. Irurogei ta zazpi bertsoke Jesukristoren Pasioko liburu txiki bat bazan<sup>1</sup>, ta itzik erratu gabe danak kantatzen zituan arek.

Gogoan eukitzen det:

Errespuesta ondo emanda  
Jesus alare utsegin,  
soldadu batek jota bota zun,  
-mendean ez da atsegin-...

Bertso oiek danak gure aitak ere bazekizkian. Ta Don Brauliok, Ostegun Santu gauean, urtero biltzen zuan aiuntamentua erretore etxean. Gure aita ere eramaten zuan. Ta an gure aitari bertso oiek danak kanta arazten zizkan. Ta ala esaten omen zuan danen aurrean:

-Alperrik dek gu kulpitora igotzea. Jesusen Pasioa onek ederkiena kontatzen dik.

Errotarria pikatzen ari zala ere, kantatzen zituan arek. Ta gure aizpa ori ere noiznai aritzen zan bertso oiek kantari. Boza ere aparta zuan.

Nik seme zarrena izanda elizan sartu nintzanean ere, etxera abiatzean:

-Aizan, ator!- deitu zidan atzetik.

Joan nintzaion, da:

-Mikela, umeak ondo azi itzan; umeak Jaungoikoaren bildurrean azi itzan.

Ejenpluak ematen neri ura, artean emeretzi urteko neskatxa zalarik, ogei etzituan da! Dana alakoa zan ura.

Beste neskatxa bat, Sagastumekoa, bere laguna, ikaragarri dantzari ederra, moja joana zan. Beste bat, berriz, Sagastikoa, Reparadoras-etara joan zan Zarautza, muturra tapatutako oietara, ta ura ere dan-dana gelditu gabe ibiltzen zan neskatxa zan. Ta biak ere an etsi.

Komentuetara joanda ere, oiek azkarrena etsitzen dutela uste det, beti eskuak muturraren aurrean ola jarrita dabiltzanak baño obeto.

Gure aizpa, berriz, aien inbiritan gelditu zan. Beti orixe zuan gogoan; da, aita Ameriketatik etorri zanean, guk esan genion:

–Ori moja joango da beifnepein.

Ta aitak esan zion:

–Jaungoikoa serbitzen ez diñat galezariko. Bañan begien bistatik betiko izkutatzea ez niken naiko.

Etzeukan beste emakumerik ere orduan etxean: ama il, gu ezkondu, ta semea ere ezkondu ta zazpi illebeta baño len andrea illa.

Ta, alaxe, udara zan ta gure aizpa ori izarditu ta errotapean sartu zan freskatzeko. Artatik eztul txarra jarri zitzaion, da etzitzaion joaten.

Apaizak kejavu zitzaizkan aitari:

–Pello, gu pasiatzetik etxera ta zure alaba ori aurrean. Aguro joan nai zuan ta eztulak etzion uzten. Zure alaba gaizki dago. Ogei urte ditu ta orren eztulak ikaratzen gaitu.

Aitak esan zion medikuagana joan bear zuala, ta arek:

–Bai; eztulagatik medikuagana joango gera.

Bañan aitak artu ta Tolosara eraman zuan, Arkautezana.

Arek esan zion, katarro zarra biriketant eta odol bildua biotzaren gañean zeuzkala; bi gaitz zeuzkala neskatzak, eta esperantzik etzion eman.

Gero, Oiartzunen bazegoala medikuan bat, eta arengana bialdu zuan, gure anai Miel Antonekin.

Arek ala esan omen zuan:

–Gona zar bat adabakatuko litzake. Bañan au ez; neskatzax au ez.

Eta ala etorri ziran.

Urrena, berriz, Lazkaon bazegoala barberoren bat, eta an ere izan zuan. Santa Marina bezpera zan. Anaiak astoaren gañean eraman zuan estazioraño, gero trenean, ta berriro ere astoan.

Bañan an ere desengañua.

–Ankak aunditzen astean, azkar ibilli neskatzax onekin –esan omen zion anaiari.

Anaia negarrez asi omen zan; ta, arrebak antzemango ziolako bildurrez, ez omen zan arrebagana bereala azaldu. Puxka batean astoarekin ukulluan-edo egon zan.

Azaldu zanean, ordean, azkar konturatu zan arrebax anaiak begiak aundituta zeuzkala. Bañan etzion ezer esan. Etzan tonta, ez.

Erremediorik etzuala etsi zuan gizarajoak; eta, gogoratzen zitzaionean, batzuetan konforme ta batzuetan triste jartzen zan.

Egun batean, anaiak, leiotik baratzara begira ta negarrez arkitu zuan. Ala galdetu zion:

–Zer den. Dolorex?

Ta arek:

–Ez diat ezer ere. Bañan pentsatzen natxiok aurki lur orren azpira joan bearra nagoala emeretzi urterekin...

Ta iltzeko aurrean, olako lekutan bost xentimo bazuala zor; ta alako lekutan bazuala alpreta pare bat ekarri ta iriña emana; ta testamentua egin zuan ederki arek. Oraingo neskatzak malizi geiago daukate, bai.

Il zan bezperan, danak jakin nai zituan nunbait eta anaiari olaxe galdetu zion:

–Aizak, Miel Anton: iltzera natxiak eta Lazkaokoak zer esan zian esan bear didak.

–Zer esan zidan? Igana etorri nai ezik egon niñuan orduan.

–Antzeman nikan nik, bai, naiko negar eginda nere aurrera etorri intzala.

Ta alaxe, danak esan zizkan.

Urrena, berriz, aitari esan zion:

–Aita, oraintxe begien bistatik betiko izkutatzera nua.

Arrezkero, beti pena aundia eukitzen zuan gure aitak.

Ala bear nunbait, eta gizon bat, Ixkurbaneko Joxe Iñazio, etorri zan.

–Ikusi bear degu, ba –esan zuan.

Sartu ta:

–Ni ezagutzen al nazu, Dolores?

Ta arek:

–Jesus! Ezagutuko ez det, ba?

Ari ura esan da ola jira omen zan, da akabo: geiago itzik egin gabe, artan gelditu zan<sup>2</sup>.

1. Irurogei ta bost bertso dira, ta Altzoko Imaz bertsolariak jarri zituan.

2. 1901-eko agorraren 16-garren eguna ta arratsaldeko bostak ziran.



## ZENBAIT BERTSO

Juan Jose Ugarte Zizurkilko bertsolari bat zan. Oso ona zala esaten dute.

Gure aita arekin joan zan bein batean Laurkiña bertso kantatzera.

Egun batean, kantuan ari zirala, bertso au bota zion gure aitak:

Juan Jose Ugarteko  
gizon aditua,  
nik ez dizut galdu nai  
dezun kreditua;  
gauza onak beti badik  
bere meritua,  
ni geiago izana  
ezin sufritua.

☆ ☆ ☆

Ainbeste bider aritzen ziran, da nunbait ere bertsotan ari ziran egun batean Txirrita ta beste bat, mutil zarrak, eta Olegario ta gurea, alargunak.

Norbaitek bertsoa aurretik botea izango zuan, da gureak bertso au bota zuan:

Oraintxen azkar esango ditut  
zuriak eta neriak,  
geren esposak kendu zizkigun  
aundiagoko Jabiak;

nik ez dakit zer pentsatzen duen  
beste mutil zar pariak,  
lau bertsolari ementxe gaude  
laurok andrearik gabiak.

☆ ☆ ☆

Len esan degun bezela, garai artan  
Astiasun sagardotegi asko zan; plazan  
bi ziran.

Bein batean, gure aita sagardotegira  
joanda, an beste lagunen batzuk ere eu-  
kiko zituan, edaten gogotik ari ziranak,  
eta aiei bertso au bota zien:

Sei baso atera ta  
sei tragotan ustu,  
beste sei erateko  
iñor biar eztu;  
eran korriente baño  
pagatzia aztu,  
ola tabernaria  
nola aberastu?<sup>1</sup>

☆ ☆ ☆

Patxi Errerua Aiakoa zan. Gizarajo  
aundi bat zan, da mozkor xamarra ere  
bai, ta orduan ere ala omen zegoan.

Ta bertsoa botatzeko esan omen  
zion gure aitari, ta auxe bota zion:

Zelebria zerade  
Patxi Errerua,  
ardua erateko  
badezu gogua;  
orrek ematen dizu  
naiko endrerua,  
jeniyo orri utzi  
ezpazera erua<sup>2</sup>.

☆ ☆ ☆

Egun batean, Aiara iriñak eramate-  
ra joan zan, eta bueltan gurdian lasai-  
-lasai jarrita zetorren.

Gaua zan eta gure aitak argirik ez.

Alako batean, mikeleteak «*jAlto!*»  
ots egin zioten. Ta, gure aita ezagutu  
zutenean, ala esan zioten:

–Pello, gurdin?

–Lau zakun erdin,

–Nun dek argiya:

–Ara or illargiya!

Ta ez dakit ordukoa zan edo gero-  
koa zan, bañan ordukoa izango zan.  
Nunbait eskatu zioten multa. Bañan

bertsoa botatzeko esan omen zion ba-  
tek; orrekin barkatuko ziotela.

Baietz, ba, botako zuala, gure aitak;  
eta ola bota zuan:

Biria luzia ta  
ankik ezin jaso,  
nere buru zuri (y) au  
zoratu dek oso.  
Batere uste gabe  
artu naube preso,  
agur, gizon prestuak,  
eskerrikan asko.

Ta olaxe, barkatu egin omen zioten.

1. Eibarko Juan San Martin-ek:

Sei baso atera eta  
sei tragan ustu,  
beste sei erateko  
iñor biar eztu;  
erango luke baña  
pagatzia aztu,  
olan tabernaria  
nola aberastu?

2. Bertso onen beste era batzuk aurrerago  
emango ditugu.

## GAIXORIK

Azkenerako, alako dar-dar-dar bat jarri zitzaion. Eskuak beti dar-dar ezin gelditurik.

Maldezioa zuala esaten zuan.

Bazan Larraulen Arpide esaten zioten gizon bat. Ezagutu nuan nik ura. Gizon bikaña zan. Españian zan abar-kadunik aberatsena juzkatzen zuten. Buruan sonbreroarekin ibiltzen zan.

Larraulko alkatea izan zan, da antzara jokua arek jarri zuan ango festetan, San Bartolome bigarren batean. Nik sei bat urte nituan orduan, da amarekin joan nintzan ikustera.

Antzarak plazan buruz bera ta ankaz gora jartzen zituzten, sokatik zintzilika. Zaldi gañean egiñal guzian zijoazela, eldu ta lepoa burrundand kendu bear zioten. Esku batekin abereari eutsita, bestearekin antzarari eltzen zioten.

Bañan *Zomorro* izengoitia zuan mutil zar batek, gure aitaren lengusu propioak, bi eskuakin eldu zion; da zaldiak iges egin da an gelditu zan antzaratik zintzilika. Aiek parrak egin zituan jendeak!

Oiartzunen beste bein ikusi nuan antzara jokua. Emen ariñago zijoazen zaldiak. Larraulko estrata bazterrean ezin baitzuten abiada aundirik artu.

Arpidek bi seme ta alaba omen zituan. Alaba neska ederra ta galanta zan. Egun batean, Donostira etorri zan

neskamearekin. Alabak beste zcozer izango zuan; da neskamea, berriz, kapoiak saltzera. Ta, biak batera plazan zeudela, gizaseme bat etorri ta kapoiak erosi zituan. Gero ala esan zion alabari:

–Egin degu kapoien tratua; ta orain zurea egin bear degu, neskatxa.

Ala, ezkontzeko konformatu ziran. Bañan Arpidek etzuan nai. Depositatu omen zuan alaba, edadea izan artean. Bañan gero ere arekin ezkondu zan.

Arpide orren emazteak zazpi baserri ta lakari bat erre izan omen zuan ezkontzeko dotea. Bañan senarrak, erre-medio gabe, beti auzitan ibilli bearra izaten zuan, da danak galdu arazi zizkan. Aurretik dana preparatu ta, uskeri bat balitz bezela, papera firmatu arazi zion, Larraultik kanpora zijoazela, Larrañaga baserriaren azpiko aldean.

Arpide gaiztoa zan, Federik bazuan ere ez dakit. Apaiz ta relijioso guztiai «Jainkoaren zerriak» deitzen zien.

Ta bazan beste gizon bat, Atxaga deitzen ziotena. Pobrea omen zan. Atxaga orren aita, arta puska bat bereztat ganaduaren buruetan artu ta janari arekin ibiltzen zan itzaintzan.

Ta Atxaga orren semeak bide gaiztoz azienda dana jan omen zion Arpideri. Ala esaten zan. «Olako garaitarako oinbeste milla duro» esan omen zion Arpidek, eta bai joan ere. Bañan atea

eta leioak, danak itxi zizkan Atxagak, sartu etzedin. Arpidek leioren bat billatuta, andik paperak sartu ta dana egin zion; bañan, ala ere, azienda guzti-guztia bereganatu zuan Atxagak. Guk azienda ori dana Atxagarena ezagutu genduan, bañan Arpiderena omen zan garai batean.

Neronek ezagutu nuan Arpide ori, Konportako andreari, Xalbadorrari, pezta baten eskea egiten. Lenago, aberatsa zalarik, ongi etorriak eta sekulako omenajeak egiten zizkaten Konportan; bañan gero, pobretu zanean da pezta eske asi zanean, ateak ixten zizkaten. Au mundua!

Gero, Larraultik alde egin zuan, ez dakit nora.

Atxagaren aitari, arta puska gauduen buruetan ibiltzen zuanari, alako dar-dar-dar bat jarri zitzaion, eskuak beti dar-dar ezin gelditurik; eta gure aita alakoa zan da ala esan zuan egun batean:

–Au ere ari dek, ba, dana beretzat eta dana beretzat...

Atxagak aditu zuan, ordea; ta izugarri asarretu ta onela esan zion:

–A, Pello, akordatuko aiz! Ikusiko dek! Ikusiko dek!

Ta gero, denborarekin, gure aitari Atxagak izan zuan dar-dar ura bera jarri zitzaion.

Gogoratu zitzaion, da askotan ala esaten zuan:

–Nik Atxagari ura esan nion, da aren maldezioa izango det.

Ta dar-dar orrekin bastante denboran egon zan, urtebete pasea bai, geiago ez bada ere.

Ura etzan ola oitua; ta, eziñean jarri zanean, bere burua berak tristetu zuan, da orrela geiago gaizkitu zan.

Lenago, noranai ibiltzen zala, animosoa zan. Bañan gauza etzala jarri zanean, animua galdu zuan.

Bañan exerita gisa ortan zegoala ere, etzuan bertsotarako etorriaren partik.

## JENDEAREN AURREKO AZKEN BERTSOA

Astiasuko eliza berritu zuten; da, ura berriz idiki zanean, festa aundia egin zan.

Gure aita, ordurako xar-xarra zegoan, da bere oñez bai, bañan bestek besotik lagun egiñez joan zan elizara.

Bertsotan asko aritu zan arratsaldean; elizaren kontu guztiak kantatu zitu; txalo pranko ere jo zioten.

Bañan gero, eliz atarian, gazte oiek –ainbeste gazte estudiante zan kantatze-  
ra etorria– atzeneko bertso bat botatze-  
ko eskatu zioten.

Ta gure aitak bertso au kantatu zien:

Au esango dizuet  
azken-azkenian,  
zer egin bear dezuen  
iltzen naizenian:  
errosaio bat esan  
nere izenian,  
zerura joan dedin  
Pello zuzenian.

Bere denboran ainbeste errosario errezatua zan, bidean iriñarekin zijoala; ta errosarioa nai zuan, iltzen zanerako ere.

Geroztik etxean kantatu zuan. Bañan, nik gogoan detala, kanpoan etzan izan, eta jendearen aurrean atzeneko bertsoa ori kantatuko zuan.

☆ ☆ ☆

*Oiartzungo Lexotik, gaurko Lexoti  
bertsolariaren aitonak, Pelloren bertsoa  
bestek kantatuta aditu zuanean, beste  
bertso onekin erantzun zion:*

*Auxen eskatu digu  
ezagun danari:  
«Errosariyotxo bat  
errezatu neri».  
Nik kunplituko diyot  
pozik gogu ori,  
zeruan gerta dedin  
Pello Errotari<sup>1</sup>.*

1. Ikus: Manuel Lekuona: «*La Poesía Popular Vasca*», *Quinto Congreso de Estudios Vascos, Vergara, 1930.*

Mikelak etzekien Lexotiren bertsoa; argatik, berak esana ez dalako, beste letra mota batez idatzi degu.

Lekuona jaunak, Lexotiren bertsoaren aurretik, Pellorena dakar, eta Mikelak esan zuan bezelaxe ain zuzen ere.

Bertso au oso ezaguna da Euskalerrian, bañan guztiz aldatuta jaso izan det zenbait tokitan.

Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak orain ogei ta amar urte Asteasun jaso zuan bezela:

Au ere esan bear dizutet  
azken-azkenian,  
oartu zaitezuela  
iltzen naizenian:  
Pater Noster bana errezatu  
nere izenian,  
zeruan sartu nadin  
zuzen-zuzenian.

Tolosako Estanislao Urruzola *Uxola*-ren kuader-  
no batean:

Gauz bat esan biar det  
aizcn-aitzenian,  
zer egin biar dezuten  
ni iltzen naizcnian:  
errosaiua erreza  
nere izenian,  
zeruan sartu nadin  
zuzen-zuzenian.

Basarrik, *La Voz de España*-n, 1946-XI-3-an:

Orra nere bertsoa  
azken-azkenean,  
zer egin beazuten  
iltzen naizcnian:  
aita gure bat esan  
nere izenean,  
zerura dedin Pello  
zuzen-zuzenean.

## ERNIORA ZIJOAZENAI

Plazan kantatutako azkeneko bertsoa orixe izan zan; bañan, nik gogoan dedana, geroztik ere bota zuan beste bertso bat gure etxeko atarian.

Ernioko erromeria zan, da jendea bidea betean zijoan. Usurbildik-eta, Oiartzundik-eta, oso urrutitik etortzen zan garai artan jendea, San Juan Txiki bezpera gaba oñez bidean pasata.

Errotak, onra izango badu, soñua bear du; ta gure aitak bi trankakin ibilli arazten zuan egun ortan. Urte artan ere ala zuan.

Ni nere umeakin errotara joana nintzan. Gure aita mandioko atearen kontra zutik zegoan, jendeari begira.

Ta jendea, erromerira bezela, soñu joaz eta deadarka, bulla ederrarekin zijoan. Askok ikusi ta «Euuup! Pello, zer modu? Ariyo, Pello Errota!» ta ola otsegiten zioten.

Bañan batzuek ola esan zioten:

–Urrutikoak bagoaz gurutzera, ta bertakoak ez? Emengo jendeak federik ba al du?

Ni aitarekin nengoan, da ola esan nuan nere artean:

–Gure aitak bertsoa botako ote du?

Ta bota zien, ba. Banekian nik bertso ura oso-osorik, bañan orain asiera ezin gogoratu zait:

.....  
.....  
nere esplikaziyua  
dizutet emango;  
beti izan izandu naiz  
fediaren bando,  
Pello Errota Erniyora  
geio ez da joango.

Nik ori aditu, alegia gure aita Erniora etzala geiago joango, ta a zer negarrak egin nituan!

Ta aitak, neri begira jarri ta ala esan zidan:

–Zeri negar egiten dion?

–Berori Erniora geiago joango ez dalako.

–I ere geldituko aiz joan eziñik, bai.

Ez nintzan, ordea, bereala gelditu! Larogei ta bi urterekin igo nintzan ni Erniora. Bidean aurrera joanda, besteak etorri bitartean errezatzen gelditzen nintzan.

Ta Ernion alako lata zar bat zegoan. Ura korreoa omen zan, alegia nai zuanak izena eskribitu ta an txartela sartzeko. Nik ala egin nuan: «*Micaela Elice-gui, 82 años y pico...*» eskribitu ta an bota nuan. Gurutzearen atzean ere eskribitu nuan.

Erniotik jetxi ta Iturriotzen merien datu genduan, da gero Astiasura. Ta

urrengo goizean, sei t'erdietako meza entzun da Donostira etorri nintzan tratuarekin.

Bai; airoso joan nintzan ni Erniora. Bañan orain nun gera? A, Jaungoikoa!

Gure aitak, berriz, zar-planta artean irurogei ta amazazpi bat urte besterik etzituala artu zuan.





Pello Errota (1840-1919). (Eibarko Indalezio Ojangurenen argazkia. 1916-an.)

## ERIoTZA

Esan bezela, urtebeteren bat egingo zuan gure aitak gaixorik.

Prai Daniel Baertel, Astiasun misioak eman zituan praillea ere etorri zitzaien arratsalde batean bisitaz. Konpesatu ere arekin egin zan.

Makiña bat kontu aitatu zuten, bere bizitza nolakoa izan zan ta ola.

Prai Danielek ala esan zion:

–Bai; mundu ontan ogia batzuek batera jan bear izaten dute, ta besteak bestera; bizimodua batzuek batera izaten dute, ta besteak bestera; ta zuk ere zerea izan dezu.

Ala, Ama Birjiña Kandelariokoaren eguna etorri zan.

Ura, zebillen toki guztian, edo bertso kantari edo, txapela eskuan zuala, errezatzen ibiltzen zan. Makiña bat bider esan izan dute aiarrak, Pello Errotak, karroa ta idi bakarrarekin zijoala, esku batean akullua ta bestean txapela artuta, errosarioa esaten joaten zala. Errotarria pikatzen ari zala ere, ola aritzen zan. Ta, gauza etzala gelditu zanean, geiago errezatzen zuan.

Beti Ama Birjiñari eskatzen; ta, atzeneko, Ama Birjiña Kandelariokoak eraman zuan.

Ni bezperan ere tratuarekin joana nintzan, da ez nuan uste gaizkiago egongo zanik.

Goizaldera joan nintzaion, ta ala galdetu nion:

–Zer moduz dago, aita?

–Itza moteltzen ari zait, eta burua ere lotzen.

–Bai; mingaña ta burua geiena nekatuak dauzka berorrek bere denboran, eta aiek aurrena aulduko zaizka.

–Bai; alaxe den, bai.

Ta gero, andikan tratuarekin Tolosara joan nintzan.

Eta, bueltakoan, nere lengusu Zizurkilko Juanarekin ta beste lagun batzuekin topo egin nuan. Onela galdetu nion:

–Nun izan zerate?

–Zure etxean bisitan izan gera.

–Gure etxean bisitan? Zer ba?

–Zure aitari elizakoak eman dizkate-la abisatu digute, ta bisitan izan gera.

Aguro joan nintzan ni etxera! Olakorik izango zanik ezta pentsatu ere!

Ta, allegatu nintzanerako, ezagutu egiten niñun, bañan itzik etzuan egiten.

Miñik zuanik ezin esan zuan gixakoak, bañan antsia maiz egiten zuan.

Orrela egun guztia pasa zuan. Don Lorentzo erretorea an zuan iltzen laguntzeko.

Ta gabeen, goiz aldera, il zan<sup>1</sup>.

1. Alaba Mikelak Ama Birjiña Kandelariokoa-ren egunean –otsaillaren 2-an– il zala esaten du. Asteasuko eliz-paperak, berriz, otsaillaren 3-an, 1919-an, zardadez il zala dio. Bañan ez dago emen askatu eziñeko korapillorik. Goizeko ordubietan il zala dio eliz-paperak. Gau artan, ain zuzen, etzan iñor ere etxe artan oiera joango; ta, esate baterako, Kandelario eguna pasa gabea zan aientzat.

Eliz-paperak onela dio:

«En la villa de Asteasu, provincia de Guipúzcoa, diócesis de Vitoria, a tres de Febrero de mil novecientos diez y nueve, yo, el infrascrito cura ecónomo de la Iglesia parroquial de San Pedro Apóstol de esta villa, mandé dar sepultura eclesiástica al cadáver de D. Pedro Elicegui y Maíz, hijo legítimo de D. José Santiago y de Doña Josefa Ramona, natural de esta villa,

de setenta y ocho años de edad. Falleció, según certificación facultativa, a las dos de la mañana del día de hoy, en la casa denominada Goico-errotta de esta parroquia, a consecuencia de debilidad senil. En el acto del fallecimiento se hallaba viudo de Doña Joaquina Bengoechea, natural que fue de Cizúrquil, provincia de Guipúzcoa. No otorgó testamento. Recibió los santos Sacramentos de Penitencia, Viático y Extrema Unción, administrados por el cura ecónomo. Se le hizo el oficio de sepultura y ha sido inhumado en el cementerio de esta villa en presencia de los testigos, D. Agapito Zubeldía y D. Roque Machain, de esta vecindad. En fe de lo cual lo firmo, fecha ut supra. Lorenzo Azpiazu». (Asteasuko elizako bostgarren eriotz-liburuan, 219 orrialdean).

**PELLO ERROTAK  
JARRITAKO BERTSOAK**

## ITZAURREA<sup>1</sup>

Bigarren zati au, bere izenak dion bezela, Pello Errotak jarritako bertsoekin osatu degu.

Bere egillearen izena zenbait papek ematen digute. Asteasuko Mixioarenak onela dio: «Bertso Berriak Asteasuko Elizegik jarriak».

Arantzazuko lenengo kanta-papek:

«Asteasun bizi dan  
Pello Errotariak».

Bigarrenkoak:

«Elizegik nai luke  
guztiyok juatia».

Irugarrenkoak:

«kontentuz arkitzen da  
Pello errotakua».

Donostiko Udalari 1879'an zuzendu zizkion bertsoetan, berriz, bere burua oso agerian ipiñi zuan Pellok.

Udarregiri ordañetan jarri zion bertso saillean, berriz, bein baiño geiagotan azaltzen da Pello Errotaren izena.

Bañan beste gañerakoak ez dute Pelloren izenik ematen, eta ez genduan arenak ziranik sekulan jakin izango, beraren alaba Mikela izan ez balitz.

Bertso-paperez betetako nere karpetak etxera eramaten nizkan, eta an bertso-paper bakoitzetik iru-lau bertso irakurri. Geienetan onela zion:

–Ez; ori ez.

Bañan noizean bein ola esaten zuan:

–Bai; ori bai; ori nik eskribitua da.

Ta buruz beste zenbait bertso esaten zituan, nik bertso aiek berak paperetik nerekiko irakurtzen nituan bitartean.

Mikelak bere aitaren sekretariotza egiten zuan. Berak eskribitzen zizkan bertsoak. Ta larogei urteren buruan, bertsoak eta gertaerak buruan zeuzkan arek, eta guri esan. Arritzeko gauza benetan. Bañan ortik pentsa dezakegu gure erriaren oroimena norañokoa dan.

Gertaera oiek, Mikelak kontatu bezelaxe jarri ditugu, itzez-itz magnetofonoz jasota. Argibide oiekin, bestela guretzat illun xamarrak ziran bertsoak, argiz beterik gelditzen zaizkigu.

Bañan badira beste zenbait bertso, ez gertaera ta ez kanta-papera ezagutzen ez genituanak. Oietan Mikelari zor diogu dan-dana. Etzan bertso guztietaz oroitzen; ezta batzuetan bertso osoaz ere. Bertsoa erdizka gogoratzen zitzaionean, lerro utsak puntuz markatuta jarri ditugu.

Bañan lerroa puntuz eta gero oar batekin dagoanean, oarrak dion bezela, kristau edo erri izen bat kendu degula esan nai du. Or aitatzen diranen ondorengoak gure artean izango dira oraindik ere noski, ta ez goaz iñoren lengo lotsak eta samintasunak berritzera.

Beste batzuetan, nik paperen bate-tik bertsoak irakurtzen ari nintzala, Mikelak onela zion:

–Oiek ere badute, ba, gure aitaren bertsoen itxura!

Bañan dudan baitzegoan, ez ditugu liburu ontan jarri.

Gañera, Mikelak etzuan beti aitaren sekretariotza egin. Beraren aizpak ere egin izan zuten bein baño geiagotan. Orduan jarriak ezin, ba, ezagutu.

Beraz, gaur emen argitaratzen diranez gain, beste bertso asko ere jarri zuan Pellok; bañan, zoritxarrez, oiek ez ditugu sekulan Pellorenak bezela ezagutuko.

Eten gabe etortzen omen zitzaion jendea, bertsoak jartzeko eskean. Baita Pellok ere pozik asko jarri, jorjala irabazteagatik. Bost duro kobratzen omen zien.

*Pello Errotaren bizitza* deritzaion zatian ere badaude, Pellok boteak ez-ezik, jarriak ere zenbait bertso. Bañan aiek iñork eskatu gabe moldatuak dira; bere barrenak eskatzen ziolako papereratu zituan.

Eta alako bertsoak –Mikelak gogoan jasoak gañera, ez guk paperetan arkituak– Pelloren bizitza argitzen diguten ezkerro, egokiago ematen dute an, orain emen baño.

1. Bigarren zati au, 1963 urtean argitaratu zan, *Auspoa* liburutegiaren 33 zenbakian: *Pello Errotak jarritako bertsoak bere alabaren argibideakin*. Bañan ez orain agertzen degun bezela. Arrezkerro, ia ogei ta amar urte igaro baitira, Pelloren beste bertso asko azaldu dira. Oiek emen erantsi bearrak ziran, eta ala egin degu. Bañan Pelloren alabaren argibiderik gabe, ura 1967 urtean itzali baitzan. Orduan egin genduan itzaurretik ere gauza batzuk aldatu bear izan ditugu. Bañan al degun guztia zegoan bezela utzi degu.

(1868)  
**ANOETAKO ASTOA**

Doñu eta bertso auk Irurako Inazio Arregi segalari izandakoari jaso nizkion. Aurretik onela esan zigun:

«Orain urte asko dala –bertsoak esaten du: 1868-an– iruratar batzuk Anoetara joan da angoekin musean asi omen ziran. Aurrena litro erdi bana ardo edo txiki bana edo badakizu zer izango zan orduko jokua. Bañan galtzen duanak min izaten du ta:

–Berriz jokatu bear diagu! Orain duroa jokatu bear diagu!

Bi-bitara noski. Ta duro bana edo amarna errial botako zuten Irura aldetik. Bañan besteak dirurik izan ez ta an batenbat izango zan astoa zuana, ta astodunak:

–Guk astoa jarriko diagu.

Nik sasoiu nuanean, ogei durotan asto onak baziran. Bañan amazazpi peztan astoa erosten ere ni neroni ezagutua nago. Gure etxean bazan amazazpi peztan pagatutako astoa, urte asko egin zituana. Ta duroan ere izango ziran. Eun da amar urte dira<sup>1</sup>, aizu, kontu ori zala ta orduan asko izango zan duroa ere. Edozein moduz, iruratarrak irabazi ta errira astoarekin etorri ziran.

Gero, Pello Errotari abisatu zioten zer-nola pasa zan, da arek bertsoak aterra».

Ona emen, beraz, doñua eta bertso oiek, Inazio Arregik eman bezelaxe:

I - ru - ro - gel ta zor - tzi mi - lla zor - tzi - reun da, Kris -  
to mun - du - ra za - la ga - rai o - ne - tan da, ku - ku ku -  
ku. Txis - te po - li - ta - go - rik ger - ta - tu - tzen lan  
da, guk no - la e - gin gen - du - ben A - noe - ta - ra joan - da.

- 1/ Irurogei ta zortzi  
milla zortzireun da,  
Kristo mundura zala  
garai onetan da, *ku-ku, ku-ku.*  
Txiste politagorik  
gertatutzen lan da,  
guk nola egin genduben  
Anoetara juanda.
  
- 2/ Martxuaren lenengo  
igande onetan,  
iruratar batzubek  
giñan Anoetan, *ku-ku, ku-ku.*  
Pelía maiz oi degu  
ango lagunetan,  
arraiskatubak gera  
jokuko lanetan.
  
- 3/ Gure jokuba etzan  
izan jolasian,  
aizkenerako giñan  
beruen klasian, *ku-ku, ku-ku,*  
aberia jokutzen  
dirurik ezian;  
astua irabazi  
diyegu musian.
  
- 4/ Bost pezetaren prendan  
astua zan jarri,  
jokatuta okerrik  
etzedin etorri, *ku-ku, ku-ku.*  
Irabazi ta laister  
Irurara *arri,*  
kontsuelo txikia  
ez gendun ekarri.
  
- 5/ Astua ona dago  
erozeñientzako,  
ernari dago beintzat  
gure iritzirako, *ku-ku, ku-ku.*  
Oraiñ asto bat eta  
bi maiatzerako,  
beste iru egingo ditu  
oso zartzerako.



6/ Zaldalia jateko  
onak dauzka ortzak,  
arrantzaz ta saltoka  
ortxen dabil pozak, *ku-ku, ku-ku,*  
atera zaizkiola  
barrunbeko otzak;  
eztauzka egun txarrak  
asto buztan motzak.

7/ Asto manten erreza,  
tranpak badakizki,  
libre uzten bazaio  
soruan da aurki, *ku-ku, ku-ku.*  
Topatzen dubenetik  
jango du galanki,  
esi txarrak badaude  
ezta aren aitzeki<sup>2</sup>.

1. Bertso auek 1978'an jaso genituan.

2. Pello Errotarenak bezela eman zizkiguten bertso auek, eta orregatik sartu ditugu liburu ontan. Bañan duda egin diteke, gure iritzirako beintzat, ala ote diran. Guk beintzat ez diegu aren bertsoen egitura arkitzen.

Pelloc, izan ere, ogei ta zortzi urte zituan bertso auek jarri ziranean, 1868-an. Ordurako beste errietatik ere jendea bertso eske etortzen ote zitzaion?

Ta, arenak ez badira, norenak? Xenpelarrek ogei ta amairu urte zituan orduan. Ura bai; ura famaren

gaillurrean zan. Iruratarrak arengana joango ote ziran, beraz? Urbillago, Asteasun alegia, Agustin Zarkarra zuten, berrogei ta amabi urtekoa orduan, eta bertsolari ona bera ere. Arek jarriak ote? Ez det uste korapillo au sekula askatuko degunik.

Bertso auen bi kopia artu genizkion Inazio Arregiri: bata, berak aspalditik idatzia zeukana; bestea, doñua ere jasotzeko berak kantatu ta magnetofonoz grabatu geniona. Onek aldaketa auek ditu: 1/7: zer nola egin genduen; 6/2: sano dauzka ortzak; 6/8: asto itsats motzak.

(1879)

## BERTSO BERRIAK

### ASTEASUKO ELIZEGIK JARRIAK

Asteasuko 1879 urteko mixioari buruz, onela esan zigun Pello Errotaren alaba Mikelak:

«Nik amairu urte nituan. Nere gazte denboran, Amasan, Zizurkillen eta Astiasun ezagutu nituan mixioak. Zizurkilkoa izan zan aurrena.

Angoa ikusi eta «Asteasura ekarritzeko egin zan ametsa»; ta, ala, erri guztiak dirua emanda ekarri ziran mixiolariak. Maiatza zan, baserritarrentzat garairik okerrena; bañan, ala ere, bederatziiurren artan erri guztian ganadu bat ere etzan lotzen lanerako. Gurdi txistu bat mendian entzuten bazan, «zein ote da ori?» galdetzen zuten danak, arrituta.

Begira jarri ta bazter guztietatik bazetorren jendea bideak betean. Baita Alkizatik, Zizurkildik, Adunatik ta besteetatik ere. Orduan ala izaten zan: erri batean mixioak baziran, inguruko errietatik ere agure-atsoak ez beste danak etorri. Astiasutik ere ala joan giñan Zizurkilla ta Amasara.

Bazan orduan errian Ameriketarik etorritako erriko seme bat, Xanti, ta onela esan zion onek gure aitari:

–Pello, nik esango banu Ameriketara nere errian aste-egunean nola dijoan mixiora jendea, ez lidake iñork sinisturiko ta erotzat joko ninduten.

Orduan bakarrik ezagutu nuan tabernara txiki-erdi bat edatera animik ere joan etzan eguna. Orain fede otza dago orduko aldean.

Zizurkilkoan, zimitorioan egin zituzten sermoi batzuk, jende dana elizan ezin sartu zalako.

Astiasura bi praille etorri ziran: Frai Luis eta Frai Daniel. Frai Luis begi bakarra zan; ta bestea, berriz, oso gaztea. Gure aitak ere esaten du:

Oi ta bost urte oraindik eta predikadore zuzena.

Erretore etxeko atarian biltzen zan jendea, ta andik elizara prozesioan joaten giñan, «Atoz, pekataria» kantatzen. Aiton kaskazuri danak ere kantari joaten ziran.

Izlari bikañak ziran praille aiek biak. Frai Luisek predikatzen zuan aurrena, ta gero Frai Danielek.

Beste bertsolari batena nik Amasako mixioan aditu nuan. Barkazioko sermoia zan. Ola esan zigun prailleak:

–Nere kristauak: bertsolari zar batek bein esan zuana esango dizuet orain nik ere:



Asteasu. (A. Z.-ren argazkia).

Lenengoa fedea,  
bigarrena esperantza;  
irugarrengo orrek badu  
milla bat mudantza:  
Il da karidadea!  
Bizi da mengantza!<sup>1</sup>

Ta iru bider esan zuan:

Il da karidadea!  
Bizi da mengantza!

Bukaeran ere, Astiasun, erretore  
etxeko atariraño laguntzen genien prai-  
leai. An danak belauniko jarri ta guru-  
tze batekin Aita Eternoaren bedeinka-  
zioa ematen ziguten. Ta gero ixil-ixilik  
joaten giñan norbere etxera. Orduan

kristau beroak edo otzak izaten ziran;  
etzegoan epelik, gaurko geienak bezela.

Zimitorioa errosario, medalla ta eliz  
liburu saltzalez beteak egoten zan. Gero  
galerazi zuten ori.

Gure aitak, etxera joan ta egun ar-  
tan egindako sermoiaren gañean bertso  
pare bat apuntatzen zuan.

Gero, kanta-papera publikatzera-  
koan, erriko bi gizonak esan zioten mi-  
xioa aiek ekarria zala jartzeko. Bañan  
gure aitak ezetz esan zien; erri guztiak  
ekarria zala ta etzala batere gezur bea-  
rrikan».

Oneraño Mikela Elizegi Pello Erro-  
taren alabaren itzak. Mikelak bertso ba-  
tzuk kantatu zizkidan. Bañan guztiak ez  
ditut Tolosako Fakundo Adurriaga *Be-  
samotza* zanaren bertso-bilduman beste  
iñun arkitu. Ontan dauden bezela jar-  
tzen ditut.

1/ Milla zortzireun irurogei ta  
emetzigarren urtea,  
Asteasura logratu dute  
misiyua ekartea;  
ondorenean gogoratu zat  
ejenplo on bat jarrea,  
onetarako zure bear naiz,  
guziyon Jesus maitea.

2/ Maiatzaren ogei ta batean  
asi zaizku misiyuak,  
jakin ditugu nola diraden  
guretzat kondiziyuak;  
gure onerako izandu dira  
orien esplikaziyuak,  
indartsu, arren, egin nazala  
Jesusen bendiziyuak.

- 3/ Au Zizurkillen ikusi eta  
egin genduen ametsa,  
Asteasura ekarritzeko  
iñola're al bagentza;  
erri guzia orretarako  
egiña dago nobleza,  
komisioa nonbratu eta  
kunplitu degu promesa.
- 4/ Frai Luis orrek predikatu du  
kulpitotikan aurrena,  
itzegin digu erakustera  
etorri dala gugana;  
ezaguturik gure artian  
premi aundiya zeguana,  
orren sermoiak mugituko du  
sentidurikan duena.
- 5/ Frai Danielek itzegin digu  
berriz urrengo puntuan,  
ez segitzeko komertzioan  
guk mundurako tratuan;  
anima garbi idukitzeko  
zuzenian da kontuan,  
onetarako konbeni dana  
Jaunaren beldur santuan.
- 6/ Relijioso bi izan dira  
seme San Frantziskorenak,  
guk kunplitzeko baldin bagindu  
eman dizkue ordenak;  
gure onerako izandu dira  
oiek egindako lanak,  
Jauna alabatzen ekusitzia  
zeruan nai dute danak<sup>2</sup>.
- 7/ Egoki asko atera zuten  
guretzat on zan planua,  
etzala basta pentsatutzia  
«konfesatzera banua»;  
bear bezela pentsatutzeko  
utsegiñaren damua,  
dolorea ta propositua,  
ori da bide sanua.

- 8/ Ikasirikan arkitzen gera  
nola egin konfesioa,  
esamiñara prestatutzeko  
lenengo atentzioa;  
dolorea ta propositua,  
ori da kondizioa;  
penitentzia kunplitutzean  
badu satisfazioa.
- 9/ Asko alditan esan digute  
predikadore maiteak,  
bat utzi gabe ateratzeko  
barrengo serpienteak;  
artatik arin jartzen dirala  
animetako nekeak,  
minutu artan citen dirala  
Jaungoikuakin pakcak.
- 10/ Pekatariak egiñagatik  
pekatu ustez gordean,  
Jaun Zerukua presente dago  
beti begien aurrean;  
deskuidatutzen giñan geiago  
gauza ori jakin gabean,  
ontzaz aurrera izango gera  
gu bizimodu obean.
- 11/ Obligazio asko diogu  
kristau guziak Jesusi,  
nere mingañoak zenbateraño  
au ezin adierazi;  
arren prueba klaroan dago  
iñork nai badu ikusi,  
bere odola ixuri eta  
danok ginduzen erosi.
- 12/ Pekatu egin dan bakoitzian  
Jesus berriro josten da,  
infernu dana zabaldu eta  
zeruko atea ixten da;  
etsaietara aren anima  
entregatua uzten da,  
ez al gerade atrebituko  
kalte oiek ikustean?<sup>3</sup>

- 13/ Engañagarri bat besterikan  
ez dadukagu mundua,  
tentazioa nunaitik eta  
iñola ezin kendua;  
allegatutzen zaigun garaian  
eriotzako ordua,  
bear bezela pronto ez badago  
aren anima galdu'a<sup>4</sup>.
- 14/ Il bearra guk danok daukagu  
pekatuak ekarriya,  
konsideratzen badegu ondo  
gauza ikaragarriya;  
anparorikan iñundik ez ta  
estadu errukarriya,  
aren anima galdua dago  
pronto ez badago jarriya.
- 15/ Nere kristauak, badatorkigu  
azken juizioko eguna,  
Josepetako zelai santuan  
danok bildu biaguna;  
juez justuak letuko digu  
munduan egin deguna,  
errukarriya aterako da  
ara gaizki joaten dana.
- 16/ Juez justuak begien bistan  
letuko du sententziya,  
zer posturetari igaro duben  
mundu onetan biziya;  
zuzen badago ziertoa da  
zerua irabaziya,  
gaiztoak berriz infenuetan  
eternidade guziya.
- 17/ Obligaziyo askoren mende  
bizi gera gurasuak,  
prezisamente guk azi biar  
aur inozente gaixuak,  
erakutsiaz nola diraden  
Jesukristoren pausuak;  
gañerontzian guretzat datoz  
kastigu izugarrikuak<sup>5</sup>.

- 18/ Inozentia utzitzen badu  
gurasoak okerrean,  
etsaiak ura tentatuko du  
agudo jeneralean.  
Zer eskandalo jarriko ditu  
orrek mundu zabalean!  
Ekuskizunak aundiak daude  
Jaungoikuaren aurrean.
- 19/ Aurrarentzako bear dana da  
bataioa lenbiziya,  
orren urrena tokatzen dira  
mantenua ta jantziya;  
dotrina ondo erakutsiyaz  
Jesusek guri utziya,  
ala portatzen baldin bagera  
libre da kontzientziya.
- 20/ Seme-alabak bizi dirade  
ordena onen mendean,  
aita ta ama errespetatu  
bear dan umildadean;  
al duen gaiaz sokorrituaz  
ezintuera diranean,  
berak nai badu ala izatia  
artaratutzen danean.
- 21/ Premi danean lagundu ondo  
aitari eta amari,  
bestela ofensa egingo zaio  
guziyon jabe Jaunari;  
erreparatu deiola ondo  
atal buruko kanari,  
kastigu aundiyak etortzen zaizka  
gaizki portatzen danari.
- 22/ Eskandaloso guziak dira  
etsaien aiudanteak,  
engañatutzen ibiltzen diranak  
pertsone inozenteak;  
zabalik beti utzitzen dizka  
okerrerako ateak,  
desprezio au ez du merezi  
Jesusen borondateak.



- 23/ Pertsona eskandaloso batek  
anima asko galtzen du,  
zeru bidean dagona ere  
infernurako jartzen du;  
bere anima etsaietara  
orduak entregatzen du,  
etziñake zu ola ibilliko  
au pentsatuko bazendu.
- 24/ Aurretik asko illak dirade,  
gu're ez beti biziko;  
zerbait esaten asia nago  
banuke adieraziko;  
mundu ontako iduripenak  
dirade egun gutxiko,  
kuidado anima galdu ez dedin  
eternidade guziko.
- 25/ Aldrebes asko geunden bada  
gauza oiek ez ikasiyan,  
pekatuetan bizi giñanak  
geren denbora guziyan,  
illuntasuna beste gauzarik  
ez dala kontzientziyan;  
oien sermoiak para gaituzte  
Jaungoikuaren graziyan.
- 26/ Gure animak konsolatzera  
oiek zaizkigu etorri,  
nola bear dan garbiro asko  
dizkigute irakorri;  
bengantzarikan baldin badegu  
barkatuzeko alkarri,  
lenago gaizki bizi giñanak  
orra deskantsuan jarri.
- 27/ Barkaziyoko sermoia egiten  
kulpitotikan asi zan,  
Jesusen prueba nolakua zan  
klaro asko ikusi zan;  
bengantzak zeukan ate zabala  
derrepentian itxi zan,  
erri guztia jarri gaituzte  
pake santuko bizitzan.

- 28/ Pertsona asko bizi giñaden  
pekatuak erituak,  
obra onetara utzi nai ezik  
etsaiak amarratuak;  
traba guziak libratu ditu  
gizon oien predikuak,  
esan gentzake oiek dirala  
gure animen medikuak.
- 29/ Bear bezela alabatuko  
banu Arrue Frai Luis,  
sermoi ederrak egin dizkigu  
bere birtute ugariz;  
predikadore izugarriya,  
azkarra dago memoriz,  
maiz ekartzia orrelakua  
obe litzake al balitz.
- 30/ Beste laguna Baertel zuen,  
Frai Daniel izena,  
oi ta bost urte oraindik eta  
predikadore zuzena;  
ederki asko betia dauka  
memoriko almazena,  
estimatua bear litzake  
tamaña ortako gizona.
- 31/ Mesede asko izan degu guk  
gizon oiek ikusia,  
sendatu eta utzi gaitue  
len gaizki geunden guzia;  
bide luzean zabaldu dedin  
relijjioko azia,  
Jaunak diela leku askotan  
predikatzeke grazia.
- 32/ Ni Asteasun bizi naizena,  
nerez naiz errotaria,  
oiek juanda artu dedana  
pena ikaragarria;  
baldin banengo poderatua  
interesez ugaria,  
errian bertan egingo nieke  
oiei konbentu berria.

- 33/ Obra onetan segitutzeko  
eman dizkue puntuak,  
denbora junda ez du balio,  
orain atera kontuak;  
Jesusengana beti gogatu,  
gorrotatu pekatuak,  
animak indar iduki dezan  
maiz artu sakramentuak.
- 34/ Jesus maitia amoriuaz  
daukagu guri begira,  
garbitutzeko otsegiten du  
animan degun zikiña<sup>6</sup>;  
sakramentuak maiz eta ondo  
errezibitzen badira,  
pausorik ere utsegin gabe  
zeruetako glorira.
- 35/ Nere kristauak, utzi dezagun  
ori ola dan kasuan,  
pentsatuaz zer konsueluak  
diraden Paradisuan;  
Ama Birjiñak artu gaitzala  
danak guziok besuan,  
gero gloria goza dezagun  
eternidade osuan.
- 36/ Guzion Jesus, guregatikan  
egin bear du erregu,  
orretarako Jesusen Ama  
bitartekotzat biagu;  
orren fabore atera ezkeru  
zerua dago seguru,  
Pedro Elizegik au deseo du,  
amen, komeni bazagu.

1. Aiako Izuelako Artzaia bertsolariarena.  
2. Fakundo Adurriagaren bilduman beste onela dago bertso-lerro au: *zeruan nai duten, amen*. Oker, beraz, punturako. Guk *zeruan nai duten danak* jarri degu, Mikelak ala esan baitzuan.

3. Puntu au ere oker dago; agian *kalte oiek ikusten da* bearko luke.

4. galdu'a: galdu da.

5. Puntu au ezin irakurri degu Adurriagaren bilduman; *izugarritzkuak* idatzi degu, Mikelak esan bezela.

6. Puntu au ez da bere lagunekin ondo uztartzen. Pello Errotak nola jarri ote zuan?

(1879)

## BERTSOLARIEN JOSTAGUDA

Donostiko *El Urumea* egunkariak, bere 1879 urteko uztaillaren 22-an, one-la zion:

*«Se están imprimiendo los programas del Certamen poético en lengua euskara y concursos de 'bersolaris' y de tambolinteros, anunciados en esta Ciudad para el día 7 de Setiembre próximo.*

*Ofrécense cuatro premios consistentes en diversos objetos artísticos para los vencedores en el certamen poético, dos de a 40 y 25 pesetas respectivamente, en metálico, para los 'bersolaris' o improvisadores que más se distinguan, y otros dos premios iguales para los tambolinteros que con más habilidad ejecuten en el silbo aires tradicionales del país».*

Egunkari orrek berak, 1879-ko uztaillaren 29-an, bertsolari sariketa orren oiñarriak eta legeak ematen zituan euskeraz eta erderaz:

«Euskaldun bertsolari izkribitzalle eta soñularien bilkida eta jostaguda Donostian 1879ko agorrillaren 7 garren egunean.

Donostiako Bilguma edo Aiantamentuak, bere aldetikan dezakean guzia egin nairik gure izkuntz ederra eta oitura on eta zarrak mendi oetan gorde eta al diteken dana zabaltzeko, eskeintzen ditu sari batzuek, euskararen onean egingo dan festa batean emango

diranak, eta jostaguda artan parte artu nai duten guziak jakin dezaten oek zer diran eta nola emango diran, adierazitzen dira emen guzien ezaguerarako:

### Bertsolarien jostaguda

Datorren agorrillaren zazpigarren egunean, egurdiko amaiketarik ordu-bata bitartean, dotirudiko Biltoki edo Teatroan izango da aoz-ao eta erabaki ere bai itz neurlari edo bertsolarion kantuzko jolasbidea.

Onetarako, jokatu nai duten bertsolarien izenak jakin bear dira datorren illaren 25-erako, eta artaratzen diranak gaztigatuko diote denboraz festa-giari Batzarre edo Aldimaitzari, onek erabaki dezan zer eratan jokatu bear duten.

Batzarreak esango die zeren gañean joka bear duten bertsuetan, eta izango da aixa ezagutzen duten jolas-gairen baten gañean.

Leiatze onroso onetan garaiena agertzen danari emango zaio berrogei peztako saria, eta ogei ta bostekoa ari geien urreratzen zaionari...

### Concurso de bersolaris

*El concurso de bersolaris se celebrará en el Teatro Principal de esta Ciudad,*

*de las once de la mañana a la una de la tarde del domingo 7 de setiembre.*

*Serán admitidos a él todos los bersolaris que se presenten, sea cualquiera la región del país vascongado a que pertenezcan y el dialecto que hablen; pero los que deseen formar parte deberán hacerlo saber a la Comisión, verbalmente o por escrito, antes del día 1.º de setiembre, con objeto de que puedan constituirse las bincas o trincas que se estime oportuno.*

*Un Batzarre o Jurado especial presidirá el acto, designará la forma en que deben luchar los opositores, y señalará los temas sobre los que debe versar la discusión.*

*Se concederán a los vencedores que el Jurado califique en primero y segundo término, un premio de cuarenta pesetas y otro de venticinco, ambos en metálico».*



Andik zazpi egunera, 1879-ko abuztuaren 5-ean, *El Urumea* orrek berak,

Pello Errotaren bertso batzuek agertu zituan, aurretik erderazko adierazpen bat zutela:

*«Nuestros inimitables improvisadores se hallan muy animados para tomar parte en el certamen que se va a celebrar en esta ciudad el día 7 del próximo setiembre, pues al tener noticia el ya célebre Pello Elícegui (á Errotariya) reta, en unión de su compañero Bernardo Otaño, a otros dos que quieran presentarse a disputar los dos premios de 40 pesetas el 1.º y de 25 el 2.º, que se adjudicaron (sic), después de oído el veredicto del jurado que se nombrarán (sic) con este objeto, si los dos mejores izt-neustularis (sic).*

*Es un desafío cortés que Pello hace, previa la venia del Excmo. Ayuntamiento; y no dudamos que habrá más de uno que querrán luchar en esta noble lid; disputar al fácil improvisador de Asteasu, que tanto se ha lucido últimamente en Elizondo, el triunfo del mejor versolari de Guipúzcoa.*

- 1/ Aiuntamentu noble,  
ongille, trebea,  
deklaratzera nua  
daukadan idea;  
oso galdu ez dediñ  
euskaldunen legea,  
Donostiyan pasa nai guk<sup>1</sup>  
kantuz umorea,  
ortarako beagu  
beron poderea.

- 2/ Igaztandik aurtena  
badala mudantza,  
gure alderdiraño  
pasatu da boza;  
nai duena etorri  
libre dala plaza,  
iruritzen zait ondo  
pentsatutako gauza,  
nork bere abillidadea<sup>2</sup>  
bistan ager beza.
- 3/ Abisatutzen diot,  
aiuntamentu jauna,  
disponitu dezala  
berak nai duana;  
zelebratu nai genduke  
guk kantuzko lana,  
lagun bat badarukat  
izugarri ona,  
etorriko giñake  
beste birengana.
- 4/ Esango det zein geran  
gu bi bertsolari:  
Bernardo Otaño eta  
Pello Errotari;  
jokatu deseoa  
gaude beste biri,  
ondo iruritutzen  
bazaie berori,  
abisa dezate  
nai duen etorri.
- 5/ Lengo kostunbre zarrak  
oso aztu gabe,  
nere iritzirako  
segitzera obe;  
len ere Donostiyan  
ondo artuak gaude,  
kantatuko diegu  
euskaraz ta trebe,  
abisatzen badiguc  
etorriko gerade.

6/ Ziudade orrek badu  
aparteko grazia,  
estimatutzen dute  
euskaldun guzia;  
igaz allegatua  
nago lenbizia,  
oraindik goguan det  
orko noblezia,  
argatik esaten det:  
«Biba Donostia!».

Leen ere esan degunez, Elizondon euskal festak izan berriak ziran Santiagotan, erriko festetan alegia. Jose Bernardo Otaño eta Pello Errotak kantatu zuten. Orduko bertso saioaren berri Iruñeko *Revista Euskara* aldizkariak eman zuan. Beraren itzak or goien arkituko ditu irakurleak.

☆ ☆ ☆

Urte berean, 1879-an alegia, onako liburuxka ontan agertu ziran bertso auek: *Euskal izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrellaren 7garren egunean Donostian eguiña, orretarako artu diran prestamen, eta sariztatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza. Uri onetako Bilgumaren erabakiz argitaratua. Donostian: Antonio Baroja-ren moldizkiran. – 1879 garren urtean.*

☆ ☆ ☆

Eun urteren buruan berriro argitaratu ziran bertso auek, eungarren urteburuaren jaiak zirala-eta, egitarauaren osagarri bezela: *1879-1979 Euskal Jaien*

*Ehunurteurrena / Centenario Fiestas Euskaras / Abuztuak 31 – Irailak 6 eta 7 / 1979.*

Baita ere *100 años al servicio de Guipúzcoa. La Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián (1879-1979)* liburuan, 184 orrialdean.

☆ ☆ ☆

1879-ko abuztuaren 10-ean, onela esaten zuan *El Urumea* dalako orrek:

«*Certamen poético en lengua euskara y concurso de bersolaris, improvisadores y tambolinteros.*

*El día 7 de setiembre a las once de la mañana se celebrará un concurso de bersolaris o coplacarís improvisadores en el Teatro Principal. Todos los que deseen tomar parte en este acto deberán hacerlo saber así a la Comisión antes del día 1.º de setiembre próximo.*

*Un batzarre o jurado especial adjudicará a los vencedores un primer premio en metálico de 40 pesetas y otro de 25».*

☆ ☆ ☆

Pelloren bertsoak erantzuna izan zuten, *El Urumea* orrek, 1879-ko abuztuaren 12-an, adierazten duanez:

«*Nuestro simpático bersolari Juan Bautista Urquía contesta al reto de Pello Errota, aceptándolo y citándole para el día 7 de setiembre. En su improvisación apenas oyó la lectura de los seis versos que aparecieron en uno de nuestros anteriores números, nos llamó la atención la siguiente copla:*

Pellori arronka ori  
zerk bota azi diyo?  
Ez dala uste ote du  
iñor kontrariyo?  
Len ere beak goiari  
eutsi izan diyo,  
aurten ere usurbiltar bat  
azalduko zayo:  
nai badu datorrela,  
abisa bekiyo.

*Ya tenemos, pues, a dos de nuestros mejores coplacarís dispuestos a tomar parte en el certamen que se va a celebrar el mes de setiembre, y sabemos que otros varios se presentarán también a la comisión respectiva del Excmo. Ayuntamiento, solicitando se les admita como aspirantes a los premios establecidos. Cuanto mayor sea el número de los que se presenten a estas luchas de la inteligencia, que con laudable celo trata de fomentar nuestra corporación municipal, contribuirá a dar más animación al acto y hará indudablemente que se despierte en todos la afición al estudio de nuestra inimitable lengua, eminentemente poética».*

☆ ☆ ☆

Iraillaren 7'an, berriz, onela zion *El Urumea* egunkari orrek:

«*Certamen poético. Hoy domingo 7 se verificarán en el Teatro Principal de esta Ciudad los anunciados concursos de bersolaris (improvisadores) y de tambolinteros, y la distribución de premios a los escritores laureados en el certamen poético.*

*La función se efectuará con arreglo al siguiente programa:*

*De once de la mañana a una de la tarde tendrá lugar, bajo la presidencia de un jurado competente, el concurso de bersolaris, en el que tomarán parte los conocidos improvisadores Pedro Elice-gui (a) el Molinero de Asteasu; José Bernardo Otaño, de Cizúrquil; Juan Bautista Urquía (a) Gorria, de Usúrbil; Manuel Udarregui, de Igueldo; Juan José Belderrain, de Cizúrquil; Vicente Gorrriaran e Isidro Arancegui, de San Sebastián; José Manuel Múgica, de Alza; Gumersindo Ibarbia y Agapito Muñoa, ambos de esta Ciudad».*

☆ ☆ ☆

*El Urumea* orrek, 1879-ko irailaren 9-an, bertsolari jaialdi orren berri onela ematen zuan:

«*Nada más original y nuevo que el aspecto que presentaba el Teatro Principal al mediodía de anteayer.*

*Veíase el escenario adornado de guirnaldas de laurel que en graciosas ondulaciones venían continuando por los antepechos del anfiteatro a servir de orla a los escudos de armas de los pueblos de esta provincia y a cuatro tarjetones en los que aparecían en gruesos caracteres los nom-*



bres de Astarloa, Humboldt, Etxevarry y Larramendi.

El público que ocupaba las altas localidades y aun las bajas llamaba vivamente la atención por el aspecto en conjunto que presentaban tanta camisa blanca de nuestro incansable aldeano, confundida entre la blusa azul o roja de los intrépidos pescadores de esta localidad o entre los aseados trajes de nuestros laboriosos artesanos.

A cada lado del palco escénico, que representaba un bosque, veíanse seis improvisadores con su traje habitual, luciendo limpia camisa y blancas alpargatas, apareciendo en aquellos rostros tostados por el sol retratada una ruda franqueza.

El jurado ocupaba el fondo de las tablas.

Gran sorpresa causaba aquella lucha que se entabló entre aquellos aldeanos que sin la más mínima noción de las más rudimentales reglas de retórica entonaban una estrofa que, al par que encerra-

ban una idea que demostraba una gran riqueza de imaginación en el improvisador, no daban lugar a que sus versos fuesen tachados ni de falta de metro, ni de defectuosas por el modo de consonantar.

Hasta el presidente del certamen, conocido por uno de los mejores improvisadores, expresaba su voluntad con estrofas que arrancaban nutridos aplausos, así como ocurría con las que juzgaba, quienes con sus agudezas y chistes producían tal barullo en el numeroso público que les escuchaba atento que más de una vez nos impidió oír estrofas enteras.

El certamen de la mañana terminó poco antes de la una...

Los improvisadores premiados fueron Pedro Elícegui (a) Errotaria de Asteasu, José Bernardo Otaño de Cizurquil, Juan José Alcain (a) Udarregi de Usúrbil y Juan Bautista Aurquía».

1. El Urumea egunkarian: gue.
2. El Urumea egunkarian: nor.

## AMASAKO SEGA-APUSTUA

Gertaera eta bertso auk Mikela Elizegi Pello Errotaren alabari zor dizkiogu. Onela esan zigun:

Amasan sega-apustu bat jokatu zan. Segalariak, bata liberala ta bestea karlista omen ziran.

Ta juzkalariak –tertzzeruak–, geiago ebaki zuana beretakoa, liberala, etzalako, tranpa egin da besteari eman zion jokua.

Ortatik ixkanbilla latza sortu zan, ta apostulari oietako bati andregaiak despeira eman zion.

Orduan gure aitarengana etorri zan,

andregaiak nola utzi zuan eta Ameriketara zijoala bertsoan jartzeko esanaz. Bai jarri ere gure aitak.

Bertsoetan auxe jarri arazi zion aitari:

jakin nai nuke nola zeraden  
etortzen banaiz bizirik.

Ta, esan bezela, etorri omen zan atzera. Bañan ordurako neska ezkondua zan, da ezkontza txarra egiña omen zan gañera.

Nik ez nuan mutil ori ezagutu.

- 1/ Bildurrik gabe esango det nik  
egin nuben pekatua,  
Santio-mendin sega-apostu bat  
ortxen dago jokatua;  
guk belar geio ebaki eta  
bestiai eman jokua,  
egun ura zan, bai, neretzako  
oso deskalabratua.
- 2/ Bildurrik gabe nik esango det  
pasatu zaigun guziya,  
lagun artian koleratuta  
nintzan izketan asiya;  
uste det bada esan nuela  
gauz bat ondo mereziya,  
egun orretan izan gendubena  
erremateko auziya.

- 3/ Andik urrengo nere pausuak  
ziran andregaiagana,  
atia jo det, aita leiora,  
gero alaba ta ama:  
«Zu al zerade asarretuta  
bullan ibilli zerana?  
Oiekin orla biar badezu  
ez arrimatu nigana».
- 4/ Errespuesta nik eman niyon:  
«Aizazu, dama gaztia,  
ez nuan uste modu orretan  
desanparatzen astia;  
zurekin nere oraindañoko  
itzak onela eztia,  
borondatia kunpli dedilla  
merezi badet uztia».
- 5/ Puntara fiña ez da izaten  
erroparen ilbanua,  
kulparik gabe utzi bearrak  
ematen zidan damua;  
ezaguturik borondatia  
etzendukala sanua,  
zure despeirak irazekita  
Amerikara banua.
- 6/ Barku batian enbarkatu naiz  
parientiak utzirik,  
beti orrela ibilli gabe  
alkar ezin ikusirik;  
gure Jainkoak irixten badu  
nigana alako grazirik,  
jakin naiko det nola zeraden  
etortzen banaiz bizirik.
- 7/ Adios, nere aita ta ama,  
zuek zerate aurrena,  
senide edo parientiak,  
andregaiari urrena;  
konsuelorik bate ez daukat,  
triste da nere barrena,  
zuek utzi ta juan biarrak  
neri ematen dit pena<sup>1</sup>.

1. Guk dakigularik, *Auspoa*'ren 33 zenbakian agertu ondoren, beste toki auetan ere argitaratu dira bertso auk:

Rafael Agirre: *Juegos y deportes vascos* liburuan.

*Goiz-Argi* aldizkarian, 1965-X.

*La Voz de España* egunkarian, 1977-XI-6'an.

*La Voz de España* egunkarian, 1978-III-26'an.

(1883)  
**BERTSO BERRIAK**  
**KOLERA ETA TXANPANEN**  
**GAÑIAN JARRIAK**

- 1/ Milla eta zortzireun ta  
larogei ta iruan,  
bertsuak ipintzia  
jaio zat buruan;  
deklaratzera nua  
dedan sentiduan,  
ez itxura txarrian,  
bear dan moduan.
  
- 2/ Bertsuak ipintzia  
gogoratutzen zat,  
orretarako bidiak  
baditugu beintzat;  
manifestatuko naiz  
agudo zenentzat,  
gauza jakiña dago:  
kulpa duanentzat.
  
- 3/ Iru izango dira  
kulpak dituztenak,  
paperetan jarriak  
gezurrezkoan penak;  
bidegabeko itzak  
bastante irtenak,  
oraiñ erreparatu  
gañean zautenak.

- 4/ Bergarako anai bi,  
Kalisto ta Luis,  
beren ustez azkarrak  
diranak memoriz;  
Zabalo apellidua  
orra esan egiz;  
Isidro Mujika da  
irugarren berriz.
- 5/ Deklaratzen asi naiz  
sentidu guziak,  
izenez esanikan  
daude autoriak;  
oiek irurak dira  
enredadoriak,  
Begarako printzipalak  
kulparik gabiak.
- 6/ Antzuelan kolera  
izandu dan fama,  
paperetan daukate  
aditzera emana:  
derrepente il dala  
sei milla persona;  
gaizki jarriya dago,  
gezurra da dana.
- 7/ Paperetan jarriak  
gezur itxusiak:  
il dirala Antzuelan  
persona guziak;  
oiek gizon burloso  
burutik jausiak,  
osasuna daukagu  
Jaunari graziak.
- 8/ Uberatarrak ere  
aitatu dituzte:  
festan kolera sortuta  
daudela oso triste;  
iru milla il dirala  
sentitu ta laste;  
burloso oiek berak  
fortuna litezke.

- 9/ Oso kontentu daude  
personak Uberan,  
eztela mantxarikan<sup>1</sup>  
izandu kolera;  
denak pozez beterik  
festako ibilleran;  
orain esango degu  
Bergara nola dan.
- 10/ Ez sartzeagatikan  
Bergaran kolera,  
txanpanak bota omen<sup>2</sup>  
dituzte kalera,  
erregatu ere bai  
gora eta bera;  
ori ezin sinistu  
zentzuak bagera.
- 11/ Zenbaten mingañian  
gauza aundiak dauzka,  
jenero ona sortzen  
izugarri gaitz da;  
paperetan gezurra  
jarritzen errez da,  
kalera ezin bota,  
erateko ez ta.
- 12/ Gizon burloso oiek  
enteratu bitez:  
jenero ona sortzen da  
izugarri nekez;  
mantentzera saiatu  
alimentu merkez,  
porrusalda biarko  
txanpanaren partez.
- 13/ Txipiroi ta angula  
Santiago egunian  
jan dituztela esanaz  
deskantsu onian;  
oiek saiatzen dira  
gezurrez lanian,  
sardiña ezin sortuaz  
ziran onenian.

- 14/ Ai, oiek funtziuak  
Bergara batian:  
txipiroi ta angula  
uztako partian;  
gatza emanda gordiak  
aurreko urtian,  
bestela iñola ere  
ezin zitezkie.
- 15/ Gezurrezko gauzeekin  
orrenbeste aupen,  
orretan señaile da  
nolakuak zauten;  
garai artan eztue  
mariñelak irten,  
ezta errez izaten  
eztan gauza jaten.
- 16/ Bergaratik globo bat  
bota Beasaña,  
egiteko asmotan  
sekulako azaña;  
etzaie fortunatu  
entero bikaña,  
Antzuolan gelditu,  
bizkorra uste baña.
- 17/ Globo orrek eskasak  
zituen indarrak,  
nunbait eman dizkate  
alimentu txarrak;  
ikusgarriak dira  
jendiaren farrak,  
oso kontentu dira  
antzuolatarrak.
- 18/ San Martin de Agirrerren  
festibidadian,  
illaren amaiketan,  
gañera agorrian,  
mingañez festa aundiak  
Bergarako lurrian,  
zeñen ez diran ibill (*sic*)  
itxura txarrian.



- 19/ Bergarako gaztiak  
zebiltzen esanik,  
etzaiela galduko  
plazatik zezenik,  
ezta gañera arekin  
zetorren gizonik;  
jabia fiatu zan  
itz oiek entzunik.
- 20/ Iru durugatikan  
plaza isten asi,  
ez zituzten barrerak  
prestatu itxusi;  
lana ondo egiteko  
interesa gutxi,  
argatikan zezena  
juan zaie igesi.
- 21/ Barrera orde geiena  
zaukaten barrika,  
zezenak begiratu  
zion etorrira;  
danari eraginda  
kalera korrika,  
toreadoriak berriz  
atzetik arrika.
- 22/ Toriadoriak arrika,  
zezenak eskapo,  
soro batian egin du  
pikardia franko;  
Liboriori jan dizka  
lau anega arto,  
oiek ere norbaitek  
pagatu biarko.
- 23/ Zezen ori oso zan  
korrika trebia,  
Bergarako batzuek  
bañan askoz obia;  
etzaiela agiri  
keja da jabia,  
oraindik ere dute  
azaldu gabia.

- 24/ Jabiari pagatzeko  
agindu mingañez,  
bañon aspertua dago  
orlako gizonez;  
zezena galdu eta  
dirurik eman ez,  
ezta oso kontentu  
jendiak dionez.
- 25/ Keja aundiak dauzka,  
bai, zezen jabiak,  
oraindikan jornalak  
dauzka artu gabiak;  
arrazoiarekin da  
nai dute barias, (*sic*)  
zer moduz ote dira<sup>3</sup>  
barreragilliak?
- 26/ Egiteko asmu  
funtzio galanta,  
Begarako errirako  
orixen da planta;  
gastuak egin eta  
zortzi duro falta,  
korrituban billatu  
dirua bada ta.
- 27/ Ontara ekarri gaitu  
burla egitiak,  
Kalisto ojalatero  
bai bere partiak;  
orra kartilla ederra  
iru kulpantiak,  
errez letuko dute  
estudiantiak.
- 28/ Paperetan egiak  
ipintzia obe,  
orrek balioko du  
orain da gero're;  
nun nai kanta litezke  
kuidadorik gabe,  
nai duenak erosi  
txanponian daude.

**Pello Errota, 1883**

Bertso auek *La Voz de España* egunkarian agertu ziran, 1976-ko abuztuaren 22-an, *Dedicado a los veraneantes* izenburupean eta aurretik argibide au zute-la:

«Allá por el año 1883 se rumoreó de la existencia de cólera en Anzuola. Al parecer un bulo que tres vergareses habían sacado. Los bertsos, compuestos por el sin par Pello-Errota, los encontramos en el archivo de un buen amigo y anzuelano de pro.

*Los reproducimos al pie de la letra».*

Bi zati ditu sail onek: lenengoa, Antzuolan kolerrarik etzegoala adierazteko, egunkarietan-edo ala agertu bazan ere: «paperetan jarriak gezur itxusiak»; eta bigarrena, bergararren bizkarretik parra egiteko. Antzuolatarren enkarguz moldatuko zituan bertso auek Pello Errotak.

1. *La Voz de España*-n: estecla mancharican.
2. *La Voz de España*-n: champana bota omen.
3. *La Voz de España*-n: cer modus ete dira.

(1892)  
**BERTSO BERRIAK**  
**(ANDOAINGO ASTO-APUSTUA)**

«Asto-apustua jokatu zuten bi famelik Andoaiñen:

Asto-apustua jokatuba da  
or Andoaiño partian...

Ta gero:

Matias orrek asto txikia  
bañan ibildun trebia,  
zortzi minutuz atzetik asi,  
laster jo dio paria...

Nik ez dakit, bañan etziran asto utsak  
izango; kargarekin izango ziran. Olako  
lekutik olakora. zein asto karga iguala-

rekin azkarrago joan. Ara nola egiten  
dituzten gizonak apustuak!

Eta asto txikiak aurea arrapatu.  
Izango zuten gero diferentziren bat, eta  
gure aitak bertsoak jarri zituan».

Auek dira Mikelak, Pello Errotaren  
alabak, eman zizkigun berriak eta erdiz-  
ka esan zituan bertsoak. Bañan bertso  
puska oiek argi egin zuten, «*Tolosa:*  
*Imp. de E. López*» moldiztegian argita-  
ratu eta Altsatsuko Kontxa Mendiluzek  
eman zigun bertso-papera Pello Errota-  
rena zala jakiteko.

- 1/ Milla zortzireun larogei eta  
amabigarren urtian,  
uztako illaren amaikian zan  
ori señalementian;  
asto-apustu bat jokatuba da  
or Andoaiño partian,  
bide luzian San Estebandik  
Iyuiara bitartian.
- 2/ Uztako illaren amarrian zan  
apustu ori zerratu,  
Jose Antonio ginduelako  
astuarekin markatu;  
obia nun zan banerakien,  
nik ere ez nion barkatu,  
bosna pezeta siñale bota,  
ontzako bana jokatu.

- 3/ Jose Antonio astoarekin  
oso zeguan arrotuta,  
obia nun zan orduko berriz  
Matias akordatuta;  
San Estebandik Iyuiaraño  
bidia señalatuta,  
zein azkarrago ara allegatu  
zortzina arrua artuta.
- 4/ Esan dan gisan prestatu gera  
apustuba jokatzeko,  
azkena ara iristen danak  
ontzaku ori galtzeko;  
armoni txarrik izan ez dediñ  
ondoren inorentzako,  
bien partetik juzkalaritzan  
Toledo ori jartzeko.
- 5/ Orla izketak egiñagatik  
gertatu dira alperrik,  
Jaungoikuari graziak eman,  
ez degu izan okerrik;  
mesede ustez ibilli eta  
zenbaitek ez du eskerrik,  
Jose Antonio ez da piatu  
Toledorekin bakarrik.
- 6/ Toledo ori gizon prestuba  
bere bizitza osuan,  
arentzat ere armoni txarrak  
egin ditue auzuan;  
arren astuak azkar juteko  
biar aiñ indar etzuan,  
ametituko zitzaion pozik  
lan egin izan bazuan.
- 7/ Bekaistikuak alimalia (*sic*)  
abieran bai listua,  
utsikan ariñ zebillen baño  
karga aundia eziñ jasua;  
piña zeukala ark uste arren  
ateria du bastua,  
Arimaloko biregutizian  
erori zaio astua.

- 8/ Matias orrek asto txikia  
bañan ibildun trebia,  
bost minutuz atzetik asi,  
laster jo dio paria;  
ots egin zion arrentzat azkar  
libra zezala bidia,  
estu artuta bertan erori,  
etzan kontentu jabia.
- 9/ Asto txikiak zortzi arroa  
eraman biar zakuban,  
San Estebandik Iyuiaraño,  
gañera mendi altuban;  
baña ori allegatu da  
an berrogei minutuban,  
egon aundirik ark eztu egin,  
ankak dantzatu zituban.
- 10/ Atzetik ori asi zan baño  
allegatu da aurrena,  
zortzi arroa bizkarrian da  
mendi guziak barrena;  
aundiagorik ez baldin bada  
probintzian dan onena,  
jabia zein dan esan biar det:  
astua Zozberrirena.
- 11/ Gu, apustua irabazita,  
alare geunden serio,  
zergatik ere panparreriak  
iñun eztuben balio;  
galtzalliaren pamili orrek  
setari segitu dio,  
gero baikuntza egin digue  
lan ori dala medio.
- 12/ Asto-baikuntza egin digue  
uztaren amazazpian,  
aurtengu ontan igandian zan,  
ori nere iritzian;  
gure tartian deretxo gabe  
asi nai zuben auzian,  
orrelakorik len ezta pasa  
eguzkiaren azpian.

- 13/ Guk aziendak len bezelaxe  
bialdu'itugu larrera,  
ataka zabal ikusi eta  
alimaliak aurrera.  
Kulparik ezta gureganako,  
oiek daukaten kolera!  
Lau astorekin bi emakume  
or juan dira kalera.
- 14/ Asto oiekin juan dirade  
ebia ari duela,  
batek gerrira jaso zuen  
bere gonaren egala;  
an dabillela puntara askatu,  
manera zeukan zabala,  
itxura ederra ematen zuben  
kamixa agiri zuala.
- 15/ Asto oiekin alkatari  
juan zitzaizkan aurrena,  
bere manera zabal zuala  
kale guziak barrena;  
testigu gabe artubak izan,  
ori gauzarik txarrena,  
ark lege onez bialdu ditu  
andikan juezarena.
- 16/ Oiek ez ditu ibilli azi  
iñor galtzeko perezak,  
edozein gauza libre dala uste  
emakume alrebesak;  
baikuntzarekin etxeratu nai  
apustuko interesak,  
azkar astuak entregatzeko  
agindu due juezak.
- 17/ Atrebitu aiek besteren gauza  
kaleraño ekartzia,  
juez jaun orrek agindu eta  
kosta zaie entregatzia;  
kaso txarra da alimalia  
testigu gabe artzia,  
emakumi oiek merezi zuten  
biak kartzelan sartzia.

- 18/ Bi emakume lau astorekin  
kalera dira abitu,  
nere etxequak izatezkero  
biarko zuen gelditu;  
ibilli pranko egiñagatik  
eztue asko serbitu,  
gizonik ezta ondo biziko  
andriak galtzak baditu.
- 19/ Berri onikan eztu sekulan  
gaizki lanian astiak,  
bi asto ziran Estebanenak,  
Matiasenak bestiak;  
erromeria kalera eginda  
apenas dauden tristiak,  
kastigatzia nai zuen baño  
eztira asko kostiak.
- 20/ Mingain gaiztuak eragiten du  
munduban asko erida,  
beragatikan papera onetan  
ipiñi degu segida;  
zer pasatzen dan ikasitzia  
askorentzat komeni da,  
bertso berririk etzan jarriko  
ixilik egon balira.
- 21/ Apustuba ta baikuntzari guk  
orra bertsuak atera,  
al dan guztia zabalduzteko  
Euskal-Erriko partera;  
kasua zer dan ikasitzeko  
emen badago aukera,  
gusto duanak artu dezala  
bost zentimuan papera.



## ITURRIOZKO SEGA-APUSTUA

Sega-apustu onen bertsoak, eta bai gertaera ere, Pello Errotaren alabaren aotik jasoak ditugu:

«Sega-apustua jokatu zuten Iturriotzen<sup>1</sup> Izuelak eta beste batek.

Izuela ori, Aiako Beama deritzaion ballarakoa zan, Izuela baserrikoa.

Aurrena, besteak jarri zizkan bertsoak Izuela orri. Orduan gure aitagana etorri zan, da gureak gañetik jarri zituan: Izuelari nola edari txarra eman zioten, eta nola galdu arazi zioten; ta ari edari txarra eman ziona il zala, ta zeruan sartzea etzala segurua...

Nik eskribituak ziran oiek ere. Bat edo bat gogoratuko zait oraindik ere:

Izuelak orduan  
pozik eran zuan,  
paltatu-azi ziyon  
buruko zentzuan;  
derrepente iltzeko  
indarrrik etzuan.  
orain esan zazute  
zeñek eman zuan.

.....  
.....  
.....  
.....  
agidanian il da  
askoren moduban,  
alakua neke da  
sartzia zeruban».

1. Iturriotz, Aiako partean dago, Ernio mendia-  
ren egalean. Antziñatik an egiten dira sega-apustuak.

(1893)

## BERTSO BERRIAK

### ORDAÑETAN JARRIAK

Euskal festak izan ziran Azpeitin, 1893-ko iraillean, D'Abbadie jaunaren esku zalabari esker antolatuta. Bertsolari sariketa bat ere izan zan. Pello Errota, Udarregi eta Jose Bernardo Otañok kantatu zuten. Epai maiko jaunak –Resurrezion Maria Azkue, Txomin Agirre eta Felipe Arrese– izan ziran. Pellori eman zioten saria.

Sari ori, Pello eta Jose Bernardok alkarren artean partitu zuten, aurretik alkar artuta zeudenez. Bañan, Pellok zionez, alkar artze ori etzuan Udarregik onartu eta ari etzioten ezer ere eman. Udarregik zionez, berriz, alderantziz zan: bera ere alkar artze ori onartua zala.

Ori zala ta, oso minduta gelditu zan Udarregi, eta bertsoak jarri zituan Pello Errotaren aurka. Bertso sail ori *Auspoa*-ren 27 zenbakian arkituko ditu irakurleak. Baita sesio ari buruz beste argibide asko ere.

Pello Errotaren alaba Mikelak esan zizkigunak, emen ezarri bearrak dirala uste degu:

«Ni ezkondu nintzan urtean zan, ta neronek kopiatu nituan gure aitaren bertsoak. Anaiarenak ez, arek eskola bazuan ta.

D'Abbadie frantzesak zan, oso abe-ratsa. Eta erriz-erri euskerazko zerak, bertsoak eta dantzak eta premioak, jar-tzen ibiltzen zan.

Azpeitin premia jarri zuan bertsolari-entzat. Nai zuana kantatzera joateko.

Zizurkilko Jose Bernardo Errekalde, Usurbilko Udarregi ta gurea, bertsolari printzipalak orduan oiek ziran. Besteren batzuk ere joango ziran akaso Azpeitira; bañan iru oiek beñe-pein joan ziran.

Ta gurea ta Udarregi sartu omen ziran ostatuan, ta Udarregi ori berebiziko kejak kontatzen asi omen zitzaion gure aitari, ta gureak esan omen zion:

–Gizona, ez kejavu; alkar ez degu galduko.

Alegia, batek irabazten bazuan, besteai ere partituko ziela.

Bañan Udarregi orrek erantzun zion:

–Zuek naiagatik ni galtzen errez dala uste al dek?

Aita gureari ez ondo iduritu burla ura ta:

–Orduan al duanak al duana egin.

Orrela partitu ziran alkarrengandik.

Ta gureak atera premia; ta gureak orduan, berea zuan bezela, berak jaso.

Udarregi arrotuta prestatu zitzaiolako, argatik etzion ezer eman; bañan Jose Bernardori bai, eman zion.

Gauza oiek danak kantetan an jarri zizkan.

Oiek pasa ta gero, Usurbilla joan ta an egokitu biak, eta an gureak bertsoan esan zion:

–Premioa zer moduz?

Onela asi zan bertsoan tentatzen, ta batek bat ta besteak bestea, ta andik asi ziran kanta jartzen.

Udarregik atera zizkan lenbizi, Usurbillen burla egin zion ondoren. Tagero

gureak jarri zituan, pasadizoa kontatuaz. Ta gero Jose Bernardok ere bai: «Pello degu juez, nonbratua berez...». Ta ondoren gure anaiak ere bai.

Gureari berealaxe pasatzen zitzaion asarrea. Bakoitzak geren odola bear degu, ta badira gorrotoa sekula aztutzen etzaienak; bañan gurea etzan setosoa. Emen ola egingo, bañan andik atera baño len dana damutua.

Gero ez dakit asarretu ezker adiskidetu ziran. Ez nion nik beñere aditu beñepein «Udarregirekin izan naiz edo Udarregirekin mintzatu naiz»<sup>1</sup>.

Pello Errotak onako bertso-sail au jarri zuan, Udarregiri erantzuna emateko:

1/ Bertsuak ipintzera  
nua ni besteri,  
lenago bestek ori  
egin dit neri;  
ortan saiatu zana  
Juan Jose Udarregi,  
orain ari dana da  
Pello Errotari;  
itz egin alkarri,  
arrazoiak garbi,  
ez gezurrik jarri  
mundu parragarri;  
zer zeran ikusiko  
zaitugu sarri.

- 2/ Milla zortzireun da  
laroi ta amairuan,  
agorran amar egun  
zituan orduan,  
Azpeitian bertsuetan  
jokatu genduan,  
ia premiyua nork  
ateratzen zuan:  
plazan tablelarian,  
egun argi klaruan,  
jende asko zeguan  
an erreparuan;  
orduko apustuba  
galdu zenduan.
- 3/ Premiyua jarriya  
zuen an batentzat,  
ori jakiña dago  
onenarentzat;  
Udarregik desiatzen  
zuena beretzat,  
baña portunatuba  
dago Pellorentzat;  
an zeuden juezak,  
ez oso aldrebesak  
neurtutzeko gauzak,  
jo naube obetzat;  
pena ori daukazula  
iduritzen zat.
- 4/ Apustuba jokatu ta  
urrengo goizian,  
notiziak aguro  
zabaldu zian,  
*Gaceta*-n ere bai ta  
igual *La Voz*-ian,  
nola premiyo oiek  
Pellorentzat zian;  
Juan Jose atzian,  
gelditu da utsian,  
estadu motzian,  
nere paltak etzian;  
zuk ere izango dezu  
irabaztian.

- 5/ Agorraren amarrian,  
Azpeitiko plazan,  
gutxienian bost milla  
pertsona bazan,  
gu ikustiagatik  
kantuzko alegrantzán,  
gero kontatutzeko  
ederrena nor zan;  
Udarregi an zan  
zerbaiten esperantzán,  
utsik atera zan,  
nere kulpa etzan;  
buruba makurtuta  
etxera juan zan.
- 6/ Premiýu orretan zu  
ezpaziña izan,  
Bernardo ta neretzat  
bentajago zan;  
pesta ederragua  
askoz egingo zan,  
gurekin diferentzirik  
aterako etzan;  
gizon au sortu zan  
ta plazan sartu zan,  
gitxi portatu zan  
orduko izkuntzan;  
zer langille zeguan  
ezagutu zan.
- 7/ Azpeitiyan sartu ziñan  
Nikolas-enian,  
jarri nitzaizun zere  
aldamenian;  
keja batzuk kontatzen  
asi ziñanian,  
ustez itzegin nizun  
gizatasunian,  
al zana onian,  
nere alegiñian,  
lagundu nayian,  
al nuen gayian;  
aztu gabia daukat  
zer esan zirian.

- 8/ «Alkar ez degu galduko»  
bertan niyon esan,  
errespuesta ederra  
nigana etzan:  
«iya naita ere ura  
galtzen errez al zan»,  
berak pentsatzen zuen  
obia ote zan;  
alako grandezan  
nigandik joan zan;  
Pello aserre zan,  
orra itzegin zer zan;  
lan orregatik ori  
utsik irten zan.
- 9/ Diruba ekarri zuen  
frantzes famatubak,  
juzkalariyak berak  
zeuzkan autubak,  
ondo neurtu zitzatela  
gure talentubak;  
zeñek lan egin zuen  
daude akordatubak:  
urre sillatubak  
neri entregatubak,  
nik ditut artubak  
ta poltsan sartubak;  
bentaja egin dit neri  
an portatubak.
- 10/ Pelloren kontzientziak  
ez daduka arrik,  
Juan Joseri eginda  
aziyo txarrik;  
jokatzerako zerbait  
ark itzegin balit,  
pozik emango niyon  
piska bat bederik;  
gaizki neregatik  
itzegin atzetik,  
ez dauka arturik  
ark nere urrerik,  
zergatik ez diyodan  
nik orri zorrik.<sup>2</sup>

- 11/ Zure arrazoi batzuek  
etzaizkit gustatu,  
nere kontra zerade  
manifestatu;  
gezur asko esan dezu,  
gutxi sinistatu,  
nerekin etziñaden  
iñun ajustatu;  
kotxe ta ostatu  
dezula gastatu,  
dirurik ez artu,  
etzaude kontentu;  
abisatu zizunari  
orain eskatu.
- 12/ Abisatu zizun ori  
ez dago pobria,  
guk aña izango du  
zillar da urria;  
bestela ez dakit baña  
mingañez noblia,  
besterenetik konpritu  
nai luke ordia;  
premiyo neria  
ez dala zuria  
sinistia obia,  
nik det poderia;  
gordetzia libre du  
zeñek beria.
- 13/ Judasen ofiziorik  
sekula ez det izan  
munduban oraindaño  
nere bizitzan;  
pentsatzen det zerorri  
ala ote zabiltzan,  
gizonak endredatzen  
utsaren peskisan;  
ez bazendun esan  
zuretzat obe zan,  
or zaude bajezan  
ango interesan;  
nik zuzen segitzen det  
dedan pobrezan.

- 14/ Gezurrarekin artu  
dituzu neurriyak,  
kanpora zabalduaz  
etxeko berriyak;  
nik esango dizkizut  
egiyak garbiyak,  
nun-nai ondo ematen du  
gauza ondo jarriyak;  
Bernardok erdiyak  
ango urre gorriyak  
ditu ekarriyak,  
berdin giñan biyak;  
ez du zure lotsarik  
errotariyak.
- 15/ Sekulan ez det egiñ  
biar ez dan lanik,  
zuk bestek ez dit esan  
lotsik ez dedanik;  
kulparik izan banu  
nik ez neukan penik,  
nik ez nuen lagunari  
partitzeko ordenik.  
Olako gizonik  
mundu ontan zanik!  
Ez dago euskaldunik  
orla jardun danik;  
zuk aurrian aña lotsa  
atzian det nik.
- 16/ Partitzeko ordena dala  
Udarregik esan du,  
gezur kontari dabil  
au munduz mundu;  
nik premiyua atera  
sufritu ezin du,  
pentsatutzen jartzian  
ernegatutzen du;  
pena aundia artzen du,  
berak ezagun du,  
neri ezin kendu,  
biyotzetik min du;  
zuretzat ere bazan  
egiñ bazendu.



- 17/ Usurbillen izan nitzan  
iri-apustuban,  
Udarregi jaun au're  
portunatu an;  
egun guztiyan alkar  
ikusi ezkenduban,  
nigana allegatu zan  
gaubaz beranduban;  
ni nitzan lekuban  
sartu ostatuban,  
asi giñan kantuban  
biyok lau puntuban;  
ordukuaz al zaure  
sentimentuban?
- 18/ Bajatu zeradela  
diyozu zardadez,  
neroni're aurrera  
nua edadez;  
berroi ta amairu urte  
nik Egoarri-gaubez,  
bautismoa emango'izut  
ala dan edo ez;  
nere kalidadez  
nabill gizalegez,  
gaitzikan esan ez  
nik uste dedanez;  
ez nabill arrotuta  
gaztetasunez.
- 19/ Ara bertso berriyak  
Don Jose Alkañi,  
Pello Errotakuak  
dizka ipiñi;  
aurretik ori bera  
egin neroni,  
buelta ematia  
zitzaidan komeni;  
bizirik banaiz ni,  
osasunez ongi,  
oinbeste armoni  
ez geigo ibilli;  
orra errespuestak,  
ikasi ongi.<sup>3</sup>

1. Arritzekoa ere ez da. Udarregi andik bi urtera il baitzan, eta bitarte ortan Pello Errotak amar illabete-edo Ameriketara pasa baitzitan.

2. Pello Errotaren seme Miel Antonek esaten zuanez, bertso ontako puntuak bateonbategi aldatuta omen zeuden.

3. Bertso-papera, «*Tolosa – Imp. de E. López*» moldiztegi argitara emana, Gregorio Mujika zanaren bilduman arkitu genduan.

Bertso-papera, «*Imp. Macazaga – Renteria*» moldiztegi argitara emana, Asteasuko uztargillearen eskutik jasoa.

Aldaketak: 2, 4 eta 6'garren bertsoak falta ditu. Ortik aparte: 3/5: Udarregik esperatzen; 5/3: gu-

txiyenez bost milla; 5/10: zerbait esperantzan; 7/7: ustez utsegiñ nizan; 7/9: moduik onenian; 7/12: al-tzana gayian; 10/14: nik ari zorrik; 14/3: ez nola nai ipiñi; 14/4: bertso berriak; 15/3: arrazoi ederrikan; 15/4: zaude emanik; 15/11: ez da euskaldunik; 16/5: nik premiyua artu ark; 16/9: pena artutzen du; 17/9: sartu ostatuan; 17/10: ni negon lekuan; 18/11: gaitzikan izanez; 19/5: lenago ori bera; 19/6: egin dit nero-ni; 19/7: bueltak ipintzia; 19/13: adiskide maitiak.

*Bertsolariya*, N.º 1. Ez da *Bertsolariya* bertso al-dizkari famatua, republika denboran Errenteriko Makazagak argitaratu zuana; gerraz geroztik Makazagarenean bertan agertu zan amar orriko zenbaki bakarra baizik. Onek, aitatzerik merezi duan al-daketarik ez du.

## BERTSO BERRIAK

### («DISPONITU DET ASUNTO BATI...»)

«Bertso aukeraren neronek eskribituak dira. Bañan pasadizoaz ez naiz oroitzen».

Orrela esan zuan Mikelak. Ta bertso banaka batzuk kantatu zituan. Bañan bertso oiek eman zuten bide, iñoren ize-

nik gabe zegoan papera Pello Errotarena zala jakiteko.

Bertso-papera, «Eibarren: Pedro Orúe-en moldizteguian» argitara eman zan, eta Gregorio Mujika zanaren bertso bilduman arkitu genduan.

- 1/ Disponitu det asunto bati  
bertso berriak jartzia,  
zeñek naiko du modu onetan  
jendiak autan artzia?  
Ainbesteraño ez det sentitzen  
gure ezkontza galtzia,  
baña pena det kulparik gabe  
orrela engañatzia.
- 2/ Nungoa naizen esan biar det,  
..... det graziya<sup>1</sup>,  
orain Pasaian enpliatzen naiz,  
.....'n jaiio ta aziya<sup>2</sup>;  
Naparruako dama batekiñ  
nintzan tratatzen asiya,  
enredo asko, probetxu gutxi  
nik dedan irabaziya.
- 3/ Neskaxa ori emen bizi da,  
baita .....'an jaiua<sup>3</sup>,  
abisaturik azaldu ziran  
zedukan opiniyua:  
nereganako nola zedukan  
gutzizko amoriyua;  
fabore zala uste nuen da  
izan det kontrariyua.

- 4/ Enpeño on bat bialdurikan  
ninduen erakarriya,  
itzegiteko billatu nuen  
gramatika irakurriya;  
merienda ere bazendukazun  
guretzat pronto jarriya,  
mudantza baizik izan ez dezu,  
mundu engañarriya.
- 5/ Konprometitu nai zukian da  
afana franko bazuan,  
fiaturikan agindu niyon  
satisfaziyo osuan;  
itzak ederrak, biotza faltso,  
kariño fiña auzuan,  
publikatutzen astera nua  
merezi dezun kasuan.
- 6/ Esaten niyon: «Arlotia naiz,  
ondasun asko gabia,  
prezisamente ez naiz izango  
diru askoren jabia».  
Erantzun ziran: «Baldin bazera  
lana egiten trebia,  
saiatu ezkerro luzituko da,  
zer da bizitza obia?».
- 7/ Langillia ta kondukatua,  
kontentu ziñan orduban,  
oraiñ baditu milla pretesto,  
guk ez dakigu zer duban.  
Orgullua edo grandeza bada  
gaurko egunian munduban,  
ez banintzaden zuretzako ona  
ez biartzia zenduban.
- 8/ Okasiyo bat emen izan da  
juan dan aurreko urtian,  
ni ere bistan fortunatuba,  
nerau ez nitzan partian;  
nere lagunak, zuen disputa  
ori biyontzat kaltian,  
ez tokatzia obe litzake  
orrelakuen artian.

- 9/ Disputa ori izan ezkeru  
pleituban dute segitu,  
oraindik ere nik igual det  
lenago ainbat kreditu;  
lardaska txarrak ondorenian  
nekabiriak baditu,  
obra gaiztorik egin dedanik  
apenas dezun aditu.
- 10/ Kaso oriek izaten dira  
pisubak edo grabiak,  
neri etzaizkit iduritutzen  
besterik bañon obiak.  
Pazientziya emango al digu  
zeru ta lurren jabiak!  
Egun batzuek preso jua zaizkit  
kulpa aundirik gabiak.
- 11/ Aziyo ortan nik ez det egin  
tokatzen ez dan gauzikan,  
disputa edo soberbiarik  
etzat gustatzen kasikan;  
bestek etziran ezer egiten,  
ni ere egon pozikan,  
mantxa gaiztorik etzat arkitzen  
an izatia baizikan.
- 12/ Neskaxa ori asi zitzaidan  
tristurak manifestatzen,  
orretarako konpromisuak  
etzaizkiyola gustatzen;  
lenago bero izanagatik  
nunbait asi da oztutzen,  
orrekiena galdubagatik  
ez naiz biziro estutzen.
- 13/ Berak biartu ninduben eta  
orain berak despedida,  
zenbait neskatxa askoren berri  
jakin zaliak oi dira;  
antz eman gabe ez naiz egondu  
len ere orri begira,  
orixe bezin neskatxa fiñak  
geiago ere badira.

- 14/ Ia, gaztiak, gurekin artu  
guztiyok eskarmentubak,  
txit mudakorrak izandu dira  
dama orren pentsamentubak;  
beretzat ere probetxu gutxi,  
neretzat sentimentubak,  
ezkontzeko itzak ematerako  
ondo atera kontubak.
- 15/ Ezkontzeko itzak edozein moduz  
ematekuak ezta,  
zenbaitek bati agindu eta  
«ai, baletorke bestia!».  
Endemas ere ederra bada,  
aberatsa ta gaztia,  
ez da bizi ikaratuko  
len dadukana uzta.
- 16/ Aberatsakin tratatziagatik  
galdu du nerezikua,  
pesadunbriak manifestatzen  
izandu zera pijua;  
auzo batetik bestera ere  
sonbrillarekin dijua,  
interesetan ez dakit zer dan,  
lujua badu naikua.
- 17/ Kaballeruakiñ pasiatzen du  
egunaz eta gabian,  
beso ondolik artutzen dute  
nik baño modu obian;  
enteratuba egon biar du  
*de bracete*-ko legian,  
eusten diyote erori ez dediñ  
lurrera uste gabian.
- 18/ Penagarriyak izaten dira  
pobrien paraderuak,  
orrelakuak ezagutzeko  
ez gaude mutill eruak;  
gizon ederrak izketa leunak,  
gañera boltsa beruak,  
gugandik gusto partikularra  
dizute kaballeruak.

- 19/ Zazpi illebetez esperantzan  
ez naiz alferrik egondu,  
nerekin ezer ez duela izan  
orain esaten omen du;  
alkarrekin maiz ibilli gera,  
iñoiz etxera lagundu,  
geiago ere esango nuke  
gogo aundiya bagendu.
- 20/ Nerekiñ nola tratatu dezun  
jendia prankok badaki,  
pasa dan gauza ukatutzia  
nik ez deritzat egoki;  
desanparuan utziyagatik  
ez nazu asko erruki,  
nik andregaiia billatuko det,  
ez kuidadorik eduki.
- 21/ Ezkontzia da gauza erraza,  
sinisturikan oi nago,  
lengo moduban bizi biarko  
beti bildurrak banago;  
fraile juateko pentsamentuban  
prezisamente ez nago,  
zuk ere on bat artu ezazu  
urdiñdu baño lenago.
- 22/ Bertso berriyak atera ditut  
dibertsiyua sortzeko,  
konbeni dira buru ariñak  
juiziyuan sartzeko;  
balorerikan baldin badezu  
oien ordañak jartzeko,  
prebeniturik ni egongo naiz  
paper eder bat artzeko.
- 23/ Despartitubak gelditzen gera,  
len ziñan nere maitia,  
batzuek asko arritzen dira  
zu neregana juatia;  
biotzetikan etzan izango  
zenduben borondatia,  
agur, Josefa, eskerrik asko,  
ondotxo bizi zaitia.

1. Mutillaren izena.
2. Mutillaren jaioterria.
3. Neskatxaren jaioterria.



## BERTSO BERRIAK

### LORENZOK FRANZISKARI JARRIAK

Aldi ontan ere, gertaeraren berri Pe-  
llo Errotaren alaba Mikelak eman zi-  
gun, onela esanez:

«Lengusu-ekzontza egin omen zu-  
ten. Biak apellidu batekoak ziran, Na-  
parroakoak.

Aitak alabari esaten omen zion iru-  
rogei ontzako dotea emango ziola, ta  
arrio *sufizientea* ere bai.

Ala, ekzontza tratatu zuten; bañan  
gero alargun zar batek –aberatsa omen  
zan ura– neskaxa pretenditu zuan.

Neskatxa bera joan omen zitzaion  
mutillari esatera:

–Orrek pretenditu nau, bañan ni ez  
noa agure zar ori artzera.

Bañan denbora asko baño len, muti-  
llak berriz ere aditu zuan zerbait baze-  
bilkitelat; ta neskaxagana joan da onela  
esan zion:

–Nik ola ta ola aditu det, ba, neska-  
txa.

Ta neskak, malkoa zeriola, agure  
zar arekin ekzontza zerratua zutela ai-  
tortu zion.

Orduan mutilla gure etxera etorri  
zan, kantak jartzera. Oiek ere nik eskri-  
bituak dira. Ni ezkondu baño lenago  
eskribituak dira, ta ez dira oraingoxeak.

Kanta-paperak inprentatu ta zabal-  
du ondoren, agurea bera etorri zan gure

etxera. *Biziki* izengoitia zuan. Agure  
xar txiki-txiki anka-okker bat zan. Ala  
esan zion gure aitari:

–Nik bertsorik merezi al nuan?

–Nere enplioa orixe da, ta orregatik  
jarri nituan.

–Nik, palta nuan bezela, andregai  
pretenditu nuan.

–Ta ez al zenekian, neskaxa len itza  
emana zala, ta alakoia ez dala pretenditu  
bear?

–Ba, orain nere alde jarri itzazu.

Bañan gure aitak etzion agindu, ta  
mutillagana joan zan. Zein da nola eto-  
rri zitzaion kontatuta, ea zer egin bear  
zuan galdetu zion.

Mutilla, bertso jartzea zenbat kosta-  
tzen zan zekiana zan noski –bost duro-  
koren bat-edo–, ta ez jartzeagatik beste  
orrenbeste eman zion.

Beraz, bein jarri ta bi jornal kobra-  
tuta, etzan asarre gure aita».

Bertso-papera, berriz, «Tolosan: F.  
Lopez-en moldizteguien» argitara emana,  
Altzo-azpiko Olazabal-berri baserrian ja-  
so nuan, Inazio Zabalaren eskutik.

Baita ere, eskuz idatzita, Tolosako  
Timoteo Adurriaga zanaren bilduman,  
aldaketa bakarrarekin: 12/3-4: ez det  
nik bear orrelako agurerik.

Ona, besterik gabe, bertsoak:

- 1/ Jaungoikoari nago  
grazi baten eske:  
bertso berri batzuek  
jarri nai nituzke;  
bide gabe naizenik  
ez det bada uste,  
zer gertatutzen zadan<sup>1</sup>  
esango det laister.
  
- 2/ Ezkontza egin nuen  
lengusu batekin,  
bi urtian tratatu  
degu alkarrekin;  
itxuraz oraindaño  
egonduba da fin,  
baña zer egin diran  
beazue jakin.
  
- 3/ Nerez napartarra naiz,  
.....-koa,<sup>2</sup>  
andregai ustekoa<sup>3</sup>  
ez da apartekoa;  
nere lengusuba da  
.....-koa,<sup>4</sup>  
..... du<sup>5</sup>  
grazi pontekoa.
  
- 4/ Ezkontza asi genduben  
galaia ta damak,  
bazekiyen neskaxa orren  
aitak eta amak;  
etzan eskusarikan,  
konforme dienak,  
señalatu zituen  
dotia eta danak.
  
- 5/ Neskaxak urte biyan  
etxoin nezala,  
ordurako ederki  
prestatuko zala  
dote eta arreo,  
bear dan bezela;  
nik baietz esan niyon,  
egongo nintzela.

- 6/ Urte biyan franko da  
orrela egotea,  
irurogei ontzako  
esan zan dotea;  
gañera arreoa  
sufizientea,  
nai zuela alabari  
oiek ematea.
- 7/ Orrela zerratua  
gendukan ezkontza,  
Erromati ekartzeko  
paperaz dispentsa;  
bestela ez diteke  
lengusurik pasa,  
ori da lenagotik  
usutzen dan gauza.
- 8/ Paperak bialdu ta  
aiek etortzian,  
gu alkarrekin geunden  
ezkontzeko ustian;  
gero serpiente bat  
sartu da tartian,  
bitarteko ta guzti  
dama orren etxian.
- 9/ .....<sup>6</sup>  
dago alarguna,  
lengo emaztia il da  
nai luke laguna;  
arentzat bitarteko  
koñadua juna,  
emen aitatzen degun  
neskatxa orrena.
- 10/ Alargunak pretenditu  
duanian dama ori,  
denbora gutxi barru  
etorri zat neri:  
«Itza emana nago  
lenago ni zuri,  
ez nua ni artzera  
anka zabal ori».

- 11/ ..... ori juan zan<sup>7</sup>  
Erremu gaubean,  
itz egitera aita eta  
amaren aurrean;  
lengua utzitzeko  
aitak gogorrean,  
ibilliya du sobra  
itxura txarrean.
- 12/ «Aita, emen ari da  
esaten alperrik,  
ez det nik orrelako  
agure bearrik».  
Ezpazuen egiten  
aitaren esanik,  
etziola emango  
dote-arreorik.
- 13/ Len berak agindubak  
irurogei ontzako,  
ni konforme negoan  
utsikan artzeko;<sup>8</sup>  
osabak kariñorik  
ez du neretzako,  
orrek alaba nai du  
*Biziki*-rentzako
- 14/ Lengo emazia ill da  
illebeterako  
berri billa astia  
bera bada franko;  
aztu zitzaion orri<sup>9</sup>  
juandakoa pronto,  
pujatu ta kentzen du,  
pegatu dit bapo.
- 15/ Orrelaxen nastu du  
ark gure tratuba,  
nere kontra da ori  
manifestatuba;  
bera anka zabala da,  
bizkarra okertuba,  
nobiyo ederrekin  
ez da gustatuba.

- 16/ Modu orretan oiek  
ibilli dirade,  
osaba ni uzteko  
oso zeguan trebe;  
falsoa atera da  
..... bera're<sup>10</sup>,  
ezkontza egin due  
nere berri gabe.
- 17/ Ni jakinda neguan  
nola ibilli zian,  
uztaren amaikian  
juan nintzan goizian:  
ia ote zegoan  
lenagoko itzian,  
malkoa zeriyo<sup>11</sup>  
ezetz esan zian<sup>12</sup>.
- 18/ Nere aditzalleak,  
au gogoan gorde:  
falsoak ematen du  
asko pesalunbre;  
.....'k alaba<sup>13</sup>  
*Biziki*-ren mende,  
orain ni utzi naube  
ez diru ta ez andre.
- 19/ Orra nik deklaratu  
nere iritziyak,  
ontara obligatu nau  
ni zuen falsiyak;  
zuen mende ez daude  
gonadun guztiyak,  
andregaiak baditut  
Jaunari graziyak.
- 20/ Gaiean dagoanak  
bertso oiek entzun,  
merezi ez dezunik  
bat apenas dezun;  
zuretzako dirade,  
.....<sup>14</sup>,  
ondo pentsa ezazu  
zer egiten dezun.

1. Bertso-paperak: *cer guertacen sadan*.
2. Mutillaren erria.
3. Bertso-paperak: *ustecoan*.
4. Toki baten izena.
5. Neskaren izen-abizenak.
6. Alargunaren izen-abizenak.
7. Alargunaren izena.
8. Bertso-paperak: *utsic artzeco*.

9. Bertso-paperak: *ori*.
10. Neskaren izena.
11. Bertso-paperak: *malco ceriyola*.
12. Bertso ontako puntuak: *ciran, goician, itzean, ciran*.
13. Neskaren aitaren izengoitia.
14. Neskaren izen-abizenak.

## «LENAGO NITZADEN NI...»

Bertso sail oni buruz, Mikelak, Pello Errotaren alabak, onela esan zigun:

«Bertso auek ere gure aitak jarriak dira. Badakizkit nik kantak, eta pasadizoa ere bastante.

Gizasemea etorri zan gure etxera. Gogoan izaten det. Bikaña zan.

Gure aitari esan zion:

-Pello, bertsoak jartzera nator.

-Zer degu, ba?

-Ara: etzegoan gure errian irabazi aundirik. Alpargaterian aritzen nintzan. Ta Pasaira joan nintzan, jornal obea irabazteagatik. Andregaia or utzi nuan errian. Ta, Pasaian lanean ari nintzala, nere andregaia beste batekin zebillela esan zidaten. Errira bueltatu ta illuntze

batean andregaiaren etxera joan nintzan. Aita ta ama oeratuak ziran. Esan nion beste batekin ola nola zebillen, ta bullan asi zan. Ta, bullan asi zanean, aita alkandora utsik etorri zan sukaldera zalapartaka, ta ama ere atzetik. Len bezela izateko esan ziguten. Guraso zarrak itzezin zutela ta baietz erantzun zuan nere andregaiak. Baietz ta baietz, conforme danak. Ta gero urrena karta bialdu dit: ura pozik ezkonduko zala, bañan kalean mantentzea ikaratu egiten dala, ta despeira bialdu dit. Orain kantak jartzea nai nuke.

Ta ala jarri zizkan. Badakizkit nik geientxoena oraindik ere»<sup>1</sup>.

Bertsoak ere Mikelak berak eman zizkigun:

1/ Lenago nitzaden ni  
alpargaterua,  
artan e bazeguan  
naiko endrerua;  
gero argintzarako  
egin zat gogua,  
irabaztiagatik  
jornal aundigua.

2/ Ni jakinda negoan  
nola ibilli zian,  
nigana notiziak  
allegatzen zian;  
juan da esan nion  
berari etxian:  
«Juana, etzaude noski  
lenagoko itzian».

- 3/ Juana ori armoniyan  
altutik asi zan,  
neroni ere ixilik  
egongo ez nitzan;  
fameliya orduko  
oeratua izan,  
aita alkandora utsik  
gugana etorri zan.
- 4/ Aditu zutenian  
bulla ori dana,  
larri asko etorri  
ziraden gugana;  
aita alkandora utsik,  
jantzi gabe ama,  
.....  
.....
- 5/ Len bezela izateko  
aitak eta amak,  
baietz erantzun zuan  
laister asko Juanak;  
itza goardatzen du  
berez fiña danak,  
baña paltsuarekin  
orrelako lanak.
- 6/ Orain abisatsen dit  
paltsuak bezela,  
nik ere bai aditu,  
arritzen nitzala;  
lenagoko itzian  
konforme etzala,  
nai banuan beste bat  
billatu nezala.
- 7/ .....  
.....  
etzuala ukatzen  
itza emana zala;  
kalian mantentzia  
ikaratzen zala,  
bestela ura pozik  
ezkonduko zala.



- 8/ Begira zagun ondo  
mundu zabalian,  
zeurekin zein dagan  
igualdadian;  
jantzi eta mantendu  
formalidadian,  
ederragua pranko  
badago kalia.
- 9/ .....<sup>2</sup>  
deritzaionari,  
abisatutzen diot  
dam'orren aitari,  
arto-etxe on batera  
bial zala ori,  
an gustora egon dedin  
eder eta lori.
- 10/ Antonio .....<sup>3</sup>  
grazi neronena,  
.....-n jaio ta<sup>4</sup>  
Antxon nagoena,  
Juanarentzako kantak  
jarri ditutena;  
au da errespuesta  
zure kartarena.
- 11/ Juana .....<sup>5</sup>  
dam'orren graziya,  
.....-ko .....-en<sup>6</sup>  
jaio ta aziya;  
kalian daguala esanez  
mantenu eskaxiya,  
izan ere nork ase  
puska ori guziya?

1. Mikelaren alabak: «Gure aitak ere kantatzen zituan. Iturriotz aldean barruti aundia genduan. Etxerakoan, gu gurdi gañean belarrean jarri ta aita beiakin aurretik. Aita kantari asten zan, ta gu pozik aitaren bertsoak ixil-ixilik entzuten gurdi gañetik».

2. Neskatzaren aitaren izen-abizenak.  
3. Mutillaren abizena.  
4. Mutillaren jaioterria.  
5. Neskatzaren abizena.  
6. Neskatzaren jaioterria ta bascerria.

(1893)  
**BERTSO BERRIAK**  
.....'I JARRIAK<sup>1</sup>

Auek dira Mikela, Pello Errotaren alabaren itzak, bertso sail oni buruz:

«Naparroako gizaseme gazte polit bat etorri zan gure etxera. Gu artean neska gazteak giñan. Ala esan zion gure aitari:

–Zu al zera Pello Errota, Astiasuko bertsolaria?

–Bai, jauna, serbitzeko.

–Ba, lagun baten kaso det, bertsoak jartzeko.

–Ea, ba, esplikatu nola dezun.

Kontatu zion bere lagunak neskaxa batekin tratua egin zuala, ta erregalatu zizkala bost duroko eraztuna ta zapata berriak ere bai.

Bañan gero lagun orri esan ziotela, or nunbait ere «azari zar bat bazebillela anka biko agurua», ta kaso egiteko. Ta, ala, zelatan jarri zala lagun ori gau batean beste batekin.

Ta andik ikusi omen zutela «azari zar» ura neskaxaren etxera zetorrela. «Azari zar» ura arakiña omen zan ofizioz, eta tolosarra jaiotzez.

Ta, neskaxa oiean zegoala, ots egin omen zion goitik atsoak. Bitartean, nobioa dana ikusten. Ta, ikusi zuanean zer

itxura itxusia zijoan, andik alde egin zuala.

Ala kontatu zion arek. Bañan pasadizoa esatean, begian negarra agertu omen zitzaion; da gure aitak ala esan zuan bere artean:

–Onek lagunaren izenean kontatu dik, bañan bera dek.

Ta, kontatzen bukatu zuanean, bertsoa bota zion, lagunaren izenean kontatu zuala, bañan bera zala esanez. Bertso orren erdia badakit nik:

.....  
.....  
.....  
.....

Pello Errota da aspaldi ontan ortan segitzen dubena, bildurrik gabe esan zaidazu: nola da zure izena?

Ta mutillak erantzun zion baietz, bera zala; Prantzisku Mari izena zuala, ta lotsatu egiten zala bere izenean kontatzeaz.

Ta gure aitak beste bertso bat bota zion orduan. Orrena ere erdia besterik ez dakit:

.....  
.....  
.....  
.....

kontu oriek aditu eta  
sekulako naiz arritu,  
kuidado gabe egon ziñezke,  
berriak entzungo ditu.

Mutillak orduan, bere pozean, patri-  
katik atera ta dirua eman zion gure aita-  
ri.

Nik eskribitu nituan bertsoak. Gero  
Tolosara joan giñan aita-alabak. Mutil  
orrekin bazkaldu genduan Zerkausi au-  
rreko ostatu batean. Kantatu zizkan gu-  
re aitak bertsoak, eta mutil ari asko gus-  
tatu zitzaizkan.

Gero, gure aitari ala esan zion:

–Ta neskaxa au ezkontzeko al dau-  
kazu?

Nik ixil-ixilik egon bear nuan, bañan  
ni orduan ere «Txintxarriya», ta:

–Bai, ezkongai nago, bañan badet  
zeñek artua– esan da despatxua eman  
nion.

Bertso guztiak ez dakizkit. Ez nien  
ainbeste estimazio artu. Geiago gustatu-  
ta, kanta batzuk besteak baño gogo  
geiagorekin artzen nituan, buruz ikaste-  
ko».

Oneraño Pello Errotaren alabaren  
itzak. Bertsoak, «Donostiyen.– Anto-  
nio Pozo-ren moldizteguien» argitaratu-  
tako kanta-paper batetik ditugu. Paper  
ori Altzo-azpin jaso genduan, Olazabal-  
-berri baserrian, Inazio Zabalaren esku-  
tik. Onela diote:

1/ Milla zortzireun larogei eta  
amairugarren urtian,  
bertso berriak jartzera nua  
itxura eder batian;  
eskandalo bat nik izandu det  
neskatxa baten artian,  
nun ere klaro itz egingo det:  
or .....’ko partian<sup>2</sup>.

2/ Neskaxa orrek ezkontuzeko  
bazeukan intentziyua,  
gurasuakiñ tratatu eta  
egiñ zan konpontziyua;  
jendia frankok jakiñ biar du  
pasatu dan funtziyua,  
nola diraden ikasitzeko  
eduki atentziyua.

- 3/ Ustez ezkontza egiñagatik  
ez digu asko serbitu,  
zenbait neskatxek bere artian  
tranpa gogorrek baditu;  
prueba bat orri ikusi eta  
sekulako naiz arritu,  
ikusgarrizko gauzak badira  
ondo esango banitu.
- 4/ Nobiyorikan etzedukala  
dama orrek ziran esan,  
nere artian pentsatu nuben  
fiñ samarren bat ote zan;  
ezkondutzeko agindu niyon,  
nobedadia laister zan,  
orain bertsuak argatik dira  
iñor engaña ez dezan.
- 5/ ..... izan biar du<sup>3</sup>  
dama orrek bere graziya,  
orrekiñ nitzan ezkondutzeko  
pentsamentuban asiya;  
au .....-en jaiua dala,<sup>4</sup>  
gañera Bentan aziya,  
ni inozente egon banitzan  
bazedukan maliziya.
- 6/ Neskata orri nik esan niyon  
josten ikasi zezala,  
arren gastuba pagatutzeko  
konforme izango nitzala;  
apaindu eta or ibilli da  
dama fiñenak bezela,  
merezi du ta nolakua dan  
jendiak jakiñ dezala.
- 7/ Familirako komeni dana  
izan biar du jostia,  
orregatikan nai izan nuben  
lan ori erakustia;  
ibilli zan ta nere boltsatik  
kuarto batzuek kostia,  
bera gaiztua dala mediyo  
gertatu zaio uztia.

- 8/ Apirillaren amaseyian  
prozesiyuan .....-n,<sup>5</sup>  
ikus nuben nola zebillen  
komeni etzan gauzetan;  
nik esan nion: «Gaizki zabilta»,  
ez zuben artu ezertan;  
ori ez baño beste batzubek  
egondu ziran lotsetan.
- 9/ Emeretzi egun apirillian  
ori Santa Gerizian,<sup>6</sup>  
mutill askori kiñuka egon zan  
meza denbora guzian,  
obra onari burla egiñaz  
oso modu itsusian;  
orrelakua nola egongo da  
Jaungoikoaren graziyan?
- 10/ Elizatikan atera eta  
gero meza ondorian,  
orduban ere ibilliya zan  
modu itxura gabian;  
mutillak iru gutxiyenan  
neskatxa orrek parian,  
etzuen asko arkakosuak  
ori penatu bidian<sup>7</sup>.
- 11/ Bere itzian fiñ egoteko  
zer neskatxaren moduba!  
Iñon ere eziñ asentatu da,  
arrua dauka buruba;  
orregatikan igarri dizut  
ez zerala seguruba,  
ez ziñake zu orla ibilliko  
baziñake azganduba. (*sic*)
- 12/ Lagun on batek enkargatu ta  
artu det erreparua,  
azari zar bat badabilela  
anka biko agurua;  
neskatxa orri kontu egiteko  
ez banitzaden erua,  
egiña dago linguak baño  
gauza alrebesagua.

- 13/ Ikasi naia nik banedukan<sup>8</sup>  
gauz ori nola zijuan,  
apirillaren oi ta batian  
jarri naiz puntu fijuan;  
entero lasa ni enegoan  
leio onduan kanpuan,  
orduban bertan arrapatu det  
azari zarra zepuan.
- 14/ Lenago ere egiñ zituben  
modu ortako pausuak,  
bertan gelditu bear zubela  
mutill maleziosuak;  
.....-rekiñ lo egiteko<sup>9</sup>  
ots egiñ ziyon atsuak,  
su eman eta erre biar du  
orrelako gurasuak.
- 15/ Leio zulotik zelatan neuan  
odol danak irakiñda,  
kuidado gabe ustez zebiltzan  
elkarren berri jakinda;  
..... ori lenagotandik<sup>10</sup>  
zeuan oian etzinda,  
arakiña da bere ofiziyoz,  
azari ori Joakiñ da.
- 16/ Juan zanian itz egiñ ziyon:  
«Emen al zaude, maitia?». <sup>11</sup>  
Argiya eskuan zedukalarik  
miratu zuben oi-pia;  
ustez seguru jarri zanian  
gero itxi du atia,  
jakiña dago zer izango zan  
arren urrengo kolpia.
- 17/ Pasadizuak deklaraturaz  
banua arrazoian,  
nere gorputza estu zeguan  
zelatako garaian;  
odol guziak irakiñ eta  
barrena lertu naian,  
ots egiñ niyen: «Ederki zaute,  
dama-galaiak, oian!». <sup>12</sup>

- 18/ Zer pasatzen zan itz egiñ niyon  
neskatxa orren amari,  
errespuesta ark eman ziran  
ezer etzala lan ori;  
orlako itzak ez zaio aditzen  
iñon guraso onari,  
kantak argatik jarritzen zaizka  
gaizki portatzen danari.
- 19/ Begiyen bistan neronek dauzkat  
gauza oiek ikusiyak,  
berri onikan ez du sekulan  
orren persona lasayak;  
libertadian oitutakuak  
lotutzen ditu etsaiak,  
deskalabrorik ez det egiñ da,  
Jaungoikoari graziyak.
- 20/ Nolakua dan ikusitzeko  
jarri obrari begira,  
modu orretan ibilli dana  
.....<sup>13</sup> ori da;  
sentidurikan duenarentzat  
motibo franko badira,  
kulpa gabia etzeguan ta  
eman diot despedida.
- 21/ ..... det apellidua,<sup>14</sup>  
Frantzisko daukat izena,  
neroni naiz ni neskatx orrekiñ  
orla gertatu naizena.  
Munduba ondo pasatutzeko  
ai zer alaja zuzena!  
Sinista zazu zu utzi eta  
kontentuz bizi naizena.
- 22/ Emezortzi daduzka orrek,  
oraindik dama gaztia,  
orrelakuak gutxi obiak,  
asko komeni ezitia;  
naiko du orrek bere inguruan  
bada ez bada bestia,  
artu banuben kalte neretzat,  
mesede det nik uztia.

23/ Rekuerdotzat izan zitzala  
nik eman erregaliyak:  
bost durokoa erraztuna ta  
gero zapata berriyak;  
eskusa gabe artu zizkiran  
dama engañagarriyak,  
kendu nizkan ta beste batentzat  
pronto an dauzkat jarriyak.

24/ Desio zuen bertso berriyak  
orra Frantziskok atera,  
al dan guztiya zabaldutzeko  
Naparroako partera;  
zer pasatu dan ikasitzeko  
emen badago aukera,  
gogo duenak artu dezala  
bost zentimuen papera.<sup>15</sup>

1. Neskatzaren izen-abizenak.
2. Neskatzaren erria.
3. Neskatzaren izen-abizenak.
4. Neskatzaren erria.
5. Auzo erri bat.
6. Bertso-paperak: *ori Santa guerician*; Pello Errotaren alabak, *ori Santa Engraziyan* esan zuan.
7. Bertso-paperak: bidean.
8. Bertso-paperak: baneukan.
9. Neskatzaren izena.
10. Neskatzaren izena.
11. Bertso-paperak: maitea.
12. Bertso ontako puntuak beste onela bear luteke, seguru asko: *arrazoyian*, *garayian*, *nayian* eta *oyian*.
13. Neskatzaren izen-abizenak.
14. Mutillaren abizena.

15. Mikelak sail ontako zortzi bertso esan zizkidan: 5<sup>o</sup>garrenaren erdia, 22, 9, 12, 15, 14, 16 eta 17<sup>o</sup>garrena, orden ontan.

Aldaketak: 5/5: au .....-en jaiua da ta; 5/7: kanta oietan agertuko det; 5/8: egin diran maleziya; 9/1: Apirillaren amaseyian; 9/2: ori Santa Engraziyan; 9/7: orrelakua nola egongo zan; 15/1: Kuidado gabe zebiltzan oiek; 15/2: alkarren berri jakinda; 15/3: ..... ori lenagotikan; 15/4: zegon oyian etzinda; 15/5: arakiña da bere ofiziyoz; 15/6: azari ori Joakin da; 15/7: leio zulotik zelatan negon; 15/8: odol danak irakinda; 16/3: argiya eskuan zekularikan; 16/4: miatu zuan oi-pia; 16/7: jakiña dago nora izango zan; 17/1: Pasadizua deklaratuaz; 17/2: banua arrazoyian; 17/4: zelatako garayian; 17/6: barrena lertu nayian; 17/8: dama-galaiak, oyian; 22/1: Emezortzi urte darduzka orrek; 22/5: gertatu zaiou neskatzax orri; 22/6: nobiyo orrek uztia; 22/7: orain kontentuz ote zerade; 22/8: aizazu, dama gatzia.



## «JUANA JOXEPA...»

Aurreko adierazpena eta ondoko bertsoak, Mikela Pello Errotaren alabari zor dizkiogu. Onela esan zigun:

«Nobioa bera etorri zan, da berak esplikatu zuan pasadizoa, zan edo etzan bezela. Naparroatik etorri zan au ere. Ni errotan ari nintzan.

Neskatxaren aita asi omen zan ezkontza ori tratatzen, aiek biak alkarrekin esposatuta ikusi nai zituala ta. Neskatxak txanponen batzuk izango zituan, da aukera ederra zala.

Mutilla errotaria zan; da, egun batean, zakua artu ta iriñetara joan zitzaion neskatxa ori. Bañan mutillak etzion kasorik egin. Ezta bigarreanean ere. Irugarrengoa joan zanean, ala esan zion mutillak:

–Pretentsioa izan nuan nik, ba, zurekin.

–Bai; ia oraintxe etsi nuan; etzidazun kasorik egiten da...

Ta egun artan bertan erabaki zuten ezkontza.

Bañan neskatxa orrek, ama il da ugazama zeukan. Aitak aiek bere etxera esposatzea nai zuan; bañan neskatxak, ugazama gaiztoa zala-ta, etzuan nai. Aren ondora etzijoala esan zion aitari.

Naparroan ala usatuko da, ta neskatxa ori igitara garia ebakitzera joan zan. Etorri zanean, mutilla bisitatzera joan zitzaion; da ordurako neskatxak despeira prestatua zeukan.

Zer aitzeki zuan deklaratzeko, galdetu zion mutillak; eta, orduan ezer esan gabe, leiotik sartzen zala kontari asi zan gero. Orregatik esaten dio bertso batean: «etxe artan etzuala itzegin aita testigu etzala».

Nik eskribituak dira bertso oiek. Inprentatuak ziran. Gogoan ditudanak esango ditut:

1/ Juana Joxepa ..... ori<sup>1</sup>  
ondoren ibilli zana,  
..... apellidua<sup>2</sup>,  
Joakin da nere izena;  
gañera berriz nere opizioz  
errotan bizi naizena,  
jaiotzaz ere .....-kua<sup>3</sup>,  
au da izketa zuzena.

- 2/ Dama orren aitak nere aitajauna  
billatu zuan lenbizi,  
gu alkarrekin esposatuta  
nai giñubela ikusi;  
arren berriya al zan lenena  
egin nezala ikasi,  
gero azkenian zer egin didan  
biar det adierazi.
- 3/ Aitajaun ori allegatu zat  
ordena zuan bezela,  
ta esan zidan ezkontutzeko  
aukera ederra bazala;  
Juana Joxepa ..... ori<sup>4</sup>  
nitzaz gustatutzen zala,  
errespuesta nik eman nion  
gero egongo nitzala.
- 4/ Aurrenekuan kasorik ez nik,  
eldu da bigarrenian;  
denbora asko baño lenago  
andikan ondorenian,  
zakubarekin etorri eta  
jarri zat aldamenian;  
ikasi arte etzegen ori  
oso deskantsu onian.
- 5/ Irugarren txandan etorri eta  
izpidia zan asiya,  
pretentsiyua nola izan nuan  
esan nion lenbiziya;  
neskatxa orrek erespuesta:  
«Iya artu nun etsiya».  
Egun orretan egin genduan  
geren ezkontza guziya.
- 6/ Dama orren aitak aren etxera  
biar nuala ezkondu,  
nik esan nion neskatxari ta  
ezetz aguro esan du:  
«Gure ugazama gaiztua da ta  
arekin nola konpondu?  
Naiago nuke beste leku bat  
eskojituko bazendu».

7/ Izketa oiek ola pasata  
ustez seguru nobiya,  
itara juan zan bide luzian  
ebakitzera gariya;  
etorri zanian juan nintzaion,  
ori da zuzen egiya,  
orduko oien izketa etzan  
neretzat gustagarriya.

8/ .....  
.....  
neskatxa ori aldamenian  
orduban zitzaidan jarri;  
ugazama're azaldu zan da  
danak begira alkarri,  
despedidaren nobedadia  
orduban zan irakurri.

9/ Orain kontari or omen dabil  
gezurti zar bat bezela,  
beste aitzekirik sortu ezin da  
leiotik sartzen nitzala;  
etxe orretan ez det itzegin  
aita testigu etzala,  
pozaz zoratzen jarriya nago  
zugandik libre naizela».

1. Neskaxaren abizena.
2. Mutillaren abizena.

3. Mutillaren jaioterria.
4. Neskaxaren abizena.

## AROZPIDE

Urrengo adierazpena eta bertsoak ere, Pello Errotaren alaba Mikelaren aotik ditugu:

«Arozpide orduko aizkolari bat zan. Oso ona omen zan. Astiasun denbora puska batean lanean aritua zan, bañan etzan erritarra: goikoa zan, Azpeiti-Azkoiti aldekoa<sup>1</sup>.

Ta Pamplonan apustu bat jokatu ta irabazi egin zuan.

Ango jende nappar ura gogor-gaiztoa omen zan oso; ta, joko ez bazuten, apustua bukatu, aldatu ta tabernako

leiotik saltatu bear izan omen zuan Arozpide orrek. Leioaren parean kortexa zai omen zeukan; sartu ta alde egin omen zuan.

Andik etorri ta biaramonean, ez dakit nik zergatik, andregaiak despeira eman zion.

Orduan, gure aitarengana etorri, ta andregaiarentzat bertsoak jartzeko eskatu zion. Bai jarri ere.

Bertso onak ziran aiek ere. Bañan nik ez dauzkat danak gogoan:

- 1/ Aditzerak emango  
dizkizuet kantan,  
sekula ez naiz ibilli  
biar eztan plantan,  
ez inor engañatzen  
zu bezela tranpan;  
Arozpide eztago  
andregaien paltan.
- 2/ Andregai asko dago  
gaurko egunian,  
orregatikan nago  
deskantsu onian;  
ezkontza galdu dala  
jakin dutenian  
iru etorri zaizkit  
biyaramonian.

- 3/ Nere barrena dago  
gutziz alegere,  
ikus'itudanian  
ainbeste mirabe;  
izarrak dirudite,  
ederrak alare,  
egitia espero det  
andre baten jabe.
- 4/ Maria .....<sup>2</sup>  
zerez .....-kua,<sup>3</sup>  
iruri despedida  
len emandakua;  
orrela uzten badezu  
laugarren majua,  
etzera aterako  
neskatxa bapua.
- 5/ Ara nola diraden  
gizon oien pamak,  
batere aztu gabe  
jarri ditut danak;  
zurekiko tratuak,  
paper oien lanak,  
Pamplonako premiyuak  
pagatze'itu danak».

1. 1893-ko Azpeitiko euskal festetan, korrika-  
-apustua Arozpide onek irabazi zuan.

2. Neskaren abizena.

3. Neskaren erria.

(1894)

**BERTSO BERRIAK**

**NERONEK NERE GERTAERARI JARRIAK**

Bertso auengatik onela esan zigun  
Pello Errotaren alaba Mikelak:

«Gizon ura kanpora ezkondu omen  
zan; ogei ta bost ontza urretan zituala  
sartu zan baserri artan, da ustez ondo  
jarri zan.

Bañan gero norbaitek salatu zion  
alako gizona, alarguna, andrearengana  
joaten zitzaiola. Baita ala izan ere:  
etxean koñata neskazar bat omen zeu-  
kan, da aurrena arengana ta urrena  
emaztearengana joaten omen zitzaion.

Ori ikusi zuanean, andrearengandik  
partitu zan, etxean bi aur utzirik. Ni  
ezkondu nintzan sagar urte aundi artan  
partitu zan. Bera atera, ta alarguna  
etxean sartu omen zan.

Pasadizoa kontatu ondoren, gure ai-  
tari eskatu zion bertsoetan andreari esa-

teko aurrak ondo azi bear zituala, go-  
goan zuala aiek nola zituan, berriz ere  
alkarrekin bizitzeko desioa zuala...

Ala jarri zion; da bertsoen billa eto-  
rri zanean, berarekin etorri zan laguna  
onela asi zitzaion:

–Zertarako jarri dituk ba bertsoak?  
Berriz ere atso orrekin bizitzeko asmo-  
tan al ago? Jo ta iltzea merezi ukek...

Andreari ura esaten ziolako, laguna  
ito bearrean aritu zitzaion. Arek esan  
zizkanak! Nik gogoan dauzkat, bai.

Neronek eskribituak dira bertso  
auek ere».

Bertsoak, berriz, Azpeitiko Odria  
baserrian eskuratu genituan, «*Tolosa: –  
Imp. de E. López*» moldiztegian argita-  
ra emandako bertso-paper batean.

1/ Milla zortzireun larogei eta  
amalaugarren urtia,  
denbora onetan pentsatu det nik  
bertso berriyak jartia;<sup>1</sup>  
leku askotan zabaldu nai det  
izan dedan suertia,  
orretarako zure bear naiz,  
guztiyon Jabe maitia.

- 2/ Naiago nuke lan au baneuka  
biar bezela jarriya,  
ondo pentsatzen baldin badegu  
ain da lastimagarriya;  
mesede eske Zugana nator,  
Aita estimagarriya,  
komeni bazat eman bear dit  
espirituko argiya.
- 3/ Asunto dana biar bezela  
nai nuke nik erabaki,  
kulpa duenak zergatik nuan  
kantik jartzera badaki;  
beragatikan saiatu biat  
alegiñian eroki,  
aditzalliak, ikasitzeko  
atentziyua iduki.
- 4/ Nik obe nuke kaso guztiya  
deklaratuba banego,  
asunto asko gertatzen zaizkit  
esango banitu ondo;  
modubak ala agintzen du ta  
enaiz isillik egongo,  
bañan ez due leku guztitan  
konsuelorik emango.
- 5/ Nerau Aiatik mutill libria  
kostara ezkondu nitzan,  
diruba ere ondo nuela  
etxe ortara jua nitzan,  
an izateko pentsamentuban  
mundu ontako bizitzan;  
itxura txarrak azaldu zaizku,  
gustorik ez degu izan.
- 6/ Ezkondu nitzan etxe ori da  
.....-ko .....<sup>2</sup>  
bizimoduba moldatu nuben  
diru asko ekarrita;  
oi ta bost ontza urretan ziran,  
zer kantidade polita!  
Oiek guztiyak izanagatik  
zenbaitekin alperrik da.

- 7/ ..... apeli<sup>3</sup>  
..... det graziya,<sup>4</sup>  
Aian jaiua izan biar det,  
gañera bertan aziya;  
.....-ra ezkondu nitzan,<sup>5</sup>  
orra itze<sup>6</sup>gin guziya,  
esango'izuet nik emazia  
zergatik dedan utziya.
- 8/ Matrimoniyo ondo artubak  
alkarri asko zor diyo,  
konfiantzarik ez baldin badu  
personak ez du baliyo;  
nik emazia utziya daukat  
lan ori dala meriyo,  
.....-k zergatikan dan<sup>6</sup>  
orri antzemat<sup>7</sup>en diyo.
- 9/ Deklarazia txit komeni zait  
nola dan kaso guria,  
besteren gauza beretutzeko  
badu abilidadia;  
..... egon biar du<sup>7</sup>  
lan oriyetan trebia,  
orregatikan azaldu zaigu  
etxeko nobedadia.
- 10/ Akordatuta egun batzubek  
or isilikan jun dia,  
iñorentzako ezta ederra  
etxeko pesalunbria;  
gauza oriyek entzundakuan  
arrituko da jendia,  
oso ederki konpontzen ziran  
..... da nere andria.<sup>8</sup>
- 11/ Adierazitzen ari naiz zerbait  
neri zer zaidan gertatu,  
au edozeñek esango due:  
«..... ez da portatu»;<sup>9</sup>  
gauza aldrebesak egiña dago,  
gañera berak kontatu,  
oiek orrela entzundakuan  
zeñ egongo zan kontentu?



- 12/ ..... jaun au bi bider dago<sup>10</sup>  
lenago ere ez konduta,  
orain bakarrik gertatzen zana  
Jainkuak biyak kenduta;  
zenbait umildu izandu dira  
orrela alargunduta,  
azari gisa eizian dabill  
leio zulotik sartuta.
- 13/ Neska zar bat zan nere koñata,  
argana zitzaidan asi,  
arekin ere kontentu ez ta  
gero emazte ta guzti;  
ondorenia bera kontari,  
nik ere nunbait ikasi,  
lan orregatik familiya ta  
etxia nituben utzi.
- 14/ Eskandalua ezta izaten  
famiyaren protxuban  
jakin gabian pasatzen dira  
gauza batzuben itxuban;  
ia eskuba jarri dezala  
bakoitzak bere petxuban,  
nobedaderik ezertan gabe  
zeñek sufritzen dituban.
- 15/ Zuzentasuna biar genduen,  
gertatu gera biyurri,  
lastima ez al da orla ibiltzia  
bada mundun parragarri?  
Zer estadutan arkitzen nitzan  
orain jendiak igarri,  
ni atera ta an gelditu zan  
len esan dedan .....<sup>11</sup>
- 16/ Zuk badakizu uztarri batez  
nola giñaden lotubak,  
lenago gaizki izan bagera  
mudatu pentsamentubak;  
denbora jua da ez du baliyo,  
orain atera kontubak,  
despreziyu au ez du merezi  
matrimoniyo santubak.

- 17/ Ni atera ta errentaritan  
oriyek ezin pagatu,  
artuak eta sagarrak ziran  
guztiyak bertan geratu;  
nagusi jaunak oiek dianak  
gero dizte enbargatu,  
iñuzentia gertatu balitz  
bazeukak zeñek pegatu.
- 18/ Gero neronek artu nituben  
oieri enbargatubak,  
gurdi sagarra lau pezetan da  
zortziyan berriz artuak;  
nagusiya ta biyok giñaden  
orretan arreglatubak,  
galeraritan ez dit eragin  
denbora artako tratubak.
- 19/ Arraskatu naiz tratuban eta  
lana ondo erori zat,  
laubian artutako sagarrak  
zortziyan salduba beintzat;  
andik partia biar duela  
emazte ori asi zat,  
neretzat etzan laguntzallerik  
palta atera balitzat.
- 20/ Endredo asko jarritzen ditu  
bada persona gaiztuak,  
lenago ere ikusi zaizka  
gauza aldrebes askuak;  
ustez ixillik zebillen baño  
utzi ditu arrastuak,  
..... orrek eraman dizkit<sup>12</sup>  
belarrak eta lastuak.
- 21/ Lastaira eder bat etxian neukan  
nagusiyak ekarriya,  
beteta neukan txurikiñakin  
berarentzako jarriya;  
ori're ostu belar da lasto  
pilla ikaragarriya,  
gañera berriz eraman dizkit  
bi barrika ta gurdiya.

- 22/ Besteren gauza beretutzeko  
beti dago korajian,  
guk eztakigu zenbat jenero  
joaten ziran birajian;  
gau illunian artu liteke  
gizon ori barajian,  
eskuba garbi erukiko du  
ezer ez dan parajian.
- 23/ Badakizue bi kriatura  
nola nituben nik utzi,  
akordatzian nere barrenak  
ez daduka pena gutxi;  
Jaungoikuaren lege santuba  
bear zaie erakutsi,  
enkargu ori ematen dizut,  
nere emazte .....<sup>13</sup>
- 24/ Bire txarretik erori giñan  
paraje aldrebesera,  
egun batzubek zurekin pasa  
nai nituzke nik zartzera;  
zure aurrakin kuadrilla oitatik  
apartatutzen bazera,  
nai dezun erri señala zazu,  
nerekin galduko etzera.
- 25/ Deseo nuen bertso berriyak  
orra nik adierazi,  
kontuba pranko ipiñi degu  
nai ditubenak ikasi;  
itxu tristiak nolabait ere<sup>14</sup>  
munduban biar du bizi,  
asko saltzia mesere du ta  
al dezubenak erosi<sup>15</sup>.

1. Bertso-paperak: jartzia.
2. Erria eta etxea.
3. Abizena.
4. Izena.
5. Erria.
6. Izen-abizenak.
7. Izen-abizenak.
8. Izena.

9. Abizena.
10. Abizena.
11. Abizena.
12. Abizena.
13. Izena.
14. Emen adierazten dancz, itxuren bat izan zan bertso auen saltzaillea.

15. Pello Errotaren alaba Mikelak sail ontako lau bertso esan zizkigun: 6, 13, 23 eta 24-garrena; bañan aldaketa auekin: 13/1: neskazar bat zun nere koñata; 13/2: argana zitzaion asi; 13/5: gañera ber-

bera kontatzen; 13/6: nik ere berriz ikasi; 13/7: lan orregatik emaztia ta; 23/5: Jaungoikoaren lege santuban; 23/6: oik biar dirade azi; 24/1: Toki txarretik erori ziñan; 24/7: zure diñako izango da ta.

## ARANTZAZUKO PELEGRINAZIOAK

Pello Errotaren alaba Mikelaren itzak dira onako auek ere:

«Orain baño ugariago egiten ziran orduan pelegrinazioak. Astiasuk ortara zuan afan guztia.

Ni aitarekin bi aldiz joan nintzan Arantzazura. Aurrena, amasei urte nitala; ta urrena, ogei bat urterekin.

Brinkolaraño trenean joaten giñan. Brinkolan trenetik atera ta ekin mendiarri. Mendi guztiak oñez pasa giñuzen aruntzean. Ura zan pelegrinazioa! Aurrena, aldapa gora joaten giñan. Ura joanera! Gora allegatuta, andikan begiratu ta Arantzazu bean ikusten zan.

Lenengo urtean, gure aitak, joan baño len, kankak jarri ta erriko neskatxai erakutsi zizkigun. Gero, ara allegatu giñanean, elizan sartu ta auxe kantatu genduan danok batera:

Erregu egin beza,  
Ama, gugatikan,  
irten geran merioz  
bada Zugatikan;  
kuadrilla aundia gatoz  
Astiasutikan,  
Birjiñari agur bat  
egitiâtikan.

Despeiran ere zer esanda joan giñan banekin nik lenago:

«Adios, agur, Ama Zerukoa, Ama

Arantzazukoa...». Bañan orain ez daukat gogoan.

Ta gero alako funtzio ederrak egiten ziran: danok konpesatu ta komulgatu; meza nagusia ta sermoi ederra ere bai. Arantzazun badaude guk bezela itzegiten dutenak. Bañan San Antonion? Jesus! Ango itzegitea! «Konpesiñuagaz, komuniñuagaz, mezagaz...», dana gazekin. Bañan Arantzazun ez.

Egun batean joan ta urrengoan etortzen giñan. Gaua, berriz, angostatuan pasatzen genduan.

Etxe artan lurreko sua zuten, da arbolik aundienak suaren bi aldeetan oso-osorik erretzen jarrita zeuden. Aiek arbolak!

Ta amona bat, labean erretako arto aundi bati eutsita, ari zopak kentzen ari zitzaion, porru-salda egiteko. Arta-zopak esnearekin egosita bai, bañan porru-saldarekin ez dira gure aldean beñe-pein jaten, da parrez egon giñan ari begira.

Ura berentzat zuten. Astiasuko jendeak, berriz, xardín zarra bazan ere, baikoitzak bere puska eraman zuan.

Bañan Don Bitorianorekin joan giñanean, bertako jana izan genduan. Ta begia aterako zuten garbantzu otz-otz batzuk eman zizkiguten. Ta tomatea ere? Jesus! Astokia sartu ziguten ere eztakit. Bai; Don Bitorianorekin joan

giñanean beñepein, gusto gaiztoko jakiak izan giñuzen.

Lotarako, emakumeak goien izaten giñan, belar-pillan-da; ta gizasemeak, berriz, bean.

Gure aita, Don Tomas apaizarekin pasiatzen gelditu zan. Aiek lotara etziran beñepein joan. Kontrariorik etzuan, bañan gau guztia bertsoan pasa zuan.

Ta goien, emakumeak giñan tokian, itotean jarritako ontzi zar batzuk urez beteta zeuden; da emakume batek aietako bat ankakin jo ta bota egin zuan.

Bean, berriz, mutilzar bat, aberatsa bai bañan erdi eroa zana zegoan, da urak solairuko zirrikituetatik erorita busti egin zuan. Ta orduan ola esan zion gure aitari:

–Pello, bertsoa kantatu bear dezu, gure erriko atsoak pelegrinazioan etorri ta pixa egiten digutela goitik!

Aiek parrak eta algarak egin giñuzen danok! Apaizak ere bai.

Azkena orain urte batzuk izan giñanean, ango amona xar bati ala esan nion:

–Neskatxa bat ere bazan, ba, emen, ni ola ta ola izan nintzanean.

–Neu izango nintzan, zu neskatxa baziñan.

–Bai; ni zarra, ta berorrek ere zarra bear.

–Ta ematen al diozu etxe oni orduko antzik?

–Atariko antigualeko arkuak; gañontzean ez du.

–Bai; ordukoak, atariko atek bakarrik daude.

Urte batean, Brinkolan ala esan genion gizon bati aruntzean:

–Bueno, zuk bidea erakutsi.

Ta, guk danok pagatuta, gidari atera genduan gizon ura.

Bañan onuntzean arek zer egin zuan? Usurbilko emakume zar bat, aberatsa, erren aundia zuana, bagenduan; da amona aberats ari lagun egiteagatikan, bota gindun gu pobre guztiok aurrera, ardiak bezela.

Erren ura zuzen ekarri zuan, bañan besteak alaxe ibilli giñan, al zan al zan tokira joanda. Batzuk Antzuolako zulo-ra ta besteak nora etzekitela, galduta ibilli giñan.

Brinkolara allegatu giñanean, alako ta alako palta; lagun asko palta zala. Jesus! Ura zan, ura! Bañan danok, nolabait ere, geroago bada ere, trena arrapatzeko modua egin genduan. Etzan utsa! Etzan uste, ta ala esan genduan:

–Batzuk izango giniñan dirua, gero, biyar joateko?

–Gaur joateko bai, bañan biyarko ez giniñan izango.

Bañan Jaungoikoak lagun egin zingun.

Ta Brinkolan aita gure bat ala errezatu zuan Patxi Ibiyaga zanaren amak:

–Konpañia ontatik mundutik lenena paltatzen danarentzat.

Ta bera il zan aurrena.

Alaxe joaten giñan gu garai artan Arantzazura. Orduan bitan, da geroztik beste lau bider izana naiz.

Gure aitarekin joan nintzan batean, bosna kuarto pagatu genduan ostatua. Ta orain urte batzuk, azkena izan nintzanean, berriz, bost duro. Nik pagatu nizkan danai. Orduan ere atso onen bearra bazan».

## ARANTZAZUKO BERTSO-PAPERAK

Arantzazuko gaiari jarraituz, onela esan zigun Pello Errotaren alaba Mike-lak:

«Gure aitaren Arantzazuko bertso-paper oiek olaxe jarriak izango dira:

Lenengoa, nik amasei bat urte nituala joan giñanean, da elizan sartu ta danok batera «Erregu egin zazu...» kanta oiek kantatu giñuzenean.

Bigarren papera izango zuan, nik ogei bat urte nituala, Don Bitorianorekin joan giñanean. Obispoaren etorreran, da kandelak piztu ta kilometro batean kamioaren bi aldeetatik lagundu genion<sup>1</sup>.

Irugarren joan-aldian, ni ez nintzan joan. Gure aita, gazterik il zan Dolores aizparekin joan zan.

Brinkolara baño len, trena deskarri-llatu egin zan. Bertsoan ala jarri zuan gero gure aitak:

Ango iskamilla ta  
ango karraxiya,  
estimatusen zuan  
nork bere biziya...

Baña trena deskarrillatuagatik, etzu-an iñork miñik artu. Ama Birjiñak milagrua bertan egin zuan.

Ta gure aizpa Dolores ori, Arantzazu gaizkitu ta an gelditu zan. Ta gure

aitak bakarrik etorri bear izan zuan, alaba an utzita.

Errira etorri ta kanpoko jendea gaizki esaka asi zan, «kuadrillan bazirala ill da erituak» ta orrela. Ta etzan ixiltzen, da gure aitak bertsoak jarri zituan orduan.

Gure ama oraindik ere il berria zan; da, ni elizan nintzan batean, aita Arantzazuko kanta oiek kantari eliz atarian sentitu nuan.

Etxera abiatzean, ala esan zidan lagun batek:

–Triste zoaz, Mikela.

–Bai; ama il berria ta aita Arantzazuko kantak kantatzen.

–Bai; bañan Ama Arantzazukoaren kantak eztira beste batzuk bezela; kanta santuak dira oiek. Ez tristetu, ba, Mikela».

1. Arantzazuko Aita Luis Villasante-ren esku-titz batetik: «1963, urriak 19: ...Arantzazuko Ama Birjiñaren koroazioa 1886 urtean izan zan, garagarillaren 6-an. Eta bai egun orretan eta bai aurreko eta ondoko egunetan, elizkizun aundiak eta sonatuak izan ziran emen, Arantzazun. Koroa jarri zuena, Vitoriako Obispo Jauna izan zan: Don Mariano Miguel Gómez, algia. Aita Adrian Lizarralde bere Arantzazuko Kondairan kapitulu oso bat dakar gertaera ortaz (*Historia de la Virgen y del Santuario de Arantzazu, cap. XVIII: «Solemne Coronación canónica de la sagrada imagen»*). Irakurri det kapitulu au eta Pello Errotaren aipamenik eztator an, baña ala ere zureztat jakingarria izan diteken dato bat arkitu

det: Asteasuko peregrinazioa izan zala koroazioko bezperan emen. Ona zer dion Aita Lizarralde:

*Pág. 456: «Día 5 (de junio, víspera de la Coronación): Llegó el Ilmo. Sr. D. Mariano Miguel Gómez, Obispo de Vitoria, a quien se le dispensaron los con dignos honores de Delegado del Capitulo Vaticano en la villa de Oñate. Acompañábanle el P. Comisario Provincial, Fr. Esteban de Epelde, Fr. Ignacio de Eguía, Guardián del convento, y una representación del Ayuntamiento de la Villa. En la capilla del misterio de la Coronación aguardábanle la Comunidad y la peregrinación que aquel mismo día acudiera de la simpática villa de Asteasu». Eta emen nota bat jarzen du Lizarralde, orrialde azpira deituaz. Orra notak zer dion: «Es de grata memoria la peregrinación de esta villa guipuzcoana por las repetidas veces que ha subido a Aranzazu y siempre edificando con sus ejemplos de piedad. En esta ocasión donó una limosna de 132 reales».*

\* \* \*

Gerra aurreko *Argia* astekariak, 1936'ko garagarriaren 7-an, *Arantzazuko Amaren Koroazioko ikusle batekin alkarriketan* izenburuarekin, eta *Arintzondo* izenordeko batek firmatuta, onako idazlan bat agertu zuan:

«Ezta orain gertatutakoa, baiña bai aurtengoa.

Oraindik ezta bearbada udaberri-garaia, baiña udaberri dirudi.

Abiatu naiz Bergara'tik Antzuola'ko bidean gora. Eguraldiaren ederra! Mendi egaletako berdeak, laino bana-batzuen txuriak eta ortze argitsuko urdiñak, eguzki ditzira pozgarri artean alkarrekin irabiatirik izadiari itxura ikusgarria ematen diote.

Izadia eztago geldi. Zoli begiratu ezker, mendibaso-zelaiaren eta eguzki erraiñuen dardar biguin pizkor goxoa errez nabaritu diteke.

Ta izadi donetsi onen cresia? Onen antzekorik asmatzeko ereslaririk ezta munduan sortu. Erreka bat bide ertzean: ni bidean gora, erreka mendian beera, erreka garden txipli-txaplaria. Errekaren soñua, soñulari askok alkartuta sortu oi duten «sinfonia» bezelakoa: txurru-txurru ta txirri-txirri, poil-poil ta pil-pil, bulun-bulun ta bilin-bilin. Ur saltariaren ots guziok erreka ertzeko txori txiolarien txioketaz, mamorroen zumburrunaz ta aize goxoaren firi-firi biguinaz naastuta, kili-kili xamur bat biotzean egiten didate...

Nere aurretik agure bat dijoa, ni baño pitin bat geldiroago; baserritar jator bat aidanez. Nere aurrekoa baño gazteagoa izan ni nunbait eta laister arrapatu det nere bide-laguna.

–Jainkoak egun on!

–Bai berorri ere –crantzuten dit agureak. Eta egun on opa izan nion. Au praillea nintzala oartu zanean:

–Berori... –gaiñeratu zuan–, berori «apostoladuko» sermoia egitera etorriko da ba.

Ta baietz esan nionean:

–Ba neronek lagun egingo diot –esan zidan.

Ta tipi-tapa alkarrekin bidean gora giñoiazala, aintziñako ta gaurko zenbait gauza esan ondoren, azkanean gure alkarriketak Arantzazu'ra jo zuan. Nola ez, nerau ere Arantzazuko'ko praillea nintzarrik?

–Aurten jai aundiak egiteko asmoz omen dabilzt Arantzazun, e?

–Bai, aurten zerbait egin bear degu.

–Koroazioko urrezko eztaiak zerbait merezi dute.

–Orratik zure belarrietara ere eldu da gertaera auen berri, e? Bai, ba; aurten batez ere, gure Ama Birjiñarenganako jokera cuskaldunen artean geroago ta sakonago izan dedin alegiñak egin bear ditugu. Geroago ta sakonago? Bai, orixe esan det eta guk orixe nai genduke. Baiña lenagokoen arantzazuzalatasuna gaurkoena baiño sakonagoa ote zan nago ni. Orregatik, joan zan gizaldiko gizon jatorren bat arkitzen dedancan, neronek gaurko gauzen berri eman baiño naiago izaten det aren aotik aintziñakoen berri aditu. Zerorrek ere jakingo dezu zuk Koroazioko berri. Zu mutiko ziñala izango ziran ba Arantzazu'ko jai aundiak, eta zure belarrietara ere aien entzutea eldu bear.

–Ez entzutea bakarrik. Ni nerau ere Koroazioko jaietan Arantzazun egon nintzan.

Berri onexek pozaz bete ninduan. Izan ere, aurten beintzat nere atsegiñik aundierna Koroazioko ikusle batekin topo egitea izaten da.

–Zerbait oraindik gogoan eukiko dezu: nola joan ziñan, nolako jaiak izan ziran, biotzean sendoen josta zer gelditu zitzaizun... Edozer! Ea zerbait esaten didazan.

–Ba, gu zortzi lagun izan giñan Antzuolakoak, oñez mendirik-mendi Arantzazu'ko jaietara joan giñanak. Oñez gero, ez gaur geienak joan oi diran bezela, erromes jatorrai dagokien bezela baizik. Orratik ere bidean, or mendi-tontor ortan –esan zidan an inguruko mendi bat erakutsiaz– arria erori zitzaigun zerutik, gauza aundirik etzan izan baña. Ango jaiak zer izan ziran? Guztia esan bear banu, ez nuke beingoan bukatuko. Baña berorrek obeto jakingo du.



–Ikusi duanak beti zerbait esan dezake liburuetan jarritakoaz gañera. Tira, esan dakizuna.

–Ba gogoan daukat oraindik. Kanpoan meza emateko, aitzean jarri zuten aldarea, Eleiz-barruan guztientzat tokirik etzan-ta. Bildur ziran eguraldi ona izango ote zan edo ez –gogorazi diot bidean arrapatu genduan arria–, baña azkenean ederra egin zuan. Ango jendetza! Ango itzaldiak! Ango...!

Ta onela jarraitu zuan koroazioko jaien berri ematen.

–Zure orduko erromes-lagunak oraindik bizi dira?

–Nerau bakarrik, Jainkoak ala nai izan du-ta.

–Ta orduan emen Arantzazurako jokera aundia zegoan?

–Antzuola'ko praille batek, an menditartean baserri artakoak, gerra bukatu zanetik iñoiz baño debozio aundiagoa zala esaten zigun. Emengoa, Antzuola'koa, izan genduan 1834'an Arantzazu erre zuana ere: Inurrigarro.

–Arrek etzuan ba debozio aundirik eukiko.

–Soldadua zan-ta, agindua etorri zitzaionean, bete egin bear. Errodil Oñati'ra sartu zanean gertatu zan ori.

–Bai. Ori Bizkaian ere ez dute oraindik aaztu. An oraindik ere auxe kantatzen dute:

Neurc Ama Birjiña  
Arantzazukue,  
baltzak erre dotsuc  
zuri komentue.  
Baldin gelditzen bada  
Bizkaian teillerik,  
ctzara zu egongo  
komentu bagarik.

Zuk ere Arantzazuko kanta zaarren batzuk jakingo dituzu.

–Ba nik, Pello Errotak Koroazioko jaietan As-teasu'ko erromesentzat egin zituanak...

Azkenean erretratu bat eskatu nion, koroazioko ikusle batek gure illerokoan ateratzea merezi zuala-ta.

–Baldejunkera'ko gudaren oroipenez egiten ditugun jaietan zaldi gañean «kapitan» bezela agertzen naiz ta erretratuan ere alaxe nago. Alakoxe bat emango diot...

\* \* \*

Koroazioko ikusle au nor dan? Juan Migel Artolazabal Oñatibia, Antzuola'ko epailaria, bide-ertzean euskal etxe polita daukan patxadazko baserri-tar jatorra. Berri geiago jakin nai izan ezkerero, Baldejunkera'ko jaietan aren guda-itzaldi entzungarria aditzera joaten diran bergararrai galde egin».

# I

(1886)

## BERTSO BERRIAK

### BIRJIÑA ARANTZAZUKOAREN KOROAZIOAN PELLO ERROTARIAK JARRIAK

#### KANTASTEA




E - rre - gu e - gin za - zu, A - ma, gu - ga - ti - kan, ir - ten



ge - ran me - di - oz ba - da zu - ga - ti - kan; kua - dri - lla



aun - dia ga - toz As - te - a - su - ti - kan Bir - ji - fia o - rri a - gur



bat e - gi - tea - ga - ti - kan.

*Erregu egin zazu,  
Ama, gugatikan,  
irten geran medioz  
bada zugatikan;  
kuadrilla aundia gatoz  
Asteasutikan,  
Birjiña orri agur bat  
egiteagatikan.*

- 1/ Aloña mendian dago  
Birjiña bat arantzan,  
zerbait esan nai nuke  
orren alabantzan;  
lagunduko dirala  
nago esperantzan,  
beragatik asi naiz  
orren konfiantzan.
- 2/ Lagunduko dirala  
nik daukadan poza,  
artu dedan medioz  
orren esperantza;  
bestela nerez ez naiz  
ezertako gauza,  
anparatu nazazu,  
Santa milagrosa.
- 3/ Aloña mendian ori  
arantzan jarri zan,  
ez da presentatuba  
utsaren peskisan;  
ark ondo zerakien  
guk premia izan,  
guri lagundutzeko  
zerutik jetsi zan.
- 4/ Ejenplo au nai nuke  
ondo erakustea,  
aundia da gugatik  
zerutik jesteda;  
poz aundia beagu  
ori ikustea,  
orrek ez du merezi  
bakarrik uztea.
- 5/ Koroazio bat degu  
Arantzazu mendian,  
ura ikustea gatoz  
txit gogo aundian,  
artzai on bat artuta  
geren konpañian,  
Birjiña adoratzeko  
bear dan neurrian.

- 6/ Promesa kunplitzera  
gatoz borondatez,  
ondo deseatuta  
aspaldiko partez;  
akordatzen generala  
geren Ama batez,  
bete gaitzatzu zere  
doai ta birtutez.
- 7/ Zure seme ta alabak  
gatoz zuregana,  
zergatikan zeraden  
gure danon Ama;  
ez da misterio ere  
Ama batengana,  
ez da gaizki irtengo  
ara joaten dana.
- 8/ Ama au ez det ikusi  
oraindak beñere,  
anparorik ez badet  
ez-da oraiñ ere;  
lagunduko digula  
pentsatzen det trebe,  
animatu gaitzen  
juango gerade.
- 9/ Norbaitek esango du:  
«Biraje luzea da».  
Birjiñak errespuesta:  
«Ondo otza zera;  
ez badezu etorri nai  
ni bisitatzera,  
zeñek lagunduko dizu  
beartzen bazera?».
- 10/ Ejenplo on bat noa  
ni erakustera,  
zuek ere saiatu  
berriz ikastera;  
poz aundian goazen  
Ama au ikustera,  
ori lagun degula  
galduko ez gera.

11/ Baliatuko zaigu  
oraingo obra onak,  
oso maite gaitu gu  
euskaldunen Amak;  
apuntatuko ditu  
gure pauso danak,  
zerbait egin lezake  
poz ori daukanak.

12/ Ama au ikusitzeko  
gaude obligazioz,  
alegiña egियogun  
danok orazioz;  
presentatu gaitezen  
ara debozioz,  
baliatuko gera  
gu ango funtzioz.

13/ Agur egin deiogun  
guk ara joatean,  
burua makurtuta  
umil da pakean;  
baliatuko zaigu  
egunen batean,  
berak sartuko gaitu  
zeruko atean.

14/ Ara emen bertsoak  
oraingo berriyak,  
Ama Birjiñarentzat  
konsolagarriyak,  
bidean kantatubaz  
joateko jarriyak,  
Asteasun bizi dan  
Pello Errotariyak.<sup>1</sup>

1. Bertso-papera, *Tolosa: Imp. de E. López* moldiztegian argitara emana, eta Aita Justo Maria Mokoroa zanaren eskutik jaso. Berak bere aitaren paperetatik omen zeukan.

jiñaren koroazioa 1886 urteko garagarillaren 6-an ospatu zan; eta Asteasuko pelegrinazioa bezperan izan zan.

Moldiztegi izenik gabeko kanta-paperetan ere argitaratu ziran bertso auek. Ale bat Arantzazuko liburutegian gordetzen dute. Andik kopiatuta, *Auspooa*-ren 33 zenbakian argitaratu genituan. Bañan Tolosako E. Lopez-enckoa osoagoa eta jatorragoa denez, orain berari kopiatu diogu.

Arantzazukoak *kantastea* eta beste amaika bertso ditu. Onako auek: 1, 2, 3, 5, 10, 6, 7, 8, 9, 13 eta 14-garrena, orden ortan. Aldaketak: kantastea, 7: Birjiña, zuri agur bat; 1/1: Aloña mendian daukazu; 1/3: zerbait esan nai nuke nik; 1/7: beragatikan asi naiz; 2/5: bestela ni ez naiz; 2/7: anparatu bada; 3/5: ark ondo baizekian ba; 3/6: guk premiña izan; 5/1: koronazio bat degu; 5/3: ura ikustera gatoz; 5/5: artzai on bat arturikan; 5/7: Birjiña ori adoratzeko;

6/5: akordatzan geralako; 6/7: bete gaitzazula zere; 7/2: gatoz gu zuregana; 7/3: zergatikan zeran zu; 7/5: ezta misterio ere; 7/7: ezta gaizki izango; 8/1: Ama au ezpadet ikusi nik; 8/4: ezta orain ere; 8/5: lagunduko didala; 8/7: alimatu gaitezen; 8/8: da joango gerade; 9/1: Norbaitek esan du benturaz; 9/2: Bidegi luze da; 9/5: ezpadezu nai etorri; 10/5: poz aundiarekin goazen; 10/6: Ama ori ikustera; 10/7: ori lagun badegu; 10/8: galduko ezkera; 13/1: agur egin daiogun bada; 13/5: etzaigu ba damutuko; 14/5: bidian kantatuaz; 14/7 Asteasun bizi izan zan.

Azken aldaketa onek adierazten duenez, Arantzazuko liburutegian gordetzen dan bertso-papera Pello Errota il ondoren argitaratu zan.

## II

# BERTSO BERRIYAK

1/ Bertsuak jarritzeko  
atera det plana,  
memoriya argitu,  
egin bear lana,  
bitarteko jarriyaz  
Arantzako Ama;  
fabore baten eske  
banator zugana,  
logratzen ote dedan  
desio dedana.

2/ Nerekiñ ez dadukat  
biar aña grazi,  
laguntza baten billa  
argatik naiz asi;  
ez dakit ematia  
deraden merezi,  
Ama, zuri eskatu-  
tzen dizut lenbizi:  
bitartekotza egiñ  
Semetxo Jesusi.

3/ Astiasu ta Alkiza  
juntatu bi erri,  
klase guzitakuak:  
kale ta basarri.  
Geren artian esan  
giñukan elkarri:  
«Agur bat egiyogun  
danon Ama orri».  
Alkarrekin gerade  
juan da etorri.

- 4/ Pelegrinaziyuan  
Arantzazura jun,  
Agutzubak zituban  
amazazpi egun;  
alkargana bilduta  
orrenbeste lagun,  
ai zer gusto ederra  
guk an eman degun,  
Ama Birjiñak berak  
lagun egin zigun.
- 5/ Brinkolan atera ta  
ekiñ mendi (y) orri,  
biriak galdu eta  
danok giñan larri;  
Don Bitoriano jauna  
aurretik zan jarri,  
danori esan zigun  
segitzeko arri,  
gero zuzen jun giñan  
salto eta korri.
- 6/ Zuzen juañ giñaden  
andikan aurrera,  
Arantzazu deritzan  
komentu zarrera;  
an estimatu zuben  
gure etorrera,  
musika ta etxefuego  
ai ura sarrera,  
primera klasian gu  
allegatu gera.
- 7/ Segituban giñaden  
elizara junak,  
sermoia egin zigun  
Deograzias jaunak;  
guri eman zizkigun  
onrak eta famak,  
konsolatu ginduben  
ikustian Amak,  
pozaz zoraturikan  
arri beira danak.



- 8/ Egun ura ez daukagu  
oraindik aztuta,  
Ama orri begira  
an geunden poztuta;  
urrez da graziz an da-  
go aberastuta,  
Bera're apenas zegon  
kopeta beztuta,  
adoratu genduben  
danok auspeztuta.
- 9/ Andikan juañ giñan  
danok afaria,  
an billatu genduban  
etxe dotoria,  
probintziyan bat ez da  
palaziyo obia;  
gañera an daguban  
kurioidadia,  
arritu liteke an  
ikusi gabia.
- 10/ An deskantsatu giñan  
primera klasian,  
danok konpesatzera  
juañ giñan goizian,  
Jaun sakramentatuba  
artzeko pozian;  
bertan egon giñaden  
denbora luzian,  
gustora artu genduben  
geren biyotzian.
- 11/ Amarretan don Lorentzok  
meza nagusiya,  
epistola don Ramonek,  
ai ura graziya!  
Sorondok ebanjeliyua,  
ark zeukan sasoya,  
iya aidotu zuban  
eleiza guziya,  
berok irurak dute  
onra mereziya.

- 12/ Meza erdiyan genduben  
predikadoria,  
ez dakit zein zan baño  
iztun dotoria:  
nai bagendu bein jua  
zeruko gloria,  
bitarteko artzeko  
Birjiña Maria,  
arrek erakutsiko  
zigula biria.
- 13/ Obra on guziyakiñ  
artu gendun parte,  
bazkaltzera juanda  
jan da eran fuerte;  
ostatuba on dago,<sup>i</sup>  
ona eta merke,  
guretzako izan da  
bastante suerte,  
guri etzagu aztuko  
bizi geran arte.
- 14/ Fonda ortan ez giñan  
gelditu gosiak,  
ekarri zizkiguten  
nai giñun klasiak;  
lau neskatxa serbitzen,  
etziran luziak,  
ez gaur asko bezela-  
ko txoro aiziak,  
Ama Birjiña bera  
bezelakoxiak.
- 15/ Berdin estimatzen zuben  
zar da gazte dona,  
txorakeri gutxi ta  
azkar egin lana;  
begiya bera beira,  
errespeto ona,  
zueri begira naiz  
gustora egona,  
Birjiñak deizuela  
nobiyo on bana.

- 16/ Bazkaldu eta gero  
etxe aldera asi,  
guri egin digue  
bastante noblezi;  
akonpañatu gaitue  
musika ta guzi,  
danon partetikan nik  
beroi milla grazi,  
Arantzazun ez dira  
oso triste bizi.
- 17/ Arantzazutik baguaz,  
agur, gure Ama,  
nere amoriyuak  
orrera narama;  
danontzat eskatze'izut  
osasuna ona,  
grazi (y) ori bialdu  
ezazu gugana,  
berriz ere etorri  
gaitezen zugana.
- 18/ Etxe aldera asi  
genduben burrunda,  
tristura aundiya nion  
jendiai barrunda:  
atzera begiraka  
mendiyan gora junda,  
alkarri galdetubaz  
«Gure Ama nun da?»,  
guk zenbat maite degun  
ortan ezagun da.
- 19/ Jendia garaiz giñan  
goitxua iyua,  
don Bitorianok an  
errosariyua;  
jende errespetokua  
eta seriyua,  
Birjiñari agertu-  
baz amoriyua,  
artuko degu oraindik  
arren baliyua.

- 20/ Birian erretratatu  
ditu fraile jaunak,  
ordurako batzubek  
aurrera jaunak;  
probetxurik etzuban  
alde egin zubanak,  
obia zan an izan  
bagiñaden danak,  
naigoko zuban noski  
artara jun zanak.
- 21/ Bere lagunen billa  
aurrera're jun zan,  
amar minutu barru  
mendi puntan an zan;  
ikusit nai zuben  
jende dana nun zan,  
pañueluakiñ atzetik  
agurka jardun zan,  
zenbat maite ginduben  
obran ezagun zan.
- 22/ Alkar akonpañatu  
dute bi erriyak,  
milla esker, sazerdote  
beneragarriyak;  
berdiñ-berdiñ jo degu  
nagusi-morroyak,  
aurrian arturikan  
mendiko arriyak,  
alkarrekin gustora  
gera etorriyak.
- 23/ Despatxatzera nua  
oraiñ bertatikan,  
graziyak zuri, Ama,  
danon partetikan;  
juan biarrak gera  
mundu ontatikan,  
garai batzuetan ez  
ustiagatikan,  
erregutu ezazu  
guztiyokgatikan.

24/ Ogei ta lau bertsokin  
ara errematia,  
agur aizken-aizkeni-  
kan, Ama maitia;  
gure eriyotzian  
oroitu zaitia,  
iriki egiguzu  
zeruko atia,  
Elizegik nai luke  
guztiyok juatia<sup>2</sup>.

1. Bearbada, *ostatuba an dago* bearko luke emen.

2. Bertso auek, «*Tip. Mugerza – Tolosa*» moldiztegian argitaratutako bertso-paperetan zabaldu ziran. Paper oietako bat Arantzazuko liburutegian gordetzen da.

Ondoren *Auspoa*'ren 33'an agertu ziran, 1963-an.

Baita *Aranzazu* aldizkarian ere, 1968 urteko martxoan, Aita Luis Villasanteren argibide auekin:

«Pello Errota, Asteasuko bertsolari famatuak (1840-1919) bein baiño geiagotan jarri zizkion bertsoak Arantzazuko Amari... Garai artan Asteasuko erriak peleginazio asko egiten zituen Arantzazura.

1886-ko garagarrillean, Arantzazuko Ama koroatua izan zanean, emen ziran asteasuarrak, eta bai Pello Errota ere...

Gaur agertzen ditugunak zein urtekoak diran, ez da errez jakitea. Erromesei ongi etorria predikatu ziena Deogracias jauna zala dio. Seguru asko Aita Deogracias Igartua izango zan. Fraille au Arantzazuko semea zan. Tolosan 1941 urtean il zan, 80 urterekin.

Ederki kontatzen dizkigu Pello Errotak peleginazioko gora-beherak. Brinkolaraiño trencan, eta an mendiari ekin, Katabera eta Arri-Urdingo gaiña arrapatu arte; eta andik Arantzazura jetxi. Etxerakoan beste ainbeste. Elizako kontuak, ostatukoak, denak kontatzen ditu ederki. L. V.–

### III

## BERTSO BERRIAK

# ARANTZAZUKO ALEGRANTZAN JARRIAK

- 1/ Gure Arantzazuko  
bidaje ederrari  
bertso berri batzuek  
nai nizkake jarri,  
graziya eskatubaz  
Ama Birjiñari,  
pasadizua zuzen  
esan al baledi.
  
- 2/ Ama Birjiña beti  
estadu gozuan,  
pertsone serbitzeko  
premiko kasuan;  
enteratuko zala  
nere abisuan,  
argatikan asi naiz  
konfiantza osuan.
  
- 3/ Maiatzian genduen  
peregrinaziyua,  
ogei ta amarrerako  
zan kondiziyua,  
Birjiñari egiteko  
adoraziyua;  
badegula uste det  
obligaziyua.

- 4/ Sei t'erdietan giñan  
goizian atera  
Larraul da Asteasu,  
guztiyak batera,  
Arantzazuko Amari  
gusto ematera;  
nola portatu zagun  
nua esatera.
- 5/ Birian asi zuen  
errosariyua,  
gauza baliyosua  
eta seriyua;  
argatikan Birjiñak  
zigun amoriyua,  
au zan gure okerren  
erremedyua.
- 6/ Zortziyetan trenian  
Billabonan sartu,  
Zumarraga ortara  
ondo allegatu;  
andi abiatu ta  
zan deskarrillatu,  
batek ere ez degu  
guk miñikan artu.
- 7/ Geren belarriyakin  
gaude aditubak,  
kuadrillan bagiñala  
il da eritubak;  
ori esan azi du  
ezin sufritubak,  
danok gera orduban  
sano gelditubak.
- 8/ Bere plantxatik trena  
orduán zan kendu,  
Ama Birjiñak bertan  
milagrua egin du;  
ondo begiratuta  
klaro ezagun du,  
zein bizirik gelditu  
ez balu lagundu?

- 9/ Fogonerua trenatik  
egin zan erori,  
amalau oiñ aidian,  
gutxienez ori;  
matxurarik etzaio  
azaldu berari,  
graziyak eman leizkake  
Ama Birjiñari.
- 10/ Trena okertu zanian  
ango karraxiya,  
saltoka bazijuan  
sasoiko guziya;  
estimatutzen zuen  
nork bere biziya,  
orduban azaldu zan  
Birjiñan graziya.
- 11/ Billabonan billetiak  
zeñek beretzako,  
guk artu giñituen  
Brinkolara arteko;  
kasua izandu zan  
len ateratzeko,  
berroi ta bosna zentimo  
badegu artzeko.
- 12/ Abiso bat bialdu  
guk konpañiyari,  
artzeko degun piska  
kobra al baledi;  
gauza aldrebesa danik  
ez deritzat ori,  
gero limosna egin  
Ama Birjiñari.
- 13/ Trena okertu eta  
izan ziran lanak,  
gero otsegin zuen  
erretore jaunak:  
oñez juango giñala  
animoso danak,  
lagunduko zuela  
Arantzako Amak.



- 14/ Telleriarten artu  
degu giyariya,  
mendiz abiatu ta  
beriala ebiya;  
bustiagatik ere  
gure alegriya,  
ikusteko pozian  
Birjiña Mariya.
- 15/ Aiuntamentu jauna,  
alkate ta guzi,  
sekretariyua ere  
zan oiekin nasi;  
konpañiyan etzuen  
ematen itxusi,  
ejenplo egokiya  
dute erakutsi.
- 16/ Gogotsu asi gera  
gu mendi aldera,  
promesa kunplitubaz  
al zan aurrera;<sup>1</sup>  
anparoa genduben  
Birjiña Ama bera,  
izugarri ederki  
allegatu gera.
- 17/ Don Tomas Egibar da  
parroko guria,  
Arantzako Amari  
badiyo fedia;  
ark erakutsi digu  
Argana bidia,  
ondo gobernatu du  
bere artaldia.
- 18/ Don Mariano Mikeo  
beste parrokoa,  
arrekin etorri zan  
jende Larraulkoa;  
obra onetan entero  
aurrera dijua,  
ezagun du dala orrek  
fede onekua.

- 19/ Asteasu ta Larraul  
unitu alkarrena,  
beste lau erritatik  
bildu ziran gugana:  
Tolosa ta Alkiza,  
Zizurkil da Aduna;  
ez degu penarikan  
alkarrekin juna.
- 20/ Juan da zerbait artu,  
elizara korri,  
predikatutzen asi  
zan Aita Alberdi;  
laguntza eskatzen ziyon  
Ama Birjiñari,  
danori eman dizku  
graziyak ugari.
- 21/ Konpesiyuak egin  
txit modu onian,  
komuniyo jenerala  
biyaramonian;  
fedia indartu nai  
guk alegiñian,  
sobra gutxi daukagu  
gaurko egunian.
- 22/ Askok ukatzen degu  
Jesusen legia,  
serbitu naiago da  
etsai traidoria;  
ortatik ez da gero  
zerura bidia,  
pentsatu nola pasa  
eternidadia.
- 23/ San Frantziskoren seme  
beneragarriyak,  
Ama ori adoratzen  
an daude jarriyak,  
lagundutzen diyela  
beraren argiyak;  
zeruban sar ditzala  
Birjiña garbiyak.

24/ Zu zerade Ama bat  
biyotz onekua,  
doaia eman didazu  
eskatutakua;  
kontentuz arkitzen da  
Pello errotakua,  
biba Ama Birjiña  
Arantzazukua!<sup>2</sup>

1. Bearbada, *al zana aurrera* bearko luke emen. moldiztegia argitara emana eta Oxford-ko Bodleian Libreria-n arkitua.
2. Bertso-papera, «Tolosa: Imp. de E. López»

## GERNIKAKO ARBOLARI

Bertso eta argibide auek ere Pello  
Errotaren alaba Mikelari zor dizkiogu.  
Onela esan zigun:

Gernikara eraman zuten, da an ere

premioa atera zuan gure aitak. Euskera-  
ri ta ango arbolari bertsoak atera ziz-  
kien gero. Bañan apenas dakizkit nik  
banaka batzuk baizik:

- 1/ Euskeraren gañian  
biar det itzegin,  
nere lagun guziak  
artzeko atsegin,  
iñozente dagona  
abertitu dedin,  
gurekin deskuidorik  
gertatu eztedin.
- 2/ Gure arbola dago  
indarrak aituta,  
lorerik ezuala  
nago arrituta;  
enteratu zaitezte  
itz au adituta,  
ia ostatutzen dan  
mentu berrituta.
- 3/ Mentu onak billatzen  
saia egiñala,  
gero ondo txertatu  
esan dan bezela,  
ta dagokion batek  
goberna dezala,  
uste det arbol ori  
ostatuko dala.

4/ Lenbizi ostua ta  
urrena loria,  
orain .....  
.....  
gero aterako da  
lotsikan gabia,  
sekula ezta aztuko  
orren onoria.

Eztakit nik beste bertso au oietakoa dan:

.....  
.....  
.....  
.....  
zarra zutik dagola  
aldatu dute bestia,  
izugarrizko puriya dakar  
izanagatik gaztia.

## BI INDIANO

Adierazpen luze eta jakingarri au ere Pello Errotaren alaba Mikelak eman zigun. Ona beraren itzak:

«Mutil bat, Astiasuko Goruagoineko semea, joan omen zan emendik Kubarara, Cárdenas esaten zaion erri batera, eta an morroi zegoan.

Gordetzen omen zituan milla duro nagusiaren etxean, ta beste milla beste toki batean. Egun batean, nagusiak milla duro oiek eskatu zizkan. Esan zion gero bueltatuko zizkala; «oso bereak bazituala berrogei ta amar injeniyo». Injenioak ango lurrak omen dira. Ala, eman zizkan.

Gero, beste milla duro ere auzoan nola zeuzkan jakin, ta urrena aiek eskatu omen zizkan, biak batera illabeterako bueltatuko zizkala. Baita eman ere.

Illabete pasa ta ez omen zizkan bueltatzen. Esan omen zion beste illabete bat bearko zuala «osoan jaso ezker»; ta konforme gelditu zan beste illabeterako.

Papera ere firmatu omen zion. Bañan zer egin zion gero? Firmatu bai, bañan dirua eman gabe onera alde egin.

Mutillak zer egin zion orduan? Segitu atzetik onera.

Onera allegatu, nagusiarengana joan ta eskatu omen zizkan diruak. Ukatzen asi omen zitzaion, bañan muti-

llak an eduki firma berea, ta ukatzerik ez.

Gero, gizon bat bialdu omen zion konpontziora. Ta ara zer azio egin zion urrena. Nagusi orrek berea omen zuan jaiotako baserria, ta orduan arrebaren izenean hipotekan pasa zuan.

Besterik etziola emango ta sei milla errial bakar-bakarrak eman zizkan mutil orri. Gero alde egin zuan.

Orduan mutilla gure aitarengana etorri zan kantak jartzeko.

Bañan nagusiak jakin zuan mutilla kantak publikatzera zijoala, ta kanta-paper oiek saltzea galerazi egin zuten. Nolabait ere iritxi zuan ori ere nagusiak.

Nere denbora guztian, gure aitak jarritako bertsoetatik, auek bakarrik saltzen ibiltzea galerazi zuten.

Gure aitak, ordea, onela esan zion mutillari:

–Motell, ez daukak batere saltzen ibilli bearrik. Bota izkik gauez alako ta alako tokitan, ta jakingo dik jendeak orren azioa.

Ala egin zuten. Gauez feri, merkatu edo alako zeraren bat zan tokietan uzten zituzten, eta jende guztiak irakurri ta ikasi zituan.

«Kaballero» orrek ba omen zeukan Berastegin andregai, berrogei milla duroko «señora».

Ba, bere andregai orri, gauez joan ta

kanta-papera atean josi zioten. «Orra: jakin zan orain zeñekin abillen».

Ta andregaiak papera irakurri ta despeira eman zion.

Ontaz gañera, hipotekan baserria jasotako arrebak beste ainbeste egin zion; ta, «au nerea dek» esanaz, batere gabe utzi zuan.

Orra nola gertatu zan bidezkoa ez eman eta etxea galtzea.

Biak ere il ziran. Mutilla il zan aurrena».

Bertsoak, berriz, Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna zanak Pello Errotaren alaba Mikelari berari jaso zizkion 1935 urtean. Beste argibide au ere jaso zion, bertsoak noizkoak diran adierazteko: «Mikela ezkondu ta Aia-ko bide berria egin zanekoan dira sortuak».

- 1/ Asteasuko semia naiz ni,  
Jose Antonio Otegi,  
nere nekiaz egiña nintzan  
ustez biar ain loteri;  
premi batian bi milla duro  
prestatu nizkan besteri,  
artzalle orri agertu zaio  
gauza aña enbusteri.
- 2/ Emen gustora ez negoen ta  
juan nintzaden Kubara,  
Cárdenas deitzan erri eder bat  
paraje aietan bada;  
amabost urte kunplitu ziran  
ni juan nintzalarik ara,  
esango'izuet ango diruak  
egin zidaten jornara.
- 3/ Anoetako semia da ori,  
..... dauka izena<sup>1</sup>,  
..... du apellidua<sup>2</sup>  
orrek pontian emana,  
Cárdenas-etan almazengan  
komerziante egona,  
andik igesi etorri eta  
.....-n bizi dana<sup>3</sup>.

- 4/ Milla duro nik gordeta neuzkan  
..... orren etxian<sup>4</sup>,  
estuusun bat zeukala eta  
aiek eskatu zizkian;  
baietz agindu niyon orduan,  
serbitu nuen trantzian,  
artzeko pronto izan zan baño  
buelta daduka atzian.
- 5/ Beste milla're nik baneduzkan  
urruti gabe gordiak,  
nere nekiaz irabaziyak,  
iñori're zor gabiak;  
..... orrek aitara ere<sup>5</sup>  
ebaki ditu bidiak,  
modu orretan eamanak ditu  
bi milla duro neriak.
- 6/ Oso beriak bazituela  
berroi t'amar «injenio»,  
komerziante bera azkarrena,  
bestek etzuen baliyo;  
gezurra eta enbusteriyan  
bere burua gora iyo,  
nere diruak eraman ditu  
lan ori dala meriyo.
- 7/ «Injenio» ori batere etzala  
nintzaion ni akordatu,  
nere dirurik agiri ez ta  
ni ez negoen kontentu;  
nere diruen garbitasuna  
paperaz niyon eskatu,  
mutil panparroi lujoso orrek  
etzuen atsegiñ artu.
- 8/ Esan bezela eskatu niyon  
nere diruen papera,  
leku txarrian neduzkan eta  
nai nituzkian atera;  
kantidadia presta zezala  
andikan illabetera,  
paperaz baietz erantzun zidan,  
konforme zegola bera.



- 9/ Beste illabete pasata ere  
utsegin zuan plazuan,  
iñundik ezer agiri ez ta  
ez negoen deskantsuan;  
beste illabete biarko zala  
jaso ezkeru osuan,  
papera egin, firmatuta utzi,  
onera aldegin zuan.
- 10/ Ark aldegin da ondorenian  
ni ere etorri nitzan,  
arrazoia're banedukan ta  
berarengana juan nitzan;  
nere diruen aitamen eman,  
ukatzen azkar asi zan,  
leku onian izango nitzan  
firmarik ez banu izan.
- 11/ Bi milla duro nik eman arren  
arrek ukatu zituan,  
beraren firma nerekin neukan,  
asi nitzaion pleituan;  
.....  
.....  
ortik pentsatu kristau gaiztoak  
zer maleziyak dituan.
- 12/ Bi milla duro nik eman arren  
ukatu zituan aurki,  
beraren firma nerekin neukan,  
arrapatu det egoki;  
konpontziyora beste gizon bat  
bialdu ziraden aurki,  
alako lanik ark etzedukan  
zorrik ez balu eduki.
- 13/ Beste aziyo bat egin dirate  
andikan ondorenian,  
.....-ko ..... hipotekatu<sup>6</sup>  
arrebaren izenian;  
saldu-paperan entendituta  
ez da bide zuzenian,  
traiziyo au egin dirate  
eske asi naizenian.

- 14/ Bi milla duro zuri emanak  
Jose Antonio Otegi,  
sei milla errial bakar-bakarrak  
alkanzatu zaizkit neri;  
kontzientzia libratutzeko  
arreglatu al baledi,  
neretzat gorde biar zenduke  
arreba aberats ori.
- 15/ Bere etxian mutil negoen  
soldatan ajustatuta,  
zaldiya ere ipintzen niyon  
apaña preparatuta;  
silla ta guzi traste denakin  
ederki antolatuta,  
aberats gisan an juaten zan  
zaldiyari montatuta.
- 16/ Injeniyora zijoala esanda  
etxetik egin atera,  
aberats gisan apaindu eta  
eunero pasiatzera;  
gastua aurrera zijoan eta  
komertziyua atzera,  
aberasteko señale ona:  
gaiztuak bisitatzera.
- 17/ Ogei ta amasei milla errial  
neriak zure artian,  
berrogei ziran entregatuak  
an Cárdenas-ko partian;  
sei milla oiek eman dituzu  
ez oso borondatian,  
nik ez dizkizut zuri barkatzen  
danak pagatu artian.

1. Izena.
2. Abizena.
3. Erria.

4. Izena.
5. Izena.
6. Erria eta etxea.

(1899)

## BERTSO BERRIAK

### (BARRENEN DEDAN SENTIMENTUBA)

Ogei ta lau bertso auek Errenteriko Enrike Elizetxea zanaren bildumatik artuak ditugu. Bertso-paper bat da, *Imp. de E. López*. – *Tolosa* moldiztegian argitara emana.

Bigarren izenburua guk erantsia da, lenengo bertsoetik artuta.

Bertso auetan, mutil batek bere familiaren naigabeak kontatzen dizkigu: iru anai izan, irurak soldaduskara joan eta zer ixillu gorriak ikusten dituzten; danak gaizki eta bigarren anaia il.

Zazpigarren bertsoak gerra zikin bat dabillega esaten du. Bigarren anaia ere eramaten dute. Nungo gerra dan, zortzigarren bertsoak adierazten du: Filipi-

netakoa. Gerra ori 1896 urtean asi zan, eta 1898-an bukatu. Kubakoa ere urte oietan izan zan.

Bigarren anaiak, emeretzigarren bertsoak dionez, gerran urte ta laurden pasa du, ta beste ainbeste andik etorri eta gaizkituta.

Txeetasun oiek danak kontuan artzen baditugu, joan dan mendearen bukaerako bertsoak dirala dudarik ez da.

Bañan zein urtetakoak? Ikasi al izan degu ori ere. Bertsoak ez dute inor izendatzen, bañan izen-abizen guztiak ere atera ditugu. Eta beste txeetasun jakin-garri batzuk ere bai. Bertsoen ondorako uzten ditugu oiek danak.

- 1/ Bertso batzuben ateratzeko pentsamentuban det pasa, juan daneko urte betian ez naiz egon beti lasa; barrenen dedan sentimentuba kanpora atera al baneza, ondo sartuta egongo da ta ez da izango erreza.

- 2/ Zer familiya giñan lenago  
nai nuke adierazi,  
aita, ama ta lau senide  
giñan jaio eta bizi;  
arreba on bat guregandikan  
eraman zuben lenbizi,  
gero urrena berriz aita,  
geiago ez ditut ikusi.
- 3/ Nik esplikatu al banezake  
sentimentuba dedana,  
ondo ez ditut esango baña  
egingo det al dedana;  
Jaungoikuak nai zobelako  
eraman zitun beregana,  
gero orra nun gelditu giñan  
iru seme eta ama.
- 4/ Bizi-modubai eldu geniyon  
berriz berriro-berriro,  
pentsaturikan etziradela  
onezkero etorriko;  
konformatuta bizi giñaden  
alaiturikan entero,  
oraiñ esango dizutet berriz  
zer pasa zitzaigun gero.
- 5/ Lenbizi anai bat lotu ziguen  
soldaduskako katiak,  
numeruakiñ jokatu eta  
arrapatu suertiak;  
ezta nolanaikuak ere,  
izugarri fuertiak;  
ala tokatzen zitzaion eta  
Madridenten pasa urtiak.
- 6/ Ura Madridenten serbitzen zala  
bestiai zaio tokatu,  
ark bezelaxe numeruakiñ  
igual zuben jokatu;  
mundu guziyak esaten zuben  
suertez zala libratu,  
guk alegiña egiñagatik  
ori ez degu logratu.

- 7/ Numero aundiya tokatu arren  
suerte txarra eduki,  
gerra zikiñ bat nola zebillen  
mundu guziyak badaki;  
aita etxean ez, ama kanpuan,  
zerbait izaten da beti,  
bat eta beste beintzat pobriak  
pagatutzen du ederki.
- 8/ Lendabiziko Donostiyara  
eraman zuten soldadu,  
gero andikan Santoña aldera  
aguro zuten biraldu;  
Santoñatikan Filipiñetan  
orrela zuten ibildu,  
gero andikan etxera orduko  
bere osasuna galdu.
- 9/ Urte ta laurden an pasatuta  
ez dakit nola zan sortu,  
santu guzien egunarekiñ  
zitzaigun etxian sartu;  
gero lagunak ango berriyak  
zizkatenian galdetu,  
ai, zenbat ikusi ote zuben,  
bazedukan zer kontatu.
- 10/ Anaia orrek egiñ ziguen  
uste gabeko bisita,  
artian ere orregatikan  
espirituba bizita;  
ni oso ikaratu nitzaden  
aren planta ikusita,  
iñola eziñ ixildu nitzan  
bertan negarrez asita.
- 11/ Oiek orrela pasa ta gero  
andik zortzi egunera,  
artu eta or eraman naute  
neroni soldaduskara;  
ama xarra ta anaia eriya  
etxian utzirik bada,  
gaizki dagona sendatutzeko  
oso alderdi ona da.

- 12/ Soldadu joanta banebillen ta  
suertia zan au ere:  
pulmoni txar bat arrapatuta  
ospitaleratu naute;  
anai eriyak egiñ ziraden  
makiñatxo bat biraje,  
esanaz onla: «Ez ikaratu,  
koraje, mutill, koraje!».
- 13/ Iya sendatu nintzan denboran  
ospitalera kabua:  
pasaportia norako nai nuan,  
ai, ura zan poza, ura!  
Urniyetako eskatu niyon  
nola bainaizen angua,  
nik uste nuben banijuala  
beti-betiko zerura.
- 14/ Ni biraldu ta gero andikan  
iru illabete barru,  
artian gaizki zegoen anaia  
eraman zuten soldadu;  
lenago iya-iyen zegoan,  
oso zan errematatu;  
jakiña, eztiya eziñ dubenak  
piperra nola jango du?
- 15/ Len iya illian etorri eta  
sendatu gabe soldadu,  
gauza orretan gizonen batek  
nere ustez kulpa badu;  
gaizki zegola bazekien ta  
ark zertarako biraldu?  
Kristaba orla tratatutzeko  
legiak agintzen al du?
- 16/ Noizbait etsita biraldu zuten  
anima erratuben gisan,  
guk alegiña egiñagatik  
luzaro eziñ bizi zan;  
nolabait ere ark zeukan gaitza  
zarra eta txarra izan,  
andik denbora gutxiren barru  
gizarajua or ill zan.

- 17/ Zer egunetan ill zitzaigun ere  
oraindik daukat goguan:  
otsaillaren bederatzian,  
goizeko zazpiyak inguruban;  
ama guria ta bi anaiok  
giñan beraren onduan,  
makiñatxo bat malko ederki  
antxen ixuri genduban.
- 18/ Sentimentub'au erremeitzia  
al balitzake iñundik,  
alegiña egiten det baño  
iñola ere eziñ det nik;  
sentimentubak suspiriyua  
ateratzen du barrendik,  
aspaldi xamar illa da baño  
eziñ aztu zait oraindik.
- 19/ Urte ta laurden inguro ori  
gerran pasa ditu noski,  
beste ainbeste ortxe nunbait  
andik etorri ta gaizki;  
gabero salbotakua egitera  
zazpi zortzi aldiz jaiki,  
ai, arrek zenbat sufritu zuben  
ark berak bestek ez daki.
- 20/ Zenbat guraso ote dirade  
negarrez semien faltan?  
Ez gerade gu bakarrikan, ez,  
asko dira gure plantan,  
beti negarrez dabiltzan asko  
egunez eta gabetan;  
penagarrizko deskalabrua  
pasa da oraingo ontan.
- 21/ Oik orrela pasa ta gero  
komeri polita berriz,  
egiya da ta jarri zaitezte  
aditzen arreta aundiz:  
len bezelaxe indartziatik  
junturaz eta alderdiz,  
lengo lekura ekarri naute  
oraiñ bigarrengo aldiz.

- 22/ Soldaduska ontan ikusten degu  
makiñatxo bat komeri,  
bizi-modu ona pasatutzeko  
sobra eta geiegi;  
patata suelto jaten degu ta  
gañetik ura erari,  
gorputza laister indartutzeko  
alderdi ona da ori.
- 23/ Sentimentuba esplikatubaz  
esan dizutet egiya:  
anai bat Madriden serbitzen ta  
bestia etxian eriya;  
gero artuta eraman naute  
ni irugarren anaia,  
ama xarra kontsolatzeko  
zer bizi-modu alaia!
- 24/ Despeitzera nua ogei ta  
laugarren bertsuarekiñ,  
jendia noski enteratu da  
bada onenbesterekiñ;  
oraiñ nere firma botako det  
iñork nai baldin badu jakiñ,  
aztu egin zait ipintzia ta  
orra bukatu onekiñ.

Len esan degunez, mutil auen izen-  
-abizenak-eta ikasteko bidea arkitu  
degu.

Amairugarren bertsoak onela dio:

Urniyetako eskatu niyon  
nola bainaizen angua.

Eta amazazpigarrenak:

Zer egunetan ill zitzaigun ere  
oraindik daukat goguan:  
otsaillaren bederatziyan  
goizeko zazpiyak inguruban.

Beraz, Urniyetako erretore-etxera jo-  
an gañan, eta orain eun urteko eriotz-

-liburuak aztertzen asi. Bereala azaldu  
zitzaigun guk bear genduan agiria.

1899-ko otsaillaren 11-n lur eman  
zioten Urnietan Agustin Erauskin Mai-  
zen gorputzari. Ogei ta iru urte zituan.  
Bezperan illa zan, goizeko zazpiretan,  
Oria ballaran, Langilletxea izeneko  
etxean. Felix eta Maria Bautistaren se-  
mea zan. Aita andoaindarra; ama billa-  
bonatarra; mutilla ere andoaindarra<sup>1</sup>.

Bertsoak diotena eta agiriaren txe-  
etasunak oso batera datoz, egunaren  
goraberan izan ezik. Otsaillaren 9-an il  
zala esaten dute bertsoak, eta agirian  
10-ean.



Zer gaitz izan zuan, onela adierazten du agiriak: *por disentería crónica*. Lurralde beroetako gaitza, ziur aski. Ain zuzen, emeretzigarren bertsoak onela dio:

gabero salbotakua egitera  
zazpi zortzi aldiz jaiki.

Urnietan ez genduan beste argibiderik arkitu. Bañan aita-semeak andoaindarrak izanik, ara joatea pentsatu genduan.

Bigarren bertsoak onela esaten du:

aita, ama ta lau senide  
giñan jaio eta bizi,  
arriba on bat guregandikan  
eraman zuben lenbizi,  
gero urrena berriz aita,  
geiago ez ditut ikusi.

Arriba eta aitaren il-agiriak bereala azaldu zitzaizkigun.

Arriba, Josefa Agustina, aingerutan il zan, iru urterekin, *meningitis* gaitzarekin, 1883-ko abuztuaren 29-an<sup>2</sup>. 1880-ko maiatzaren 15-ean jaioa zan<sup>3</sup>.

Aita, Felix Bautista Erauskin Garaioa, 1889-ko abuztuaren 16-an il zan. Gaitza: *púrpura hemorrágica*. Zer ogibide zuan: *empleado en la fábrica de hilados de ésta*. Eta nun bizi ziran: *en una de las casas nuevas de la fábrica*<sup>4</sup>. Larramendi kalean, beraz.

Iru anaien egunak eta jaiotegunak: Pedro, 1874-ko ilbeltzaren 31-n jaioa;

Jose Agustin, 1875-eko abenduaren 22-an; Luis Antonio, 1878-ko otsaillaren 17-an<sup>5</sup>.

Gurasoen ezkontza-eguna: 1873-ko apirillaren 22-an<sup>6</sup>.

Bañan azterketa onek beste argibide gogoangarri bat ere eman digu. Lau senide oien aiton-amonak, amaren gurasoak, Pedro Maiz, Naparroako Arbizukoa, eta Teresa Urrestarazu, Ataungoa, izan ziran.

Oietzek ziran Pello Errotaren aiton-amonak ere amaren aldetik. Senide auk Pelloren lengusuak, beraz.

Ain zuzen, arrebaren aita pontekoa Jose Elizegi izan zan; errotaria bera, Larraulen jaio eta Oiartzunen bizi zana. Orixe zan Pello Errotaren aita. Eta Oiartzunen bizi izateak ez du zer arriturik; len ere esan degunez, famili guztia, Pello Errota izan ezik, Asteasutik Oiartzuna aldatu baitzan.

Oiek danak orrela izanik, bertso auk Pello Errotak moldatuko zituan seguru asko, lengusu oiek eskatuta-edo.

1. Urnieta'ko irugarren il-liburuan, 268 orrian.
2. Andoaingo irugarren il-liburuan, 254 orrian.
3. Andoaingo amargarren bataio-liburuan, 238 orrian.
4. Andoaingo laugarren il-liburuan, 83 orrian.
5. Andoaingo amargarren bataio-liburuan, 92, 124 eta 170 orrian.
6. Andoaingo irugarren ezkontza-liburuan, 83 orrian.

**ERRIAREN AOTIK JASOTAKO  
BERTSO ETA GERTAERAK**

## ITZAURREA<sup>1</sup>

Pello Errotaren bizitzaren itzaurrean –*Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua (Auspoa 32)*– Pellori buruzko beste iru liburu agindu genituan.

Bigarrena –*Pello Errotak jarritako bertsoak, Auspoa 33*– arekin batera azaldu zan.

Irugarrena, erriaren aotik jasotako bertso ta gertaerakin osatuko zala esan genduan itzaurre ortan bertan; ta laugarrena, berriz, Pelloren senide ta ondorengo bertsoekin egingo zala.

Bañan irugarrengoarentzat bildutako gaia liburu baterako eskastxo gertatu zitzaigun<sup>2</sup>; laugarrengoarentzako gaia, berriz, liburu baterako geitxo.

Orregatik, bi liburu egin bearrean, batean bikoa egitea erabaki genduan, batek falta zuana besteak sobra zuanarekin osatuaz.

☆ ☆ ☆

Irakurleak azkar asko ikusiko du Pelloren bertsoetan naspil aundia dagoala: batzuek era onetara ematen duten bertsoa, besteak bestera emango dizute; bertso bera batek Pellorena dala esango du, ta besteak Udarregirena edo Txirritarena dala; onek Tolosan, da arek Azpeitian bota zuala esango du...

Batek baño geiagok igerri zioten naspil oni Txirritaren liburuan (*Auspoa*,

18-19), bañan oraingo ontan aundiagoa arkituko du. Errez asmatu diteke ori zergatik dan: Pello 1919 urtean eta Txirrita 1936-an il ziralako; alegia, Txirrita gugandik alderago dagoalako.

Biltzalleak beste eginkizunik ez baitu, guzti-guztia jaso bezelaxe ematen degu, ezer kendu ta ezer erantsi gabe.

☆ ☆ ☆

Pelloren senideetan beste bi bertsolari izan ziran: Sabina ta Juan Krutz.

Urrengo gizaldian, berriz, lau: Pelloren seme-alabetan iru: Miel Anton, semea; Joxepa Iñaxi, Ameriketara il zan alaba; ta Mikela, oraindik ere larogei ta amasei urterekin bizi dana. Ta laugarrena, Juan Krutzen alaba bat: Lukasia.

Irugarren gizaldian, Bautista, Mike-laren semea, bertsolari degu. Ta Pedro, Miel Antonen semeak ere, bertsorik bein edo bitan jarri izan du.

Liburu au, Pelloren bertsoetat gañera, iru gizaldi auen bertsolarien bertsoekin osatua da.

Pelloren laugarren gizaldian bertso-tan pixka bat dakianik ere badago. Bañan olakoak oraindik mutil gazteak dira, ta ez dakigu bertsolari jator biurtuko diran.

☆ ☆ ☆

Bertsolari gizaldi oiek guztiak Pello daukate iturritzat. Berak eman zion asiera bertsolari jatorri oni; bera da burua.

Orregatik jarri diogu liburu oni daukan izena: *Pello Errotaren itzala*.

1. Liburu onen irugarren eta laugarren zatiak 1965 urtean argitaratu ziran, *Auspoa*-ren 49-50 zenbakietan, aurretik itzaurre au zutela. Orduan esaten genituanak ondo adierazten dute gure lana zer izan zan. Bañan irakurleak kontuan ar beza, zati aukerere asko aberastu dirala geroztik azaldutako zer esanekin.

2. Gaur ez genduke agian ori esango, geroztik Pello Errotari buruzko zer kontatu asko azaldu baita.

## KARIDADEKO BENTAN

Karidade, Billabona, Zizurkil eta Aduna bitartean dagoan benta bat da.

Pello Errota, Otañotarrak, Juan Jose Ugarte ta beste bertsolari asko maiz xamar biltzen ziran benta ortan.

Egun batean, denbora luzean kantuan aritu ondoren, tabernariak beren gastua barkatuko ziela uste zuten, baina etzan ala gertatu.

Orduan, Otañotarren batek, Jose Bernardok-edo, puntu au jarri zion Pellori:

Adoratu dezagun  
gure benterua...

Pelloc onela segitu zion:

Nere iritzirako  
lapur enterua...

Ori aditzean, jende guztia parrez aizan. Benteroa, berriz, ojuka izugarri asarretuta, eta kanpora bota zituan bertsolari guztiak. Ta Pelloc ezin izan zuan bertsoa osatu<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Karidadeko benta ortan bertan kantatu zuan Pelloc Euskalerrri guztia korritu duan onako bertso au:

Karidaden juntatu gera  
gu sei bertsolari,

Errekalde zarra ta  
Juan Jose Udarregi,  
Bernardo Zizurkilko,  
Gazteluko Gorri,  
Errenteriakoa  
Xenpelar jaun ori,  
ni Astiasukoa  
Pello Errotari<sup>2</sup>.

☆ ☆ ☆

Gorde omen dira orduan kantatutako beste bertso batzuk. Onela dio Basarrik<sup>3</sup>:

«Bein batean erriko jaitarako, Amasara bertsolariai deitu zioten. Beren saioak eginda eguna igaro ondoren, lotaratu ziran geienak, baña danak ez. Urrengo goizean ardandegian sei bertsolari bildu ziran. Astiasuko Pello Errota ere an zan lo gutxi eginda. Ura baitzan oieratu gabea! Seirak alkarren biran zeudela, Pelloc abestu zuan:

Bertsolariak gera  
geure kalidaden,  
esplikatuko ditut  
zer nola diraden,  
gezurra esatiak  
eztu balio emen,  
gu bost erritikan  
sei lagun giñaden,  
ondo konpondu gera  
ezetz uste arren<sup>4</sup>.

Lenengotik iñork etzion jaramonik  
egin eta berriro abestu zuan:

Bost erritatik giñan  
gu sei bertsolari,  
Errekalde zarra ta  
Juan Jose Udarregi,  
Errenteriakoa  
Xenpelar jaun ori,  
Bernardo Zizurkilko,  
Gazteluko Gorri,  
au Astiasukoa  
Pello Errotari.

Ori esaten dute autik-aura abestuta-  
ko bertsorik onena. Danon izenak esa-  
ten ditu, eta nungoak diran ere bai. Ori  
da jakinduria!

Gero beste bertsolariak, danak bana  
abestutzea oldoztu zuten, Pello zirika-  
tuaz.

Errekaldek aurrena<sup>5</sup>:

Biyok izandu giñan  
egiten Pazkuaz,  
aundiyenak utziko  
ziñuzen bentuaz;  
inpernuko ondarrarian  
omen dago Judas,  
ez dizut lagunduko  
argana bazuaz<sup>6</sup>.

Udarregik urrena:

Pello onek badauka  
errota lasaia,  
datorren aliari  
alegiña saia;  
erdia baño geiago  
badabilki zaia,  
utsa litzake alare  
ezpalu usaia<sup>7</sup>.

Bernardo Zizurkil'ek:

Tabakua eskatzen  
Pello onen gala,  
pardel izugarria  
egin du beriala,  
nik ere erre naia  
nola edo ala,  
pixka bat ostu diyot  
lotan daguala.

Gazteluko Gorrik:

Pello mantendutzen du  
errotako txangak<sup>8</sup>,  
doblatuan kenduaz  
zakuari lakak,  
egunik gaiztoena  
pasatzeko daukak,  
inpernura juatian  
ai zer mutur-jokak!

Xenpelarrek azkena:

Pormal itzegingo det  
gizonaren gisan,  
diferentzi aundirik  
ez gentzake izan;  
zu errotari eta  
ni tabernaritzan,  
nork beria bear du,  
«Juan Debalde» il zan<sup>9</sup>».

☆ ☆ ☆

Bertso auen beste era bat:

Pelloc:

Emen juntatu gera  
lau bertsolari,  
Jose Bernardo Errekalde ta  
Juan Joxe Udarregi;  
Erreteriyakua  
Xenpelar jaun ori,  
ni Astiasukoa  
Pello Errotari.

Pello Errotari ta  
ni tabernaritzan,  
diferentzi aundirik  
ezin leike izan;  
itz egin bear degu  
gizonaren gisan,  
nork beria beretzat,  
«Juan Debalde» il zan.

Sei baxoerdi atera ta  
sei tragotan ustu,  
beste sei edateko  
lotsarikan eztu,  
edatia asko ez dala  
pagatzia aztu,  
orla tabernariya  
nola aberastu<sup>10?</sup>

1. Asteasuko Bautista Kortajarena «Ondartza»  
ta Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna. Onek  
beste era ontara eman zizkidan puntuak:

Adoratu dezagun  
gure fonderua...  
Nik aitzera dedanez  
lapur enterua...

Pelloren alaba Mikelak, bertsoa entzutean, onela  
esan zuan:

—Ori aditu izan det nik len ere. Eztakit nun botea  
dan, bañan ori ere gure aitak bota zuala aditu izandu  
nuan beti.

2. Len ere agertu da bertso au liburu ontan,  
Pelloren alabak eman bezelaxe. Bañan beste ba-  
tzuek ere eman digute, segidan beste zenbait bertso  
erantsiz. Beste bertso auck argitaratzearren, emen  
berriro agertzen degu bertso au.

Jarri degun era, jaun oni artua da: Inazio Agustin  
Mendizabal, Aurniako-errota, Zizurkil.

Basarrik, *La Voz de España* egunkarian, 1946-  
XI-3'an, aldaketa bakarrarekin agertu zuan: 1: Kari-  
dadeko bentan.

Tolosako Manuel Urreta zana: 1: Karidaden ari  
gera; 7: Zizurkilko Bernardo.

Goizuetako Gabino Huizi: 1: Emen juntatu gera;  
2: sei bat bertsolari; 5: Zizurkilko Bernardo; 7:  
Erreteriyakua da.

Inazio Zubizarreta, Erretereri, Azpeitia:

Bost bertsolari gera  
onera etorri,  
Txirrita, Otaño eta  
Gazteluko Gorri;  
Erreteriyakua  
Xenpelar jaun ori,  
ni astiasuarra  
Pello Errotari.

3. Bilboko *Euzkadi* egunkaria, 1932-IX-2.

4. Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak ere  
eman zidan bertso au, bañan Basarrik bezelaxe, al-  
daketa ontan izan ezik: 4: zein nola diraden.

5. Errekalde au, Errekalde zarra alegia, Jose  
Bernardo Otañoren aita zan.

6. Bertso au ez da bearbada Karidadeko bentan  
botea izango. Liburu ontan bertan berriro azalduko  
da bere aldaketakin.

7. Bertso au ez da Udarregirena, ezta ere Kari-  
dadaren botea. Asteasuko Agustin Zakarrarena da,  
eta bertso-sail eder baten aurrena. Bañan beste one-  
la du asiera: «Txuringaiko errota, errota lasaia...».

8. Emen «errotako trankak» bear duala uste  
degu.

9. Bertso au beste onela ere jaso izan det, nork  
eman zidan apuntatu ez banuan ere:

Itzegin genezake  
gizonaren gisan,  
diferentzi aundirik  
ez gentzake izan,  
Xenpelar ostalari  
jarri berria zan,  
nere laka-kontuan  
gogotik ari zan,  
poto erdi betiak  
nik astindu nizkan.

10. Estanislao Urruzola «Uxola» zana, Tolosa,  
eskuz idatzitako bertso-mordoska.

Bertso au len ere azaldu da liburu ontan.

## TRENARI

Bein batean, artean tren aasi berria zala, lau bertsolari batera bildu ziran: Xenpelar, Udarregi, Errekaldeko Jose Bernardo Otaño ta Pello Errota.

Puntu bana botatzeko esan zieten, da onela kantatu zuten:

Xenpelarrek:

Bai al dakizu nolakua dan bapore onen kaldera?

Udarregik:

Urrutitikan beira egon naiz, ez det ikusi aldera.

Jose Bernardok:

Tximista bañon aguruago dabil gora eta bera.

Pello Errotak:

Len irabazi gutxi zuana laster bater e gabe da<sup>1</sup>.

1. Asteasuko Bautista Kortajarena «Ondartza», Pello Errotaren billoba.

Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak bertso au ere bildua zeukan, bañan bertsoa soil-soillik, adierazpenik bater e gabe, bertsoaren erdia berd in, bañan beste erdia onela:

Beti or dabil aruntz ta onuntz  
bein gora eta bein bera,  
len irabazi piska bazuan  
aurki bater e gabe da.



## PELLO ERROTA ETA XENPELAR

Bertso aukeratuak oraindik bota omen  
zizkaten alkarri Xenpelarrek eta Pellok:

Xenpelarrek:

Zarralla det etxian,  
patrikan det giltza,  
zer zala uste zendun  
Xenpelarren itza?  
Ongi kantatzen duna  
beretzako ditxa,  
ez dizut obeditzen,  
alperrik zabilta.

Pello Errotak:

Etxian det zarralla  
estadu fuertian,  
Astiasu deritzan  
leku apartian;  
poto egiten badet  
neretzat kaltian,  
ez dizut obeituko  
probatu artian<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Bertso aukeratuak beste era ontara ere ja-  
so nituan, nork eman zizkidan kontuan  
artu ez banuan ere:

Xenpelarrek:

Etxian daukat zarralla,  
nerekin daukat giltza,  
zer zala uste zenduben  
Xenpelarren itza?  
Ondo kantatzen dezula  
pantasiz zabilta,  
ez nazu menderatuko,  
alperrik zabilta<sup>2</sup>.

Eta Pello Errotak:

Nerekin daukat giltza,  
zarralla apartian,  
Astiasun utziya  
ala suertian;  
gaizki kantatzen dunak  
beretzat kaltian,  
nik ez dizut obedituko  
probatu artian.

☆ ☆ ☆

Xenpelar oian ia illean zegoala, bisi-  
tatzera joan zitzaion Pello Errota<sup>3</sup>. Gal-  
detu zion:

–Zer moduz?

Ta Xenpelarrek:

–Nereak egin dik. Nik etzeukat  
bueltarik.

Ta Pellok orduan au kantatu zion:

Gaitz-antza klase ori  
eztago zuregan,  
premiyan dagonari  
bear zaio eman,  
ojasenakin egin<sup>4</sup>,  
aren urak eran,  
ikusiko'zu nola  
sendatuko zeran<sup>5</sup>.

1. Bigarrengo bertso au Bautista Kortajarena  
«Ondartza» Pelloren billobak emana.

Lenengo bertsoa Andoaingo Patxi Sueskun ber-  
tsolariak emana. Onck beste onela eman zidan biga-  
rrengoa:

Zarralla det patrikan,  
giltza det etxian,  
Astiasu guziya  
gaur nere suertian,  
gaizki kantatzen dunak  
beretzat kaltian,

obeditzen ez dizut  
probatu artian.

Patxi Sueskun onck esan zidanez, Donostiko  
Teatroan bota omen zituzten bertso auk. Bukatu  
ordua omen zan, da esan omen zieten bertso bana  
kantatzeko, ta onena botatzen zuanak saria jasoko  
zuala. Bota omen zuten bana, emen jarri ditugunak  
alegia, ta Pellori eman omen zioten saria.

Bañan Xenpelar 1869 urtean il zan. Urte ori baño  
len asiko ziran, beraz, bertsolariak Donostiko Tea-  
troan kantatzen?

2. Bi aldiz *zabiltza* itza punturako. Poto, beraz.  
Ez det uste Xenpelarrek ola kantatuko zuanik.

3. Xenpelar baztangaz il baitzan, nekez joango  
zitzaion inhor ere bisitazera.

4. Ojasena, belar klase bat da, *hojas de sen*  
alegia, orduan botikatztat artzen zana.

5. Asteasuko Bautista Kortajarena, «Ondar-  
tza», Pello Errotaren billoba.

Bertso au bera, beste adierazpen batekin, *Paulo*  
*Yanzi ta bere lagunen bertsoak* liburuan agertu gen-  
duan, *Auspoa*-ren 77-78 zenbakietan.

## ITZETIK ORTZERA

Bein batean, sartu zan Pello etxe batera, ta ango etxeoandrea Tolosara joana zan; larunbata –Tolosako merkatu-eguna– izango zan, dudarik gabe.

Ango gizonak onela esan zion:

–Pello, gaur neroni naiz kuziñari.

Ta Pellok:

–Txukuna izango aiz zikiñ ori<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Beste bein, erretore etxera joan zan Pello enkarguren batekin, eta ango neska kamea lurrari ura botatzen ari zan, autsa ez arrotzeko, ta ala esan zion Pellori:

–Pello, bedeinkazion!

Ta Pellok:

–Lurrera botata ondo zion!<sup>2</sup>

☆ ☆ ☆

Beste egun batean, mutil gazte bat arrantzan ari omen zan errota ondoan, eta Pellok ikusi ta ala galdetu zion:

–Zer zabiltza, gazte: arrantzan?

Gazteak:

–Bai; zeozer arrapatzeko zalantzan!

Ta Pellok:

–Putzura eroriko al aiz urrengo balantzan!<sup>3</sup>

☆ ☆ ☆

Gure aitona, beti edo askotan beintzat, pipa erretzen ibiltzen omen zan. Egun batean, astoarekin zijoala, ezagun bat topo egin zuan, eta onek ala esan zion:

–Pello, emaidazu pipa bat tabako.

Ta gure aitonak:

–Nik emanarekin ez dezu kerik aterako.

Ta, segiduan, astoari eragiñaz:

–Arre, arre, astoa!...»<sup>4</sup>.

☆ ☆ ☆

Bein batean, Asteasuko erretore jauna errotako ate ondolik zijoan; eta Pello, aur bat besoan zuala, ikusi zuan, eta onela esan zion:

–Egun on, Pello.

Ta Pellok:

–Bai berorri ere.

–Aur zai?

–Kontu egin bear diogula geren gauzai!<sup>5</sup>

☆ ☆ ☆

Pello il baño lentxeago, oso gaixorik zegoala, apaizak onela esan zion, eliza-

koak ematera edo bisita egitera joan ziztaion batean:

–Pello, nekatu?

Ta Pellok:

–Bai, jauna; ezin ukatu, eriotzak kalkatu, ta juezak ezin barkatu<sup>6</sup>.

☆ ☆ ☆

Pellok, astoa ta iriñarekin Aiara zi-joan batean, topo egin zuan Poli Sarasola, Ibiya baserrikoa. Pello bezperan Ernanin egona zan, eta onela esan zion:

–Pello, zer berri Ernanin?

Ta onek:

–Batzuk an zebiltzak armonin.

Biamamonean ere topo egin zuten biak; eta Polik, Pello tentatzeagatik, gauza bera galdetu zion:

–Pello, zer berri Ernanin?

Ta onek:

–Atzo're esan nin!<sup>7</sup>

☆ ☆ ☆

Garai artan, Billabonan aita-sume bi bizi ziran, sastreak ofizioz eta Carrasquedo apelliduz.

Bein batean, Pello asto gañean Billabonara zihoan, da Pasuseneko ortan Carrasquedo semea topo egin zuan.

Onek galdetu zion:

–Pello, asto onek nun ditu krabestuk?

Ta Pellok:

–Len bazizkin, bañan orain ostuk!<sup>8</sup>

Aurrera segi ta Billabonako zubia-  
ren gañean Carrasquedo aita topo egin  
zuan Pellok.

Ta aitak –nunbait ere alkar artuta  
izango ziran– semeak bezelaxe galdetu  
zion:

–Pello, asto onek nun ditu krabestuk?

Ta Pellok:

–Etxian zeuzkat, bañan oso estuk!<sup>9</sup>

☆ ☆ ☆

Larraulko batek, errota ondotik zi-  
joala, Pello eztulka somatu zuan. Or-  
duan, berak eztula propio eginda, onela  
esan zion:

–Pello, au eztula!

Ta Pellok:

–Ez al zak, ba, joango sekula!<sup>10</sup>

☆ ☆ ☆

Bazkalondo batean, asto gañean zi-  
joala, onela galdetu zien Pellok mutil  
koxkor batzuei:

–Zer ordu da, mutillak?

Bañan mutillak, burla egiteagatik,  
onela erantzun zioten:

–Amarrak.

Ta Pellok:

–Jo berri xamarrak?<sup>11</sup>

☆ ☆ ☆

Beste batean, Lasarten, Tximistatarra esaten zioten batek, Pello asto gañean zetorrela ikusi zuan, da onela esan zien lagunai:

–Gaur aditu bear dik Pellok ederra!

Lagunak esan zioten:

–Deskuidatzen baaiz, adituko dek aundiagoa!

Ala, Pello urreratzean, onela galde-tu zion:

–Pello, zein dek audiena: azpikoa edo gañekoa?

Ta Pellok:

–Edozein ere bai i añekoa!<sup>12</sup>

☆ ☆ ☆

«Gure aiton-amonak, aitaren alde-tik, asteasuarrak ziran. Aitona, Ondar-tza-bitartekoa; eta amona, Agerre-liza-rretakoa.

Gure aita eta bere senideak, berriz, Asteasuko aiuntamentuko taberna edo ostatuan jaiok. Plazan dago ostatu ori. Garai artan erri geienetan izaten zan olakoa. Asteasukoak gaur ere segitzen duala uste det.

Gure aita mutil koskorra, ta Pello Errota ostatura etortzen. Jakin bertso-laria zala ta bein batean esan omen zion gure aitak, bera ere olakoa, umetandik oso bertsozalea zan ta:

–Aizu, Pello: nun dezu parola?

Ta Pellok erantzun:

–Aizak: argia komeni izaten dek, illun dagola.

Urrengoa etorri zanean, len Pellok berak erantzun ziona esan zion gure aitak:

–Aizu, Pello: argia komeni izaten da, ba, illun dagola.

Ta Pellok:

–Bañan ni oitua natxiok, ordea, ola»<sup>13</sup>.

☆ ☆ ☆

«Garai bateko Pello Errotaren ingur-tutik etzan iñor asko igaroko, irrifar go-zoko agur bat egin gabe.

Zizurkilko okindegira karroa bete zaku iriñekin zetorren batean, baserri-tar gizon txiki zirikatze batekin topo egin zuenean, onela agurtu omen zuen gizontxoak:

–Bazatoz, Pello, iriñakin.

Pellok erantzun:

–Bai, eta etxean egiñakin.

Gizontxoak berriro:

–Baña zeñek ekarriakin?

Pellok azkenik:

–Demonio mutur zikiña, ik ere oin-beste jakin!».<sup>14</sup>

1. Asteasuko Bautista Kortajarena, «Ondar-tza», Pello Errotaren billoba.

Gertaera au bera onela kontatzen du Zizurkilko Teodoro Mujikak bere *Agur edo diosala* izeneko idazlan batean:

«Beste batez, Pello abixu batekin auzoko baten etxera joan eta, atea jo zuen bezin laixter, bertako nagusia, zurezko kutzarea eskuan zuela, atera omen zitzaion; eta, Pelloren agurra artu bezela, onela erantzun omen zion:

–Kaxo, Pello! Ara: gaur andrea kanpoan diat eta neroni ari nauk kuziñari.

Pellok laixter erantzun ere:

–Ederra izango aiz, zikiñ ori!

Ara umore oneko gizonak armoni ederrean nolako agur irriitsuak zituzten batzuetan».



Asteasuko Udaletxea. (Fernando Rojoren argazkia)

2. Asteasuko Bautista Kortajarena, «Ondar-tza», Pello Errotaren billoba.
3. Id.
4. Asteasuko Josefa Kortajarena, Pello Errota-ren billoba.
5. Jose Altuna zana, larogei ta zazpi urtekoa argibide auk eman zizkigunean, Amezketan jaio ta Iruran bizi zana. Jaun au Ameriketan egona zan; eta, an zala, Pello ara joatea suertatu zan, eta an ere alkar ikusi ta agurtu zuten.
6. Id.
7. Asteasuko Bautista Kortajarena, «Ondar-tza», Pello Errotaren billoba.
8. Pellori astoaren krabestuak ostu omen ziz-kioten bein batean. Ikusi liburu onen *Pello Errota-ren bizitza bere alabak kontatua* zatia. Bearbada, garaitu artakoa izango da erantzun au.
9. Asteasuko Pedro Elizegi, Pello Errotaren bi-lloba.
10. Id.
11. Id.
12. Id.
13. Konsuelo Zubeldia, Aia.
14. Teodoro Mujika, Zizurkil, *Agur edo diosa-la* izeneko idazlan batean.

## AMERIKETATIK ETORRITAKOAN

Guztiak dakitena, Pello Errota Argentinan izan zan. Amar illabete egin zituan etxetik kanpora. Ikusi zera oinezaz *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* izeneko zatia.

Zer esanik ez dago, andik etorri ta ortik botako zizkatela beren «tiroak» beste bertsolari guztiak.

Lenengo bertso au Txirritak bota zion:

Lasaitasun gogorra  
sartu da Konportan,  
ondo biziko dira  
Astiasu ortan;  
lenago mixeriya  
izana frankotan,  
asko ekarri bearko  
zuen tabakotan,  
len besteri kenduak  
ordaindutzekotan<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Batzuek diotenez, urrengo bertso au ere Txirritak botea da. Onen illoba Jose Ramon Erauskinek dionez, ordea, Txirritak bertso au zarretan kantatu oi zuan, bañan Txintxuak botea zala omen zion. Bertsoa onela eman zidan Jose Ramon onek:

Pello Errota sartu gabeko taberna edo dendikan, akaso izan diteke bañanik ez det uste danikan; danak nazkatu ta Amerikara joan zitzaigun emendikan, diru gutxiko indianua etorri zaigu andikan<sup>2</sup>.

Ta Pello Errotak onela erantzun omen zion:

Errenteriko Txintxu,  
txatxu, porkeriya,  
sekula etzaik faltako  
gizatxarkeriya.  
Ik ori esateko  
nun dek arpegiya?  
I ez bezelakoa dek  
Pello Errotariya<sup>3</sup>.

☆ ☆ ☆

Atano laugarrenak beste onela kantatu zizkidan:

Pello Errota sartu gabeko tabernik edo fondikan, akaso izan diteke bañan ez det pentsatzen danikan; Amerikara nola joan zan gogoan det oraindikan,



diruik gabeko indianoa  
au etorri zan andikan.

Ta Pellok bueltan bota ziona:

Amerikako partian daude  
Buenos Aires da Habana,  
kararik-kara esango dizut  
gogoratutzen zaidana;  
dudarik gabe egon biazu  
tragotxoren bat edana,  
zu al zerade mozkortu eta  
dantzan ibiltzen zerana?

☆ ☆ ☆

Gazteluk, berriz, bertso au bota  
omen zion:

Amerikara asko dijoaz  
banaka eta binaka,  
enplio gabe omen dabilza  
alderdi artan millaka;  
Pello au ere urte batzutan<sup>4</sup>  
an ibillia jiraka,  
tabakorikan etzuenean  
pipa utsari tiraka<sup>5</sup>.

☆ ☆ ☆

Beste batek Txirritak bota ziola esan  
zidan, eta beste era ontara kantatu  
zuan:

Emendik ere Amerikara  
joaten dirade millaka,  
andikan bueltan aberastuak  
etortzen dira banaka;

Pello au ere an ibilli da  
islatik isla jiraka,  
atzo Donostin ikusi nuen  
pipa utsari tiraka<sup>6</sup>.

☆ ☆ ☆

Ta beste batek:

Gaurko egunian badijoazte  
banaka eta binaka,  
lenago ere badira juanak  
makiñatxo bat millaka;  
Pello ere an ibillia da  
jiraka eta bueltaka,  
tabakorikan etzuanian  
pipa utsari tiraka<sup>7</sup>.

☆ ☆ ☆

Beste era au, berriz, Erreterin jaso  
nuan:

Amerikara joaten dira  
bai banaka ta biñaka,  
enpleorikan gabe an ere  
ba omen daude millaka;  
Pello au're an ibillia da  
urte batzutan jiraka,  
tabakorikan etzuenian  
pipa utsari tiraka.

☆ ☆ ☆

Azkoitin jaio eta Zarautzen bizi izan  
zan Patxi Larrañaga bertsolariak onela  
kontatu zigun:

«Nik garai artan nere osabak bani-  
tuan Eibarren, oso ondo zeudenak. Ta-  
berna ta abar, gauza asko zeukaten. As-

ko nai niñuten, eta ara joan ta an egoten nintzan aiei laguntzen.

Mikeletetako sarjento bat bazan taberna artara etortzen zana: Izeta, Aia-koa, Asteasuko alaba batekin ezkondua; Pello Errotaren illoba propioa bere emazte ori.

Ni, askotan bezela, bertso zarrak kantatzen jarduten nintzan, orduan ere oso zale nintzan da.

Beste bertsoariaren batek Pello Errotari kantatutako bertso bat bada or, onela bukatzen duana:

diruik gabeko indianua  
au etorri zan andikan.

Egun batean ori kantatu nuan; eta Izeta orrek, an egokitu ta onela esan zidan:

–Barkatu idazu. Umea zera eta nik esango dizut, Pello Errota nere andearen aldetik osaba nuan da. Bertso ori ola dala egia da. Bañan Pellok Ameriketari zortzi illabete pasa zituan, eta ekarri zituan garai artan zortzi mila erreal. Esatea errezagoa da ori, egitea baño. Ta egia au da.

Gero, urrengo iru bertso aukeratu zituan, ta nik ikasi nizkion Izeta, mikeleteen sarjento orri.

Andik etorri zanean, Pello Errotari billatu zuan nunbait beste euskaldunen bat, bera ibilli zan lurraldeetan ibillitakoa, bañan toki berean etziran alkarrekin bildu beintzat. Eta Pellok onela kantatu zion:

Zor - tzi - lla - be - te pa - sa di - tut A - me - ri -  
kan, pro - pi - o kan - ta - tze - ra juan - da e - men - di -  
kan; zu - re gal - de - ra e - gi - ten nu - en go - go - ti -  
kan, ja - kin ga - be e - to - rri nin - tza - den an - di - kan.

Zortzi illabete pasa  
ditut Amerikan,  
propiyo kantatzera  
juanda emendikan;  
zure galdera egiten  
nuen gogotikan,  
jakin gabe etorri  
nintzaden andikan.

Itxura danez, beste orrek galdetu  
zion zein erritan ibillia zan. Eta Pellok  
bigarren bertsoa ere bereala:

Izan naiz Chibilrico-n,  
Laurcho-n da Balgrado-n,<sup>8</sup>  
Ayacucho, Belgrano  
eta San Fernando-n;  
Tandil, Altamirano,  
Azul-en naiz egon,  
zu ziñan paraje ori  
ez dakit nun dagon.

Garai artan, kanta-papel bat artzen  
nuan bakoitzean, bost minutu naikoak  
izaten nituan dana ikasteko. Izan ere,  
egia esan bear da-ta, nik orduan ama-  
bost urte nituan. Alare, bertso au ikas-  
tea ederki kosta zitzaidan, bastante nas-  
tua da ta. Ez dute aditzen duten danak  
ere egun batean ikasiko. Oiek, Ameri-  
ketako erri izenak omen dira.

Nunbait ere orduan beste orrek zein  
lurretan egon zan esan zion, da Pello  
Errotak onela erantzun:

Ezin leike iritxi  
oñez legorretik,  
joatera ezkerotzik  
baforez uretik;  
laguntasun pixka bat  
baneduka ortik,

pozik juango nintzake  
ikustiagatik.

Garai artan itxasotik baforean joan  
bearra zegoan; da, laguntasuna esaten  
duanean, diruarena eskatzen du».

1. Migel Zuaznabar, Sasueta-aundi, Lasarte.
2. Izena artu ez nion batek beste onela kantatu  
zidan:

Pello Errota izan gabeko  
taberna cdo dendikan,  
ain gutxi berriz kafeteririk  
eo bestelako fondikan,  
Ameriketâ nola joan ziñan  
gogoan det oraindikan,  
diru gutxiko indianua  
etorri ziñan andikan.

Basarri, *La Voz de España* egunkarian –ez daki-  
gu zein egunetan–; 3: agian izan diteke baño; 4/ ez  
det pentsatzen danikan; 5/ Ameriketn nola izan  
ziñan; 6: goguan det oraindikan; 8: etorri ziñan andi-  
kan.

Baita ere *Zeruko Argia* astekarian, 1964, jorrai-  
llak 12.

3. Loidisaletxe baserrian, Errezillen:

Errenteriko mutil  
txatxu, elbarriya,  
bertsotan ez dakikan  
endredagarriya;  
pikaro buru gaizto,  
tunante garbiya,  
i ez bezelakua dek  
Pello Errotariya.

Migel Sagastibeltza, Lcorlas, Maskonca, Urda-  
zuri:

Aizak, motell Errenteri  
txatxu, elbarriya,  
ai buru gogorreko  
traidore garbiya;  
ezertako ez aizen  
endredagarriya,  
i ez bezelakua dek  
Pello Errotariya.

Bautista Kortajarena Pello Errotaren billobak  
esan zidanez, bertso au Txintxuari ez, bañan Erren-  
teriko mutil gazteai bota omen zien, ta onela:

Errenteriyari mutil  
txoro, elbarriyak,  
ezertxo ez dakiyen  
engañagarriyak;  
diruba dutenian  
mozkorra garbiyak,  
ik baño obeto zekik  
Pello Errotariyak.

4. «Urte batzutan» dio, bañan oker noski. Urte  
bete ere ez baitzuan etxetik kanpora pasa.

5. Basarri, *La Voz de España* egunkarian, ez  
dakigu zein egunetan.

Baita *Zeruko Argia* astekarian ere, 1964-eko jo-  
rraillaren 12-an: 3: okupazio gabetandikan; 4: bai  
omen daude millaka.

6. Balentin Zamora apaiz jauna, Lekueder,  
Igeldo.

7. Manuel Elizegi, Pello Errotaren billobaren  
semea, Asteasu.

8. Iru izen auek –Chibilrico, Laurcho eta Bal-  
grado– ez ditugu *Enciclopedia Espasa*-n arkitu. Ez  
baidute beren izen jatorra ori izango. Beste guztiak  
bai; zuzen esanda daude.

## «NORK EMANGO DIT NERI»

Pellok bertso au bota omen zion  
norbaiti:

Nork emango dit neri  
pipa bat tabako?  
Besterik ez det bear  
erre arterako;  
ematen duna kaltetan  
ez da aterako:  
artzeko egingo du  
beste baterako<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Bañan bertso au, eta beraren atzetik  
beste bi ere bai, Azpeitian jaso nituan.  
Onela esan zidaten:

Bi bertsolari taberna batean omen  
zeuden, eta batek tabakoa eskatu zion  
besteari:

Emango bazidazu  
pipa bat tabako,  
ez nuke luzaroko  
erre arterako;  
ori egiñaz gañera  
ez dezu kalterako:  
artzekoak eite'ituzu  
beste baterako.

Ta besteak onela erantzun zion:

Eskotilla kaleko  
lenbiziko dendan,  
tabakoa saltzen dute  
diruaren prendan;  
libra bi peztaz bera  
etziraten eman,  
zuri ere esango dizute  
zenbat kostatzen dan.

Ta lenengoak:

Bi ordu bear dituk  
emendik etxeraño,  
azkarrago ezpaldin baaiz  
onuntzian baño;  
goietan illun ziok,  
betaraño laño,  
loietan sartuko al aiz  
lepo-leporaño!<sup>2</sup>

1. Bautista Kostajarena, «Ondartza», Astecasú,  
Pello Errotaren billoba.

2. Inazio Zubizarreta, Errementeri, Loiola,  
Azpeitia.

## PELLOREN ASTOAK

Pellori, astoarekin zijoala, bateon-  
batek burla egiteagatik bota ziona:

Begi bat itxua du,  
anka bat autsiya,  
illundu ezkeroztik  
ezin ikusiya;  
pausajia ere  
ez dauka biziya,  
bere modukua da  
orren nagusiya.

Ta Pellok erantzun ziona:

Anega t'erdi arto  
dauzka bizkarrian,  
ni bezela dijua  
pauso azkarrian;  
mantentzen errexu da:  
jaten du larrian;  
orretzek serbitzen nau  
bere baldarrian<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Mikelak, Pelloren alabak, onela  
esan zuan bertso auengatik:

–Aurrekoa ez; bañan bigarren ori  
askotan aditu izan nion. Astoa bagen-  
duan errena, *Arroma* esaten ziotena, ta  
asto ori izango zan. *Ontza* ta *Moriko*

izeneko astoak ere izan ziran gure  
etxean.

☆ ☆ ☆

Bigarren bertsoaren beste era bat:

Bi arrua ta erdi  
damatz bizkarrian,  
nekin batean dator  
pauso azkarrian;  
oso gutxi kostatzen da:  
mantendu larrian;  
beronek serbitzen nau  
bere baldarrian.

☆ ☆ ☆

Lenengo bertsoaren beste era bat  
ere badegu. Bañan aurretik beste bertso  
bat duala; eta gertaera ere erabat ez-  
berdiña:

Bateonbatek Pello Errotaren astoari  
bertsoak jartzeko asmoa artu zuan. Ba-  
ñan bera enteratu ta, aurea artuta,  
bertso pare au jarri zion berak bere as-  
toari:

Asto zar-zar batekin  
egin biet erronka,  
zeñek indar geiago  
itxuraren kontra;

iñork nai baldin badu  
señalerik bota,  
asto onen jabia  
da Pello Errota.

Begi bat itxua du,  
mutur itxusiya,  
illuntzen zaionian  
ezin ikusiya;  
kargero pizkorra da,  
pausua biziya,  
konten dago onekin  
bere nagusiya<sup>2</sup>.

☆ ☆ ☆

Pello Errotak, urtean bi aldiz, Egu-  
berrietan eta San Pedrotan, bere egu-  
nean alegia, astoari kafea ematen zion,  
onela esanez:

-To, Moriko, ar zak; guk ere artu  
diagu ta!<sup>3</sup>

☆ ☆ ☆

Garai artan garia egiten zan emen,  
etxeko garia, bakoitzak bere urteko ga-  
ria. Lastoa metan jarrita eukitzen zu-  
ten, gero neguan astoari edo beiei emate-  
teko. Ta nunbait ere batenbatzuek su  
eman da erre egin zuten Pello Errotaren  
meta, ta orduan kantatua bertso au:

Sentimentubak dauzka  
Pelloren astuak,  
erre izkiotelako  
metako lastuak;  
atarramentu onik eztu beñe  
pertsone gaiztuak.

Bañan badu bertso orrek beste pun-  
turen bat<sup>4</sup>.

1. Migel Zuaznabar, Sasueta-aundi, Lasarte.
2. Pello Zabaleta bertsolaria, Errenteri.
3. Pedro Elizegi, Pello Errotaren biloba, As-  
teasu.
4. Inazio Arregi, segalari izana, Irura.

## «PELLOK ERE KUNPLITU»

«Bertso au Txirritak gure aitari bo-  
tea da. Denbora bateko bertsolari za-  
rren ateraldiak. Gure aita etzan ixilik  
geldituko, bañan zer erantzun zion ez  
dakit:

Pelloc ere kunplitu  
omen du Pazkuaz,  
aundienak gordeta  
egin du bentuaz;  
inpernuko ondarran  
dantzan dabil Judas,  
errotan trankarekin  
biboliña juaz,  
nik ez dizut lagun eingo  
argana bazuaz»<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Mikelaren semeak –Bautista Kortajarena, «Ondartza»– bertso au ere eman zidan; bañan bai beste iru ere ondoren. Danak errenkan omen ziran. Bañan ez Txirritak eta Pelloc, Zakarrak eta Pelloc alkarri boteak baizik. Onela zion:

Pello atzo izan zan  
egiten Pazkuaz,  
erdiyak etziñuzkan  
esango bentuaz;  
inpernuko ondarran  
dantzan dabil Judas,  
errotako pixukin  
biboliña juaz,

nik ez dizut segiko,  
nai badezu zuaz.

Pello mantendutzen du  
errotaren trankak,  
datorrenai kenduaz  
gogotikan lakak.  
Inpernura birian  
ai zer mutur-jokak!  
Pello, ixtillu txarrak  
ikusteko dauzkak.

Ta Pelloc:

Oiek al dira tatxak  
errotariyenak,  
naiz aundiguak izan  
norberiarenak?  
Zikiatzen ditudala  
zaku besterenak,  
nunbaitetik jan biar  
berak eztuenak.

Zenbat arbola diran  
ainbeste landare,  
neri botatzen diré<sup>2</sup>  
majiñat maldare;  
ez dire sinistatzen  
egiya esanda're,  
nola mantendu biet  
lakik kendu gabe?

☆ ☆ ☆



Tolosako Estanislao Urruzolaren eskuz idatzitako bertso kuadernoan:

Txirritak:

Pellok egin omen du  
lenguan Pazkuaz,  
batzuak esan eta  
bestiak aztuaz;  
inpernuko ondarretan  
dantzan dabil Judas,  
bere konpañiyakin  
biboliña juaz,  
nik ez dizut lagunduko,  
nai badezu zuaz.

Udarregik:

Bost alper mantentze'izkik  
errotako trankak,  
zakuari kenduaz  
erredoblen lakak;  
ik jazte'itukenian  
diabruan prakak,  
inpernuko atetan  
a zer mutur-jokak!  
Pello, ixtillu gorrik  
ikusteko dauzkak.

Pello Errotak:

Laka kontu oieri  
nai det erakutsi:  
lengo lege zarrian  
aneako zortzi;  
gañerakuak berriz  
jabiarri utzi,  
Pellok ez du zakuan  
pixurikan jetxi,  
zerua nai dubenak  
lapurreta gutxi.<sup>3</sup>

1. Gertaera ta bertsoa, Mikela Elizegi, Pello Errotaren alabari jasoak dira. Bertsoa erdizka zekian, ordea, ta Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak Asteasun gerra aurretik jaso zuanarekin osatu degu. Bañan *antxen dago Judas* esaten zuan Mikelak, eta *dantzan dabil Judas* Loinaz-Otaño jaunak; *errotan trankarekin* Mikelak, eta *errotako pixukin* Loinaz-Otaño jaunak. Gañerakoa berdin-berdin. Beraz, naiago izan degu bien esanak nastu, Txirritak bertsoa orrela esango zualakoan. *Nik ez dizut lagun eingo* ere, etzuan, guk uste, Txirritak orrela esango. Luzeegia gelditzen da. *Ez dizut lagunduko* edo olakoren bat esango zuan noski.

Loinaz-Otañorenean, bertso au Zakarra bertsolariak bota zuala esaten da.

Basarrik, Bilboko *Euzkadi* periodikoan, 1932-ko iraillaren 2-an, bertso au ere badakar.

Bergaran jaiotako ta Tolosan bizi dan Bizente Mujikak beste onela kantatu zidan:

Pello, kunplitu izango  
zerade Pazkuaz,  
erdiyak esan gabe  
utziak bentuaz;  
inpernuko ondarrin  
dantzan dabil Judas,  
errotako pixuekin  
biboliña juaz,  
nik ez dizut lagunduko  
zu ara bazuaz.

Norbaiti –ez nuen beraren izena idatzi– beste onela jaso nion:

Pello, egin dezula  
aurtengo Pazkuaz,  
guziak etziñuzkan  
esango mentuaz;  
inpernuko ondarretan  
dantzan dabil Judas,  
errotako pixuan  
biboliña juaz,  
nik ez dizut lagunduko,  
nai badezu zuaz.

2. dirê: didate.

3. Bertso au eta beraren aurrekoa Basarrik *La Voz de España* egunkarian agertu zituan, ez dakit zein egunetan, aldaketa txiki batzuekin: Bost alper mantentzen dik; doblatuan lakak; jazten ditukenean; ikusteko zauzkak; laka kontu ori're...

Bertso auetako batzuk beste emale batzuegan-dik ere jaso izan ditut.

Ona Lasarteko Sasueta-aundiko Migel Zuazna-

bar zanak 1936 urtean Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz  
jaunari bialdua:

Udarregik:

Pello, mantendutzen dik  
errotaren trankak,  
zakuari kenduaz  
doblatuan lakak.  
Inpernura jutian  
ai zer mutur jokak!  
Motell, ixtillu txarrak  
ikusteko dauzkak.

Pello Errotak:

Lenago're izan dek  
amaika maldare,  
nolako arbola diran  
alako landare;  
esperientzia oiek  
len jarriyak daude,  
ni nola biziko naiz  
lakik kendu gabe?

\* \* \*

Beste era bat:

Iru alper mantentzen dik  
errotako trankak,  
zakuari kenduaz  
redoblian lakak.  
Infernura jutian  
ai zer mutur jokak!  
Ixtillu gorriren bat  
ikusteko daukak.

Ta Pello Errotak:

Keja aundiyak dira  
errotarienak,  
naiz aundiagoak izan  
bakoitzak berenak;  
fastidiatzen dizkik  
zaku besterenak,  
nunbaitetik bear dik  
berak eztubenak.

\* \* \*

Zizurkilko Juan Jose Ugartek Pello Errotari bo-  
tea:

Pixuari azpitik  
sartzen dizkak anak,  
geiago kentzearren  
artoari lakak.  
Inpernura joatean  
ai zer mutur jokak  
Pello bigurri orrek  
ikusteko dauzkak!

\* \* \*

Beste era bat, Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz  
jaunak gerra aurrean Asteasun jaso:

Jose Bernardo Otañok:

Aizak, Astiasuko  
Pello Errotari:  
zenbat kentzen diyok ik  
zaku aundiyari?  
Lengo lege zarrean  
aneako zortzi,  
ona izan ezkeru  
igual beatzi.

Bertso au, puntuai erreparatuta, bi bertsoekin  
bat egiña dala ematen du.

Pello Errotak:

Neri ematen dizken  
lotsak eta penak,  
zulatze'itudalako  
zaku besterenak!  
.....  
.....  
.....  
.....  
Nunbaitikan bear dik  
berak ez duenak.

## «GOIZIAN JEIKI ETA»

«Bertso au nun kantatu zuan ez, ba-  
ñan gure aitarena dala, ori badakit:

Goizian jeiki eta  
lenbiziko lana,  
badakit ziñatzia  
prezisua dana;  
gure biotza jaso  
Jaungoikoagana,  
kondenatua dago  
deskuidatzen dana»<sup>1</sup>.

Badira bertso au Udarregirena dala  
diotenak.

☆ ☆ ☆

Tolosako Estanislao Urruzolaren es-  
kuz idatzitako kuadernoak bigarren  
bertso bat ere badu:

Zerua egongo da  
garbi ta txukuna<sup>2</sup>,  
Jaunaren parajia  
dana da jakiña;  
an ez dute artuko  
anima zikiña,  
mantxatua garbitzen  
egin alegiña.

1. Mikela Elizegi, Pello Errotaren alaba.

Mikela etzan oroitzen azkeneko puntuaz. Tolo-  
sako Estanislao Urruzolaren eskuz idatzitako kua-  
dernetik osatu degu.

Bigarren puntua onela du Urruzolak:

badakizu ziñatzen  
prezisua dana.

2. Nabarmen dago *txukuna* ez datorrela ondo  
gañerako puntuakin, da beste zer edo zer bearko  
litzakela emen. Bearbada *txukiña*, orrela ere esaten  
da ta.

## PELLO ERROTA ETA UDARREGI

Beste bein Pello Errotak eta Udarregik alkarri bota zizkatenak:

Pellok:

Kolorian konforme  
saboria badu,  
au're dijuakionak  
entendituko du:  
bataiatu ezker  
zerua seguru,  
munduan pekatu-  
rik egiten ezpadu.

Udarregik:

Jaizkibelko mendira  
juan izan bagina,  
an ere izango zan  
nork kontra egiña;  
galerazi digute  
kantuzko dotriña,  
emen libre ezpada  
guazen San Martiña.

Izan ere, gaberdia omen zan, da  
guardiak etorri ta galerazi omen zien  
bertsotan aritzea.<sup>1</sup>

☆ ☆ ☆

Lenengo bertsoa beste onela ere ja-  
so degu:

Itxuraz konpormidan  
saboria badu,  
erua eztanak  
ezagutuko al du;  
bataiatu ezker  
zeruba seguru,  
geroztik pekatu-  
rik egiten ezpadu.<sup>2</sup>

☆ ☆ ☆

Bein batean bertso auk bota omen  
zizkaten alkarri Pello Errotak eta Udar-  
regik.

Pellok:

Lagunduko al digu  
guzion jabiak,  
berak eman zizkigun  
abillidadiak;  
astera dijoazte  
predikadoriak,  
sekula estudiatzen  
ibilli gabiak.<sup>3</sup>

Udarregik:

Asiera eman du  
Pello Errotariyak,  
erantzun berriz orain  
Joxe Udarregiyak.  
Batek ainbat deretxo  
badegu guk biyak,

gure kolejiyuak  
sagardotegiyak.<sup>4</sup>

☆ ☆ ☆

Udarregik, iltzera zijoala, Pello Errota eskatu zuan; onekin itzegin nai zuala.

Abisatu zioten Pellori. Abiatu zan au presaka ta izerditan. Bañan iritxi zainerako, Udarregi illa zan.

Sartu zan orduan Pello gorputza zegoan tokira. Gorputzaren ondoan iru gizon omen zeuden.

Txapela erantzi ta bertso au kantatu zuan Pellok:

Ojala ikusi banu  
onen eriyua,  
alkarri eskatzeko  
barkaziyua,  
animak irabazi  
dezan premiyua,  
eindako gaitz guztiyen  
erremediyua;  
utzi jeniyua  
ta inkurriyua,  
gure salbaziyua  
da oraziyua,  
erreza dezaiogun  
errosaiua,  
au da katolikuen  
relijiyua.<sup>5</sup>

☆ ☆ ☆

Urnietan beste era ontara jaso nuan:

Arrapatu izan banu  
onen eriyua,

alkarri eskatzeko  
barkaziyua,  
ezta txarra izana  
bere jeniyua,  
anima izan dedin  
zerura iyua;  
an da baliyua,  
orain oraziyua  
ta deboziyua,  
oikin salbaziyua,  
errezatu zaiogun  
errosaiua.

☆ ☆ ☆

Udarregiren illetan Gaztelu, Txirrita eta Pello Errota izan omen ziran. Elizkizuna bukatu ta amaiketako egin ondoren, erresponso bezela bertso aukeratu omen zituzten:

Gazteluk:

Juan Jose Udarregi  
Usurbilko zana,  
amaika bertso eder  
munduan esana;  
bota izan balu ere  
kolpeko dozena,  
alare etzan gastauko  
aren almazena,  
gu ez gerade inor,  
ura zan gizona!

Txirritak:

Gizajua il zan da  
sartu zuen lurpian,  
zañak eta ezurrak  
alkarren tartian;

asko sufritu zuen  
bizi zan artian,  
orain deskansa deilla  
guztizko pakian,  
gu ere juango gera  
alako batian.

### Pello Errotak:

Juan Jose Udarregi  
bizi izan zanian,  
beti ibilli izan zan  
bide zuzenian;  
damutasun onakin  
bere azkenian,  
orain deskansa dedin  
beti zorionian  
errezatu dezagun  
bere izenian.

Eta bertsoen ondoren *Pater-Nosterrak* izan omen ziran.<sup>6</sup>

1. Patxi Labandibar, Larria, Ugaldetxo, Oiartzun.

Ez du ematen bertso aukerik alkarren segidakoak diranik.

Lenengoa Xenpelarrena dala esan zidaten Errenteriko Pello Zabaleta bertsolariak eta beraren koñata Monikak.

2. Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman. Ziarsolo Imanolek (San Mames, 18, Bilbo) bialdu zion, 1936 urtean, oar onekin: «Tolosako Sarasolatar Salusten-ari ikasi neutson abesti au. Ez-takit geiagorik badiran eurok».

3. Pello Errotaren alaba Mikelak, bertso au entzundakoan, onela esan zuan:

–Bai. Aren ateraldia zan ori. Gure aita zanak askotan esaten zuan: «Gu gera esturiyo gabeko predikadoriak».

4. Estanislao Urruzola, Tolosa, eskuz idatzitako kuadernoau.

Manuel Lekuona apaiz jauna: *La Poesía Popular Vasca. Quinto Congreso de Estudios Vascos, Vergara, 1930*: 1/3: berak eman dizkigu; 1/5: asitzera di-

juaz; 2/3: errespuesta orain; 2/4: Juan Joxe Uarregiyak; 2/6: daukagu guk biyak.

Jaun onek onelaxe dio bertso auengatik: «*Fue en Hernani. Contendieron Udarregui y Pello Errota. El juez era el famoso literato vasco Pascual Iturriaga. Este señor regentaba un Colegio de Segunda Enseñanza de gran renombre. Esto fue lo que motivó la confesión*».

Bañan Iturriaga epaile zala ez det uste zuzen esanda dagoanik. Iturriaga 1851 urtean il zan. Pello Errota ta Udarregi, berriz, 1840 ta 1829'an jαιο ziran. Gaztetxoak izango ziran, beraz, 1851 urtea baiño len Ernaniko plazan bertsoan jarduteko.

Patxi Labandibar, Larria, Ugaldetxo, Oiartzun: 1/1: Arren guarda gaitzala; 1/3: berak eman dizkigu; 1/5: asitzera dijuaz; 1/7: beñiere estudiyan; 2/3: asitzera dijuaz; 2/4: publiko erdiyan; 2/6: ez al degu biyak?; 2/7: gure estudiyuak.

5. Bertsoa, Andoaingo Patxi Sueskun bertsolariari jaso. Gertaera, Pello Errotaren alaba Mikelak esana, bertsoa irakurritakoan. Bertsoa etzekian buruz, bañan aspalditik askotan entzuna zuan.

Len ere esan degunez, Udarregi ta Pello Errota alkarrekin asarretuta zeuden, Azpeitiko premioaren ondotik.

6. Gertaera ta bertsoak, Usurbillen jαιο ta 1959 urtean beintzat Zumarragan bizi zan apaiz jaun bati jasoak.

Lenengo bertsoa oso ezaguna da Euskalerrri gutzian. Bañan geien-geienak Txirritak botea dala esaten dute. Era askotara jaso izan degu. Ona emen batzuk.

Tolosako Estanislao Urruzolaren eskuz idatzitako kuaderno batean:

Usurbilko semia  
Udarregi zana,  
amaika egi eder  
munduan esana;  
botatzen bazun ere  
kolpeko dozena,  
etzan utsik geratzen  
aren almazena,  
gu ez gerade inñor,  
ura zan gizona!

Urruzolaren kuadernoan onela dago: *Pello ta ni ez gera ezer, ura zan gizona*. Luzetxo noski. Gañera, beste danak *gu ez gerade inñor* diote. Orregatik, orrela jarri degu.

Azkoitiko Larrume-aundiko Martin Larrañagak, Urruzolak daukan bezelaxe eman zidan bertso au, lerro aukerak izan ezik:

munduan amaika  
egi eder esana,  
botiak arren ere  
kolpian dozena,  
alare etzan gastatzen...

Azpeitiko Egibarko aitona zanak ere Urruzolak  
bezelaxe, auek izan ezik:

arek kantatu oi zuan  
kolpeko dozena,  
alare ezin gasta  
aren almazena,  
gu ez gerade ezer...

Izena artu ez nion beste batek ere Urruzolak  
bezelaxe, onako auek izan ezik:

amaika ditxo eder  
euskeraz esana,  
bota izan balu ere  
bateko dozena,  
alare etzan aituko...

## PELLO ERROTA ETA OLEGARIO

«Ez dakit Ernandin edo nun ziran;  
bañan bertsotan ari zirala, onela kantatu  
zioten alkarrri Olegariok eta Pello  
Errotak:

Olegariok:

Karro txiki polit bat  
astuarentzako  
enkargatu niñuzun  
egiteko ondo,  
material fiñarekin  
lodi eta sendo,  
bañan pagatu arte  
ez dizut emango.

Ta gure aitak:

Jaunak, Olegariyo,  
zelebria zera;  
bâkit zenbat kosta dan  
gutxi gora-bera  
karruen kurtetxia  
eta errubera;  
urrena etorritzian  
konponduko gera»<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Bertso aukerak onela jasotzeko nizekion Pablo Zubiarrain «Ernani-txikia» bertsolariari, berak idatzita bialdu zidanez:

«Beste bein, Joan Jose Andola esaten genion bati entzun izan nion, bere bizi guzian gozatu zuen geiena, bi bertsolari entzuten, Pello Errota eta Txirritari entzuten, gozatu izandu zuela.

Pelloc Olegariori karrua enkargatu ta billa etorri. Baiña Olegariok, ondo bukatu gabea zuela ta urrengo ostegunerako egingo ziola. Pello astoarekin etorria izan bear zuan, eta apaldu dute bapo. Eta Pello, bazijoala etxera ta jarri da asto gainean.

Baiña Txirritak isatsetik eldu astoari ta bertsoa bota omen zion. Baita Pelloc erantzun ere, astoari *arre* esaten bazion, arrastaka eramango zuela. Eta Txirritak erantzun isatsa aterata joan bearke zuela; bestela, Pelloc etzuela arrastaka eramango zuen astorik.

Artatik asi ta gau artan aiek kantatu zituzten bertsoak eta egin zuten saioa! Bere bizian bertsolari guziaz aditu zioten onena zala esaten zuen beti, makiña bat aditua izango zan baiña.

Ordukoak izan bear dute, orain idazten ditudan aukerak:

Karro txiki polit bat  
astuarentzako,  
Pelloc esan zidaden  
neri egiteko,  
material piñarekin  
gogor eta sendo,



bestela etziola  
luzaro iraungo;  
baiñan pagatu gabe  
ez dek eramango.

Pellok erantzuna:

Baiñan, Olegario,  
zelebria zera,  
lendik ere banuen  
zure aditzera;  
zenbat kosta dan bâkit  
gutxi gora-bera,  
kurtetxe ta pertika  
eta errubera,  
ni urrena etortzian  
konponduko gera».

1. Mikela Elizegi, Pello Errotaren alaba.  
Bertso auk oso ezagunak dira Euskalerrian.

Orregatik, batetik bestera aldaketa asko izango dituzte. Baiñan emen bat bakarrik jarriko det, Atano laugarrenak eman zidana:

Olegario arotzak:

Karro txiki-txiki bat  
astuarentzako  
Pellok esan dit neri  
zintzo egiteko,  
material fiñarekin  
gogor eta sendo,  
bestela etzuela  
luzaro iraungo,  
baña pagatu gabe  
ez dek eramango.

Pello Errotak:

Aizazu, Olegario,  
ar zazu patxara,  
lenagotikan badet  
zure aditzera;  
gurtetxe ta pertika  
eta errubera  
zenbat kosta dan bâkit  
gutxi gora-bera,  
urrena etortzian  
konponduko gera.

## PELLO ETA XARDIA

«Gure aitona Oiartzuna bertso tara joana zan. Gau berandu arte aritu ziran. Urrengo goizean Xardia erne zegoan, gure aitona noiz agertuko zan zai. Ta bertso au bota zion, ura tabernan sartu zanean:

Zer dirala uste dek ik  
arduaren saltsak?  
Bart nola ibilli aizen  
goatutzen al zak?  
Komunera birian  
galdu zaizkik galtzak,  
ezkontzeko egindako  
oialezko beltzak.

Ta gure aitonak onela erantzun zion:

Ara nere lagunak  
ein ditun orruak,  
aplakatzen badakik  
orrelako arruak.  
Ilbeltzan amarrian  
ziran enbarguak,  
adios Xardiaren  
iri ta karruak»<sup>1</sup>.

Lenengo bertsoaren beste era bat Aita Justo Mari Mokoroak eskutitz batean bialdu zidan:

«Zortzi edo bederatzi urteko mutil koxkorra nintzala, bere adiskide batekin Asteasu aldera eraman nindun nere aita zanak, eta biak Pello Errotaren gertaerak kontatzen ari zirala, zortziko au gelditu zitzaidan buruan, bere doiñu ta guzi:

Jakin gabiak dira  
arduaren saltsak...  
Bart komunian, Pello,  
zerebait galdu zak:  
neskamiak billatu  
dizkik ire galtzak,  
ezkondu intzaneko  
oialezko beltzak.

Asierako itzetan traba pixka bat sortzen zitzaion gure aitari, etzegoan ain seguru; beste gaiñerakoaz, ni seguru nago orrelaxe kantatu zuala. Zuk esango dezuna: zortzi edo bederatzi urteko ume moko batek orrela gogoan artu bertsoak? Bai, oraingoak automobillen markak eta zineko mari-mutillen izenak jasotzen dituzten bezin errez. «Umeak etxean –edo etxekoai– zer ikusi ta ura ikasi» esan oi zan».



1. Jose Kortajarena, Zizurkil, Pello Errotaren billoba.

## PELLO ERROTA ETA TXINTXUA

Bertso au bota omen zion bein batean Pello Errotak Erretereriko Txintxua bertsolariari:

Lezon izandu gera  
emazte ta senar,  
ortxen ibildu gera  
irrintzi eta far;  
Txintxua're emen dabil  
txaleku ta txamar,  
bestenak ditu bañan  
dexente xamar<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Bertso au beste era ontara ere jaso degu:

Emen etorri gera  
emazte ta senar,  
eskaxaguak ere  
badabiltza amar;  
Pello're etorri zaigu  
txaleku ta txamar,  
besterenakin baña  
kurioso xamar<sup>2</sup>.

☆ ☆ ☆

Uztapide zanak, berriz, beste onela esan zidan:

«Lezora andrearekin joan omen zan Pello Errota; ta andik bueltan, Erreterian, Txintxua sagardotegian zan da bertso au kantatu zion Pellori:

Lezon izandu gera  
emazte ta senar,  
gu baño eskasaguak  
ikuste'itut amar.  
Pello ere an zebillen  
txaleko ta txamar,  
naiz besterenak izan  
kurioso samar.

Txintxua zuan izena, bañan bigurri samarra omen zan, ta Pello jartzen omen zuan sutan orrek, beti olako puntadak botatzen zizkion ta. Txintxua la-saia omen zan, eta Pello bizia. Onen erantzuna:

Ematen dizkidazu  
milla estuasun,  
ez dakit zuk nerekin  
zer arraio dezun.  
Batian Billabonan,  
bitan Asteasun,  
badakit neregatik  
zer esan dituzun».

Doiñu onekin kantatu zuan Uztapidek:

E - ma - ten diz - ki - da - zu mi - lla es - tu - a - sun, ez  
da - kit zuk ne - re - kin zer a - rra - io de -  
zun; ba - ti - an Bi - lla - bo - nan, bi - tan As - ti - a -  
sun, ba - da - kit ne - re - ga - tik zer e - san di - tu - zun.

1. Patxi Labandibar, Larria, Ugaldetxo, Oiar-  
tzun.

2. Pello Zabaleta bertsolaria, Errenteri.

## PELLO ERROTA ETA GAZTELU

Batzuek diotenez, bertso au Txirritak Pellori bota zion; beste batzuen iritziz, berriz, Gazteluk kantatu zion.

Dana dala, bertsoa onela jaso izan det:

Pello Errotak nere kontura egin nai lituzke parrak, merezi ere baditu eta eman biaizkat ederrak; ondo kenduko baldin badira orren begiko makarrak, atxur batekin amabost egun biaitu gizon bakarrak<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Beste era bat:

Esana libre bear ote dan dio gure Pello zarrak, merezi ere dizkik ederrak  
.....

ziaro ondo garbitu ezkerorren begiko makarrak, amabost egun atxurrarekin biaitu peoi bakarrak<sup>2</sup>.

☆ ☆ ☆

Irugarren era bat ere bildu degu:

Esana libre bear degula dio gure Pello zarrak, merezi ere baditu bañan entzun biaitu ederrak; bear bezela garbitutzeko zure begiko makarrak, amabost egun atxur batekin biaitu gizon bakarrak<sup>3</sup>.

1. Inazio Zubizarreta, Errementeri, Loiola, Azpeiti.

2. Basarri, *La Voz de España* egunkarian, 1946-ko azaroaren 3-an. Pello ta Gaztelu Orion ari omen ziran. Pello ziri ta ziri ari omen zan, da Gazteluk aspertu ta ori bota omen zion.

3. Patxi Larrañaga bertsoalaria, Azkoitin jaio eta Zarautzen bizi izana.

## PELLO ERROTA ETA GOIXUETA

Pello Errotak onela kantatu omen zion *Goixueta* esaten zioten eskale bati, moxkor-moxkor eginda ikusi zuan egun batean:

*Goixueta*, etzaude  
ipurditik gaizki,  
mozkorrik pasa gabe  
bizi zera noski;  
eran da pagatzeko  
poltsan diru gutxi,  
olakuak elikek  
andrerik merezi.

Bañan *Goixueta* ori bertsoan zekiana zan, da onela erantzun zion:

Pello, izandu omen  
zera Amerikan,  
indiano egin gabe  
etorri andikan;  
berriz e bazuazke  
noski emendikan,  
ala det notiziya  
Astiasutikan<sup>1</sup>.

1. Jose Oiarbide, Ereñozu, Ernani.

## PELLO ERROTA ETA *BOLLO*

Asteasuko Iñazio *Bollo* bertsolariak onela bota zion bein batean Pellori:

Batetik «zapi» eta  
bestetikan «moxa»,  
Pellok aditu denez  
zerbaiteren otsa;  
bestiaren kontura  
ein da goxa-goxa,  
onek dauka lagunai  
pegatzeko poxa<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Pellok etzuan «Bollo» bertsolari ori ordañik gabe utziko noski. Bañan orduko erantzunik ez degu jaso al izan. Bai,

ordea, beste batean «Bollo» oni berari bota ziona.

Onek, bere burua santu egin bear zuala esan omen zuan bertso batean, ta orduan Pellok au kantatu zion:

Iñaziyo, itzegin  
bear dezu kontuz,  
ordaña ematea  
nai nuke kantuz;  
zeruba betetzen bâ zu<sup>2</sup>  
bezelako santuz,  
gure Jainkoa ezta  
izango kontentuz<sup>3</sup>.

1. Manuel Elizegi, Pello Errotaren billoba.
2. zeruba betetzen bâ zu: zerua betetzen bada zu.
3. Bautista Kortajarena, «Ondartza», Asteasu, Pello Errotaren billoba.

## ZENBAIT BERTSO

Pello Errotak bertso au bota omen zion Naparroako bertsolari bati Tolosan:

Ez dakit egiya dan,  
jakindu det ala,  
bertsolari bat ona  
Tolosan badala;  
naiz izan probintziano  
ta berdin naparra,  
nik jokatuko diyot  
cuskalduna bada<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Nun saldutzen ote da  
ardo erejia?  
Ori esateko erc  
badek korajia;  
Nafarrutik egiña  
dauka birajia,  
ez du ezagutuzten  
lengo parajia<sup>2</sup>.

☆ ☆ ☆

Bertsotan kanpoan izanda, oso lo premian edo lo bearrean, Lasarteko tabernaren batean sartu zan Pello Errota bein batez, ta iru gaztek bertsotan bur-laka ekin zioten.

Jendeak Pellori esan zion:

–Bota, Pello, bota oieri!

Ta onek:

–Loari ezin diot eutsi ta nola kantatuko det?

Bañan, azkenean, mai gañean kuluxka bat egindea, onela kantatu zien:

Gaztiak panparroikerin  
nola dirên ekin<sup>3</sup>,  
ikusi nautenian  
naiko lanarekin;  
parra egin nayian  
dabiltza nerekin,  
errespeto gabeko  
iru mutur zikin.

Orduan ba omen zuan Pellok konbita! Aparia ta nai zuan aña zurrut eman zioten beintzat<sup>4</sup>.

☆ ☆ ☆

Asteasuko Panaderi deitzen zaion tabernan, Naiolako Ildefonso, izengoitia *Zozua* zuana, Pello Errotari bertsoa bota ta bota ari zitzaion, al zituan aundienak esaten, gaueko amabietan.

Alakoren batean, onela kantatu zion Pellok:



Oni zer pasa zaio:  
kabitik erori?  
Errepara zaiozu  
zere garaiari;  
sekula ezte ikusi  
oinbeste komeri,  
gaubeko amabitan  
*zozua* kantari!

An zegoan jende guztia lertu omen  
zan parrez, eta *Zozua*-k ez omen zion  
bueltarik eman Pellori<sup>5</sup>.

☆ ☆ ☆

Donostiko Jose Zampirainek Pello  
Errotari bein batean jarri zion puntua:

Pello, zuretzat botika  
da ardo zaarra...

Eta Pellok erantzuna:

Orain ere balegoke  
ez litzake txarra.  
Barrena sartu ezker  
ematen du indarra,  
bañan eztagonian  
sufritu bearra<sup>6</sup>.

1. Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak gerra aurrean Asteasun jaso.

2. Bertso au, emen jarri degun bezela, Errenteriko Pello Zabalza bertsolariak eman zigun. Onek Xenpelarrena zala zion.

Pello Errotaren alaba Mikklak, berriz, bere aitarrena zala zion, bañan erdiaz bakarrik oroitzen zan:

Nun saldutzen ote da  
ardo erejia?  
Igualeko litzake  
aren korajia...

3. dirên: didaten.

4. Bautista Kortajarena, «Ondartza», Asteasu, Pello Errotaren biloba.

5. Id.

6. Antonio Salaberria, Pasai San Pedro.

## «BERTSO POLIT BAT»

Bertso auek oso ezagunak dira Euskalerrian. Batzuek Andoaiñen boteak dirala diote; beste batzuek, berriz, Goizuetan...

Txirrita goien omen zegoan, balkoian; Pello, berriz, bean, kalean. Ta onela kantatu zioten alkarri:

Txirritak:

Bertso polit bat kantatuko det  
balkoi ontatik kalera,  
Pello Errota ikusi eta  
nik artzen dedan kolera!  
Astiasutik etorri eta  
erronkan asi al zera?  
Laixter uxatuko zaitut nik zu  
jetxitzen banaiz or bera.

Pellok:

Arrazoi batez ez dek egundo  
ezagututzen pertsonik,  
poliki xamar asi aiz baño  
ez dek egingo gauz onik;  
sekulan iñork etzidak esan  
erronkosua naizenik,  
balkoi ortatik ez dek jetxiko  
ni uxatzeko gizonik<sup>1</sup>.

1. Bazterretan jaso izan ditudan bertso auen era guztiak begien aurrean jarrita, gutxi gora-bera or

goien idatzi bezela kantatuko zirala uste degu. Emalecn aldaketak auek dira:

Juan Bautista Gesalaga zana, Zaldubi bertsolaria, Zarautz: 1/1: Txiki-txiki bat kantatu bear det; 2/4: ez dek ein bear gauz onik.

Basarri, *La Voz de España* egunkarian, 1946-ko abenduaren 8-an: 1/1: Bertso txiki bat kantatuko det; 1/6: crronkan ari bazera; 1/7: denboraz uxatuko zaitut nik; 2/3: dotore xamar asi aiz baño; 2/5: ik beste iñork etzidak esan.

Patxi Sueskun bertsolaria, Andoain:

Bertso polit bat bota biar det  
nagon tokitik plazara,  
Pello Errota or ikusita  
ematen didan kolera!  
Astiasutik etorri eta  
arronkaz ari al zera?  
Ni jeixten banaiz laister joango aiz  
etorri aizen bezela.

Izketa batez ez da probatzen  
nolakua dan pertsonik,  
dotore xamar asi aiz baño  
ez dek egingo gauz onik;  
santa sekulan ez det aditu  
arronkosua naizenik,  
balkoi ortatik ez da jetxiko  
ni bialtzeko gizonik.

\* \* \*

Inazio Aizpuru, Donostiko kaia:

Begiratu dedanian nik  
leio ontatik kalera,  
gizon ori or ikusi eta  
nik artzen dedan kolera!  
Astiasutik etorri eta  
crronkaz asi al zera?  
Lengo birian laister juango da  
ni jeixten banaiz or bera.

Arrazoi batez ez dek probatzen  
nolakoa dan pertsonik,

dotore xamar asi aiz bañan  
ez dek atcako gauz onik;  
iñork etzirak esan oraindik  
arronkosoan naizenik,  
leio ortatik ez dek jetxiko  
ni bialtzeko gizonik.

\* \* \*

Gabino Huizi, Goizucta: 1/7: etorritako bidean  
laister; 1/8: bialduko zaitut etxera.

## ERRIZ-ERRI

Bein batez bertso auk kantatu zizkion Pello Errotak Txirritari Zizurkillen:

Txirrita orren ibillera nei  
sekulan etzait gustatu,  
nere iritziz ola dago ta  
beira dagonak juzkatu;  
bestek ematen diona eran,  
berak ditunak gastatu,  
aizkenerako gelditu oi da  
nun illundu an ostatu.

Beti galeran ez da tokatzen  
bertsolaian ibillera,  
bein bear eta tokatu zaigu  
erriko jaunen billera;  
aberastuta ikusten dezu  
olako gizon illera,  
zuk ere zerbait falta badezu  
etorri Zizurkillera<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Beste batean, Debara ta Motrikura  
joan bear omen zuan Pellok, bañan di-  
rua palta patrikan trena pagatzeko. Es-  
katu zion gizon bati, ta onek eman ez.  
Alare joan zan, besteren batek emanda.  
Andik bueltan, ukatu zion gizon ura be-  
ra topo egin zuan, da bertso au bota  
zion:

Eranegun Motrikun  
eta atzo Deban,  
ai zer bizimodua  
nik ibilli dedan!  
Naikua janda ....<sup>2</sup>  
ta naikua edan,  
diruik ez izan arren  
bazan zeñek eman.

☆ ☆ ☆

Amerikano batzuk, aita-semeak,  
Berastegira etorri omen ziran; ta festa  
bat armatu bear zala ta bertsolariak  
ekartzea pentsatu zuten.

Txirritari enkargatu zioten bertsolari-  
ekin joateko, ta lau bertsolariekin  
joan zan Txirrita, bañan Pello Errotari  
etzion kasorik egin. Pello Errotak, or-  
dea, bertsolariak Berastegin zirala jakin  
zuan, bera ere ara joatea pentsatu  
zuan.

Abitu da ta berarekin batera Beras-  
tegin pelotan jokatu bear zuan amerika-  
no bat. Bidean zijoazela, Elduaiñen go-  
ra aldapa aundia ta zaldiak eziñean.  
Ala, batzuetan jetxi ta kotxeai bultzaka,  
ta bestetan oñez ta gonbertsazioan.

Berastegira allegatu ziranean, ame-  
rikano pelotari orrek esan zien beste ai-  
ta-seme aiei:

–Aizue: izugarri bertsolari ederra orain etorri da onera.

–Ta lenago nola ez dute ba ekarri bertsolari ori?

–Ez dakit ba zergatik etzuten ekarriko.

–Esaiozu nik esan dedala etortzeko onera.

Ara joan, eraman arazi zuan ta Pello Errotak esan zien amerikano oiei:

–Bañan besteak naiko al dute?

–Zuk ez kaso egin beste oiei. Nik agintzen det emen, da zuk ere kantatu bear dezu besteekin batera.

Ala, jarri ziran Berastegiko plazan bertsolari oiek, da:

–Zein asiko da?

–Zu asi aurrena.

–Ez, ez; zu asi.

–Zarrena asi dedilla aurrena –beste batek esan zuan.

Ala, Pello Errota zarrena izan da berak asi bear. Ikasi ditu aita-sume oien izen-apelidua eta bota du bertso bat, eta ikaragarrizko txaloak. Danak kantatu ta berriz ere etorri zaio txanda Pello Errotari. Bota du bigarrena ta orduan da aundiagoko txaloak.

Bukatu dute bertso saioa, ta besteai agindutakoa eman diete amerikano oiek, eta Pello Errotari ogei duro geiago propina, edo ez dakit zenbat.

Bañan Txirrita orrek ezin eraman ori. Ala, gero alkar ikusi dute kontzejupean da asi dira bertsotan. Bertsotan asi dira bozarekin, da azkenean bozik gabe, atsoak erritan bezela. Ta antxe zapal-zapal eginda utzi omen zuan Pello Errotak Txirrita<sup>3</sup>.

☆ ☆ ☆

Beste batean ere, Txirrita ta Pello Berastegin ari omen ziran bertsotan. Txirrita mutilzarra baitzan, Pellok esaten zion obe lukela praille joango balitz, eta onela bota zion:

Gaucen gauerdi tabernan eta goizean estu ta presa, pozikan asko juango niñukek entzutera ire meza; peskisa ortan utzi ezkerok ire kontura eliza, meza ematen asi baño len ustuko ukek kaliza<sup>4</sup>.

☆ ☆ ☆

Urte batez, Pello Errota ta beste bertsolari bat Orendaiñen ziran bertsotan, Ama Birjiña Abuztukoaren bigarreanean, San Joakin egunean alegia.

Erriko erretorea Joakin zan izenez, ta balkoi batetik begira zegoan.

Pellok onako bertso au kantatu zion:

Kantu lancan ari gerade ni eta nere laguna, tokaziaz egokitu zaigu bikario jaun an eguna; oiek egiten dute alegiña erakusten gauza ona, gure Jainkuak eman dciola urte askuan osasuna<sup>5</sup>.

1. Antton Kortajarena, Pello Errotaren biloba baten semea, Zizurkil.

2. Esan bearrik ez dago lerro ontan zerbait falta dala. Bañan ala jaso nuan. Eta apuntatu ere ez nuan egin bertsoa zeñi artu nion.

3. Inazio Arregi, segalari izana, Irura.
4. Ez nuan kontuan artu zeñi jaso nion.

5. Manuel Etxabeguren, Orendainen jaioa, Usurbilko Santuenean bizia.

## «KONTZEJURA ETORRI NAIZ»

Pello Errota, bein batean, aiuntamentura joan zan paper baten billa. Sartu ta an ikusi zituan alkatea, sekretarioa ta kontzejal guztiak, batzarren batean bilduta zeudela. Bertso bat kantatzeko ta bertso bat kantatzeko eskatu zioten, da onela kantatu omen zien:

Kontzejura etorri naiz  
paper baten billa,  
erri txiki baterako  
au dek alper-pilla!  
Tintero eta pluma,  
bastoi ta makilla,  
pobriak altxatzeko  
ai zer kuadrilla!

Bertso au Pello Errotarena bezela jotzen dute aspalditik Asteasun. Ala esan zidan Pelloren billoba Bautista Kortajarenak.

☆ ☆ ☆

Oso bertso ezaguna da Euskalerrri guztian. Bañan beste batzuek, eta ez gutxik, Udarregirena bezela jotzen dute. Adibidez Basarrik, *La Voz de España* egunkarian, 1947-ko otsaillaren 2-an, bertsoa era ontara jarririk:

Kontzejura etorri naiz  
paper baten billa,  
pentsatzen jarrita're  
au dek alper-pilla!  
Pluma eta tintero,  
bastoi ta makilla,  
pobreak altxatzeko  
ai zer kuadrilla!

☆ ☆ ☆

Bañan badira Txirritarena bezela jotzen dutenak ere. Oietako bat, Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna. Onek era ontara jaso zuan:

Kontzejura deitu naute  
paper baten billa,  
gutxienaz badira  
irurogei milla;  
bastoi eta sonbrero,  
txapel ta makilla,  
erri txiki bat jateko  
a zer lapur-pilla!

Jaun onek beste era batera ere jaso du. Bañan era onek bigarren punturako du bere aldaketa gutzia:

exeri eta lasai,  
au dek alper-pilla!

## ALKANDORA

Donostiko Jose Zapirain garai artako bertso saioetan bertsolarien gidari bezela jarduten zan, puntuak eta gaiak emanez. Bera ere bertsoan egiten zuana zan.

Ona emen, itzez-itzez, nola kontatzen digun Ixkiña ta Pello Errotaren arteko gertaera bat. Irakurleak gogoan artu bearko luke, Zapirain jaunaren idazlan polit au Pello artean bizi zalarik idatzirik dagoala, *Euskal-Erria* aldizkarian 1911 urtean agertu baitzan:

«Ez ziran oraindik sortu aidian ibiltzeko pixti berri oiek; bañan alaz guztiz, sagardo ona nonbait asten zanian, urruti xamar izanagatik, nola edo ala alderatzen giñan.

Ala arkitu nitzan bein, eta arkitu ziran nerekin batian, Pello Errota eta Ixkiña, Billabonako erriyan, sagardo gaiñ-gañeko baten upel onduan.

Etzan arritzekua alako tokiyan alako jendiakin arkitzia. Noiznai ere, elizan baño sagardotegiyan geiago ikusten ziran.

Ixkiña, oitu bezela, zegon panparrroi; Donostiyan, erderazko itzakin euskeraz esan oi dana: «*veinticinco* baño do-toriago».

An zebillen, bat txuliatu, bestia zirikatu, jende guztien bizkar far eragin azitzen.

Ontan ikusten du Pello, eta, bere

aldamenian nola baldar xamar iruditu zitzaion, zezen-iltzalliak zezenen aurrian jartzen diran bezela, zuzen eta arro jarririk, ara zer esan ziyon, ez bat eta ez bi:



Argazki au *Euskal-Erria* aldizkaritik artua da. Pello Errota bizi zala argitaratu zan, 1913 urtean. Azpian onela dio: «*Bersolaris: Zapirain, Pello-Errota. Otaño*». Bañan ez du esaten zein Otaño dan: Jose Bernardo ala Pedro Mari. Zapirain ori, berriz, Jose Zapirain izango da, Donostiko bertso saioetan gai jartzallea izaten zana, eta bera ere bertsoan moldatzen zana.



Gauza onik ez dago  
beñere zurekin,  
Pello, ikusten zaitut  
orain astuakin.  
Adieraziko dizut  
orrenbesterekin:  
baldan-baldana zaude  
alkandora orrekin.

Laxter erantzun ziyon Pellok Ixkiña-  
ren aterakai orri. Ez zuben liburu za-  
rrak biribiltzen lanik izan. Ixkiñak az-  
keneko itza esan ordurako, abua itxi ba-  
ño len, onla erantzun ziyon Pellok:

Aitzakiya eman dit  
alkandorarena,  
badakit ez detela  
emen dan onena;  
zarra izanagatik  
nik au neronena,  
ederra ageri zaió  
bañan... besterena.

Aitzgorrin aituko ziran orduban  
egintako algarak. Makiña bat far gozo  
egin zan, baita makiña bat baso sagardo  
ustu ere.

Ixkiñak, ixilik ez egotiagatik, eraso  
ziyon berriro itz abekin:

Ikusten zaitubenak  
zer esan biar du?  
Onla izatia zuk  
mereziya dezu;  
ni beziñ kuriyoso  
agertutzeko zu,

alkandora zuriya  
ibilli biasu.

Zuriya edo beltza, lixibetan sartu ga-  
be, aguro astindu zuben Pellok. Pan-  
parroi bazegon ere, atera zizkan txu-  
liatzeko goguak. Ez al da errotariya,  
lenbizikuan eta bigarrenian ere, mutu-  
tuta gelditzen danctakua.

Begira zer erantzun zuben:

Beti aitzakiya du  
orrek mingañian,  
ara erantzupena  
berriz ordañian:  
zeorri're ez zabilta  
guztiyen gañian,  
besteren alkandora  
daukazu soñian.

Gero zer gertatuko zan, ez naiz go-  
goratzen: badakit beti bezelako umore  
ederrian egon giñala, sagardua orain ba-  
ño merkiago eta obiago zala, bañan...  
alkandora besterena ote zuben? Edo al-  
kandora bakarra ote zuben bestere-  
na?».

☆ ☆ ☆

Gregorio Mujika jaunak, bere *Per-  
nando Ametzetarra* liburuan, amabiga-  
rren ipuien, bertso auctan bigarrena  
dauka, beste bat aurretik duala. Bañan  
Ametzak eta Pernandok alkarrri boteak  
dirala dio. Auzi au Zapirain jaunaren  
alde erabaki bearke da, kantatu zira-  
nean bera bertan entzuleen artean zan  
czkero.

Orra nola dauden Mujikarencan:

Pernandok:

Ametzak:

Pernandok nere ona  
ezin eraman txarra...  
Atzean gelditzeko  
ni ez naiz mantzarra.  
Zuri egiten dizute  
iseka ta farra,  
ekarri dezulako  
alkandora txarra.

Prenda artzen dirazu  
alkandorarena,  
bai dakit ez derala  
emen dan onena.  
Txarra izanagatik  
au da neronena:  
zuk ederra daukazu  
bañan besterena.

## «FABORE EGIN ZAZU»

«Ni telefonoan ibiltzen nintzan lanean. Egun batean Legorretatik Getariara nentorren Astiasu ta Aiatik barrena.

Ni 19'garrengo kintakoa naiz, ta ori lenago zan. Astiasutik pasatzean, Konportako parean, kamioaren ondoan, Pello Errota ikusi nuan, zelaian akullu batekin bei bat zaitzen.

Alaxe esan nion:

–Kaixo, Pello! Oraindik ere bizi?

–Bai, larru ta guzi.

–Ba, Txirrita Getarian da, lanean ar-gintzan, etxe bat egiten.

–Lau urte pasatu dira, ba, alkar ikusi ez degula. Itxoin zazu pixka batean, bertso bat kantatu bear diot eta.

Auxe kantatu zuan:

Fabore egin zazu  
ura ikustian,  
olaxe bizitzen naiz  
jaia ta astian;  
alare kontentu naiz  
ni onenbestian,

Txirritari eskumuñak  
urrena ikustian<sup>1</sup>.

Nik orduan orain baño buru obean nuan, ta besterik gabe ikasi nuan bertsoa.

Getariara etorri ta Txirrita ikusi nuanean, olaxe esan nion:

–Aizu, Txirrita: Pello Errota ola ta ola ikusi det, eta zuretzat bertso au kantatu dit.

Ta bertsoa kantatu nion.

Txirritak parre antzean aditu zuan, da gero ala galdetu zidan:

–Ondo al dago?

–Oso xartuta.

–Ez uan, ba, ganadu ederra bere sa-soyian!<sup>2</sup>».

1. Bertsoak poto bat du. Emaleak zionez, seguru asko ori etzan orrela izango; bañan urte asko pasa zirala ta...

2. Gertaera ta bertsoa Getarian jaso nituan. Bañan ez nuan artu emalcaren izenik.

## PELLO ERROTA AIAN

Pello Errota maiz xamar ibiltzen omen zan Aian. Garbi ageri da ori liburu ontan, bertan pasatako gertaera batzuk kontatu ditugu eta. Beste zerbait geiago jakin naian, ango Jose Mari Lertxundi adiskidearengana jo genduan. Baita arek gertaera mordoa bildu eta eman ere. Orain emen eskeintzen ditugunak berak idatziak dira. Kontaera ataltxoetan ere berak banatu ditu.

### LAKA

Pello Errota errotaria zanez, bere sendiarentzako bizibide nagusia errotaritzatik sortzen zuan etekiñari esker osatzen zuala esaten dute; eta etekin orri *laka* izenez deitzen zioten edo eza gutzen zan errotari eta baserritarren artean.

«*Laka* edo dalako gauza ori zer da?» galdetu lezateke gaurko gazte batek baño geiagok. Baita ain gazte ez diranak ere. Eta gauza onen aztarnikan gabe arkitzen diran guztientzat, argi eta garbi agertuta utzi nai nuke zer zan eta zertarako izaten zuten.

*Laka* deitzen zitzaion gauza ori, baserritarrak bereziki, baña kaletarrak ere berdin, garai artan alcarekin, naiz arto, naiz gari, joaten ziranak, bazekiten errotariak alea egotze aldera *laka* kentzen zuala. Orixe izaten baizan errotariaren lan saria.

Baña ale guztientzat etzan berdiña izaten. Artoa egotzen zuanean, zortzi kiloko bat, eta gariarekin amarretik bat errotariak beretzako gelditzen zuana. Neurri ori zan orduko lege edo kontzientzizko gizonentzat. Baña, garai guztietan bezela, izango ziran orduan ere pixuarekin tranpa edo olako narraskeriren batzuk egiten zituztenak.

Baña gauza oiek alde batera utzi ditzagun, eta emen jarri degu, denak jakiteko moduan, zer gauzaren izena zan *laka*.

Garaian garaiko gauzak izaten dira. Oitura eta itzegiteko era bereziak ere bai. Pelloren garaian eta errotari bizitzan *laka*-ren berri zeatz eta meatz ematen alegindu naiz.

### TRUKABESA

Orain ikusi dezagun *trukabesa* zer zan, nondik zetorren eta zertarako zan.

Garai artako okindegi edo panaderiak baserritarrari ogia saldu edo ematen zioten, eta baserritarrak gariarekin ordaintzen zuten ogiaren zorra; eta orren ondorioz sortutako gauza edo arreman orri deitzen zioten *trukabesa*.

Okindegiko nagusiak alea alperrik zuan etxean gordeta edukitzeko. Garia egotzeko, berriz, errota bear. Errotariak ere, lakatan biltzen zituzten kilo aiek irindu eta salduaz atera bear zuten

bizimodua. Gauza oien eragiñez sortu-tako tratua zan, zalantzarik gabe, *trukabesa*.

Garai artako errotari askok, okindegi, goxotegi eta olamoduzko etxeren batekin edukitzen omen zuten *trukabesa*, eta Pello Errotak ere bazuan berea Aia-ko *Portitxa* okindegiko nagusiarekin.

Pelloc, errotaria zanez, era ontan egiten zuan bere *trukabesa*. Konporta zan bere errotaren izena; bertan gurdia irin-zakuz kargatu, gurdia idi bakarra lotu, ari atoia edo puntakoa egiteko asto aundi bat jartzen omen zion, eta Asteasutik Aiara.

Gutxienez bi ordu t'erdi bearko zitu-  
an bide ori igarotzen, eta zenbait giro-  
tan geiago. Amaika aldiz ederki asper-  
tuta iritxiko zan gixaraxoa. Ala ere  
umore onean askotan azaltzen omen  
zan.

Era ontan egin oi omen zuan okin-  
degiko gora-bera. Eguerdi inguruan as-  
kotan iritxi, eta orduan iriñak Portitxae-  
ne artan utzi. Berriz gari zama gurdian  
jarri, eta okindegi orrek aldamenen  
bere ostatua omen zuan. Pelloc gei-  
entan arrantxo pixka bat bertan egiten  
zuala esaten zuten gure aurrekoak.

Nik gure aita zanari askotan entzun  
nizkion Pelloren kontuak. Naizta bide  
askoan nekatuta etorri, arrantxo pixka  
bat egin ezker, asko tentatu bearrik  
etzuala edukitzen bertsotan asteko.

Eta, batzuetan arrantxo eginda eta  
besteetan egin gabe, gurdia gariz karga-  
tu eta berriro Asteasura.

Aruntza eta onuntza, irtenaldi ba-  
koitzean bost bat ordu bidean egiñez,  
eta ori giro onarekin or nonbait. Euria,  
aizea eta txingorra ari zanean, zer izan-  
go ote zan aren ibillera? Jantzian ere

garai artan etzan aukera aundirik izan-  
go. Bruxa kaskarren bat, eta zakua biz-  
karretik euria zanean.

Bizi bearrak lanak ematen ditu, eta  
Pelloc ere etzuan musu-truka izango,  
ikusten danez.

## APAIZAREKIN

Pello Errotak astean bi itzuli-edo  
egiten omen zituan bere trukabesa lan  
orretan. Beti etzan berdin ibiliko. Baña  
olamoduz esaten zuten aren berri zeki-  
tenak.

Batzuetan, igande edo jai egunetan  
ere egiten omen zuan bere karraioa, eta  
alakoetan Aian amarretako meza entzu-  
ten omen zuan.

Apaizak ere bazekiten Pelloren ber-  
ri. Igande batez, meza ori eman zuan  
apaiza kamioan pasiatzen zebilela, oi-  
tura baño beranduago noski, Pello or-  
duan omen zetorren bere idi eta gurdi;  
eta apaizak, zirikatatu asmoz, onoko pun-  
tu au jarri omen zion:

Pello Errota, entzun  
al dezu gaur meza?

Eta Pelloc erantzuna:

Gaurkua gertatu zait  
egun aldrebasa.  
Kulpantia izan da  
nere trukabesa,  
pasian dabillenak  
eztu ainbat presa,  
entzutea nai badu  
berriz eman beza.

Danak esaten zuten erantzun zorro-  
tzekoa zala, eta garbi ikusten da, bertso



Aia. (Arturo Delgado-ren argazkia).

onen piper eta gatzean, bazuala txinpar-  
tarik asko bere labean.

## TRAPEROA

Beste batean ere, Portitxaeneko  
okindegia artan ekarritako iriñak gurdi-  
tik ustutzen ari zala, aldameneko atean,  
garai aietan, eta geroxeagoan ere bai,  
ibiltzen ziran trapero aietako bat ari  
omen zan etxekoei deadar egiñez otse-  
giten:

–Trapero! Trapero!

Eta Pellok aldamenetik:

–Bost libra baeuzkake ateeero,  
zaku ori ibiliko uke betego!

Artean zaku uts xamarra edukiko  
zuan, ori esan zionerako.

## LANDAREKIKO ARREMANAK

Aian garai artan bai omen zan Lan-  
da izeneko errementari bat, oso ber-  
tsozalea eta bera ere zerbait moldatzen  
zana. Itz neurtuetan egoki xamarra ga-  
ñera.

Nola Pello ere, gurdiari burniren bat  
jarri edo idia perratu edo olako lanen  
bat zuanean, beti Landarengana joaten  
zan, esaten dutenez, biak arreman aun-  
dia edukitzen zuten.

Landak ia beti, Pello zirikatze-  
ko, bertso edo ateraldiren bat jaurtitzen  
zuan.

Astelen edo jai biaramun batean,  
bere trukabesa egin ondoren, etxera  
abitu omen zan; eta, Landaren lantegi  
aurrean igarotzerakoan, Landak, lan-  
nean ari zan lekutik, otsegin omen zion:

–Aio, Pello eta karrua!

Eta Pellok erantzun:

–Motell, ori dek, ori, orrua!

Atzo ardo asko erango uan eta gaur  
burua arrua!<sup>1</sup>

Beste batean ere, trukabes lanak  
egin ondoren, etxerabidean zijoala,  
Landaren lantegi parean gelditu omen  
zan.

Landa, une artan, bere laguntzallea-  
rekin, sutan gori-gori egindako burni  
zati bati txandan eman eta eman ari zi-  
ran biak; eta Pellok kanpotik otsegin:

–Ari zerate galdan!

Eta Landak erantzun:

–Eman ari gera dan-dan!

Pellok:

–Batzutan egoki eta bestetan bal-  
dan!

Zuzen jo ezker txandan,  
laster jarriko dezute galgan!

Etzeagoan arekin broman asterik,  
erantzuna beti pronto baizeukan, eta  
Landak uraxe nai.

## IDI ETA ASTOAREN GOSEA

Pello nola Aiara sarritan etortzen  
zan, erri guztiak ezagutzen zuan; eta  
ainbeste ezagunen artetik, batzuk oso  
lagun aundiak ere bai. Len aitatu degun  
Landa ori bezelaxe, beste batzuk ere  
bazituan asko maite zutenak.

Noizean bein amarretako edo afari-  
txoren batekin gonbidatzen omen zuten  
Pello, aretzen ateraldi, eta iñoiz ber-  
tsoak ere bai, aietxek entzunez, une go-  
xo bat igaro asmoz.

Egun batez, Pello berandu xamar

iritxi omen zan okindegira; eta, bertan ostatua zuten, nagusiak gonbidatu eta alkarrekin bazkaldu omen zuten.

Bazkalondoa, beste alamoduzko batzuk ere aien maiera inguratu omen ziran, eta antxe danak Pello zirikatu eta aren ateraldiekin mai inguru gozoan zeudela, nolabait bizi zan mutilzar zarposo bat inguratu omen zitzairen Pello eta lagunak zeuden tokira.

Pelloren astoa eta idia ateondoa omen zeuden, naiko nekatuak eta gose-rik zalantzarik gabe; eta zarposo ori sartu zan unean, astoak arrantza egin. Orduan, mutilzar orrek puntua jarri omen zion Pellori:

Astoa eta idia  
goseak dauzkazu.

Pelloren erantzuna:

Orduan egongo dituk  
irekin igualtsu.  
Oiekin baldin baago  
olain errukitsu,  
juan da emaikiek  
biña kilo pentsu.

Bertso ori entzun zuanean, bertako nagusiak, animaliekin errukituta, azpilkada bana pentsu eman omen zien.

Baliatu zitzaion Pellori bertso ura kantatua. Ara nola izaten diran gauzak.

## **PELLO ETA MIKELETEAK**

Beste batean, afaritxoren bat egin da-edo, gauerdia aldera Aiatik irten omen zan.

Neguko illargia eta gau giro zoraga-

ria noski, eta astoa eta idia etxerako bidea ondo ikasiak. Ala, Pello gurdian etzanda, manta zar bat gañetik estaltzeko zuala, abitu omen zan etxe aldera. Eta, ala zijoala, loak artu nonbait.

Aiako mikeleteak, Andatz-zarate aldetik Aiara zetozela, topo astoa eta idiarekin, eta itzaiaren aztarnik ez. Orduan bat inguratu gurdia eta itzaia lotan ikusi zuan. Oso ezaguna nola zuan, besotik astinduaz esan omen zion:

–Pello! Ganaduak bakarrik utzi eta zu lotan?

Pellok:

–Zer nai dezu, ba, garai ontan?

–Nun dezu argia?

–Ara an illargia!

Orduan mikeleteak, dana erantzuten ziola ikusirik, onela esan omen zion:

–Begira, Pello: zure ganaduak bi lege autsi dituzte: bat, itzairik gabe zi-joaztelako; eta gauean argia eraman bear da, eta gabe joategatik. Gaur bestela argi xamar dago ta ori pasatzeko modukoa da. Baña bestea barkatzea nai badezu, gutxienez bertso bat kantatu bear diguzu.

Pellok bereala onako bertso au kantatu omen zien:

Ez dakit dan serio  
edo-ta dan broma,  
baña kantatzeko det  
proportzio ona.  
Badakit nik pekatu  
eginda nagona,  
ortik aurrerakoa  
zure gain dagona;  
barkatzen badidazu,  
zu zera gizona!

Mikeleteak ura bertsotan jartzea



naiko zuten, eta bai azkar asko aien go-goia bete ere gure Pello zanak.

## PATXI ERREROA

Pello geienetan goizetik etortzen omen zan. Baña noizean bein arratsaldetik etortzen zana izango zan.

Bein batean, bazkalondo beranduan iritxi nonbait; eta iriñak utzi eta gariak kargatu ondoren, ostatura sartu omen zan. Beste bi edo iru lagun maiean kafea artuaz ikusi zituanean, aiengana ur-bildu, eta an zeudenak esan omen zioten:

–Jarri adi eserita, Pello!

Eta antxe gelditu, kafea eta patar pixka bat artuaz.

Alako batean, ostatu artatik gertu errerotegia zeukan gizona zan *Patxi Errero* deitzen ziotena, eta ura sartu ostatura. Mai artan jarri ura ere, gizaseme bikaiña eta lasai oietakoa.

Bertsolari laprasta pixka bat zuana; andrea ere bai, baña umerik etzuana; ardozalea ere bai; ostatu eta tabernetan sarri xamar ibiltzen zana... Eta Pellok ondo jakingo zuan bere doaien berri.

Maiean jarri eta kontu kontari ari zirala alkar zirikatuz eta nondik kokaren bat arrapatuko, Patxi Errerok ere nonbait Pellori botatzen zizkion alamo-duzko enbidoak.

Orrela ari omen ziran alkar berotzen, eta alako batean Pello bertsoan asi:

Pellori asi zaizka  
odolak berotzen,  
eta batzuek ez dira  
kontuan erortzen.

Patxi, i neregana  
zertan aiz etortzen?  
Ez al daukak lanikan  
etxea konpontzen?

Bejonda ez dakikela,  
Patxi Errerua,  
gaur ematen didak ik  
naiko endredua.  
Erdia mozkorra dek,  
bestea erua,  
ez jaiotzea obe  
ire jenerua.<sup>2</sup>

Orduan Pellok kantatu zituan bertso guztiak biltzea egon balitz, liburuxka bat betetzeko aiña aixxa izango ziran. Baiña bi auek bakarrik iritxi dira neregana, eta auekin konformatu bearko.

## SEGA-APUSTUA

Asteasuarrak sega apustueta oso jakintsuak edo ententituak izan dira azken mende erdi ontan, eta Pello Errotaren garaian ere ala izango ziran.

Pello Errota artean sasoiko zala, sega-apustu sonatu bat jokatzeko gertatu omen zan. Neri au kontatu zidanak etzekian ziurtasunez bat astiasuarra eta bestea bidañitarra jokatu ziran edo biak astiasuarrak ziran. Gizon arek zekiana zan segari aietako baten erakuslea eta sega zorrozten jarduten zana itxuraz Pelloren lagun zala, gero ola gertatu ez bazan ere.

Sega-apustu ori Iturriotzko Barruti-aundian jokatzeko egiña zeukaten, eta bere lagun orrek Pellori ala esaten omen zion:

–Sekula apustuan dirurik jokatu

bear badek, oraingo ontan jokatu. Seguru irabaziko diagu. Etzak izan bildurrik.

Ala, jokatzeko eguna iritxi zanean, Pello ere igo zan beste askoren antzera Iturriotzera. Len lagunak esaten zion bezela, orduan ere dirua mutil orren alde otsegiten asi omen ziran, eta gure Pello lenaz gañera berotu eta bost duro jokatu, gero amar jasotzeko itxaropenez.

Sega-apustu ori asi omen zan, eta Pelloren aldeko mutil orrek belarrik ezin ebaki. Bi ordu aiek ari begira tripa jaten igaro ondoren, belar pixaketa egin zutenean, galtzalle gertatu eta Pello Iturriotzko bentara bere lagunekin.

An zerbait artuaz zeudela, erakusle edo zorrotzalle ori ere inguratu omen zitzaien. Ordurako, segak gaizki zorrotzitu zizkion zurrumurrua zabaldua omen zegoan, eta Pellok galdetu lagun usteko orri:

–Zer pasa zaio mutillari?

Orduan erakusle orrek milla aitzaki kontatu omen zizkion, baña alperrik. Ondoren, Pellok onoko bertso au bota omen zion:

Zuk zer esan zidazun  
ez daukat aztua:  
«Irabaziko degu  
sega-apustua».  
Zure kulpa da sega  
gaizki zorrotzua,  
bost durokoa dezu  
Pellori ostua,  
ordaintzen ez badezu  
etzera justua.

Bertso geiago ere izango ziran or-

duan. Baña nigana au bakarrik iritxi da, eta orrekin konformatu bearko. Ez da go beste erremediorik.

## IDIA

Pello Errotak ere, beste euskaldun askok bezelaxe, izango zuan apusturako zaletasuna. Len aitatu det nola sega-apustuan zerbait jokatu zuala eta abar. Oraingoan, dema edo idi prestaketan ere parte artzen zuala agertu nai nuke.

Igande batez, meza nagusi ondorenean, arrantxoa egiten lau lagun ari ziralara, aietako bat Joakin zan, ikusten denez, eta arek esan omen zien Pello eta beste bi lagunei:

–Bazekit nere idiari jokatzeko amorratzen bat badagoala, eta lauon artean idia prestatuko al diagu?

Orduan Pellok esan omen zion:

–Besteak conforme badira, nerekin ere kontatu. Baña idia gobernatzan aterako, arriari zer moduz tiratzen dion ikusi bear diagu; eta, ortarako, biar gauean bertan proatzea dek onena.

Esan bezela, biaramon gauean proatu omen zuten idi ori, eta idi jabeak galdetu omen zion:

–Zer iruditu zaitu, Pello?

Orduan Pellok erantzun:

–Baba janda asko mejiatzen ez bada, orrekin ez diagu galtza berri asko egingo.

Makal xamarra iruditu zitzaion nonbait. Baña beste irurak jandakoan bizkortuko zalako ustean zeuden, eta idia prestatzeari ekin zioten.

Ala, oitura zan bezela, baba eta zekizkiten janari onenak emanaz saioa egin zuten. Baña idia, bizkortu bea-

rrean, gero eta motelago. Aurrerako aundirik ez beintzat.

Pellok pentsatu omen zuan berriro arriarekin proatu bear zutela, zertan zi-joan ikusteko. Eguna jarri eta proba ori egin omen zuten; eta idiak, jan gabe zegoanean baño geiago ezin egin.

Pasara ere gogor samarra eman omen zioten, eta mantarekin tapatu eta sartu omen zuten ostalariaren estalpean, eta berak ostatura, kafea edo ardo edo zerbait artzera.

Maiean exerita kontu kontari arrantxoa egiñez zeudela, idi jabea idia nola zegoan ikustera joan omen zan; eta, ikusi ta etorri zanean, batek galdetu omen zion:

–Idia nola dago?

Jabeak:

–Etzanda.

Eta Pellok erantzun:

–Bai noski. Altxa etzan da.

Itz gutxitan adierazi zion idi txarra zala alegia.

Ikusten danez, an zeudela, Pello, norbaitek zirikatuta edo bere gisa, baño bertsoan asi omen zan, arritzekoa ez danez. Izango zan ziri eta txinparta ederrakorik. Baña nik auek bakarrik dakizkit, zoritxarrez:

Agustiñekin egun batean  
gertatu alabearrez,  
ta esan zigun iri prestatzen  
lagundutzeko mesedez.  
Gobernatu ta indartzea nai,

gertatu zaigu aldrebes,  
jaten serbitzu aparta dauka  
baña tiraka baterez.

Sozio artu ginduzenean  
Agustin lagun nobliak,  
pentsatu nuan: «Etorriko'ituk  
guretzat egun obiak».  
Iri zar orrek irentsi dizkik.  
Pelloren txanpon sobriak,  
amaika olako aldrebeskeri  
bizitzan badik pobriak.

Iri orrentzat berdiñak dira  
Pazkoa eta Erramu,  
kargari iges egiten dio,  
jatera azkar arrimu.  
Neduzkan xoxak eraman dizkit,  
orrek ematen dit damu,  
naiago nuen begien bistan  
iñoiz ikusi ez banu.

1. Aiako Konsuelo Zubeldiak onela kontatu digu gertera au:

«An, gure errian, izan zan errero bat, Landa izenekoa. Pello Errota, berriz, astoarekin eta karrarekin Aiara etortzen omen zan, iriñarekin edo ola. Txanponak atera egin bear nola edo ala. Eta egun batean esan omen zion Landa orrek:

–Aio, Pello ta karrua!

Ta Pellok erantzun:

–Bai; ik atzo ardo ardo pranko erango uan ta gaur burua arrua!

2. Aian jaio eta Igorretan bizi zan Praixku Arrutik onela eman zidan bertso au:

Aizazu, Patxi,  
Patxi Errerua,  
aspaldin emateidazu  
naiko endrerua;  
erdia mozkorra ta  
erdia erua,  
ez jaiotzia obe da  
zure jenerua.

## IRITZI BATZUK

*Argia* astekarian, 1925-eko maiatzaren 14-ean, *Gure bertsolariak* izeneko idazlan bat agertu zan, *Jeme* izenordeaz izenpetuta. Oker ez bagaude, Gregorio Mujika jauna zan izenorde ori erabil-tzen zuana. Idazlan ortatik onako auek berezi ditugu:

«Pernando ez genuen guk ezagutu. Ez nai ere, eun urte badira il zala ta. Pello Errota bai, ordea. Ura zan bertsolari errez ta etorri ugarikoa! Lanak ematen zizkion arek bere aurrean jar-tzen zanari.

Makiña bat aldiz ikusi genuen Pello Errota gizagajoa errietako jaietan, bil-tzen ziran guziak bere aurrean aoa za-balduta lilluraturik zeuzkala.

Txikia zan. Buruan, beti txapela be-gietaraño sartuta. Eskuan, koskordun makilla zuri legundu bat. Ezpañetan par irria beti. Bai attona atsegiña uraxe.

Ari eramango zionik ez zan. Joxe Bernardo ta Gaztelu ta beste askok, makiña bat ziri sartu zioten bere bizi guzian: kaska zuria zala, errotari kax-karra zala, neurriak ez zituala ondo be-tetzen, iriñaren orde zai ematen zua-la... eta esan-ala guziak esaten zizkio-ten. Eta entzunleak, jakiña, algara ta algara Pello Errotaren lepotik.

Bai, e? Pellok berak ere parre egiten zuan. Eta gero? Algarak ixiltzen zira-nean, bera asi erantzuten, pixkor ta bi-zi, gogor ta zulatuz. Azkenengo itzetan

a zer zirikada zorrotza sartzen zion bera zulatu zuanari! Jendeak orduan, pozez txoratuta, izugarrizko txaloak jotzen zizkion asteasuarrari. Pello, beti parre antzean, an gelditzen zan tten-te-tten-te, guziaz begira, «datorrela berriz» esanaz bezela».

☆ ☆ ☆

Beste iritzi au, berriz, Basarrik 1979-ko abenduaren 5-ean, bere *Nere borda-txotik* saillean erderaz idatzi zuanetik artu degu:

*«Yo no llegué a conocer a Pello-Errota, pero mi difunto padre era un gran admirador suyo. Siempre salía en defensa del molinero de Asteasu, cuando los contertulios afirmaban que era de mal genio, agresivo, mal hablado.*


*Mi padre alegaba que le obligaban a ello los demás bertsolaris, puesto que todos se metían con él atacándole sin tasa.*

*Sus contraataques resultaron fulminantes, y eso era, precisamente, lo que quería el público.*

*Veamos lo que nos dice Gregorio de Múgica respecto al célebre asteasuarra:*

*«El señor don Pedro Elícegui, a quien nadie conocimos, era el mismísimo Pello-Errota, a quien conocíamos todos.*

*¿No vimos acaso cien veces al simpá-*



Bi bertsolari kantuan. Eskubikoa, Pello Errota. Ezkerrekoa, uste degunez, Jose Bernardo Otaño. Argazki au *Argia* astekarian azaldu zan, 1925 urteko garagarillaren 14-can.

*tico viejecito de figura menuda, de cabeza monda, de rostro picaresco y risueño, pasar por entre la multitud pausadamente camino del lugar del torneo, contestando con sonrisa a las agudezas y frases de simpatía que se le dirigían?*

*Sentado en la silla, sobre una plataforma, con la boina en la rodilla y entre las piernas el inseparable palo artísticamente labrado a punta de navaja, o de pie, encasquetada la boina hasta los ojos, en un balcón de la calle principal del pueblo, ¿quién no le vio actuar durante horas y horas con otros bertsolaris sentados junto a él o colocados frente a frente en otro balcón?*

*Viejos marrulleros como él, bien curtidos en estas andanzas, eran a veces sus contrincantes; otros, jóvenes bertsolaris, animosos improvisadores que venían con armas nuevas a luchar contra los resabios de los viejos amanerados.*

*Fuesen quienes fuesen los que contendían con él, Pello-Errota se quedaba siempre con el público.*

*No importaba que otros versificados experimentados pusieran ideas más sólidas o más profundas de conceptos en sus estrofas.*

*Ni importaba tampoco que los jóvenes renovadores trajeran lenguaje más castizo y más respeto a las reglas de la versificación.*

*Pello-Errota, con su gracia fácil, flexible, ligera y graciosa, dominaba pronto la situación y se colocaba en terreno apropiado para repeler cómodamente a todos los ataques».*

*En este retrato que Múgica hace de Pello-Errota, se confirma lo que tantas veces oí de labios de mi progenitor.*

*Todos los ataques iban dirigidos contra él, y estaba obligado a repelerlos.*

*Sigámosle a Gregorio de Múgica:*

*«¡Cuántos alfilerazos se le dirigieron para burlarse de su calva reluciente, de su figura menuda, de su afición a la bebida, de las componendas que se le atribuían en su oficio de molinero, de las artimañas que ponía en juego para hacer mentir a la báscula de su molino, de lo escuálido que andaba por esas carreteras el borrico con que distribuía las harinas bien mermadas de sus parroquianos!*

*Esos ataques a Pello-Errota solían ser la delicia de la muchedumbre.*

*El público los acogía con deleite singular y esperaba con ansia la respuesta del viejo invencible, que recibía todas las ironías con satisfacción, como bondadoso abuelo que pone su mano extendida para que sirva de blanco a los proyectiles que el nieto lanza con su cañón de juguete.*

*Nunca se le vio vacilar ni alterarse, ni jamás el ataque del contrario le borró de los labios la sonrisa».*

*Múgica, en oposición a lo que yo escuchaba de niño referente al carácter de Pello-Errota, le trata como a un bondadoso abuelo que recoge paternalmente las ironías de los demás bertsolaris, sin que los ataques de éstos consiguieran borrar nunca la sonrisa de sus labios.*

*Tras leer todo cuanto Gregorio de Múgica relata sobre Pello-Errota, yo diría que los bertsolaris actuales que más se parecen a Pello-Errota, son «Mattin» y «Lazkao-txiki».*

*Es envidiable el humor que ambos poseen, y poca mella causan en ellos las estrofas irónicas y maliciosas que les van dirigiendo sus compañeros de oficio. Por*

*el contrario, esto es lo que más ardientemente desean, sobre todo «Mattin», de Ahetze...».*



Asteasuko Jesus Otegi sagardozale famatuak onela galdetu omen zion, bein batean, Tolosako Emeterio Arrese olerkariari:

–Zere denborako bertsolaririk onena zein iruditu zaizu?

Emeterio Arrese onek zaletasun aundia izana zuan bertsolarietara, ta onela erantzun omen zion:

–Pello Errota.

–Pello Errota? Zer ba?

–Begira: ni bertso saio asko ta asko entzuna nago; bañan itz gutxitan Pellok baño geiago adierazten zuan bertsolaririk nere iritzian ez da izan<sup>1</sup>.

1. Bautista Kortajarena, «Ondartza», Asteasu, Pello Errotaren biloba. Jesus Otegi berari aditu omen zion.

## PELLO ERROTAREN ETXEA

*Deia* egunkarian, 1978-ko apirilaren 29-an, onako izenburu au zeukan idazlana agertu zan: «Pello Errotaren jaiotetxea botatzera doaz». Ondoren, onela esaten zuan:

«Asteasuko Pello Errota bertsolari famatuaren jaiotetxea lurrera botako dute hamabost egun barru, industria jartzeko, botatzea inork galeratzen ez baldin badu, behintzat.

«Ni zahartu naiz. Ez dakit nora jo. Baina pena izugarria ematen dit nere aitona zenaren errota botatzeak. Lehengo zaharrek ez zuten honela etxerik botatzen» aitortu dio *Deia*-ri «Ondartza bertsolariak», Pello Errotaren bilobak.

### Etxea husten hasiak

Orain dela 138 urte bezelaxe, Goi-ko-Errotan «Pello Errota» bat izan da errotari. Pello Errota aitonak bere ize-neko biloba bat izatea nahi izan zuen. «Ez nuen sekulan hortik ateratzerik pentsatu, baina nagusi berriak etxea hustu egin beharko nuela agindu zidan. Eta kalean moldatu dudan etxera ari naiz hango trasteak karriatzen» zioen «Pello Errotak», aitona famatuaren etxea botako duten etsipenez.

Dagoeneko, bada errotarrien eske etorri den jenderik. Etxe atariko hor-

man dagoen Pello Errotaren oroitarria nora eraman da familiaren kezkarik haundiena. «Hemen jaio eta hil zen Pello Errota» jartzen duen oroitarria jaiotetxean bakarrik egon baidaiteke.

Bertsolari eta errotari famatuaren jaiotetxea industrigintzaren amorruak botako du lurrera, euskal kulturaren sustraiaren errukirik gabe.

1965ko uztailaren hamaikan berebiziko omenaldia eskaini zitzaion Pello Errotari Asteasun. Basarri, Ondartza, Uztapide, Arozamena, Mitxelena, Lazkao-Txiki, Agirre, Lizaso eta Lasarte bertsolariak hartu zuten parte. Herriko plazan Peloren irudia ipini zen; jaiotetxean, berriz, oroitarria.

### Zutik eutsi behar zaio

Handik 13 urtetara Asteasuko Udaltehea Pello Errotaren etxea botatzen uzteko prest dago. «Non dira alkatea eta herrigizonak?» galdetzen dute Asteasun.

«Hamaika jenderi erakutsi diot aitona zenaren etxea. Ameriketatik ere etorri izan da bat baino gehiago Pello Errotaren etxea ikustera. Premia gehiago gabe etxe hori botatzeak negar egiteko go-goa ematen dit. Eta guk ezin ezer egin» dio «Ondartzak», Mikela Elizegi, Pello Errotaren alabaren semeak...».





*El Diario Vasco* egunkarian ere, 1978-ko maiatzaren 4-ean, onako izenburu au zeukan idazlana agertu zan, Santiago Aizarnak izenpetuta: «Pello Errota'ren etxea botzera omen dijoazte».

Onela asten zan: «Asteasu aldean, Pello Errota'ren etxea botzea dijoazte-la-ta, gogora ekarri digute bertsolari jator onen izena eta izaera...».

Idazlana Pelloren bizitzaren eta izaeraren laburpen batekin osatua zegoan. Baiña izenburuan zeukan idazlan orrek bere indar guztia: «Pello Errota-ren etxea botatzera zijoazela».



Andik iru egunera, 1978-ko maiatzaren 7-an, beste idazlan bat agertu zan erderaz egunkari berean, Jose Maria Goñik firmatuta eta izenburu onekin: «Su último morador, el nieto de «Pello Errota». Desaparece el caserío donde nació y murió el famoso «bertsolari» de Asteasu».

Onela zion:

*«Hace unos días, nuestro compañero Santiago Aizarna anunciaba el próximo derribo del caserío donde nació y murió Pedro EliceGUI, es decir, el que fue famoso «bertsolari» de Asteasu, conocido por «Pello Errota», cuya semblanza ofrecía Aizarna en su claro y fluido euskera.*


*Antes que «el hecho sea consumado», he querido conocer este caserío que tiene sus horas más o menos contadas. Ayer realicé la visita al mismo. Entrando por Villabona, a un kilómetro aproxima-*

*damente del casco urbano de Asteasu, se encuentra el todavía bien conservado edificio junto a la regata Usarrobi, que nace en el cercano Ernio, aunque quizá sea más apropiado decir que está situado prácticamente sobre la propia regata. Ubicación lógica en este caso, puesto que el caserío –su nombre euskérico de Goko-errota lo indica– fue construido como molino allá por el siglo XVIII.*

*El edificio, de dos plantas y desván, parece bien cuidado. No hace falta preguntar a nadie para saber que en él transcurrió la «etapa terrenal» del genial bardo guipuzcoano, puesto que en la fachada principal, una lápida con texto euskérico lo confirma. En ella se lee «Pedro EliceGUI Maiz, «Pello Errota», etxe ontan jaio ta il zan: 23-12-1840 – 3-2-1919». Debajo de estas fechas, clave para todo ser humano –nacimiento y muerte–, figura reproducido el que se considera el último «bertso» cantado públicamente por Pello Errota:*

Ara zer esaten dedan  
aizken-aizkenian,  
zer egin bear dezuten  
iltzen naizenian:  
Aita Gure bana esan  
nere izenian,  
zerura joan nedin  
zuzen-zuzenian.

*También estas mismas estrofas se hallan reproducidas bajo el busto de Pello Errota, colocado en la Plaza de Asteasu, junto al frontón. Tanto el busto como las dos lápidas materializan el homenaje que Asteasu tributó a su famoso «bertsolari» el día 11 de julio de 1965, por iniciativa del Ayuntamiento de la villa.*



Goiko-errotta, Asteasu, Pello Errotta jaio ta il zan etxea. (A. Z.-ren argazkia).

## **Derribo por zona industrial**

Los actuales y últimos moradores de «Goico-Errota» son un nieto de Pello Errota, que precisamente tiene el mismo nombre y apellido de su popular «aitona», pues se llama Pedro Elícegui, y su esposa Milagros Azpiazu. Un matrimonio amabilísimo que me recibió y atendió con la mayor simpatía.

En «Goico-Errota» han nacido también este Pedro Elícegui –su mujer es de Asteasu– y los cuatro hijos del matrimonio, el cual vive solo desde hace unos años, ya que los hijos están casados y tienen sus propios hogares.

Me cuenta el matrimonio que el motivo de la desaparición del caserío-molino es que se encuentra en terrenos que en su día quedaron declarados como zona industrial. Efectivamente, pude comprobar que en las cercanías se hallan construidos ya varios grandes pabellones».

–Nuestra familia –indicaba Pedro Elícegui– siempre ha tenido el caserío en renta. Su propietario, un abogado de San Sebastián, vendió los terrenos destinados a zona industrial, y hace ya cuatro años que nos indemnizó por dejar la casa.

–Les dolerá el tener que abandonar «Goiko-Errota».

–A lo largo de estos años nos hemos ido haciendo a la idea de marcharnos, y ya no le damos vueltas a eso. Nos vamos dentro de unos pocos días a un piso que tenemos dentro del mismo pueblo. Con todo, nos costará olvidarnos de esta casa que durante tantos años ha sido de la familia. Ya la visitaremos en más de una ocasión, pues todavía es posible que tarde en derribarse. De todas maneras, si,

por lo que sea, no se derribase, no dejaríamos que otros la ocupasen.

Pedro Elícegui me enseñó la parte baja del edificio, la situada encima de la regata, donde se encuentran las grandes piedras circulares del molino, mientras comentaba:

–¡Cuántos kilos y kilos habrán molido estas piedras! Ya han salido buenas, ya. En la familia todos hemos sido molineros. Por eso al abuelo le llamaban Pello Errota (Pedro Molinero). También yo, hasta el final del año pasado, en que tuve que dejar este trabajo por problemas de salud. Y es que ya voy para los 66 años...

Las piedras no van a perderse, no desaparecerán. Aunque no sean utilizadas más en su función específica de moler, para lo que fueron labradas, servirán como motivo ornamental, conservadas por una entidad bancaria y por un particular, según me indicó Pedro Elícegui.

## **Gran admirador de Pello Errota**

Pedro Elícegui no oculta la gran admiración que siente por su abuelo Pello Errota.

–Cuando murió yo tenía siete años. Le quería mucho y le acompañaba en sus paseos por las cercanías. Estaba ya muy torpe. Constantemente se le caía el bastón y yo se lo recogía. Me acuerdo todavía cuando se sentaba al borde del camino y canturreaba «bertsos» que iba improvisando sobre la marcha. Yo también tuve afición cuando era joven. Pero no me «salían» y opté por dejarlo...

El «progreso industrial» tiene exigencias, impone «derechos». El es causa de

*que –como tantos otros caseríos guipuzcoanos– desaparezca ahora «Goico-Errota» de Asteasu, donde nació y mu-*

*rió Pello Errota, uno de los más grandes bardos populares surgidos en nuestro país...»*

**PELLO ERROTAREN ITZALA  
(SENIDE ETA ONDORENGOAK)**

# Sabina Elizegi Maiz (Pello Errotaren arreba) (1842 - 1932)

## BIZITZA

Asteasun jaio zan, 1842'ko urriaren 27-an, goizeko bostetan, Goiko-errotan, Pello Errota jaio zan etxe edo errota berean alegia<sup>1</sup>.

Senideetan irugarrena zan, Pelloren urrena jaioa.

Pello ezkondu ondoren, famili guztia Oiartzuna, Zuloagako errotara, joan zan bizi izatera. Arrezkero, Oiartzunen egin zuan Sabinak bere denbora guztia.

Luis Inazio Beristain-ekin ezkondu zan. Au Ugaldetxoko Katalintxo base-rriko maiorazkoa zan, da bertan bizitu ziran biak ere eriotza arte. Gizona 1927 urtean il zan, larogei ta lau urterekin; ta Sabina, berriz, 1932-ko otsaillaren 29-an, arratsaldeko lauretan, larogei ta bederatzi urterekin, zardadea beste gaitzik gabe<sup>2</sup>.

1. «El día veinte y siete de Octubre de mil ochocientos cuarenta y dos a las cinco de la mañana nació, y dicho día fue bautizada por mi el infraescrito Rector de la Parroquial de la Villa de Asteasu Teresa Savina hija legítima de Jose Santiago de Elicegui natural de Larraul, y Josefa Ramona de Maiz natural de Soravilla: Abuelos Paternos Gabriel de Elicegui y Maria

*Josefa de Aguinagalde naturales de Larraul: Maternos Pedro de Maiz natural de Arbizu en Navarra, y Teresa Antonia de Urreztarazu natural de Ataun: Siendo Padrinos Juan Ign. de Elicegui natural y residente de Larraul y la Abuela Materna Vecina de Aduna, a quienes adverti el parentesco espiritual, y la obligacion de enseñar la Doctrina Cristiana. Y para que conste firmé: Dn. Manuel de Usabiaga».* (Asteasuko laugarren bataio-liburuan, 192 orrialdean.)

2. «En el Valle de Oyarzun, provincia de Guipúzcoa, diócesis de Vitoria, a primero de Marzo de mil novecientos treinta y dos, yo el infraescrito Cura Ecónomo de la iglesia parroquial de San Esteban Protomártir, mandé dar sepultura eclesiastica al cadáver de D.<sup>o</sup> Teresa Sabina Elicegui y Maiz, hija de D. José Santiago y de D.<sup>o</sup> Josefa Ramona, natural de Asteasu, de ochenta y nueve años de edad. Falleció, segun certificación facultativa, a las cuatro de la tarde del día de ayer en el caserío Catalincho a consecuencia de debilidad senil. En el acto del fallecimiento se hallaba viuda de D. Luis Ignacio Beristain, natural de este Valle. Recibió los Santos Sacramentos de la Penitencia, Sagrado Viático y Extrema-Unción, administrados por el Presbítero D. José Luis Lecuona. No consta que haya otorgado testamento. Se le hizo el oficio de sepultura, y ha sido inhumado este día en el cementerio de este Valle en presencia de los testigos Dn. Miguel Elicegui y D. José Recalde, de esta vecindad. En fe de lo cual lo firmo, fecha ut supra. Lic. Jose Joaquin Uranga». (Oiartzungo amazzipgarren eriotz-liburuan, 122 orrialdean.)

## SABINAREN SEME-ALABAK

Sabinak iru seme ta alaba bat izan zituan: Luis Mari, Jose Manuel, Pedro (Periko), ta Manuela Josefa.

☆ ☆ ☆

Zarrena, Luis Mari, sorora sokil austera joaten zirala, zerura begira kolperik jo gabe egoten zan. Aitak ala esaten zion:

–Sokilla jo zak!

Ta semeak:

–Aita, uste al du, berori bezela, sokil jotzen arituko naizela ni? Beste bide bat eramango det nik, bai!

Ala, Donostira kafe-pintxe joan zan, amairu urterekin. Gero, soldaduskara ez joateagatik, Frantzira desertore, lenengo Burdeosa, ta andik Parisa, dana oñez. Iru lagun omen ziran: Luis Mari au, italiano bat ta bestea beste nazio batekoa. Arbol gañetara igota pasatzen zuten gaua. Luis Mari orrek bere izena ta seña makillan jarriak zituan, zerbait gertatuta ere, nor zan jakin zezaten.

Paristik Ameriketara pasatu zan, Buenos Airesa. Emen oteletan lan egin zuan.

Bi aldiz etorri zan Ameriketatik, lenengoan, Endaiaraño, soldaduskako denbora bukatu gabea zualako ta Espa-

ñian sartzerik etzeukalako. Etxekoak ara joan zitzaizkan. Bigarrenean, etxera etorri zan bere andrearekin. Ameriketazkondua zan.

1962 urte inguruan Ameriketazkan zan.

☆ ☆ ☆

Bigarren semea, Jose Manuel, As-teasara Pello Errotaren semearen eztaietara joan, da an buruko atakea (*meningitis*) izan zuan, da bertan il zan.

☆ ☆ ☆

Irugarrena, Pedro, Pello Errotaren besoetakoa zan. Periko esaten zioten.

Oiartzunen ezkondu zan, bañan anai zarrenak Ameriketara eraman zuan. Zapateroa, barberoa ta igeltseroa zan. Etzan iñoiz etorri. 1965 urte inguruan il zan.

☆ ☆ ☆

Alaba, Manuela Josefa, Katalintxon jaio, jaiotetxera ezkondu, bertan bizi ta bertan il zan.

Onen alargunari ta seme-alabai zor dizkiegu emengo argibiderik geien-geienak.

## SABINAREN ATERALDIAK

Sabinak dan-dana bertsoan erantzuten omen zuan. Edozer gauza esan, da arek, *daka!*, bertsoan erantzuna. Ezagutu zuten guztiak diotenez, gizase-mea izan balitz bertsolaria izango zan, Pello bere anaia bezelaxe.

Aren erantzun da ateraldiak oso xelebre ta aguroak izaten omen ziran. Ona emen bildu ditugunak.

☆ ☆ ☆

Sabinaren seme batek, Periko zeritzanak, arte pixka bat bazuan pintatzen, da pronostikuaren gañeko azaleko Mariano Castillo-ren erretratua etxeko paretan pintatu zuan, ta berdiñ-berdiña pintatu ere.

Errenteriko kastillanoak ura ikusi ta ola esaten zuten:

–*¡Anda! ¡La cara de Mariano Castillo!*

Garai artan Katalintxon sagardotegia izaten zan, da bein batez mutil batzuk edatera etorri ta ola esan zuten:

–Ara Mariano Castillo emen pintatua!

Sabinak aditu ta leiotik bertsoa bota zien, bere semeak pintatua zala esanez.

Orduan, gazte aietako batek, emakume batek bertsoa botatzearekin arri-tuta, onela esan zuan:

–Amona, egin da krik?

Ta Sabinak:

–Nik ez, baña ik!

Sagardo-tokitik orduan atereak baitziran<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Mutil gazteak bazekiten dana bertsoan erantzuten zuala, ta toreatzeagatik onela esaten zioten:

–Aio, atsua!

Ta Sabinak:

–Ni ez nak atsua, demonio paltsua<sup>2</sup>.

☆ ☆ ☆

Katalintxo baserriak aurreko aldeko paretan matsa zuan, ta bein batez gizon bat, sagardotegira etorri ta matsa elduta ikusi zuanean, jaten asi zan.

Bañan Sabinak etxe barrendik matsadarren soñua aditu zuan, da ala esan zuan:

–Zein dabil or?

Ta gizonak:

–Ixo, amona, ixo! Ortzak gozatzeko diña!

Ta Sabinak:



–Zer ortzak eta zer agiñak!

☆ ☆ ☆

Aixa jaten dituk ik bestek egiñak!<sup>3</sup>

☆ ☆ ☆

Sabinak gaztetan mutil bat nobio izana omen zuan, bañan gero tratabi-deari utzi egin zioten.

Andik urte batzuetara, biak ere ez-konduak ziralarik, nobio izandako ori ta beste batzuk bidea konpontzen ari ziran Katalintxo inguruan, da Sabina andik pasatzea suertatu zan.

Ola esan zuan Sabinak:

–Auxe da lur ederra!

Ta nobio izandako arek erantzun zion:

–Artu ta eraman zazu bizkarrean!

Ta Sabinak:

–Bai; nik naiko lurra bazeukat esku-bian da ezkerrean!<sup>4</sup>

Nik baño obe artu al uan bazte-rrean?<sup>5</sup>

☆ ☆ ☆

Garai artan,azienda peri aundia egiten zan Oartzunen astelenetan. Sabina gaztain erreak saltzen ibiltzen zan. Sosean amar gaztain ematen zituan.

Alabak onela esaten zion:

–Etxaldeko etxeoandreak gaztain erreak saltzen lotsa ematen du.

Ta amak:

–Bai; sos batzuk artu gabe egongo gaitun!

Alperrik zan ari esatea<sup>6</sup>.

Bein batez, gaztañak erosi ondoren, onela esan zion gizon gazte batek:

–Amona, bat ustela!

Ta Sabinak:

–Fiña izango uan bestela, demonio pastela!<sup>7</sup>

☆ ☆ ☆

Garai artan, Errenterin, tratua eramateagatik diru pixka bat eskatzen zuten. Pagatu ta txartel bat eman. Oartzunen, berriz, etzuten ezer kobratzen.

Oartzunen karabineroak izaten ziran, da auek ere bazekiten nunbait Sabina zer zan, da egun batez, fruta saltzera zetorrela ikusirik, onela esan zioten tentatzeagatik:

–*Sabina, venga dinero.*

Ta onek:

–*Papel primero, carabinero*<sup>8</sup>.

☆ ☆ ☆

Sabinak, San Estebanetan, Oartzungo festetan alegia, ur preskoa boladuakin saltzen zuan. *Eskofa* esaten zitzaion orri.

Maitxo bat ipintzen zuan, da aren gañean ur preskoaren ontzia ta basoak eukitzen zituan. Bera, berriz, beso-murretan manga txuriak jantzi, ta buruan zapi beltz bat apain-apain jarrita egoten zan. Bostna xentimoan ematen zuan baso ura eskofarekin.

Ala, egun batez, gizaseme batzuk baso ur preskoa edatera urreratu zitzaizkan, eta aietako batek onela esan zion:

–Zu onera etorri al zera testigu?

Ta Sabinak:

–Zu emen izanagatik inportik ezti-gu!<sup>9</sup>

☆ ☆ ☆

Ezagutzen nuén nik Sabina. San Estebanetan ura eta boladuak saltzen zituán; *esponja* esaten genion guk. Batean, joan nintzan, ni artean umea, eta esan nion:

–Sabina, emango al didazu *esponja* bat?

–Bai. Emango dizut, eta ura ere bai.

–Nik ez dut urik nai, noiznai edaten dut eta. Nik goxo ori nai dut.

–Umea, umea, bi xox balio ditu.

–Bueno, tori bi xox.

–Ez duzu eman bearrikan.

Etzizkidan artu!<sup>10</sup>

☆ ☆ ☆

Elurra ari zuen batean, onela esaten somatu zuten:

–Au elurra! Au elurra! Bazegoen beldurra!<sup>11</sup>

☆ ☆ ☆

Egun batez, Sabina astoarekin zi-joala, astoa bide bazterreko belarrak ja-

ten asi zan. Sabina, berriz, sokatik tiraka. Bañan astoak ez ibilli nai. Ala zeudela, Goizuetako amona bat mando baten gañean andik egokitu, ta onela esan zion Sabinari:

–Gaiztoa al da, amona, gaiztoa?

Ta Sabinak:

–Bai. Ez baitabil gustoa!<sup>12</sup>

☆ ☆ ☆

Egun batez, txartela billa joan zan eta bikario jaunak onela esan zuan, ize-  
nez deitzen ziola:

–Sabina Elizegi Maiz.

Ta onek:

–Bai, jauna. Amaren aldetik ala naiz!<sup>13</sup>

☆ ☆ ☆

Bein batean, *Moro* izeneko txakur bat ikusi ta onela esan zion:

–*Moro*, gaztetuko aiz gero!

Ta urrena:

–*Moro* zartu!

Pazientziya artu!<sup>14</sup>

☆ ☆ ☆

Pelegrinazio guztiak jiratzen zituan arek. Batean, joan omen ziran Zaragozara, ta an dirua ez gastatzeagatik zer egingo zuan, da elizan gaua pasatzen geratu.

Apaizak joan da ala esan zion:

–Sabina, emen? Fonda, fonda!

Ta Sabinak:

–Fonda? Dirua non da?

Apaizak esan omen zuan:

–Ez dik balio orri deus esateak!<sup>15</sup>

☆ ☆ ☆

Sotero zan argia kobratzen ibiltzen zana. Ezbearren bat gertatu zan Konpañian, eta beste lan-klase bat artu bearra izan zuan. Ta, azkeneko aldiz Katalintxora etorri zanean, ala esan zion Sabinari:

–Bueno, amona: ez naiz geiago etorriko argia kobratzera.

Ta Sabinak onela erantzun zion:

–A, Sotero, Sotero!

Ez dek olako portunik arrapatuko atero!

Oraindik ikusi biat ire bisera ta guzti Satanasen portero!<sup>16</sup>

☆ ☆ ☆

Katalintxo inguruan kamioa egiten ari ziran, da enkargatuak andregai egin zuan auzoko neska bat, Maria Oria zeri-zana. Mutil arek uste zuan iñork etzekiala, bañan Sabina jakiñaren gañean zegoan.

Ala, egun batez, enkargatu orrek onela esan zion Sabinari, toriatzeagatik:

–Amona, andregai billatuko al nazu?

Ta Sabinak:

–Bai, bai. Billatuko ez diat ba?

Antxe zioztek Joantxenen Joakina [ta Maria, ez alare nolanaiko ollanda paria; eta aiek biak baño obia, Olazarren Maria Oria!<sup>17</sup>

☆ ☆ ☆

Larogei ta lau urtetan, tratu-xestua eramanez zazpietako meza entzutera ta Jauna artzera zijoala, argirik gabe zetorren bizikletako batek jo ta lurrera bota zuan.

Sabina ai-ai-aika lurrean gelditu zan, eskumuturra autsita. Bañan bizikleta-koak iges egin zuan.

Urrena andik pasa zanak, amona orrela ikusita, galdetu zion:

–Zer egin zaituzte, Sabina?

Ta onek:

–Zer egin nauten? ¡Por Dios! Jo ta bota ta adios!

Baña bere eskumutur autsiarekin elizara joan zan, eta meza entzunda eta Jauna artuta etorri zan etxera<sup>18</sup>.

☆ ☆ ☆

Len esan degun bezela, semeak Ameriketara zituana. Bañan bat, Luis Mari, bi aldiz etorria; ta bestea, Periko, iñoiz ere etorri gabea.

Ala, oian ia illean zegoala, itz auek esaten somatu zuten bein batean:

–Ai, Periko,  
nerekiko,  
ni ilko,  
ta ni ikustera zu ez etorriko!<sup>19</sup>

☆ ☆ ☆

Iltzeko zegoan egun aietan, etxearen izenagatik *Arotxa* esaten zioten gizon bat, bisitatzera etorri zitzaion, onela esanez:

–Amona bisitatu bear dugu zer moduz dagoen.

Sartu zan Sabina zegoen gelara ta esan zion:

–Zer moduz, Sabina?

Ta onek:

–Ementxe, ementxe! Il egin bear nik!

Arotxak:

–A, zer nai du, ba? Koniflora buruzuria bezela azitarako emen gelditzea?

Ta Sabinak:

–Ez, motell, ez! Ez det nai azitarako emen gelditzea.

Txanda, txanda,

Jaungoikoak emanda!  
Mundu ontan betiko izaten lan da!  
Ezin egingo zioagu gauz oni demanta-  
[da!<sup>20</sup>

1. Sabinaren ondorengoak, Katalintxo, Ugal-detxo, Oiartzun.

2. Id.

3. Id.

4. Katalintxok eskubi ta ezker naiko terrenoa baitzeukan.

5. Sabinaren ondorengoak, Katalintxo, Ugal-detxo, Oiartzun.

6. Mikela Elizegi, Pello Errotaren alaba.

7. Sabinaren ondorengoak, Katalintxo, Ugal-detxo, Oiartzun.

8. Id.

9. Migel Apeztegia apaiz jauna, oiartzuarra jaiotzez, Tolosan bizi izan zana.

10. Jose Luis Lekuona *Lexoti* bertsolariaren izeba Maurixi, Aierdi, Oiartzun.

11. Ines Berasategi, Berinberri, Oiartzun.

12. Sabinaren ondorengoak, Katalintxo, Ugal-detxo, Oiartzun.

13. Id.

14. Antonia Kortajarena, Pello Errotaren alaba Mikelaren alaba.

15. Mikela Elizegi, Pello Errotaren alaba.

16. Sabinaren ondorengoak, Katalintxo, Ugal-detxo, Oiartzun.

17. Id.

18. Id.

19. Id.

20. Id.

# Juan Krutz Elizegi Maiz (Pello Errotaren anaia) (1851 – 1902)

## BIZITZA

Asteasun jaio zan, 1851-ko ilbeltza-  
ren 27-an, gaueko amar ta erdietan, Pe-  
llo, Sabina ta bere anai-arreba guztiak  
jaio ziran errota berean, Goikoerrotan  
alegia. Senideetan zazpigarrena ta az-  
kena izan zan<sup>1</sup>.

Oiartzunen, Zuloagako errotan,  
egin zuan bere denborarik geiena.

Gerratean karlistetan ibilli zan.

Andrea naparra izan zuan: Maria  
Juana Baraibar Ostiz, Etxalekun jaioa.

Sei seme-alaba izan zituzten: Inazio  
Mari, 1880-VII-2-an jaioa ta urtebetere-  
kin illa; Juana Josefa Martina, 1883-  
VIII-21-ean jaioa ta orain zenbait urte  
Erreterin illa; Manuel Esteban, 1884-  
XII-29-an jaioa, Montevideora joan da  
bertan illa; Lukasia, 1886-X-14-ean  
jaioa, bertsolaria bera ere, liburu ontan  
bertan adieraziko dan bezela; Maria Sa-  
bina, 1888-IX-30-ean jaioa, Montevi-  
deon bizia, andik etorri ta erderaz ango  
tonuarekin da euskeraz Oiartzungoare-  
kin ederki egiten zuana, ta aitak kartze-  
lan jarritako bertsoak oraindik ere kan-  
tatzen zituana; ta Joakina, senideetan  
gazteena, 1891-VII-20-an jaioa<sup>2</sup>.

Bere anaia Pello Errota ainbat ez,  
bañan bertsotan erriz-erri maiz xamar  
ibiltzen zan. Alakoetan, saririk bazan,  
bere anai Pello, Udarregi edo Jose Ber-  
nardo Otañoren urrena gelditu oi zan  
beti.

Zuloagako errotan il zan, 1902-ko  
abuztuaren 14-ean, goizeko ordubietan,  
bularretik (*tuberculosis*) gaixotuta, be-  
rrogei ta amabi urterekin.

1. «*El día veinte y siete de Enero de mil ocho-  
cientos cincuenta y uno a las diez y media de la noche  
nacio y el día siguiente fue bautizado por el infraescri-  
to Rector de la Parroquia de Asteasu Juan Cruz hijo  
legítimo de Jose Santiago de EliceGUI natural de Lar-  
raul, y Josefa Ramona de Maiz natural de Soravilla.  
Abuelos Paternos Gabriel de EliceGUI, y Maria Josefa  
de Aguinálde naturales de Larraul: Maternos Pedro  
de Maiz natural de Arbizu en Navarra, y Teresa  
Antonia de Urrestarazu natural de Ataun: Siendo  
Padrinos Pedro Jose de EliceGUI natural y residente  
de Larraul, y Maria Cruz de Maiz natural de Aduna  
y residente en Sn. Sebastian, a quienes adverti el  
parentesco espiritual y la obligacion de instruirle en  
Doctrina Cristiana. Y para que conste firmé: Dn.  
Manuel de Usabiaga*». (Asteasuko laugarren bataio-  
liburuan, 269 orrialdean.)

2. Oiartzungo bataio-libuructatik artutako argi-  
bideak.

## «EPERRA»

Atal au Pello Errotaren alaba Mike-lari zor diogu. Ona emen itzez-itzez berak esan zizkigunak:

«Gure aitona ta osaba-izebak Oiar-tzunen bizi ziran. Josten nik Astiasun ikasi nuan. Bañan arrezkero, izebetara joanda, bi illabete, illabete edo amabost egun jakiñak nituan, ango arropak jos-ten.

Agure zar bat bazan orduan Oiar-tzunen, *Eperra* esaten ziotena. Bada-kit nik aren etxea nun zan: Ergoindik aurrera, Lesakara ez dakit andik joaten dan, bañan andikan aurrera joan da Na-parroako mugan, mikeleteak egoten zi-ran mendi artan, da andik onuntzago Eperraren etxe ori, etxe zar aundi bat. «Eperran etxea» besterik ez genion guk esaten. Bañan oraindik kristaurik alle-gatu ez dan bezelako tokia zan ura. Ta nausia ere mendi artako modukoa.

Kantari aritzen zan. Alabak ere ba-zituan.

Eperraren kontu asko esaten ziran Oiar-tzunen. Onezkero larogei urte ba-ño geiago aditu nituala.

Usario txarra zegoan an gure gazte-denboran, iñun egundaño aditu ez de-dana, eta eztakit orain izango dan.

Mutil-jendea kuadrillan bildu ta «Neskatxetara joan bear diagu». Joan, leioa jo ta neskatxak iriki. Alako moda zan.

Gau batean joan omen ziran Eperra-ren etxe zar artara ere. Igo omen ziran atso-agureak zeuden leiora. Leiotilla omen zan.

Akordatu zan andrea leioa jotzen zutela, ta gizonari ala esan omen zion:

–Ni lo nago, Manu.

Alegia, bera lo zegoala, jeiki ta leioan zein zebillen ikusteko. Ta atsoari agureak:

–Baita ni ere, Gabriela.

Mutillak aditu ta:

–Aizak, aizak: aditu al duk? Epe-rraeneko atso-agureak lotan itzegiten ditek!

Aiek parrak!

Alaba aundi bat ere bazuan. Aitaren gisako bat zan. Pentsatu: kastillano bat bein etorri gabeko ostatu eske; mendi artan ikaratu ezetz esaten, ta etxera suia artu zuten ura; alegia, etxera ezkondu, alaba arekin, eskera etorritako gizon ura.

Bazuan beste alaba bat ere, ta au urte askoan gaixorik zegoan. Gaizkiñak norbaitek sartu zizkala esaten zuten. Alegia, alako neskatxa ederra zala ta gero beti gaizki. Ura sendatzearren, iñundikan ere egiñalak egiten ibilli zi-ran, bañan iñork etzuan sendatzen. Me-dikurik etzala ta santutara ta santatara; eta azkenean eztakit nora, praile zar ba-



Zuloagako errota, Oiartzun. (A. Z.-ren argazkia)

tengana eraman omen zuan aitak neskatxa ura, ta praile zar arek ala esan omen zion:

–Jakara –*ciudad de Jaca* izango da– eraman zazute neskatxa au San Juan egunean. Egun ortan prozesioa izaten da; ta, prozesioa kanpoan dabillen bitartean, ondo erreparatu neskatxa oni.

Erri guztian limosna bilduta eraman omen zuten. Ta prozesio denboran zomorro beltz-beltz batzuk atera omen zitzaizkion anketako beatzetatik. Ta orduan sendatu. Ala esaten zuten.

Eperra, oso ona ez, bañan sagardotegietan-eta bertsoan aritzen zana zan. Gure osaba Juan Krutz, errotaria, artean ezkongai zegoan da egun batean onela bota zion Eperrak gure osaba orri:

Neskatxa gazte balientiak  
Maria eta Kontxezi,  
errotaria kortejatzen  
etzan alperrikan asi;  
gau eta egun beti ibilli,  
jendiak berriz ikasi,  
uso paloma gazte gaxuak  
egin ziyoten igesi.

Osabak erantzungo zion noski, bañan arenik eztakit».

Oneraño Mikelaren itzak. Berak adierazten duanez, Eperra au (1825-1906) bertsolaria izan zan. Aren bertsoak *Auspoa*-ren 116-garren zenbakian argitaratu genituan.



## EPERRAREKIN BERTSOTAN

Gertaera ta bertso auk Errenteriko Pello Zabaleta bertsolariari jaso genizkion:

«Juan Krutz, Pello Errotaren anaiak eta Eperrak bertso auk bota zizkaten egun batean alkarri. Juan Krutz artean ezkongai zegoen garaia zan, eta andre-gai billa ibilliko zan nunbait. Eperrak, berriz, Ameriketan egona izan bear zuen. Nik nere aita zanari ikasiak ditut.

Juan Krutzek:

Amerikatik buelta eginda  
onuntzian Burdeoson,  
Eperragandik ango fondetan  
propiña ederrik joan zen;  
etxera etorri, sillan exeri,  
eztu dirurik azaltzen,  
jango bazuen aizkora artuta  
ikatzkitera joan zen.

Eperrak:

Errotaria asi omen da  
agure zarrak mendratzen,  
diruan galik ez daukat bañan  
badakit itzez pagatzen;  
oriek orla baldin badira  
egiñik ez det ukatzen,  
lau probintziyak jira ta alare  
andrerik ez dek topatzen.

Juan Krutzek:

Lau probintziyak jira ta alare  
andrerik ez da neretzat,  
nunbait e berak desiako nau  
sui izatia beretzat;  
orren alaba zarrena ori  
neri asko gustatzen zat,  
orpuak eta gerri-aldiak  
lirañak zeduzkak beintzat.

Eperrak:

Neskatxa eder paregabiak  
Maria eta Kontxezi,  
oik kortejatzen errotaria  
etzuen oraintxen asi;  
ustez disimuluan ibilli,  
gero jendiak ikasi,  
uso politik eskuetatik  
aixa joan zaizka igesi<sup>1</sup>.

Bein batean usotara joan giñan Na-parroara, Santestebanera. Taberna batean sartu ta agure xar bat ikusi genduen, sukalde zokoan exerita. Gure kuadrillan oiartzuar bat zetorren, eta arek ezagutu ta esan zigun:

–Aizue: Eper zarra dek ori!



Ta nik bertso oiek banekizkin eta lenengoa bota nion. Ura bakarra kantatu nion. Etzan geiagorako denborik izan. Ordurako larogei urtekoa zalarik ere, sukala zokotik altxa ta makillarekin ni jo bearrez asi zan. Bertso ura iñork zekianik arek uste ez, ta kolpean entzundakoan izugarri asarretu».

Lenengo bertsoa Azkuek ere bada-  
kar bere *Cancionero Popular Vasco* bil-  
duman, 477 zenbakian, doiñu ta letra  
ekarri ere, Lesakako Sebastiana Mitxe-  
lenari jasota:

A - me - ri - ka - tik I - tzu - li e - ta o - nun - tze - an Bur - de - o - sen;

an - go os - ta - tue - tan e - pe - rrengatik es - ku - pe - ko o - nik e - man zen.

An - dik i - txer - a e - to - rri e - ta di - ru - rik e - tzen a - ger - tzen;

yan - go ba - zu - en aiz - ko - ra ar - tu - ta las - ter sa - si - ra yo - an zen.

Amerikatik buelta eginda  
onuntzean Burdeosén,  
ango fondetan eperrengandik  
propina ederrik omen zen.  
Andik itxera etorri eta  
dirurik etzen agertzen,  
yango bazuen, aizkora artuta  
laster sasira yoan zen.

Urrena, onen segidan, beste bertso  
au jartzen du Azkuek:

Belaunak pisu, ertzeak zimur,  
begietako tristura,  
zer deabrutako yoan zinaden  
goiko mendian kaskura?  
Osasunaren konserbatzeko,  
gorputzarentzat freskura,  
bazter guziak iretsi eta  
liberal oien eskura!

Azkuek «eperrengandik» minusku-  
laz idazten du. Etzuan jakingo emen  
egaztia ez, bañan izengoitia zala.

Eperrak liberalen alde –bera ere ala  
baitzan– moldatutako sail baten lauga-

rren bertsoa da au. Ikus: *Auspoa* 116,  
29 orrialdean.

Lenengo bertsoa Aita Donostik ere  
doñu ta letra dakar, bere *Euskel eres*  
*sorta* bilduman, 310 zenbakian:

☆ ☆ ☆



A - me - ri - ka - tik buel - ta e - gin ta on - tze - an Bur - de -  
o - sen an - go fon - de - tan e - pe - rren - gan - dik pro - pi - na e - de - rrik o - men  
zen: an - dik e - txe - ra e - to - rri e - ta di - ru - ri - kan ez o - men  
zen jan - go bai - zu - en aiz - ko - ra ar - tu - ta las - ter sa - si - ra ju - an zen.

Ameriketetik buelta eginta  
ontzean Burdeos<sup>2</sup>,  
ango fondetan eperrengandik  
propina ederrik omen zen;  
andik etxera etorri eta  
dirurikan ez omen zen,  
jango baizuen aizkora artuta<sup>3</sup>  
laxter sasira juan zen.

Motibotxo bat eman didate  
bertso berriyak jartzeko,  
Eperra bera bastante degu  
bazter guziyak nasteko.  
Ez da beldurtzen koleratuta  
iñork ezurrak austeko...  
Etorkizunan berri jakin-ta  
zertan joan ziñan eskapo?

☆ ☆ ☆

☆ ☆ ☆

Nori jaso genion kontuan artu ez  
genduan bertso au ere Juan Krutz Elize-  
gik Eperrari kantatua edo moldatua  
omen da:

Oiartzungo Lexoti bertsolariaren  
izeba Maurixik onela esan zigun:

«Zuloaga errotako Juan Krutz ori  
luze plako bat zen.

Bein batez, beste bertsolari batek  
bertso zu kantatu zion:

Sartu ziran Belendran  
zagoen lekua,  
gurdi ederra zaukan,  
bei pare majua;

itzaia're etzagon  
bizi-ro plakua,  
karlistetan sanjento  
ibillitakua».

Sar - tu zi - ran Be - len-dran za - go - en le - ku - a, gur -  
di e - de - rra zau-kan bei pa - re ma - ju - a; i - tza - ia' re e -  
tza - gon bi - zi - ro pla - ku - a, kar - lis - te - tan sar -  
jen - to i - bi - lli - ta - ku - a.

1. Bertso au len ere ezarri degu, zenbait alda-  
ketakin ordea, Pello Errotaren alaba Mikelak eman  
bezela.

2. Nabarmen dago emen *onuntzean* bear duala.
3. Emen, berriz, *bazuen* bearko luke.

(1894)

## «PRESIDIYUAN ARKITZEN GERA»

Arantzazuko liburutegian dagoan eta «Durango – Imprenta y Librería F. Elosu» moldiztegian argitara eman zan kanta-paper batean, onako bertso auk arkitu ditugu, itz-lauzko adierazpen au aurretik duala:

«Lendabiziko zortzi bertsoak Erroman izandutako batek esplikatua, eta beste seirak, kartzelan amaika lagun geundela, Juan Krutz Elizegik errematua».

- 1/ Milla zortzireun larogei eta amalaugarren urtian,  
presidiyuan arkitzen gera  
estadu pobre batian,  
umildadetik sartu gintezke  
zeruetako atian.
- 2/ Lagun maiteak, ondo esanda  
ala bear da aditu,  
argaltasuna gurekin dago,  
barrenak ezin kabitu,  
kulpa gabeko tormentu oiek  
pazientziyan sofritu.
- 3/ Pekatariyak, barkazioa  
eska zaiogun Jesusi,  
tentaziotik, al baldin bada,  
egin dezagun igesi,  
asko kostata zituelako  
gure animak erosi.
- 4/ Jesus mundura etorriya zan  
oso enpeño aundiyan,  
dudarik gabe pekatariyak  
egongo giñan premiyan,  
gugatik asko sufritu zuan  
Kalbarioko mendiyen.

- 5/ Ainbeste pena pasatu zuan  
zeru ta lurren jabiak,  
zergatik geran pekatariyak  
batere esker gabiak;  
despreziorik ez du merezi  
guziyon Redentoriak.
- 6/ Mundu onetan izan gaitezen  
bizitza animosuan,  
ill ordurako Ama Birjiñak  
artuko gaitu besuan,  
gero gloriya goza dezagun  
eternidade osuan.

Bertso aukeraren lenengo aldiz argitaratu genituanean, *Auspoa*-ren 49-50 zenbakietan, 1965 urtean, onela esaten genduan oar batean:

«Kartzelan jarri zituan, beraz, Juan Krutzek bertso aukeratu. Dudarik gabe, politikaren ixtilluren bat izango zuten. Bertso-paperak dakarzkina «lendabiziko zortzi bertsoak», Salbearen adierazpena dira. «Jaungoikoak salba zaitzala, Ama Birjiña Maria» asten dira, eta oso ezagunak dira Euskalerrri guztian, batez ere kosta aldean. Juan Krutzenak bakarrik jartzen ditugu emen».

Gure susmoa egitazkoa gertatu da. Politikak eraman zituan kartzelara Juan Krutz eta bere lagunak. Ala azaldu da Tolosako *El Cantabro* aldizkarian.

Udal auteskundeak bazetozela eta bildu egin ziran Irun aldeko karlistak, erri ontako beren Zirkuloan, 1894-eko abuztuaren 28-an, asteartearekin, zernola jokatu bear zuten alkar artzeko. Oiartzundik ere talde bat etorri zan. Ona beren izenak: Jose Antonio Irazusta Barrena, Juan Krutz Elizegi, Anjel

Urkia, Jose Isasti, Jose Nikolas Urdanpilleta, Nikolas Goiaz, Inazio Roteta, Pedro Jose Oiartzabal, Frantzisko Elizondo, Juan Jose Urdanpilleta eta Manuel Aduriz. Guztira, amaika lagun.

Itzaldiak eta abar entzun ondoren, irten aurretik, oiartzuarrak bertso batzuk kantatu zituzten.

Kaleratu ziranean, mutil koxkor batzuk an omen zeuden eta bibaka asi omen ziran Don Karlos eta Don Jaime-ren alde. Oiartzuarrak, «¡Viva los fuertes!» otsegin eta beren erri aldera artu zuten. Ekaitza eta trumoi ari omen zuan. Bidean bi taberna omen zeuden, Elitxo eta Iriso, eta aietan sartu-atera bana egin zuten.

Irungo Zirkuloaren ondoan botika bat omen zegoan, ordea. Judart abizeneko bat beraren nagusia, republikanoa eta Irungo kontzejala. Arek mutil koxkorren oiua entzun eta salatu egin omen zituan oiartzuarrak. Alkatea eta guardiazibillen tenientea aren botikara etorri eta billera artatik atera omen zan oiartzuarrak kartzeleratzeko erabakia.

Gauerdi aldera, Irundik eta Errenteritik guardiazibillen sei bikote atera ziran, teniente baten agindupean, eta Oiartzuna joan. Emen Manuel Aduriz serenoarekin topo egin zuten, bera ere Irunen izana. Ari eman zioten Iruna joandako lagun guztiak biltzeko agindua, eta etxez-etxe ibilli bear izan omen zuan.

Taldea osatu zanean, Iruna eraman zituzten danak, serenoa izan ezik, eta espetxean sartu.

Biaramonean, goizeko bederatzietan, deklarazioa artu zieten sei laguni. Beste lauei, berriz, urrengo goizean. Serenoa etorri eta ura ere giltzapean jarri zuten.

Irungo karlistak enteratu ziranean, oiak, zer jana eta bear zuten guztia eraman omen zieten.

Bitartean, Donostiko *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak –republikanoa bera– aundi xamarrak esaten zituan karlisten aurka: Don Karlosen alde oiuka aritzea, gerratean ainbeste sufritu zuan jendeari iseka egitea zala, eta barkatu ere ezin zitekeala.

Karlistak, berriz, bidegabekeri bat zala zioten: oiartzuarrak etzutela bear etzan oiurik egin; beren etxeetan jueza

ren agindurik gabe atxilotu zituztela; udal agintari batek etzeukala agindu ori emateko eskubiderik, eta are gutxiago bere erritik kanpora; guardiazibillak etzutela, beraz, beren buruak aren esanera zertan jarri; dan-dana Oiartzungo alkatearen ezjakiñean egin zala, eta abar.

Illaren 30-ean, ostegunarekin, oiartzuarrak Donostira eramanak izan ziran. Emengo karlistak ere asi ziran aiei zernai gauza eramaten. Periodista batek bazkal denboran bisitatu zituan, eta ura bankete antzekoa zala idatzi zuan.

Oiartzuarrak, otordu guztietan, aurretik maia bedeinkatu eta ondoren eskerrak ematen omen zituzten. Baita goizeko eta gaueko otoitzak egin ere.

Egun oietan jarri zituan, beraz, Juan Krutzek zortzi bertso oiek. Kantatu ere egingo zituzten amaika lagunak, Salbearen bertsoen doñu ederrarekin.

Ez dakigu zein egunetan atera ziran kartzelatik. Iraillaren 5-a baño len beintzat, *El Cántabro* aldizkariak egun ortan esaten du-ta beren etxeetara joanak zirala. Baiña amaika milla pezeta utzi bear izan zuten, *fianza* alegia. Diru asko zan ori garai artan. Ez dakigu nola bilduko zuten.

## «ERREPELA-JAINKO»

Oraingo atal au Manuel Lekuona apaiz jauna zanak idatzi ta bialdu zigun:

«Sagardotegiak orain baño ugariago izaten ziran garaian –Oiartzunen ia ateoroz izaten zirala esan oi da–, kupel berri bat asi bear zanean, «txoxperri» zanean alegia, edaleak erakartzeko bertsolariak jarri oi ziran.

Gure Juan Krutz Zuloagako errota-ko errotaria zan; bañan etxean kupelategia euki-ta, urteoro ontzi bat edo beste betetzea gustatzen zitzaion, udaberri aldean saltzeko. Eta, bera bertsolaria izan-da, etzitzaion asko kostatzen bertsolari saio bat prestatzea, txoxperri egunerako, jendearen entretenigarri ta erakargarri.

Ala pentsatu ta alaxe egin zuan urte batean.

Saio-laguna, urrutira gabe, Ergoien bertan arkitu zezakean. An zegoan Aiendola baserriko «Eperra»... Bañan «Eperra» gerratean «beltzetan» ibillia zan; eta bere bertso-saioetan «bere barrutira» jotzen zuan beti; eta errian geienak Santa Krutz apaizaren konpañietan ibilliak bait-ziran, jendeak etzitan bere gustoko «Eperraren» bertsoak.

Bañan, urrutira gabe, an zegoan baita Galtzadetako alaba Martxelina ere. Neskaxa formala; bañan kantuan oitua ere bai. Eta Juan Krutzek, neskatxaren aita bitarteko artuta, logratu zuan nola-

bait Martxelinaren baietzkoa. Eta ola, arratsalde artan Juan Krutz eta Galtzadetako Martxelina izan ziran, Zuloagako errotako balkoitikan jendetza aundi baten aurrean bertso saioa egin zutenak. Jendearen gustoko saioa.

Berrogeitamar urteren buruan oraindikan gogoan zeukan jendeak saio artako bertso bat. Juan Krutzek Errepela-Jainkori –bidez au gertatu-ta– bota ziona.

«Errepela-Jainko» eskale bat zan. Ergoendarra. Eskale ta «ziñatzalle» gañera. Eskean zebillelarik, ibilli oi zan baita ixilka-mixilka karetxak ziñatzen, eta tropesi billatzen, eta abar. Orretarako, bere errezu-moduz gañera, baze-kian zenbait belarren zumuz sendagai misteriozkoak prestatzen ere. Errezuetan asko zekiana zan: kredoa atzekoz-aurrera esaten, adibidez, eta zenbait ezkutuko formula aopean esaten... Gaxo zeuden aurtxoak xango-azpian babarrun-alez ziñatuaz *gatxagiya-gatxapiko* formula ezkutu bat ere erabiltzen omen zuan. Ez da arritzeko, beraz, sorgin-fama ere izatea askoren artean errian.

Juan Krutzek-eta beren bertso-saioa izan zuten arratsaldean, ain xuxen, an gertatu zan Errepela ere. Ergoien aldetik kale aldera zijoan, ziñatze-lanetara nunbait, senda-belarrez betetako bere «eskeko» saskitxo besotik zintzillik;



orduan izan zan Juan Krutzek bertso au  
bota ziona:

Komeriya polit bat  
esan biat emen,  
utzi gabetanikan  
geroko, lenbailen.

Errezelotan nago  
ala ote zeraden...  
Zuk partia baduzu,  
ez dakidan arren...  
Errepela, zer berri  
dago Akelarren?».

## (1895)

# BERTSO BERRIAK

Len ere esan degunez, Azpeitiko premia zala bide, asarretu egin ziran Udarregi eta Pello Errota. Alkarri bertsoak jarri ere bai. Udarregik eman zion asiera, eta Pellok erantzun. Pelloren bertso oiek irakurleari liburu ontan len eskeñita dauzkagu. Udarregik berriz jarri zituan, eta Jose Bernardo Otañok erantzun. Irugarren aldiz Udarregik jarri, eta oraingo ontan Pello Errotaren seme Miel Antonek erantzun. Semearen bertso aukerungo orrialde batean arkituko ditu irakurleak. Laugarren aldiz jarri zituan Udarregik, eta Juan Krutz Pello Errotaren anaiak erantzun zion.

Pello Errota ixildu eta semeak eta anaiak Udarregiri zergatik erantzun zioten, amabigarren bertsoak adierazten du:

Orra Pello Errota  
Amerikara juan,  
sei illabeteko ta  
milla duruan...

Pello Ameriketara nola eta zergatik joan zan, or goien ezarria degu liburu ontan.

Bigarren bertsoak garai artako Al-

tzako bi bertsolari aitatzen ditu: Artxaia ta Patxiko. *Artzai Txikia* esaten zioten lenengoari. Patxiko Arzak zan bestea. Bi bertsolari auen bizitza eta bertsoen berri ikasi nai duanak, *Alza'ko bertsolari zaarrak* izeneko liburua irakurtzea dauka, *Auspoa* liburutegiaren 76-garren zenbakian. Bi bertsolari aukerungo Udarregiren alde jarri zituzten bertsoak, Azpeitiko premia zala ta Udarregi ta Pello Errotaren artean sortu zan sesioan. Bertso aukerungo, *Auspoa*-ren 27-garren zenbakian argitaratu genituan, *Azpeitiko premiyoaren bertsoak (1893-1895)* deritzaion liburuan.

Liburu ori argitara eman genduanen, Juan Krutzen saila eskuratu gabe geunden. Alare bertso-puska batzuk ematen genituan, bertsozale baten aotik jasota.

Andik denborara arkitu genduan sail ori, Usurbilko baserri batean. Bañan papera goi aldean puskatuta dago eta zortzigarren bertsoa falta da.

Azpiko aldean ere ez dago osorik. Orregatik ez dakigu moldiztegi izenik bazuan edo ez.

Bañan ona emen, besterik gabe, Juan Krutz Pello Errotaren anaiaren bertsoak:

- 1/ Milla zortzireun da  
larogei ta amabostian,  
aurten guazen au da  
nere ustian;  
aditzera emango det  
lenengo albistian,  
jendia enteratzen da  
kausa ikustian;  
Altzako partian,  
berentzat kaltian,  
bai malamentian,  
estado fuertian;  
gai ederra daukagu  
proba gaitian.
  
- 2/ Bertsolari ederrik  
baziagok Altzan,  
Artxaia ta Patxiko  
asi dira saltsan.  
Goiarriko kuadrilla  
kapaz ez al zan?  
Probintziyan ez liteke  
oberikan izan.  
Tabernan da plazan,  
tokatzen dan gisan,  
gañera frankezan,  
aik ez daude kausan;  
lotsik ez duten oiek  
gezurrak esan.
  
- 3/ Juan Jose Alkain ori  
lenbizi asiya,  
nere iritzirako  
gauza itsusiya;  
esperientzi ederra  
nago ikusiya,  
eman bear niyoke  
onra mereziya;  
orren kortesiya  
gaizki ikasiya,  
falta nobleziya,  
franko fantasiya,  
usteko zuen zala  
danan nausiya.

- 4/ Pello eta Bernardo  
zaizkala gaiendu,  
Juan Jose Udarregi  
izugarri mindu;  
ta berak publikoan  
gaizki itzegin du,  
gizona artaraño  
nola nabarmendu?  
Fama zertan kendu?  
Al bazan lagundu,  
talentua non du?  
Prueban ezagun du;  
gaur ez legoke atsegin  
baldin bazendu.
- 5/ Azpeitiko birajez  
dezu erregura,  
jendiari eman nai  
zerbait pintura;  
Pello apropos jua zan  
zu ziañan lekura,  
Bernardok ere itzegin  
gizonen modura.  
Ongi al zan ura?  
Ez zaitzula ardura,  
altuen modura,  
ala du figura;  
Juan Jose Udarregi  
ortan galdu da.
- 6/ Juan Jose, ortaratu  
zaitu soberbiyak,  
begiyan bistan daude  
prueba garbiyak;  
ongi aski esan zizun  
Pello errotariyak,  
ez alere bakarrak,  
Bernardo ta biyak:  
ango urre gorriyak  
nola zauden jarriyak,  
berdin neurriyak  
zirala igarriyak;  
utsik gelditu zaitu  
fanfarreriyak.

7/ Bertan markatu dituzu  
Elizegitarrak,  
aziyo ori egin du  
Udarregi zarrak;  
orduan artu naute  
suak eta garrak,  
pena eman ziran gaizki  
itzegin bearrak;  
pertsona elbarrak  
orlako indarrak,  
azkeneko ondarrak  
oso dauzka txarrak;  
gu ez gerade zu  
bezin zabarrak.

8/ .....

9/ Gaztetan ibilliya  
zenbait grabedade,  
zartuko etzala uste  
orrek beñere;  
gañera irten zalia  
ziñaden autore,  
ortan ez det esaten  
gezurrik batere;  
egiten naiz jabe,  
ez dezu mesede,  
aurrenetik trebe,  
azkeneko gabe;  
izan aña arronka  
bazan len ere.

- 10/ Nai badezu taberna  
ta igual plaza,  
biartutzen banazu  
neretzako poza;  
eskarmentatzen ere  
ez zera erreza,  
esan dan gisan ibilliya  
amaika grandeza;  
badaukazu kausa,  
ez zabiltza lasa,  
markan ezin pasa,  
egin dezu traza;  
Juan Jose Udaregi,  
etzera gauza.
- 11/ Beste bat ere bada  
sobresalitua,  
zergatikan zeukan  
ezin sufritua;  
argatikan formatzen  
diyot delitua,  
korputza ere dauka  
franko loditua;  
orren meritua  
sobra nagitua,  
ezin mobitua,  
asko korritua;  
orain geldi dedilla  
entenditua.
- 12/ Orra Pello Errota  
Amerikara juan,  
sei illabeteko ta  
milla duruan;  
janetik abundante,  
gañera tragan,  
ez dek jornala txarra,  
ark bere goguan;  
onena zeguan  
kantuzko fueguan,  
euskara klaruan,  
emen Gipuzkuan;  
ederrik botako dik  
etorritakuan.

13/ Pello nere anaia,  
asko dizut maite,  
baita izango ere  
bizi naizen arte;  
lastimarikan daukat  
emendik aparte,  
lenbailen etortzia  
naiagoko nuke;  
makiña bat golpe  
tiratu diyote,  
berentzako kalte,  
neurriyak bete;  
Juan Jose, etzera gauza,  
errindi zaite.

14/ Orra bertso berriyak  
Juan Krutzek jarri,  
jendiak kantatzeko  
entretengarri;  
bertan egongo nitzan  
oien farragarri,  
nondik miñ artzen duten  
diyotet igarri;  
jolas txarrak sarri,  
talentuak urri,  
ordañak biali,  
arrazoian ari;  
nai dezuna pentsatu,  
Juan Jose Udarregi.

# Joxepa Iñazi Elizegi Bengoetxea (Pello Errotaren alaba) (1864 - ?)

## BIZITZA

Joxepa Iñazi, Pello Errotaren bigarren alaba, 1864-eko ilbeltzaren 12-an jaio zan.

Neskatxa zalarik Ameriketara joan zan; bertan ezkondu ta bertan il zan.

Aren bizitzaren berri jakin nai duanak, liburu ontako *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* izeneko zatia irakur dezala.

Liburu ontan arkitu dezake Asteasu-ko sagardotegi batean bi mutil zarri kantatu zien bertsoa. Baita ere, bere aizpa Mikela Ameriketara eraman nairik, andik bialdu zuana, ta onek erantzun ziona.

Bertso geiago ere botako zuan noski bere denboran; bañan len aitaturako oietaz gañera ez degu au besterik arkitu. Beraren aizpa Mikelari jaso genion:

«Bein batean, gure aizpa Joxepa Iñazi, Ameriketara joan da bertan il zana, sagardotegian toriatu egin zuten, bertsoan asteko alegia, eta gure aizpa orrek ola kantatu zien:

Gogorikan eztaukat,  
lotsa bestetikan,  
orra emakumia  
naizen partetikan;  
toriatzen banazue  
aldamenetikan,  
ederrak aditzeko  
zaute nigandikan.

Ta ori esanda alde egin zuan andik, geiago ez kantatzeagatik».



# **Mikaela Elizegi Bengoetxea** **(Pello Errotaren alaba)** **(1869 - 1967)**

## **BIZITZA**

Mikela, Pello Errotaren seme-alabetatik laugarrena, 1869-ko abuztuaren 19-an jaio zan.

1893-ko urriaren 14-ean, Asteasuko Ondartza-aurrena baserrira, Antton Kortajarenarekin ezkondu zan. Fameli ederra azi zuan.

Azken urteak Donostian igaro zituan, bere alabaren etxean.

Berak emandako argibide ta ber-

tsoekin egiña da liburu ontako Pello Errotaren bizitzaren zatia.

Ta beraren argibideekin aberastu ta ornitu da Pellok jarritako bertsoen zatia ere.

Beraren bizitzaren zenbait gertaera ere, zati oietan arkituko ditu irakurleak.

1967-ko azaroaren 8-an il zan, larogei ta emezortzi urterekin.

## BERTSOAK

Mikela ere bertsolaria izana zan bere denboran. Aitaren bititza kontatzen duala, bere bi bertsoren berri ematen digu: bata, egun batez Uztapideri bota ziona; ta bestea, Ameriketako aizpari ordañez bialdu ziona.

Larogei urte zituala, fameli arteko bazkalondo batean, onako au kantatu zuan:

Larogei urterekin nago ni  
gaur munduari begira,  
gure denboran beti izan du  
bizio orrek segira;  
*por desgracia* aspaldi ontan  
aumentatutzen ari da,  
len baziran da orain badira,  
gero're izango dira.

Eta despedidan:

Orain pentsatuzten det  
kantatzen astia,  
ondo gobernatuta  
ez nago tristia;  
oik ez dute merezi  
ixilik uztia,  
agur, ezkonberri ta  
konpañi guztia.

Ona emen, berriz, larogei ta amasei  
urterekin, bere aitaren omenaldia As-  
teasun ospatu ondoren, moldatu zitua-  
nak:

- 1/ Adoratu dezagun  
gure aita zana,  
gizon txiki pobre bat  
munduan izana;  
sekulan etzan aitu  
aren almazena,  
relijiosua ta  
izketan zuzena.
- 2/ Meza nausia Asteasun  
ikusit etzana:  
iru seme aldarian  
errikoak danak;<sup>1</sup>  
gero predikatutzen  
Lekuona jauna,  
nere aitaren bititza  
esplikatu dana.

3/ Erregali eder bat  
uste gaberikan,  
oso gelditu nintzan  
aturditurikan;  
grazirik eman gabe  
aldegin andikan,  
triste etorri nintzan  
Asteasutikan<sup>2</sup>.

4/ Laroi ta amasei urte  
kunplitu ta bereala,  
pentsatzen det birian  
asiya nagoala;  
aditzen badezute  
ni illa naizela,  
errezo txiki bana  
esan dezatela,  
zeruan sartu dedin  
lenbailen Mikela<sup>3</sup>.

1. Pelloren omenaldi eguneko meza nausia aitatzten du. Iru erriko seme ziran aldarean meza ematen, ta Juan Mari Lekuonak egin zuan sermoia.

2. Asteasuko alkateak, erri guziaren izenean, zillarrezko errosario bat erregalatu zion Mikelari. Bañan onek, egun artako emozioarekin, ainbeste ta ainbeste ezagun agurtu bearrarekin, eta artean gaixo egon berria zegoalako, ondoez txiki bat izan zuan

azkenerako. Orregatik, jendeari eskerrak ez emanaren pena gelditu zitzaion. Ala esan erazi zion Basarri radioz. Au bera adierazten du bertso auetan.

3. Omenaldia, 1965-eko uztaillaren 11-n egin zan. Urrengo illaren 19-an larogei ta amasei urte bete zituan Mikelak. Orduantxe jarriak dira bertso auk. Euskalerrian inoiz izan ote da, edade ortan bertsorik jarri duanik?

# Miel Anton Elizegi Bengoetxea (Pello Errotaren Semea) (1872 - 1936)

## BIZITZA

Miel Anton, Pello Errotaren semea, Asteasuko Goiko-errotan jaio zan, bere aita ere jaio zan etxe berean alegia, 1872-ko martxoaren 26-an, gaueko amarretan<sup>1</sup>.

Zortzi senidetatik bostgarrena zan.

Aitari «Pello Errota» bezela, semea-ri «Miel Errota» esan oi zioten. Bañan «Miel Anton» ere bai beste batzuek.

Ez dakigu noiz asi zan bertsoan. Gazterik seguru asko, aditu izan degunez, ta bai bere bertso batzuek aditzera ematen dutenez. Bañan ez omen zuan jendearen aurrean kantatzen; ez omen zan plaza gizona.

Ogei ta bi urte zitularik, Udarregiri bertso sail bat jarri zion, Azpeitiko premioaren ondoren sortu zan sesio gordin eta bero artan bere aitaren alde arpegia emanen.

Bere aita bezela, erreztatzen askotan jarduten omen zan, errotarria pikatzen, galbaian edo beste errotako lanetan ari zalarik.

Eskeko jendeari maiz ematen zion etxean gau ostatua. Bañan olako etxe-

tan su errez artzeko gauza asko izaten baita, aurretik poxpoluak kendu egiten zizkien.

Fameli ederra azi zuan: Josefa, Pelloren besoetako; «Concepción Micaela», Mikela Pelloren alabaren besoetako; Maria; Antonio, urtea baño len illa; Pello, errotan bizi izan zana; Maria Luisa, oso umetan illa; Manuel; Gregorio, Frantzisko, gerratean illa; ta Pilar.

1936-ko otsaillaren 11-n il zan, goizeko amarretan, irurogei ta iru urterekin<sup>2</sup>.

1. *En la Villa de Asteasu, correspondiente a la provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, a los veintiocho días del mes de Marzo del año de mil ochocientos setenta y dos yo el infrascrito presbítero cura párroco de la iglesia parroquial de San Pedro de esta dicha villa de Asteasu bauticé solemnemente a un niño que nació en la casa denominada Goico-errota sita en la jurisdicción de esta villa a las diez horas de la noche del día ventiseis del mes y año antes indicados, hijo legítimo de Pedro de Elicegui, natural de esta villa, siendo sus abuelos paternos José de Elicegui, natural de Larraul y vecino de Oyarzun y Josefa Ramona de Maiz, natural de Soravilla, ya difunta, y los maternos José Antonio de Bengoechea, ya difunto, y Josefa Ignacia de Lasa, ambos naturales y esta vecina de Cizurquil. Se le pusieron por nombres Mi-*

guel Antonio y fueron sus padrinos Miguel Antonio de Bengoechea y en su lugar Tomás de Bengoechea, su hermano carnal, ambos naturales y vecinos de Cizurquíl, casados y de oficio labradores, y Teresa Sabina de Elicegui, natural de esta villa y vecina de Oyarzun, soltera, cuyo padre es molinero, testigos Bernardo Gozategui, natural y vecino de Asteasu, D. Faustino de Ariceta». (Asteasuko elizako seigarren bataio-liburuan, 150 orrialdean).

2. «En la villa de Asteasu, provincia de Guipúzcoa, diócesis de Vitoria, a doce de Febrero de mil novecientos treinta y seis, yo el infrascrito Cura ecónomo de la iglesia parroquial de S. Pedro Apóstol, mandé dar sepultura eclesiástica al cadáver de Miguel Antonio Elicegui y Bengoechea, natural de esta villa

hijo de D. Pedro y de D.<sup>a</sup> Joaquina Antonia, de setenta y tres años de edad, de profesión labrador. Falleció, según certificación facultativa, a las diez de la mañana del día anterior en la casa denominada Goicoerrota de esta parroquia a consecuencia de caquesia física. En el acto del fallecimiento se hallaba casado con D.<sup>a</sup> María Pilar Iceta, natural de Aya (Guipúzcoa). Recibió los santos sacramentos de Penitencia, Viático y Extrema-Unión administrados por el infrascrito cura ecónomo. No consta que haya otorgado testamento. Se le hizo el oficio de sepultura y ha sido inhumado el día de hoy en el cementerio de esta villa. En fé de lo cual lo firmó, fecha ut supra. Lorenzo Azpiazu». (Asteasuko seigarren il-liburuan, 147 orrialdean.)

## AITA-SEMEAK BERTSOTAN

Pello Errotak astoa ta idia larrean ibilli oi zituan etxe inguruan. Ala, bein batean, astoa errotako kanala ta erreka bitarteko makaldian zebillen.

Bañan, alako batean, ekaitza sartuta, urak golpean azi ziran. Orduan aitak semeari astoa etxera ekartzeko agindu zion.

Semea igaro zan kanalaren beste aldera. Bañan etxera ezin etorririk gelditu zan, astoak uretan ezin pasa baitzuan.

Aita, berriz, kamiotik begira zegoan; da, semea ala ikusi zuanean, bertso au kantatu zion:

Komeriya polit bat  
igaro zait neri:  
astoa ezin pasa  
errekan igari.  
Aitak esaten dio  
bere semiari:  
Motell, kontu egiyok  
ere anaiari.

Semeak, ordea, onela erantzun zion:

Semiak errespuesta  
emango du trebe,  
gaztia izan arren  
ajolikan gabe;  
etxian bizi eta  
ez nekin batere,  
bedorrek zituanik  
orrenbeste seme<sup>1</sup>.

Gertaera, Pelloren billoba ta Miel Antonen semeari, Pedro Elizegiri, jaso. Bertsoak, berriz, Andoaingo Patxi Sueskun bertsolariari.

Ernaniko Antonino Pagolak, ordea, bertso auk Udarregi aita-semeak kantatuak dirala esan zidan. Bertsoak onela eman zizkidan jaun onek:

Komeriya polit bat  
igaro da ori:  
astoak ezin pasa  
urian igari.  
Aitak esaten diyo  
bere semiari:  
Ondo kontu akiyok  
eure anaiari.

Errespuesta emango det  
umil eta trebe,  
gaztia izan arren  
ikaratu gabe;  
nere aitak zituen  
orrenbeste seme,  
ori nik ez nekiyen  
berak esan gabe.

Serafin Barojak ziri-bertso edo *epigrama* bat du, «Asto kontuak» deritzaiona eta gertaera onekin antz aundia duana.

1. Miel Anton, Pelloren seme bakarra baitzan orduan.

## ERNIORA JOAN ZIRAN NESKATXAI

Miel Antonen arreba ta Pello errota-  
ren alaba Mikelak onela esan zigun:

Astiasutikan neskatxa batzuk Ernio-  
ra joan omen ziran. Gure anai ta bere  
lagunai ezer esan gabe, berak zerizkie-  
nakin egin omen zuten ibillera.

Gero, andik bapo-bapo etorrita, ka-  
lean or ibilli omen ziran dantza-soka  
ateratzen.

Ta gure anaiak bertsoak atera zi-  
tuan, da bere lagunai ala esan zien:

–Aizue: kanta auek kanta bear diz-  
kiagu.

Ala, kalean, jo goia ta jo bea, kanta  
oick kantatzen ibilli ziran.

Gero, neskatxa aiek parte eman da  
mutil danai kontzejura otsegin zieten.  
Gure anaia artean mutil gaztea zan, da  
aitari esan zion:

–Aita, ola ta ola dozen erdi bat kan-  
ta neska oien ibillerari jarri dizkiot; ta  
gero, kalean kantatu ditugulako, danak  
kontzejura otsegin digute.

–Ez al dezute iñor izendatu?

–Ezta iñor ere.

–Izendatu gabean iñor ez da galdu-  
ko. Ik esan bear dek gure erentzia deka-  
la; eta, iñor ez izendatu ezkeroz, ezin  
ditekela galerazi kantari ibiltzea.

Ala, joan ziran, da beste mutil ton-  
tallu aiek danak duro bana multa eman  
zuten. Orduko duroa asko zan.

Gure anaia bakarrik gelditu zan. Ala  
esan omen zuan:

–Nik kantatuko dizkiot berorri ere.  
Iñor ez da izendatzen...

Bañan, azkenean, arek ere pagatu  
bearra izan zuan. Gero gure aitak ari  
esan zizkanak!

Neskatxa bat omen zuten txurrutean  
ondo xamar gustatzen zitzaiona, ta  
arentzat jarri zituan bertsorik geienak.  
Bertsoak olaxe ziran:

1/ Lengan neskatxa bat  
izan da Erniyon,  
gurutze santuari  
promesa egin ziyon;  
esan dedan kasuan  
kunplitu nai ziyon,  
aidanian zatuai  
kontu egin ziyon.



Iturriotzko ermita. (A. Z.-ren argazkia).



- 2/ Gurutziari mingañez  
promesa egiña,  
baño berekin zuen  
botika atsegiña;  
bazan noski zatuai  
zeñek kontu egiña,  
bat zan ardo-maistra,  
eztakit zein baiña.
- 3/ Kapiak eta kopak,  
maatsez postriak,  
bakoitzak duro bina  
baditu kostiak,  
.....  
.....  
.....  
.....
- 4/ Emakumiak biderako  
zuten arraultz bana,  
.....  
.....  
iñork eskeintzen ez ta  
neskatxa orrek pena,  
ark jango lituke eunian  
amabi dozena.
- 5/ Neskaxa berak ala  
kontatu omen zuan,  
ta guztiya gezurra  
esango etzuan;  
serbitzu ona du orrek  
janaren kutsuan,  
orrek bi duroena  
laster jango zuan.
- 6/ Oin kalera sarrera  
pestagarria zan,  
kuadrilla orren tartian  
nik eztakit zer zan;  
gero plazara junda  
asi ziran dantzan,  
danak *treinta-cuarentan*,  
komeriyá an zan.

7/ Orra neskatxa orren-da  
kasua akabatu,  
oik nola ibilli ziran  
nai nun deklaratu;  
izenez iñor ere  
ez det separatu,  
kulpak zeñek dituzuen  
zeok enteratu».

## BI GERTAERA

Asteasuko neskazar bat, Joxepa Iñaxi izenekoa, atso bizarduna zan; da Ernioko pestetan ango buelta Miel Antonekin egin nai zuan, da onek ezetz.

Bueltakoan, neskazar ori oso asarre omen zegoan, joan gabe gelditu zalako.

Ta jendeak:

–Botaiok bertsoa, Miel Anton! Botaiok bertsoa!

Ta onela bota zion:

Joxepa Iñaxi, nere biyotza,  
etzaitez jarri asarrez,  
gorputz guziya euki biazu  
okupatua bizarrez;  
izkutukoak utsa lirazke  
bistan ezpalitz ezerrez,  
Miel Errota argatik dago  
arrimatzeke bildurrez<sup>1</sup>.

☆ ☆ ☆

Miel Anton ta Gregorio, bere semea, etxe ondoko mendira zijoazen; ta, ango aritzak igartzen asiak zirala ikustean, onela esan zuan Miel Antonek:

–Galtzen ari dituk gure aritzak!

Semeak:

–Oiek ondatu ditu gaitzak!

Ta aitak:

–Ik jun da senda itzak!<sup>2</sup>

1. Gertaera: Bautista Kortajarena, Pello Errotaren billoba, Asteasu.

Bertsoa: Agustin Ordozgoiti, asteasuarra, Getarian bizi dana.

2. Bautista Kortajarena, Pello Errotaren billoba, Asteasu.

(1895)  
**BERTSO BERRIAK**  
**PELLO ERROTAREN SEMIAK JARRIAK**

Len ere esan degunez, Azpeitiko premia zala ta Udarregi ta Pello Errota asarretu ziranean, Pelloren seme Miel Antonek ere jarri zituan bertsoak aitararen alde.

Bertso aukeratuak ere paperetan zabaldu

ziran. Ale bat Usurbilko baserri batean eskuratu genduan. Moldiztegiaren izena ere izango zuan bearbada. Bañan guk eskuratutako orrek ertz guztiak guraizez ebakita dauzka eta etzaio ageri.

1/ Bertso berri batzuben  
biar ditut para,  
autan artzen derala  
usurbildarra;  
ori Juan Jose Alkain da,  
Udarregi zarra,  
berak obligatuta  
gerade ontara;  
orrek daukan gala,  
eragiñ nai parra,  
beti seta txarra,  
ari da egiñala;  
apustu egingo nuke  
aspertzen dala.

- 2/ Nik zer esaten deran  
jar zaitez aditzen,  
ia arrazoiakiñ zein  
ote gabiltzen;  
kulpa gabe ari zera  
nere aita mendratzen,  
ixilik egotia ez dit  
barrenak agintzen;  
zu gezur kontatzen,  
publikuan kantatzen,  
baztarrak tentatzen,  
nik ala pentsatzen;  
bueltak aditu gabe  
etzera libratzen.
- 3/ Nere aitai jartzeiozu  
ez duela lotsik,  
sekula ez dizu egin  
biar ez dan gauzik;  
premiyua eman ziyoten,  
arrek artu pozik,  
zu gauza etziñalako  
geldituba utsik;  
ezin bete poltsik,  
ez bukatzen saltsik,  
gizonaren trazik  
ez daukazu kasik;  
orrelakuak ez du  
merezi galtzik.
- 4/ Juan Jose, ari zera  
zu gezur kontari,  
gizon txarrak segitzen  
diyo setari;  
burla egin nai badiyozu  
zuk nere aitari,  
moko-zorroztu dala  
Pello Errotari,  
okeletan lori  
ote dago ori?  
Ez iruitzen neri,  
burla ein nai besteri,  
ta berak anima erra-  
tuba diruri.<sup>1</sup>

- 5/ Arpegiaren ordez  
esanaz mokua,  
ez da gero piztiya  
Pello Errotakua;  
bere jaiotzaz ori  
Astiasukua,  
San Pedroren elizan  
bataitutakua;  
zure dibujua  
ez dago bapua,  
mami gabekua,  
aula ta plakua;  
ia atera zazu  
erretratua.
- 6/ Juan Jose, kontseju bat  
emango'izut zuri:  
iñori burla eitera  
ez asi presagi;  
zere mantxak bota gabe  
etzaude errezegi,  
ez berdozten dala esan  
Pedro Elizegi;  
biar aña erari  
ikusten zaio ari,  
zere burubari  
afana ugari;  
lotsa ematen ez da errez  
ez duenari.
- 7/ Edozin gauza esanez  
zu auba betian,  
zabiltzala uste det  
zere kaltian;  
parapeto gabe asi  
zera atakian,  
erretiratu biar-  
ko dezu nekian;  
Pello orain artian  
bere parajian  
bizi da pakian  
onra eder batian;  
lotsa galdurik ez da  
gure tartian.

- 8/ Aditu izatzu ondo  
nik esandakuak,  
badituzue obra onak  
len eindakuak;  
ez dira erokiyak  
oraindañokuak,  
esplikatuko ditu  
Migel Errotakuak;  
zure antzekuak  
gañerontzekuak,  
klase batekuak,  
lasai perpetuak;  
zuek zerate lotsa  
galdutakuak.
- 9/ Gure artian ez da  
lotsa galdurikan,  
ez gabiltza kredituba  
ezin bildurikan;  
egiya esateko ez dezu  
biar bildurikan,  
aditu biaidazu  
buelta ederrikan;  
Pelloren fabrikan  
ez da okerrikan  
ikusi oraindikan,  
ona besterikan;  
ez da oraindik sobratu  
gure puskarikan.
- 10/ Nai duena esan libre  
Udarregi jaunak,  
ondo egin ditzala  
etxeko lanak;  
ez dira erokiyak  
orren txen esanak,  
bueltak merezi ditu  
gaizki ari danak;  
zuen aitamenak  
juan ziran onenak,  
oiek dira ordenak:  
bazterrera obra onak;  
orain baño lenago  
prueba emanak.

- 11/ Nola diraden zuen  
esperientziyak,  
bakar batzuek dauzkat  
ondo ikasiyak;  
bide gabe zabilta  
sututzen sasiyak,  
ontaratu nau zure  
atrebientziyak;  
kontu itsusiyak  
ortikan asiyak,  
ortzak erakutsiyak,  
eman gabe utziyak,  
tarte ortan dituzu<sup>2</sup>  
oiek guziyak.
- 12/ Berriz modu orretan  
asitzen bazera,  
aundiguak entzunda  
geldituko zera;  
itzegin zazu formal  
biar dan klasera,  
beste gañerontzian  
gizona etzera;  
zitalen antzera  
Pello burlatzera,  
saiatutzen zera  
konduta galtzera;  
begira zagun ondo  
norbere etxera.
- 13/ Pellok ta Otañok etzuben  
despeira aldrebesa,  
aien tartian etzan  
okerrik pasa.  
An izan ez balira  
nork onratu plaza?  
Zu ere zartuba ta  
etzinaden gauza;  
eman zizuben traza,  
au zure konpasa,  
zedorrek uste aisa  
ango interesa;  
zentimorik eman ez,  
ori bajeza.



- 14/ Otaño ze motiboz  
artu dezu autan?  
Ark obeto eingo du  
bostetatik lautan;  
alako gutxi dira  
Gipuzkoa ontan,  
nere aitak konfiantza  
arregana zeukan;  
egunez ta gautan  
or zaude zelotan,  
or esan nolatan:  
baju jornaletan;  
gauza ez dalako orrek  
zer pena daukan!
- 15/ Premiyua batentzat  
zan anuntziyuan,  
errenditu biar du  
kondiziyuan;  
letra oiek etziraden  
jarri traiziyuan,  
ondo kunplitu zuen  
obligaziyuan;  
zabiltza sesiyuan,  
etziñan soziyuan  
oiekin portziyuan  
ango puntziyuan;  
noizpait sartuko zera  
juiziyuan.
- 16/ Ango interesa parti-  
tzeko izan bazan,  
dana nere aitagana  
etorriko etzan;  
juezak arri eman  
ziyoten frankezan,  
artara zanerako  
nunbait portatu zan;  
dadukan pobrezan  
ez dabil grandezan,  
orra itzegiñ noblezan  
u ..... entzatzan,  
au ..... zat ... Pello<sup>3</sup>  
bestela ezin esan.

- 17/ Ez dauka zer esanik  
donostiarrentzat,  
berak ere apenas  
dute orrentzat;  
ondo konpondu dira  
oraindaño beintzat,  
aurrera ere ala  
iduritutzen zat;  
Juan Joseren saltsak  
ain dira eskasak,  
or zabilta pozak  
galtzen konfiantzak;  
eskarmentatzen ere  
ez gaude errazak.
- 18/ Despreziatu dezu  
nere aita dotore,  
Pellok gizatasunik  
ez al du batere?  
Gizonak au esatia  
akordatuta're,  
aurten gelditu dala  
Donostira gabe...  
Zu al zera jabe?  
Ala baziña obe.  
Esango'izut au're:  
bajuxio zaure.  
Zu aña gizon bada  
noranaiko're.
- 19/ Zure armoni txarrak  
jarri nau koleran,  
argatikan ari naiz  
kantari prueban;  
gaitzik ez aditu nai  
aita nola dedan,  
berak ipiñi naigo  
zituben aukeran;  
esan dan euskeran,  
zeiñ arrazoiz-keran,  
begira paperan  
gezurrik ote dan;  
pentsatu zeretzako  
zenbat kalte dan.

20/ Guri esan nayian  
milla deskreditu,  
gizon balienti au  
zagu aditu;  
zentimorik ez diyo  
berari segitu,  
len zuen onoria  
geiena urritu;  
aukerak baditu  
nai badu segitu,  
bestela gelditu,  
berak disponitu;  
gusto dezun aldera  
erresolbitu.<sup>4</sup>

1. Eskuratu degun papercan azkeneko bi le-  
rroak ezin irakurri. Bañan gero esango degunez,  
Usurbilko jaun baten aotik sail ontako bertso geie-  
nak jaso nituan; eta arek esan bezela jarri ditugu  
bilerro oiek.

2. Lerro au ere ezin osorik irakurri bertso-pa-  
pcrean. Beste jaun orrek esandakoarekin osatu de-  
gu.

3. Lerro auk ere irakur eziñak.

4. *Auspoa*-ren 27 zenbakian, 1963 urtean, *Az-  
peitiko premiyoaren bertsoak* liburua argitara eman  
genduanean, artean bertso-papera eskuratu gabe  
geunden. Bañan bere izena agertzerik nai etzuan  
jaun batek bertso batzuk eman zizkigun: 1, 2, 3, 4, 5,  
7, 8, 9, 12, 15, 18, 17, 11, 19 eta 20<sup>garrena</sup>, orden  
ortan.

Bertsoak ez dira ifloren buruan aldatu gabe gor-  
detzen. Ori nola dan ikusteko, komeni dala uste  
degu jaun orrek bertso auk zer aldagetak in eman  
zizkigun erakustea: 1/2: nai nituzke para; 1/10: era-  
gin nei parra; 3/7: zu gauza etziñala ta; 7/5: parapeto-

rik gabe; 7/6: ai zera atakian; 7/12: falta; 8/3: obra  
onak badituzue; 8/4: lenagokuak; 8/5: ez dira ego-  
kiak; 9/1: Gure tartian ezta; 9/5: egia esateko; 9/6:  
ez du bildurrikan; 9/11: izan oraindikan; 11/1, 2, 3  
4: falta; 12/2: aritzen bazera; 12/4: geldiko zera;  
12/7: beste gañerakuan; 12/13: begira zazu ondo;  
12/14: zere etxera; 15/7: ondo kunplitu zuten;  
15/11: ango funtziyuan; 15/12: oien portziyuan;  
17/1: Zer esanik eztaukat; 17/4: dute onentzat;  
17/5: oaindaño ondo konpondu; 17/6: dirade bein-  
tzat; 18/4: ez du batere; 19/7: berak ipiñik nago;  
14/9: esan da euskeran; 19/13: pentsatu zuretzako;  
20/1, 2, 3, 4, 5 eta 6: falta.

Pello Errotaren alaba Mikelak irugarren bertsoa  
eman zidan. Aldaketak: 3/3: sekula egin al dizu;  
3/11: gizonaren antzik.

Urrietako Lizardi baserriko Bartolome Ugaldek  
lenengo bertsoa eman zidan. Aldaketak: 1/2: nai  
nituzke para; 1/10: eragin nei parra; 1/14: aspertuko  
dala.

(1916)

## ANTIGUAKO ANDRE ALARGUNARENAK

Pello Errotaren alaba eta Miel Antonen arreba Mikelak onela esan zigun:

«Antiguako alargunaren bertsoak ere gure anaiak jarri zituan.

Andre ori alargundu egin omen zan, seme batekin. Oso seme jatorra omen zan. Berrogei urtekoa ama, ta semea amalau urtekoa. Bertsoetan onela dio:

.....  
.....  
.....  
.....

berrogei urte izan biar du  
andre orren edadia,  
gazte txoruak bezela dabil,  
a zer formalidadia!

Erederua antxe zedukan  
illagatikan senarra,  
amalau urteko semia ta  
izarra bezin ederra,  
errespetoko eta umilla,  
ez ama bezin zabarra;  
lastima ez al da gizarajuak  
lots oiek artu biarra?

Morroia ere ba omen zuan etxean  
andre alargun orrek. Ta lapurra ta moz-  
korra zala ta etxetik bialdu zuan. Bañan

alkarrekin modu itxusian ibilliak omen  
ziran; da katiatuta, aur egiteko alegia,  
gelditu zan andre ori.

Nola zegoan akordatu zanean, mo-  
rroia berriz ekarri zuan. Artean emen  
ezkontzeko edaderik etzuala ta Prant-  
zian ezkondu ziran.

.....  
.....  
.....  
.....

Prantzira juanda  
biak egin dute jira,  
ezkon baziran edo ez baziran  
alkarrekin bizi dira.

Ta lengo gizonaren aldekoak –aitak  
edo anaiak-edo– enteratu ziranean, gu-  
re anaiarengana etorri ziran, bertsoak  
jarri bear zirala ta.

Oso bertso politak jarri zituan. Ne-  
ronek eskribitu nituan. Pena aundia da  
oietako kanta-paper bakar bat ere ez  
gorde izana.

Lengo senarrarengatik beti gaizki  
esaka ibiltzen zan andrea omen zan, da  
onela esan zion bertso batean:

Emakume orrek bere gizonai  
artu zizkion zeluak,

.....  
.....  
neskatxarekin zebilela ta  
sekulako errezeluak,  
ola dabillen emakumiak  
merezi ditu paluak.

Beste bat ere bada, gizona il zitzaio-  
la ta...

.....  
.....  
emakume orrek bere senarrai eman  
[zion  
aldi bateko itzala,  
aditutuzian gizarajua  
kulpa gabe ari zala,  
iruritzen zat gizarajua  
beste min gabe il zala.

Azkeneko bertsoan onela esaten  
zion:

.....  
.....  
.....  
.....  
betiko zure gaizki esatiak  
eragiñ azi dit gañez,  
ikasi eta kanta itzazu  
siaskari eragiñez.

Aur egiteko zegoala, ta bertsoak  
ikasteko, ta gero siaskari eragiñez kan-  
tatzeko alegia, laister etorriko zan txi-  
kiari eragiñez.

Ederki jarri zuan gure anaiak pasa-  
dizo guztia.

Inprentatu ta gero, Donostian,  
Loiolan-ta, ortxe ibilli ziran kanta-pape-  
rak saltzen. Bañan atsoaren aldekoak  
sartu ziran ta agintariak debekatu egin  
zuten paperak saltzea. Bañan aiek illu-  
nabarretan joan ta sagardotegi ingurue-  
tan bota oi zituzten paperak, eta billa-  
tzen zituana letu ta enteratu egiten zan.  
Aiek jendea enteratzeagatik jarri zituz-  
ten bertsoak, eta etzuten dirurik bear.

Ta anaiari, jornalaz gañera, propina  
aundia eman zion gizon arek.

Lenbiziko aldiz etzizkan kontuak  
bear bezela esplikatu; gero askoz kontu  
geiago esplikatu zion beintzat.

Ta gure anaiak onela esan zion:

–Nik, kontu oiek guztiak lenago es-  
plikatu bazizkidazu, kanta oiek askoz  
ederkiago jarriko nituan.

Pena izaten zuan.

Emakume ura, bera gaiztoa izanik  
gizona gaizto egiten ibiltzen omen zan  
beti. Orain alakoak badira, ta orduan  
ere izango ziran, gaiztakeri berririk ez  
omen da ta...».

☆ ☆ ☆

*Auspoa*-ren 49-50 zenbakietan, 1965  
urtean, *Pello Errotaren itzala* izenburu-  
ko liburuan, or goiko bertsoak eta kon-  
takizunak agertu genituan, Miel Anto-  
nen bertso sail orri buruz.

Geroztik, ordea, kanta-papera azal-  
du da. Usurbilko baserri batean eskura-  
tu genduan, eta ona emen bertsoak:

- 1/ Bertso berriyak jartzera nua  
Gipuzkuako partian,  
milla ta bederatzi egun da  
amaseigarren urtian,  
zer pasatzen dan esplikatubaz  
jende askoren artian,  
Antiguako Ibaetako  
barriyo txiki batian.
- 2/ Izenik ez det jarriko baño  
señalatu det puntuba,  
pasadizo bat publikatzeko  
artu det pensamentuba;  
biar bezela oiek jartzeko  
eskas daukat talentuba,  
Jesus maitia, argi zaidazu  
nere entendimentuba.
- 3/ Esan deraden barriyo ortako  
basarri-etxe batian,  
matrimoniyo bat bizitzen zan  
deskonfiantzaz betian;  
andria alde eginda izan zan  
bi-iru illabetian,  
señalia da etziradela  
beti bizitzen pakian.
- 4/ Emaztiak bere senarrari  
artu zizkiyon zeluak,  
neskatxen batekin zebilela  
sekulako errezeluak;  
familiarretan ipiñi ditu  
guzizko eskandaluak,  
orla dabillen emakumiak  
merezi ditu paluak.
- 5/ Neskatzagatik nola jardun dan  
ondo asko badakigu,  
milla pezeta baño naigo zukiela  
gertatutzia katibu;  
kristau gaiztuak errezeluak  
besterentzako baditu,  
aiekin etzan orlako lanik,  
obra bera da testigu.

- 6/ Emakume au orla jardun da,  
esan deraden bezela,  
bere senarrari eman ziyon  
aldi bateko itzala;  
ikasi zubenian jendia  
arentzat ala ai zala,  
iruritzen zat beste min gabe  
gizarajua il zala.
- 7/ Mutil gazte bat morroi artu du,  
maite zuban biyotzetik,  
aurrenetik oso ona zuban,  
laister zituban aitzekik;  
urtia kunplitu zubanian  
bialdu zuban etxetik,  
lapurra eta mozkorra zala  
gaizki esanaz atzetik.
- 8/ Esan bezelakua izan zan  
galaia orren junera,  
andikan egun batzuetara  
ekarri zuban lanera;  
nunbait gogua egin zaio ta  
artu du aldamenara,  
kontu politak badirade or  
aurrenetik azkenera.
- 9/ Alarguna ta gaztia orrekin  
ara zenbatxo puntziyo:  
noiznai etxetik bialdutzen du,  
berela damutzen zayo;  
señalia da oraindik ere  
baziyoa atentziyo,  
lan-tokiyara juanda egin ziyon  
ezkontzeko pretentsiyo.
- 10/ Alkarrekin esposatu ta  
biyak biautela bizi,  
artian inozente zegon da  
gazti au du jarri-azi;  
pregoi batekin juntatutzeko  
ideatan ziran asi,  
mutilla soldadu zeguan da  
gobiernubak galerazi.

- 11/ Paperik etzala aterako  
denbora piska batian,  
etzaukatela esposatzerik  
beste bi illabetian;  
lizentziya emango zitzaiera  
egun oriyek jutian,  
alargun ori etzegen lasai,  
leenago nai zukian.
- 12/ Zori oneko bi illabete  
oriyek kunplitu zian,  
kotxia artuta esposatzera  
biyak Frantzira jun zian;  
iñor ere akordatu gabe  
ezkontzeko asmuian zian,  
etxefueguan faltik etzuan  
aruntzian da ununtzian.
- 13/ Esan deraden pareja orrekiñ  
komeriyak pasa dira,  
Frantziyâ buelta eginda  
eldu dira baserrira;  
bat egiñikan oso gustora  
bizi-modun asi dira,  
ezkondu baziran, ez baziran,  
alkarrekin bizi dira.
- 14/ Gaztia inuzente zegon da  
ark sano baietz agindu,  
kontu politak badirade or  
danak esango bagindu;  
lori samarra artu zun baño  
aguro zaio arindu,  
bi illabete ta zazpi egunera  
seme ederra egin du.
- 15/ Guraso batentzat ejenplua  
ederra erakusten du,  
ala ere orrek ezerean mantxik  
ez dula berak uste du;  
bigarren senar orrek gazterik  
komeriyâ ekusten du:  
apelidua arrek eman biar  
beria badu, ez badu.



- 16/ Beste katibu ateratzia  
milla pezta baño nayo,  
ua libre da zergatik duban  
zuk baño errespeto geyo;  
orla ari danak Jangoikuak  
kastiguba eman diyo,  
besteri desiatzen ziyona  
berari iritxi zayo.
- 17/ Obeto emango gendukienak  
ixilik eongo bagiña,  
besterengatik juzku txar asko  
zera lenago egiña;  
amaika bider itxura gabe  
dantzatu dezu mingaña,  
beste gaizto eiten errezago da  
bera ona izaten baña.
- 18/ Berrogei urte izan biar du  
andre orren edaria,  
gazte txoruak bezela dabil,  
ai ze formalidadia!  
Bestegatik aditutzeko  
du orrek kalidadia,  
iñork etzizon kantik jarriko  
ez balu eman biria.
- 19/ Ondorengua antxe zedukan  
illagatikan senarra,  
amalau urteko semia,  
izarra bezin ederra;  
errespetokua ta umilla,  
ez ama bezin zabarra,  
lastima ez al zan gizarajuai  
lotsa oiek eman biarra?
- 20/ Zu nolakua izan zeraden  
ez liteke esan mingañez,  
betiko zure gaizki esatiak  
eragiñ azi dizu gañez;  
argatik orain bertso berriyak  
jarri zaizkizu ordañez,  
ikasi eta kantatu itzazu  
siaskari eragiñez.

(1918)  
**BERTSO BERRIAK**  
**ASTEASUKO MISIO SANTUEN**  
**GAÑIAN JARRIAK**

Bertsoak jarri zizkion Miel Anton Errotak Asteasuko 1918 urteko misioari.

Bertso-paperetan zabaldu ziran. Paper oietako bat Miel Antonen seme Pedronen eskutik jaso genduan.

- 1/ Milla ta bederatzi eun da  
emezortzigarren urtian,  
misionero bi izan dira  
Astiasuko partian;  
premiya ere bazala uste det  
jende askoren artian,  
oien sermoiak ez dira izan  
gure animentzat kaltian.
- 2/ Martxuaren oi ta biyan asi  
zaigu misioyo santuba,  
bertso berriyak ateratzeko  
artu det pentsamentuba;  
bear bezela oiek jartzeko  
eskas daukat talentuba,  
Jesus maitia, argi zadazu  
nere entendimentuba.
- 3/ Aita oriek ots egin dute  
pulpitutikan aurrena<sup>1</sup>,  
kontzientziko kezka dala  
munduko gaitzik txarrena;  
lendabiziko esamiñatu  
bear degula barrena,  
animarentzat orixe dala  
gauzarikan biarrena<sup>2</sup>.

- 4/ Kukurrukuba jotzen zigula  
kontzientziko ollarrak,  
alare lasa eoten gerala,  
ain giñadela dollorrrak;  
anima baño geiago maite  
urriak eta zillarrak,  
konpesatzera juan gaitetz eta  
ez egoteko bildurrak.
- 5/ Zenbat alditan edozer moduz  
egiten degun pekatu,  
kontzientziya esamiñatzen  
bear degula nekatu;  
dianak dian bezela esan,  
bat bakarrik ez ukatu,  
etsaiakiko aiskireantzak  
nai baditugu bukatu.
- 6/ Ezagutzeko nolakua dan  
Jaunaren aunditasuna,  
ainbeste bider ofendituba  
artzeko damutasuna;  
andikan ekarriko degula  
animako osasuna,  
pekatariya, au da preziso  
zuri komeni zazuna.
- 7/ Alde batera utzi biagu  
pekaturako biria,  
eta geiago Jaungoikua ez  
openditzeko iria;  
propositubak agintzen duban  
kondiziyua ori'a<sup>3</sup>,  
dotriñak ori agintzen digu,  
au da egiteko guria.
- 8/ Laugarren orrek agintzen digu  
konfesatzera guazela,  
ortan zabarrak asko gaude  
nerau aurrena naizela;  
pekatu danak aitortutzeko  
dianak dian bezela,  
gañerontzian gure animen  
kalte aundiyak datozela.

- 9/ Pekatubakin zikindu gendun  
inozentizko jantziya,  
garbitutzeko preziso egiñ  
biagu penitentziya;  
kunplitzen badu konpesoriak  
emandako sententziya,  
satispaziyua berekin dauka,  
libre da kontzientziya.
- 10/ Jaiuak eriyotza zor degu  
pekatubak ekarriya,  
noiz ez dakigula datorrena,  
gauza ikaragarriya.  
Zeñen estuba izango ote da  
orduko animan larriya!  
Zuzen ez badago inpernura,  
au da lastimagarriya.
- 11/ Anima kontubak ematera  
joango da ill onduban,  
Jesus umillak galdetuko'io:  
«Zer egin dezu munduban?  
Ni serbitu ta amatutzeko  
ordena artu zenduban»;  
ta pekatari errukarriyak  
zer esango du orduban?
- 12/ Nere kristaubak, birian degu,  
zer dakar azken juiziyok<sup>4</sup>,  
gorputz da anima Josepetara  
joan biarra guziyok;  
aldendu-azi egiten digu  
munduban zenbat biziyok,  
emen aztuta egon danari  
an akordatuko zayok<sup>5</sup>.
- 13/ Juez justubak emango digu  
sententziya edo epaya:  
«Au da zuk egindako obrari  
tokatzen zaion tokiya».  
Merezi degun majiña batek  
artu biagu jipoya,  
despreziatu degulako emen  
zeru ta lurren patroya.

- 14/ Geron animak galtzen baitugu  
gerok general meriyo,  
juez justuba jarriko zaigu  
zelai santuban seriyo;  
onari gloria ta gaiztuai  
infernura ainduko diyo,  
ai zer partira negargarriya  
eternidadeko ariyo!
- 15/ Aita oriyeke beste saio bat  
egin due dotriñetik:  
Jaungoikua amatu bear dala  
gauza guztiyen gañetik;  
txit borondate aundiyarekin  
biyotzez da mingañetik<sup>6</sup>,  
amar mandamentubak orixe  
jartzen due estrañetik.
- 16/ Begira emen nola daukagun  
bigarren mandamentuba,  
debekatutzen du blasfemiya<sup>7</sup>,  
gañera juramentuba;  
ez nolanai autan ibiltzeko  
Jaunaren izen santuba,  
errespetuan itz egiteko  
izan zagula kontuba.
- 17/ Irugarrena aitatu biet  
piskatxo bederenikan<sup>8</sup>,  
meza osoa entzuteko ta  
ez egiteko lanikan;  
ez pentsatzeko artatik inor  
aberastuko danikan,  
Jaungoikuak kastigatzen dula  
nundikan edo andikan.
- 18/ Obligaziyo askoren mende  
gurasuak gera bizi:  
aur inozente gaxuak danak  
guk bear ditugu azi,  
dotriña ondo erakutsi ta  
bire txarrak galerazi;  
zartuta ez da samurragua,  
gazte dan artian ezi.

- 19/ Mundu onetan baldin izaten  
bada guraso zabarra,  
egunen batian egingo diyo  
oso justizi gogorra,  
zergatik daukan bere ta umien  
kontuba eman bearra;  
alper-alperrik denbora joanda  
egingo degu negarra.
- 20/ Seme-alabak, onra itzatzue<sup>9</sup>  
zere aita eta ama,  
ori bera da gero zerorri<sup>10</sup>  
neurtuko zaituban kana;  
errespetua zor diyeguna,  
begiramentuba ona,  
au da laugarren mandamentubak  
erakutsitzen diguna.
- 21/ Iñor ez iltzia agintzen digu  
bosgarren mandamentubak,  
gorputzari ere ez emateko  
geiegizko alimentubak;  
zentzuba galduta ibilli gabe  
ateratzeko kontubak,  
orla ibiltzia ez du agintzen  
Jaunaren lege santubak.
- 22/ Biyotzetikan gorrotorik ez  
edukitzeko iñori,  
zer egin zuban begiratzeko  
guziyon Jabe Jaunari;  
gurutzian josita zegola  
barkatu ziyen danari,  
ejenplo ederra ark eman zigun  
ikasi nai dubanari.
- 23/ Seigarrenian zerbait itzegin  
nai nuke pulamentuz,  
garbiyak izan gaitezen itzez,  
obraz eta pensamentuz;  
biziyo ori noraño joan dan  
ez liteke esan kantuz,  
betiko anima galdu ez dediñ  
ibilli gaitezen kontuz.

- 24/ Biziyo orri bire luzian  
zabaltzen zaio aiena,  
artatik kondenatzen omen da  
animarikan geiena;  
atsegin piska bategatikan  
gero betiko etsaiena,  
auxen da gaurko gazte askori  
bururatzen etzaiena.
- 25/ Ez ostutzeko agindutzen du<sup>11</sup>,  
begira zazpigarrenari;  
beretzat nai ez duban gauzarik  
ez egiteko ñori;  
erreparatu deiola ondo<sup>12</sup>  
atal-buruko kanari,  
kastigu aundiyak etortzen zaizka  
gaizki portatzen danari.
- 26/ Zazpigarrenak ikuitzen gaitu  
komertzianta guziyak,  
nola pobriak ala aberats,  
maiztar eta nagusiyak:  
geiegi tiratzen gaitubela  
munduko irabaziyak,  
kontubaz egin biatugula  
geren saldu-erosiyak.
- 27/ Zortzigarrenak eragozten du  
faltso testimoniya,  
eta gezurrik ez esateko  
izan zagun jeniya,  
duban gauzetik karidadia,  
alkarrenganako uniyua;  
baña bestera egon bear du  
gaur askoren jeniya.
- 28/ Beatzi eta amargarrena  
esango ditut itz biyan,  
lenago oiek sartutzen dira  
seyian eta zazpiyan;  
ondo goardatzen baditugu  
guk borondate guztiyan,  
zeruba agindutzen dizuet<sup>13</sup>  
juramentuban azpiyan.

- 29/ Amar mandamentubak ikasi  
giñituben dotriñian,  
asko ibiltzen bagera ere  
oiek ezin egiñian;  
Jaungoikua amatu biar degu  
gauza guztiyen gañian,  
ta projimua gerok bezela  
amoriyo berdiñian.
- 30/ Mandamentu santu oiei eman  
bear diyet despedira<sup>14</sup>,  
bi bide jartzen ditue oiek  
ezkerrera ta eskubira;  
esan ditudan kondiziyuak  
ondo egiten ez badira,  
bat bakarrikan ez da sartuko  
zeruetako glorira<sup>15</sup>.
- 31/ Bi bide gure animarentzat  
nola bait-diran gertatu,  
zeruba guretzat egiña da,  
gerok biagu portatu;  
Jesus umillak ez gaitzala arren  
ezkerrera apartatu,  
pekatariyak bildur gaitezen  
au ez dakigun gertatu<sup>16</sup>.
- 32/ Kalbariyora Jesus umillak  
eraman zuban arbola,  
ikusten degu esku ta oñak  
josirikan an dagola;  
gure amorez isuri zuban  
bere zañetako odola,  
pekatariyak bizi biagu  
ori goguan degula.
- 33/ Gizona salbatzeagatikan  
Jesus nola ibilli zan,  
sinisten degu mundu onetan  
gustorik etzubela izan;  
bere korputza eta anima  
utzi zituben kalizan,  
bisitatzera sarritan goazen,  
antxen daukagu elizan.



- 34/ Aita Baertel izandu degu  
predikadore abilla,  
beste lan gabe ibiltzen dana  
anima galduben billa;  
guri erakutsi eziñikan  
atera du zenbat bulla,  
Jaunari eske ari gerade  
berriz etorri dedilla.
- 35/ Aita Azkue izandu degu  
arren laguna bestia,  
pekatariyak gonbertitutzen  
aren alegin tristia!,  
zergatik degun gure anima  
Jesusi asko kostia,  
pena aundiya artuko luke  
etsaien mende uztia.
- 36/ Mesere aundiya izandu degu  
misiyu oik ikusiya,  
ejenplo ederra pranko badegu  
jaun oieri ikasiya;  
gure erriyan zabaldu due  
galduko ez dan aziya,  
Jaunak deiela urte askuan  
ondo izateko graziya.
- 37/ Erretore jauna daukagu  
orain etorri berriya,  
oraindik gaztia dalarikan  
talentuz ez da urriya;  
mesere aundiya egin digu  
gizon oiek ekarriya,  
pake santuban dana jarri du  
Asteasuko erriya.
- 38/ Don Lorenzo Azpiazu da  
gure parroko dagona,  
aztuko etzaigu guri  
bedorrek egin diguna;  
zorionian Aita oriyek  
ekarri ditu gugana,  
erri guztiya kontentu gaude,  
biba erretore jauna!

39/ Graziyak eman bear dizkiyot<sup>17</sup>  
Aiuntamentu jaunari,  
misiyuari segitu'yue,  
utzi etxeke lanari;  
ejenplo ederra eman digue  
erriko jende danari,  
baita gustua kunplitu ere  
Baertel da lagunari.

40/ Pekatariyen Ama, gugatik  
egin biezu erregu,  
munduban bizi geran artian  
zure laguntza biagu;  
zuri jarraitzen baldin baizugu  
zeruba dago seguru,  
Migel Elizegik au desio du,  
amen, komeni bazaigu.

1. Bertso-paperak: arena.
2. Bertso-paperak: gauzarik.
3. Bertso-paperak: ori da.
4. Bertso-paperak: guziyok.
5. Bertso-paperak: zayo.
6. Bertso-paperak: dotriñekin, Jaungoiku,  
biyotzen, mingañekin.
7. Bertso-paperak: debekutzen.
8. Bertso-paperak: berenikan.

9. Bertso-paperak: itzatzu.
10. Bertso-paperak: ori bera gero zerorri.
11. Bertso-paperak: agintzen.
12. Bertso-paperak: errepatu.
13. Bertso-paperak: agintzen.
14. Bertso-paperak: despeira.
15. Bertso-paperak: gloriya.
16. Bertso-paperak: dakiyun.
17. Bertso-paperak: graziya.

(1932)

## AGATE DEUNAREN OLERKIAK

Bertso edo kopla auk, republika denboran Asteasun bizi zan Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna zanaren paperetan arkitu genituan. Aurretik onako adierazpen au dute:

«Migel Anton, Pello Errotaren semeak, Tolosako txapelketarako egindako bertsoak. (1932'go urtean)».

Gure iritzirako, bertso edo kopla auk ez daude Miel Anton Errotak jarri zituan bezelaxe. Norbaiten eskua ibilli da emen, alde batetik itzak-eta «garbitzen»; bestetik, berriz, bere politika-iriztiak sartzen. Ez dakigu, beraz, bertso auk Miel Anton Errotarenak dirala zenbateraño esan diteken.

- 1/ Oles ta oles, etxekotxuak,  
ara gu emen atian,  
Done Agaten bezpera da ta  
danok jolastu gaitian.
- 2/ Aberri etxetik irten gerade  
gaztediak abestuaz,  
lan gabe dauden euskotarrentzat  
limosna bat eskatuaz.
- 3/ Jende askoren artean orain  
nola ez dagon lanikan,  
iñork ematen ez badiogu  
ez daukate zer janikan.
- 4/ Atzerritarrak gure lurrera  
etorri ziran meriyo,  
argatik daude lanikan gabe  
oso itun ta seriyo.
- 5/ Gu bean utzi gaituzte eta  
berak zaizkigu gora iyo,  
oiek piska bat atzeratzia  
ez ote luke baliyo?

6/ Guk badakigu nundik datorren  
lanikan gabe egotia,  
ixilik egoten gera baño  
obe litzake esatia.

7/ Zergatik dagon inguru dena  
jende arrotzez betea,  
argatik dago txit itunpean  
gure aberri maitea.

8/ Ikastola bat gaztientzako  
egiña degu Tolosan,  
gure euskera Euskalerrriyan  
nagusi biar du izan.

9/ Umetxoen alde egin dezagun  
euskerakin alegiñak,  
Euskadirentzat eman dezaten  
egun batian ordaiñak.

10/ Biyotz aundiko euskotarrak  
ara emen zenbat gazte,  
pobre oieri lagundutzeko  
limosnatxo baten eske.

11/ Agur, anai euskotar maiteok,  
eskerrik asko, bagoaz,  
limosna pranko bildu degu ta  
guk emen atia joaz.

☆ ☆ ☆

Beste sail bat ere moldatu zuan Miel Anton Errotak Santa Agedaren bezperan kantatzeko. Auek ere Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna zanaren paperetan arkitu genituan, aurretik itz auek dituztela:

«Migel Anton, Pello Errotaren se-

meak, Tolosako txapelketarako egindakoak. (1932'ngo urtean)».

Auek ere ez daude, iñundik ere, Miel Anton Errotak jarri bezelaxe. Len esan degun bezela, norbait jardun da emen itzak-eta aldatzen, bere euskera eta bere politika sartzearren.

- 1/ Oles ta oles, etxekotxuak,  
lotxo goxuan al zaute?  
Done Agaten bezpera da ta  
arren esnatu zaitezte.
- 2/ Eusko gazteak aberri-etxetik  
atera gera eskera,  
lege zarrean ospatu naian  
Done Agate bezpera.
- 3/ Sarerik gabe asi degu gaur  
guk legorreko arrantza,  
Tolosa aldeko langille askoi  
eraman naian laguntza.
- 4/ Euskotarretan batak bestiai  
bear diyogu lagundu,  
bear ainbat gauz balitzake emen  
ori egingo bagendu.
- 5/ Ikusirikan nola dagoen  
gutar askoren bizona,  
lan gabe dauden euskotarrentzat  
limosna biltzen gabiltza.
- 6/ Guri Jainkoak emana degu  
bizi-toki bat ederra,  
gure errian agintzerik ez,  
ori da gauza gogorra.
- 7/ Gure aberria gaizki ikusiaz  
begietan det negarra,  
ez al da erruki gauza tartean  
goseak bizi bearra?
- 8/ Gernikan dago eusko guziak  
estaltzen gaitun arbola,  
aren azpian ondo izateko  
Jaunak lagundu deigula.
- 9/ Oraindik ere bizkorra dago  
eusko gaztien odola,  
gaur edo biyar jartzen ote gran  
geok agintzen degula.

- 10/ Ikastola bat gaztientzako  
egiña degu Tolosan,  
arri lagundutzeko gabiltza  
abertzalien etxetan.
- 11/ Batzuek aberats bizi dira,  
beste batzuek lan ezan,  
argatik gatoz limosna billa  
jaio guziyak jan dezan.
- 12/ Bidezkoa da euskotar orok  
lagundutzia alkarri,  
borondatea duten moduan  
limosnatxo bat ekarri.
- 13/ Limosna ere artu degu ta  
orain biagu abitu,  
eskerrik asko, etxeko denak,  
agur ta ondo gelditu.

## AITA ZANARI

Len esan bezela, Miel Anton Errota 1936 urteko otsaillaren 11-n il zan. Ura itzali ondoren, beraren seme Pedrok, izen eta abizen berakin Pello Errotaren etxe edo errotan bizi zanak, bertso auek

moldatu zituan. Bere lengusu Bautistak bertsoak jarri zituala ikustean –liburu ontan bertan geroxeago arkituko ditu irakurleak–, berari ere gogoia egin zitzaion beste batzuk idazteko.

- 1/ Nik aitatu bat eman biaiot  
neronen aita zanari,  
egun batzuek badira il zala  
ta etzat aztutzen neri;  
oietik agur bat egin zigun  
lagun da familiyari,  
mundu ontatik joan zan eta  
ezta geiago ageri.
- 2/ Mundu ontatik joan ezkeru  
ezta geiago bueltikan,  
guk ez genduan asko pentsatzen  
ordun il biar zunikan;  
eriyotz ona izandu zuan,  
ez nuke biar penikan,  
bañan askotan goatutzen zat  
ezteala geio aitikan!
- 3/ Alde oititik bazijoala  
berak antza eman ziyon,  
nunbait Jesusek berarengana  
orduan deitutzen ziyon;  
emendik ere amaika obra  
eder asko egin ziyon,  
an eztakigu zer sententzia  
berari emango ziyon.

4/ Lau seme eta lau alaba gu  
utzi ginduan munduan,  
on-onak izateko esanda  
geren amaren onduan;  
txikitan illak seme-alabak<sup>1</sup>  
an zitun berriz zeruan,  
desio diot gerta dedilla  
bera aien inguruan.

1. Antonio ta Maria Luisa, urtea baño len illak.



## MIEL ANTON ZANARI, BIOTZEZ

*El Día* egunkarian, 1936-ko otsaillaren 19-an, Miel Anton Errotaren ilberria ematen zan.

Lenengo, itz-lauzko adierazpen bat; ondoren, Bautista Kortajarenaren –Miel Antonen illoba, alegia– bertso sail bat; eta, azkenik, Asteasuko *Pantxo* bertsolariaren beste bertso sail bat.

Bautistaren bertsoak geroago arkituko ditu irakurleak, beraren beste bertsoen artean. Bañan ara emen itz-lauzko adierazpen ori eta Pantxoren bertsoak:

«Orain egun gutxi dala, betirako agur egin digu ludi onetatik gure bertsolari jatorrenetako batek. Jatorrizko bertsolaria gendun, Pello Errota (Goian bego) zanaren semea baizan.

Amaika bertso eder abestuak noski biak ere.

Asteasuko erriaren izena bertso lan onetan goieneko mallara jasoa zizuten bein baño geiagotan.

Aiek il ziran, baña beren edestiak

aurrera ere iraungo du. Izango dira berak aintzatuko dituen gizonak, naiz otoitzez ala bertsoz, berak asko goratu izan zituzten bezela.

Beren jatorria oraindik ez da galdu; emen degu «Ondartza» bat, beren odoloko illoba.

Lerro oiek idazteari ekin aurrean iritxi dira nere eskuetara onek eskeintzen dizkan bertso batzuek bere osaba maiteari biotzez.

Baita ere, Miel Anton oso lagun zizun «Pantxok», eta onek ere eskeintzen dio bere samin agurra.

Biak ditugu oiek ere bertsolari jatorrak eta oien eskuetatik ezin atera ino-laz ere lan traketsik; nik artu dizkizut, irakurle, eta uste det ez dutela inoren aurrean agertzeko batere lotsik».

Esan bezela, ondoren Bautistaren bertsoak datoz. Oiek geroago eskeiñiko dizkiogu irakurleari. Ondoren, berriz, *Pantxo* dalako orrenak. Onako auek:

1/ Miel «errotariya»  
Asteasun il da,  
aspalditik zebillen  
naikoa debil da.<sup>1</sup>  
Bost bertso kantatuba<sup>2</sup>  
ain prestu ta umilla,  
argatik aingeruakin  
zeruan dedilla.

- 2/ Bere aita bezela  
zan errotariya,  
au illa artu det nik  
pena izugarriya,  
zergatikan zan lagun  
istimagarriya.  
Ez gerade gu, baizik  
ura bertsolaya!
- 3/ Miel nolakoa zan  
daukat esan naya,  
adieraziko banu  
sortutzen zait gaya.  
Bertsuetan ark zuan  
artaño doaya.  
Alakua nola izan?  
Ezin leike iya.
- 4/ Barrendik sentimentua  
irtetzen baita,  
pazientzirik ere  
ezin batek naita.  
Berakin konta ziteken  
gizona nunai-ta,  
Asteasun il zaigu  
bertsolarin aita.
- 5/ Munduko bizitz onek  
orra zer dakarren,  
askotan gu aztuta  
emen bizi arren.  
Partitu gera lagunak  
len izandu arren,  
zerura arte agur, ba,  
gora Jesus, amen!

1. Egunkariak: naiko.

2. Egunkariak: kantatubak.

## BERTSO BERRIYAK UGARTEMENDIA-K JARRIYAK

Bertso auek ere Miel Anton Errota il zaneok dira. Jartzallea, Juan Jose Ugartemendia izan zan, *Rinko* izengoitiz, Asteasuko Lizola-goine baserrikoa.

Bertso-paperetan zabaldu ziran,

«*Imp. Macazaga – Rentería*» moldiztegian argitaratuta. Paper oietako bat, Tolosako Periko Elosegik eman zigun; ta beste bat, bertako Isidora Mokoroak.

- 1/ Milla ta bederatzireun da  
ogei ta amaseigarrena,  
otsaillaren eguna señalatzeko  
gendun amaikagarrena;  
entiarra joan nintzan  
Migel Errota orrena,  
danak guztiyak esaten zuten:  
«Onek utzi digun pena!»,  
eta nik nola ez nun artuko  
ainbeste maite nubena?
  
- 2/ Entiarra egun orretan  
antxe nitzaden tokatu,  
nik bakarrikan enun pentsatu,<sup>1</sup>  
asko nituan topatu.  
Lau lagunek bizkarrian da  
beste lau zintetatik artu,  
iru estandarte aurrian da  
zer jende zan nork kontatu?  
Oriyek danak etziran jungo  
bera ez balitz portatu.

- 3/ Migel Errotai il zan bezperan  
nik egin niyon bixita.  
Esan ziran: «Juan Jose, nua  
danok guziyok utzita».  
Erantzun niyon: «Migel, al zaude  
orretaraño etsita?».  
Malko ederrik ixuri nuben  
biyok izketan jarrita.  
Lastima ez al da au ill bearra  
orain ederki bizita?
- 4/ Migel Errota, au esan gabe  
nik etzaitut utziko,  
zure itz batzuek gogoan ditut  
nere denbora guztiko.  
Famatutzia merezi ez bazan  
ni enitzaden asiko,  
zuk bezelako ejenplorikan  
guk ez deu erakutsiko,  
gizon langilleik estimatugoik  
etzan munduan biziko.
- 5/ Errespetua gizon orrek zun  
etxian eta elizan,  
kanpuan berriz egundo okerrik  
iñorekin etzun izan;<sup>2</sup>  
ejenplo onak guri erakusten  
ori beti ibilli zan,  
danak guztiyok maite genduan<sup>3</sup>  
txit gizona baizan,  
ura ainbeste mundu onetan  
gu eziñ giñezke izan.
- 6/ Bera bezela aita ere zun  
Migelek errotariya,  
makiña bati irindu ziyon<sup>4</sup>  
artua eta gariya.  
Urrutietan partitutzeko  
astua eta idiya,  
giro txarrian ibilli arren  
umoreko kantariya,  
gu ez gerade ezertxo ere,  
ura zan bertsolariya.

- 7/ Aitak bezela semiak ere  
ekarri zuan graziya,  
makiña bati gustora asko  
parra eragiñ aziya.  
Arriturikan utzitzen zuben  
ikusten zuben guziya,  
danok maite izateko ere  
etzan gizon itsusiya,  
aitortzen diyou galdu zaigula  
bertsolariyen nausiya.
- 8/ Otsaillaren amarrian deu  
Migel Errota ori illa,  
amaika gizon bertsotarako  
etortzen zan billa.  
Iztun ederra, buruz azkarra  
eta jeniyo z umilla,  
gure Jainkuak emanda etzun  
oso talentu debilla,  
erregutzen det arren anima  
zeruban gerta dedilla.
- 9/ Migel Errota jaio ta il da  
Asteasuko partian,  
amaika kristau konsolatu du  
irurogei ta lau urtian.  
Ontasun utsa besterik etzan  
iñorengana jutian,  
Aita San Pedro bere giltzakin  
gerta kiyola atian,  
zeru ederrian sartu dediyen<sup>5</sup>  
aingeruakin batian.
- 10/ Migel Errota, azken-azkenik  
au esango'izut munduan:<sup>6</sup>  
lenago ere batak bestia  
biyotzez maite genduan.  
Gutxina uste degun garaian  
danok biar degu juan,  
nere partetik desio dizut  
gertatu zaite zeruan,  
neretzako ere leku txiki bat  
eskatu zazu onduan.

*Bertso berriyak Ugartemendia-k jarriyak*

---

1. Bertso-paperak: bakarrik.
2. Bertso-paperak: etzuan.
3. Bertso-paperak: gendun.
4. Bertso-paperak: makibati.
5. Bertso-paperak: dedillen.
6. Bertso-paperak: au esango dizut.

# Lukasia Elizegi Baraibar (Pello Errotaren illoba) (1896 - 1941)

## BIZITZA

Lukasia Teresa Elizegi Baraibar Oiartzunen jaio zan, 1886 urteko urriaren 14-ean, Zuloagako errotan<sup>1</sup>.

Juan Krutz Elizegi bertsolariaren alaba zan, da Pello Errotaren illoba ta besoetakoa.

Jose Joakin Isidro Retegi Mitxelena-rekin ezkondu zan, 1917 urteko maiatzaren 15-ean.

Lenengo Aranbide baserrian eta gero Arane baserrian bizi izan ziran.

Sei seme-alaba izan zituzten: Maria Lukasia, 1918-III-6-an jaioa; Maria Justa, 1919-V-29-an jaio eta iru illabeterekin illa; Inazio Maria, 1920-VII-29-an jaio eta sei urterekin *peritonitis* gaitzarekin illa; Pio, 1922-IX-6-an jaioa; Frantziska Inazia, 1925-II-11-n; eta Inazio Maria, 1927-II-1-ean.

Lanez kanpora, bertso jartzen –idazten alegia–, bertso kantari edo erreza-tzen jarduten zan. Ondo ezik denbora luzean egon zan. Bañan medikuak etzioten sumatu zer zuan, da 1941-eko abuztuaren 14-ean, Ama Birjiñaren

bezperan alegia, il zan, berrogei ta ama-lau urterekin<sup>2</sup>.

Ogei ta emeretzi urte ziran bere aita egun ortan bertan il zala.

☆ ☆ ☆

Liburu ontan eskeintzen ditugun Lukasiaren bertso guztiak, semeari jarritakoak izan ezik, aren eskuz idatzitako kuadernoetatik jasoak dira.

Kuaderno oietan, bertso bera iru ta lau alditarño ere idatzita dago, batetik bestera beti aldaketaren bat dagoala.

Itxura danez, Lukasia, bere bertsoak obetu nairik, berriz ta berriz idazten jarduten zan.

Ta guk orain nola jakin zein ote dan berari geien gustatzen zitzaiona? Ori ezin ditekera dan ezkerro, kuaderno oiek zabaldu ta begien bistan genituala, bertso bakoitzetik lerrorik onenak iduritu zaizkigunak bereizten aritu gera, au kuaderno ontatik eta urrena bestetik aukeratuz.

Lenengo bertso-saillean, Adan da Ebarenean alegia, ez ditugu kuadernoetako bertso guztiak artu. Geitxo ziralaikoan, onentxoena berezi ditugu.

Sail ontako bertsoak, len ere garai artan Oiartzunen bizi zan apaiz jaun batek argitaratuak dira; bañan asko aldatu zituan, sarritan itxura guztia galerazte-raño.

1. «En el Valle de Oyarzun, provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, a quince de Octubre de mil ochocientos ochenta y seis, yo el infrascrito Presbítero Cura Ecónomo de la Iglesia Parroquial de San Esteban Proto-Mártir del mismo Valle, bautizé solemnemente una niña, a quien puse por nombre Lucasía Teresa. Es hija legítima de D. Juan Cruz Elícegi y Maiz, natural de Asteasu, molinero, y de D.<sup>a</sup> María Juana Baraibar y Ostiz, natural de Echalecu, en Navarra, vecinos de este Valle, mis feligreses. Nació según declaración de los padrinos a las siete de la mañana del día de ayer en el Molino de Zuloaga. Son sus abuelos paternos D. José Santiago Elícegui, y D.<sup>a</sup> Martina Ostiz, esta natural de Gorrónz en Ulzama, Navarra, y aquel de dho. Echalecu. Fueron padrinos D. Pedro Elícegui, natural de Asteasu, D.<sup>a</sup> Lucasía Baraibar, natural de Echalecu, ambos casados, a quienes advertí el parentesco espiritual, y obligacio-

nes, que contrajeron. Siendo testigos D. Pedro Manuel Aristizábal, Sacristán, y D. José Luis Olascoaga, carpintero, naturales y vecinos de este valle. Y por ser verdad lo firmo en Oyárun fecha ut supra. Manuel Gabino Seim». (Oiartzungo elizako emeretzigarren bataio-liburuan, 113 orrialdean).

2. «En el Valle de Oyarzun, provincia de Guipúzcoa, diócesis de Vitoria, a dieciséis de Agosto de mil novecientos cuarenta y uno, yo el infrascrito Cura Ecónomo de la iglesia parroquial de San Esteban Protomártir, mandé dar sepultura eclesiástica al cadáver de D.<sup>a</sup> Lucasía Teresa Elícegui y Baraibar, hija de D. Juan Cruz y D.<sup>a</sup> María Juana, natural de este Valle, de cincuenta y cuatro años de edad. Falleció, según certificación facultativa, a las once y media de la noche de antes de ayer en el caserío Arane a consecuencia de inanición. En el acto del fallecimiento se hallaba casada con D. José Joaquín Isidro Retegui, natural de este Valle. Recibió los Santos Sacramentos de la Penitencia, Sagrado Viático y Extrema-Unción, administrados por el Presbítero D. José Luis Lecuona. Otorgó testamento ante D. Antíoco Saiz, notario de Rentería. Se le hizo el oficio de sepultura, y ha sido inhumado este día en el cementerio de este Valle en presencia de los testigos D. Dionisio Martiarena y D. Patricio Urbieta, de esta vecindad. En fe de lo cual lo firmo: fecha ut supra. Lic. José Joaquín Uranga». (Oiartzungo elizako emezortzigarren eriotz-liburuan, 132 orrialdean.)



## SEMEAREN ERIOTZA

Onako atal au Manuel Lekuona apaiz jauna zanak idatzia degu:

«Lukasía Elizegi, Pello Errotaren illoba, bera ere bertsolari polita zan; eta ederrak kantatu ere, kantatu izan zizkion bati baño geiagori, ez bearbada plazan, bañan bai lagunarte zenbaite-tan, eta parra galanki eragin ere bai,

zenbait mutilen neskatxetako ibilliak kantatzen asten zanean.

Semetxo bat il zitzaion, umetxo zalari artean: Iñaxio Mari<sup>1</sup>. Eta, bere sentimentuak ala eskaturik, bertso batzuek kantatu zizkion ari ere. Bertso aietatik iru auetxek logratu degu gure eskuraztea:

- 1/ Non zara, gure seme  
Iñaxio Mari?  
Ebaren umietan  
etzara ageri...  
Erregutzen gugatik  
Aita Jainkuari  
zeru eder orretan  
gizarajo ori.
- 2/ Etzerade bakarrik...  
arreba Juxtakin<sup>2</sup>...  
Jaungoikua goratzen  
biyek alkarrekin;  
arren errukiya izan  
zazute gurekin,  
zuen aita ta ama  
ta senideakin.
- 3/ Bizitza ta eriyotzan  
gabiltz zuen billa,  
gure izatea ortan  
bukatu dedilla;  
ikust'ezutenian  
gure gorputz illa,  
erakutsi zeruan  
guretzako silla!»<sup>3</sup>

1. Len ere esan degunez, 1920-an jaio eta 1926-an il zan. *Peritonitis* izeneko gaitzak eraman zuan.

2. Maria Justa, gorago esan degun bezela, iru illabeterekin il zan, 1919-an.

3. Bertso auek lenengo argitaratu ziran tokia: «*Quinto Congreso de Estudios Vascos - Vergara 1930. La Poesía Popular Vasca por D. Manuel de*

# ADAN DA EBA TA GURE JAUNAREN BIZITZA TA ERIOTZA

- 1/ Zeruko Aita, argitasun bat  
bialdu zaidazu neri,  
oraingotikan bete dezadan  
nigan dagoan nai ori;  
zure aunditasuna adierazi  
nai nioke jendeari,  
kantuak gogoz egiñaz Jesus,  
Maria eta Joseri.
  
- 2/ Arrigarrizko gauzak munduan  
egin dizkigu Jainkoak,  
Adan da Eba guraso zarrak  
abek lendabizikoak;  
paradisoan jarri zituan  
gutziz zorionekoak,  
beti alaxe iraun zezaten  
berak ta ondorengoak.
  
- 3/ Bakar-bakarrik galarazirik  
sagar batetik jatea,  
ortatik ondo zetorkioten  
Jaunaren naia egitea,  
modu ortan bizitzen zirala  
Jaunak nai zuen artea;  
gero zabalik zeukaten berriz  
zeruetako atea.

- 4/ Zorionekoa zeramatela  
mundu ontako bizitza,  
deabru zarrak egiten zien  
enbidiakin arrantza;  
aski egoki asmatu zuan  
norgana jarri arantza,  
eraman nai zitualako  
infernutako ondartzâ.
- 5/ Gau eta egun erne zebillen  
batere logale gabe,  
noiz edo noiz egingo ote zan  
Adan da Ebaren jabe;  
sube zarraren eran jarrita  
Ebari egin diyo galde:  
«Sagar ontatik jan gabetanik  
emen zer egiten zaude?».
- 6/ «Nola nai dezu jan dezagun  
sagarra orren aletik,  
Jainkoak berak galarazirik  
dadukagu-ta zerutik?».  
«Kendu itzazu, emakumea,  
txorakeriok burutik,  
begira izango zeratela  
Jaungoiko beraren goitik».
- 7/ Iñoiz aztuko etzaion ordua  
allegatu zaio Ebari,  
non eltzen diyon Jaungoikoak  
nai etzuen aleari;  
lendabiziko berak jan eta  
jan arazi senarrari,  
begira beren buruak galdu  
ta ondorengo danari.
- 8/ Bereala Jauna agerturik  
esaten dio: «O, Adan,  
jakin beazu pekatu ori  
zenbaterañoa dan;  
aurrera zure emazte-umez  
izango dezu naiko lan,  
zere kopetako izerdiyaz  
beti bearko dezu jan».

- 9/ Era berean esaten diyo  
Ebari begiratuta:  
«Zedorri eta mundu guziya  
zuk utzi dezu galduta;  
zu ere egon zindezke bada  
sinismena ori artuta,  
oñaze miñez aurtxo guztiak  
argitaratuko'ituzu ta».
- 10/ Irugarrenen esaten diyo  
Jaungoikoak etsaiari:  
«Nik sortuko dit emakume bat  
aserrea jartzeko iri;  
ire burua zapaldu eta  
begira jarri lurrari,  
madarikatua izango aiz i,  
ez dek goratuko ori».
- 11/ Zeruko lora eder-garbiya,  
Jaungoikoak ala nairik,  
erru gabea sortu zinduan  
doai guziaz jauntzirik;  
zure aunditasun miragarria  
nola adierazi nik,  
Jauna bera geatu zala  
zuri begira jarririk?
- 12/ Denbora aurrez Jaunak zerutik  
bialdu zizun aingerua,  
ikusi nai zualako ondo  
zertâ zan zure gogua;  
lendabiziko geratu ziñan  
bizi irokaratua,  
garbitasuna izanikan zu  
zeretzat aukeratua.
- 13/ Irutasunezko itzaldiya  
adierazi zizunean,  
ai zer poza geatuko zan  
zure biotz barrenean,  
esanaz: «Jauna, zure naia egin  
guztiyon zorionean.  
Salbatzallea jaio dediñ  
denbora datorrenean».

- 14/ Jose doatsua autaturik  
senartzat zegon zutzako,  
aita ordekoa izan zedin  
Jesus jaio ordurako;  
artu zinduan etorkizuna  
ez ba berak zekielako,  
miragarria nola baiziñan  
aundigoa beretzako.
- 15/ O, Jose maita-maitagarriya,  
zer naigabe eraman zendun,  
zure emazte garbi Birjiña  
senti zendunean aurdun!  
Munduba zutzaz astuna zala  
nola gau eta ala egun,  
azkenean bakarrik uztea  
gogoak eman al zizun?
- 16/ Goi-aingeruak berria on bat  
bazedukan zuretzako,  
zure biotz naigabetua  
zorionera jartzeko:  
Aita Jaungoikoaren Semeak  
jaio bear zualako,  
aita ordeko zuzendari zuk  
bear zendun beretzako.
- 17/ Espiritu Santuan miraria  
Birjiñagan azal zedin,  
aurtxoa jaio da Belenen  
premirik aundienakin;  
ogei ta lau abenduan gau otz  
amabiyak jotzeakin,  
aurtxoa berotzen asto ta  
idiaren asnasakin.
- 18/ Espiritu Santun mirari ori  
Mariagan da azaldu,  
Jaingo Semea eginda ere  
garbitasuna ez du galdu;  
semeak berriz Adan pekatu  
ordaintza ori artu du  
Irutasunezko bigarren orrek,  
iñor ez dedien galdu.

- 19/ Aita ordeko Jose doatsua,  
begira zure semeri;  
arotza zeran aldetikan zuk  
siaska egiñ berari,  
ondorenguan oroigarria  
izango dezu-ta ori;  
bera edadez datorrenean  
lagunduko dizu zuri.
- 20/ Iru Errege aurra ikasi nai,  
nola baitziran egarri,  
erregaliak ere ekarri  
zizkaten bada aurtxoari:  
urria, intzentsua ta mirra,  
askok dakigu gauza ori,  
agur egiñik jun ziran oiek  
Jose eta Mariari.
- 21/ Aingeruak aiñ maite zinduan  
non etzinduan zu utzi,  
estura ziñan gaia abetan  
gustora nai zizun eutsi;  
biotzetikan beldurra kendu,  
zoriontasuna iritxi,  
ortarako egiten zitzaizun  
zeru ederretik jatxi.
- 22/ Jerusalemenera jun bearrik  
Pazkoakin betetzera,  
zure biotza alaia ori  
allegatu da illuntzera;  
amabi urteko seme Jesus  
gertatu zaizu galtzera,  
zure naigabe garratza ori  
ez nua begiratzera.
- 23/ Irugarrenen oso etsirik  
elizara artu bidea,  
an igarleari erakusten  
bere zeruko legea;  
ikusi zenduanean begiz  
zeru ta lurren jabea,  
zer zegoan emen zuretzako  
zoriontasun obea?

- 24/ Amak e bere pozian zion:  
«Semetxo maitagarria,  
zu ikusteko eraman degu  
naigabezko egarria».  
Aita Jainkoan dotriña zala  
zabaltzera etorria,  
ondo zekien nola zan bera  
doai danon iturria.
- 25/ Jose santuba arotzean da  
semetxo Jesus berekin,  
esan det bada etziran bizi  
lurreko ondasunakin;  
begira nola jaten zuten  
kopetako izardiakin,  
ondorengo beartsu danok  
nonbait etortzearren berdin.
- 26/ Ogei ta amar urte Jesusek,  
Jordan irriora juanta,  
Juan santuak bataiatua  
berak ala nai zuan ta,  
zeru-sarrera nundik zetorren  
berak ondo zekian-ta,  
Jaungoikoaren Semea baitzan  
doai guziaz jauntzita.
- 27/ Ebanjelioa ta dotriña  
zabaldur iru urtean,  
naigabez bizi ta mirariak  
egin zituan artean;  
asko anima berak ikusi  
etsai gaiztoen artean,  
eta bertatik jarri nairik  
beregana izatean.
- 28/ Mirari oiei birau boteaz  
barrendik atera garra,  
baña Jesusek oinperatzeko  
beregana zeukan indarra;  
pekatariak zerura naiez  
egiten zuen deadarra,  
bera izanik bertako maisu  
altsua eta azkarra.



- 29/ Iltzera zijuan aurre egunez  
eseri Jesus aundia,  
apostoluakin egin nairik  
bere azken afaria;  
ondorenean eskutan artu,  
konsagratzen du ogia:  
«Au da bada nere gorputza,  
animaren janaria».
- 30/ Orobat egiñ ardoarekin  
odol ardura aundikoa,  
gugatik isuri bear zuana  
testamentu berrikoa.  
«Nere izenean egin zazute»  
apostoluai esandakoa,  
ondò artzera zoriona ta  
bestela gaitz betikoa.
- 31/ Jetsemaniko baratzara jun,  
otoitza egin Aitari:  
«Kaliza au nik eraman gabe  
gerta al baleike ori».  
Begiratu gabe bere naiari  
baizik goiko bereari,  
etzan konbeni ta aingeruak  
lagundu zion berari.
- 32/ Etsai oien amorrazioa  
Jesus beranganatzea,  
zeñen gustora eman zioten  
sorbaldean gurutzea!  
Errori ta altxa, ala ere nairik  
Kalbariora igotzea,  
gurutz batean iru iltzez  
bertan nai zuten iltzea.
- 33/ Arantzazko koroa buruan,  
gurutzia bizkarrian,  
Jesus berakiñ nekatu oso,  
eroria da lurrian;  
altxa berriz ta karrika batez  
topatu Ama aurrian,  
biyan biotzak erdiraturik  
naigabe ta negarrian.

- 34/ Etsaia aiek bildur ziraden  
Golgotâ gabe iltzeko,  
laguntza eske zebiltzan aiek  
gurutze artzaz laguntzeko;  
Simon goitsua autaturikan  
zegen an bada ortarako,  
oroigarria gea zedilla  
ondorengo danontzako.
- 35/ Gurutz batean bi lapur erdin  
jarririk zeuden iltzeko,  
samurtasuna beste gauzarik  
etzedukan aientzako;  
egarri zan da Aitari erregu  
arren aiei barkatzeko,  
zer eiten zuten etzekitela,  
ez aiei begiratzeko.
- 36/ Munduko egarria zuala  
juduak uste izanik,  
beazunezko edari miña  
eman diote lendanik;  
emanaz eran dezala bada  
bate isuri gabetanik,  
aien biotzak Jesusengana  
ain gogor zeuden oraindik.
- 37/ Ostiral santu zan egun ori,  
egun bai arrigarria!  
Amabietan gurutz batean  
josirik zegen jarria;  
iru orduan eraman zuen  
eriotzaren larria,  
ben-benetan gu zeruratzeko  
bazedukan egarria.
- 38/ Seme bakarra zenduan eta  
geatu ziñanen gabe,  
bertatikan egiten ziñala  
naigabe guztion jabe,  
dana eraman zenduan, Ama,  
gu pekatarien alde,  
argatik Eban umeak oraiñ  
zutaz eiten degu galde.

- 39/ Maitetasuna zendukazun ba  
an aurrez-aurre illotza,  
itxaso ondo gabea bazan  
orduan zure biotza;  
grazian izan ezpazenduan  
Jesukristo beran antza,  
nola eramango zenduan, Ama,  
igaro zendun ekaitza?
- 40/ Jesus irugarren egunean  
piztutzen da lurpetik,  
aurretik berak emandako itza  
ondo betetzeagatik;  
agermena egiten dio  
bere Amari bertatik,  
Amaren poza maite izanik  
izate danon aldetik!
- 41/ Berrogeigarren gorputz ta anima  
Jesus zerura mundutik,  
zenbat egongo ziran begira  
mirari orri bertatik!  
An dago jarririk zeru ederrez  
Aita Jainkoan eskoitik,  
bertatik dago guri begira,  
baita ere aldaretik.

## ERREPUBLIKA DENBORAN

- 1/ Misioneroak an otsa egiñ  
emengo danok gutzako,  
amar agindu adirazirik  
Jesusgana gordetzeko;  
argaltasunaz ez gera diña,  
Ama, zaude laguntzeko,  
zuk ekarri zenduan Semea  
gure anima goitzeko.
  
- 2/ Alde guzti-guztietatik  
egiten du dearra,  
jakiñik estu bear onetan  
badaukagula bearra;  
gure animai etorri gabe  
gero betiko negarra,  
orain bada artu dezagun  
Jesukristogan indarra.
  
- 3/ Jarririk dagoz laguntzalleak  
gure anima zuzentzeko,  
guk pekatuak damuz agertu,  
aiek guri barkatzeko;  
sakramentua emango dute  
anima ori indartzeko,  
guri lagunduz berenak ere  
egunen batez zeruratzeko.
  
- 4/ Kardenal Segura ta jesuitak  
bialdu dezun republika,  
zenbaterako eman biazu  
emen gaudenai arrika?  
Izar gidari illuntxua zaude  
zuri egoteko begika,  
zu argitzeko asi gindezke  
zeruko laguntzaz deika.

- 5/ Ez al dezu argitu nai  
edo zereaz nai eutsi?  
Guk ere ez genezakegu  
erlijiorikan utzi;  
baizik Jesusek nai duen eran  
bere errukia iritxi,  
anima gora igo dediñ,  
ez infernura jetxi.
- 6/ Jaungoikoak kentzen diguna  
aurtxo bat eraman zerura,  
ala ere negar egiten degu  
naigabearen modura;  
Estadu orrek jarri bear baditu  
umeak bere eskura,  
gurasoaren odol sutsua  
jarri dezagun estura.
- 7/ Esaten degu: «Umetxo oiek  
zer ikusteko ote daude?».   
Guk alegiña egiñ bearrez  
geurek berak nola gaude!  
Orain egiten ezpadegu oien  
ta erlijioaren alde,  
Jesusengana juaten geranez  
zer ikusiko dirade?
- 8/ Inolazko moduz ez dute nai  
erakusle onik ikusi,  
masoikeria nai al dute ba  
danian jarri nagusi?  
Orduan txarra aiek erakutsi,  
umeak ura ikasi,  
etsaiagandik modu orretan  
nola egiñ igesi?
- 9/ Ez negarrakiñ baizik egitez  
maitetasuna agertuta,  
orien alde egiñ dezagun  
guretzat ezagututa,  
Jainkoak zeru-bidez jartzeko  
guri emanak dira ta,  
estutu gabe geiegizkoan  
berak lagundu nai du ta.

- 10/ Españaiko Santiagon anima  
zeruz Jaunari begira,  
zuk jarri zendun España ontan  
sinismena au argira;  
etsaia oiek kendu nayian  
gogor ta gogor ai dira,  
Jesus-biotzari eska zaiozu  
bera jarri zagun goira.
- 11/ Inazio Donean anima ederra  
Jaungoikoakiñ zaudena,  
Euskalerriko seme leiala,  
arrigarria izana;  
maite zendun Arantzazuko Ama,  
España ta dan-dana,  
Jesus-lagundiko elkarte ori  
zeurek jarri zenduana.
- 12/ Jose ta Maria, Erodes-beldur,  
Jesusekin Ejipto-lurrian,  
Inazio, zure ondorengiak  
darabilzkite aurrian;  
katolikoak uni gaitzazu  
Jesukriston indarrian,  
aiek Nazaret bezela oiek  
sar ditezen beren errian.
- 13/ Ikusi degu nolakoa zan  
gure munduko izatea,  
nai eta nai ez egiñ bearra  
Jaunaren borondatea;  
ori einda iriki zuan Jesusek  
zeruetako atea,  
gure animak nola nai duan  
betiko ara juatea.

## EUKARISTIARI

- 1/ Apaiza oiek ostiya  
konsagratzeakiñ,  
zerutik dator Jesus  
gorputz ta animakiñ;  
esanik nai duala  
emen bizi gurekiñ,  
nola beartsu ala  
aberats danakiñ,  
aurreratu gaitean  
bere laguntzakiñ.
  
- 2/ Sakramentu Santuan  
daukagu jarria,  
aingeruan jan ori  
aiñ maitagarria;  
guganako dauka, bai,  
ziñez egarria,  
nola dan bera izan  
danon iturria,  
o maitetasun maite  
goguangarria!
  
- 3/ Jesusek esaten digu:  
«O kristau maitea,  
naigabe guztietan  
nigana zaita;  
zorionduko dizut nik  
zure izatea,  
nai dirazu iriki  
biotzeko atea?  
Nere gogoaz nai det  
zukan izatea.

- 4/ Jan zazu nere aragia,  
eran nere odola,  
jakiñ bear dezu ani-  
magan nagoala;  
zuganetzen banazu  
bear dan bezela,  
ni zukan ta zu nigan  
biziko gerala,  
sinistatu itz oiek  
betikoak dirala».
- 5/ Jesus, nai badezu ni  
joatea zugana,  
lenbiziko nua ba  
ordezkoagana;  
bertatik egiñ zadan  
aitortze bat ona,  
niganatzeko, o Jesus,  
egillea zerana,  
zeruan ta lurrean  
maitagarriena.
- 6/ Aingeruan jan ori  
biotzean artuta,  
bertan geatuko naiz ni  
zukan auspeztuta;  
nere anima aiñ beartsu  
goitik ikusita,  
indartuko nazu, bai,  
janari zera ta,  
geroko unitzea're  
zurekin dator ta.
- 7/ Begiratu o zure  
aunditasunari,  
nola esker eman nik  
Jainkoa danari?  
Bertatik deitzen diot  
Ama Mariari,  
zeruko aingeru ta  
gañerakoari,  
berak gora dezaten  
gorputz eder ori.



8/ Bizitzan onela ta  
eriotzan jartzian,  
berriz ere nairik zu  
nere biotzian;  
nere naigabe danok  
arren zuk indartzian,  
agur, agur danori  
ai bat bukatzian,  
zeruan nai zurekin  
betiko guzian.

# **Bautista Kortajarena Elizegi (Pello Errotaren billoba) (1903 - 1992)**

## **BIZITZA**

Bautista Kortajarena Elizegi, «Bautista Ondartza» deitzen oi zioten bezela esateko, Asteasun jaio zan, 1903 urteko uztaillaren 31-n, Ondartza-aurrena baserrian. «Nemesio Juan Bautista de Cortajarena y Elícegui» dio bataio-agiariak.

Pello Errotaren billoba zan, aren alaba Mikelaren semea. Aitona asko ezagutu zuan.

Jaioterrian bizi izan zan beti. Bañan azken urteak Lasarten egin zituan, illoba batzuen etxean.


Garai batean asko ibilli zan erriz-erri bertsoan, Uztapiderekin-eta.

Bera izan zan aitonak familian piztutako bertso-suari ondoen eutsi ziona.

Bautistak berak an da emen kantatutako zenbait bertso arkituko ditu orain irakurleak. Bertso oiek Bautistak berak emanak dira.

Bertsoa kantatu utsarekin ez omen zitzaion buruan gelditzen. Bai, ordea, biaramonean bere artean berritzen bazuan; ta bai ere lagunak batek bertsoa entzun, ikasi ta esaten bazion.

Bautista 1992-ko otsaillaren 29-an ilzan, Lasarten, liburu au prestatzen ari giñala. Goian bego.



Zepai, Bautista Kortajarena eta Uztapide bertsolariak.

## ZENBAIT BERTSO

Egun batean, nik ogei bat urte nituala, iru indiano gure aitona zanari bertsoa botatzeko ta botatzeko asi zitzaizkidan. Ala bota nuan:

Ni gaztia nitzala  
Pello Errota il zan,  
artian aspertu gabe  
munduko bizitzan;  
nunbait betiko jaiua  
ura're ez izan,  
Jaungoikuak deituta  
mundutikan juan zan.

☆ ☆ ☆

Astiasuko gizon bati eiz-zakur on bat il zitzaion, da kejan asi zan, etxeko bei onena iltzea naiago zuala zakur ura baño, ta ola.

Nik esan nion:

–Beiarekin zakurra konparatu? Len ere zakur orrekin zere buruaren kalte-tan ibilli zera.

Ta urrena bertso au kantatu nion:

Etxian etzerade  
irixten fameliz,  
alare ezin aspertu  
dudako ibiliz;  
utsik etorri zera  
majiña bat aldiz,

obe zendun zakur oi  
lenago il balitz.

☆ ☆ ☆

Zizurkillen, jai batean, bertsotan ari zan Manuel izeneko mutil zar bat, Lartiñen bizi zana, galtzak ia erorian eta txapela zintzilik zituala.

Postura artan ikusirik, bertso au bota nion:

Komeni eztan lanterietan  
zertako zaude irtena?  
Gizona ala ikustiakin  
nik artutzen dedan pena!  
Mejora aundirik ez dezu egin  
igeztandikan aurtena:  
galtzak zintzilik, txapela oker  
da belarriya etena.

☆ ☆ ☆

Bein batean, Aiatik kuadrillan gen-tozela, Andatzarrate azpiko aldean zegoan Etxebitarte izeneko taberna batera sartu giñan Zizurkil ta Astiasuko batzuk, eta aparria eskatu genduan.

Serbitu ziguten, bañan aparri kaxkar xamarra; ta sei-zazpina duroren balioa juzkatzen genduan kontua, amarna duro iritxi zan.

Orduan onela kantatu nuan:

Jakin bagendu, mai ontan  
ezkiñan jarriko,  
desgustora gerade  
kanpoko t'erriko;

amarna duro kontua  
dala apariko,  
geio taberna ontara  
ez gera etorriko.

## ANAIAREN APUSTUAK

Atal ontako berriak ere Bautista Kortajarenaren aotik artuak dira:

«Gure anai Juanitok, Iturriozten Joakin Eizmendiren kontra jokatu zuan lenengo sega-apustua, ta irabazi egin zuan.

Urrena, Florentino Maiozen kontra. Florentino Maioz au Anoetako semea zan berez, bañan Astiasura ezkondua. Apustu au gure anaiak galdu zuan. Erremientak jartzen deskuidatu, azalegi jarri alegia, ta belarrari, ondoari, ezin eldu. Segá bat bazuan besteak baño obetoxeago jarrita; ta, besteakin ezin zuala ikusi zuanean, uraxe eskatzen zuan beti. (Ikus urrengo saillaren irugarren bertsoa).

Au galdu ta soziedadean kontuak egin ondorenean, pentsatu genduan urrengo urtean berriz jokatzea. Desafioa eman giñukan urrengo urterako, bañan Florentinok atzera egin zuan. (Ikus laugarren da bostgarren bertsoak.)

Orduan, Florentinoren soziedadekoak Debako Arteondo famatuarekin antolatu zioten apustua pultsuan. Gure anaia artean soldadu joan gabea zan. Zarautzen jokatu ziran. (Ikus seigarren da zazpigarren bertsoak.)

Automobillean iritxi ta salda artzen ari zirala, an gizon batzuk omen zeuden, da ala asi ziran:

–Au zein da?

–Au dek!

–Au? Antton Ondartza dan bezelakoa bera, beti sega-apustuetan eta zerratan, da beste iñor ez ta bizarra azaldu gabeko ume au plazara ekarri? Zer egin bear digu orrek?

Burla asko egiten zuten, bañan gure aita ixilik.

Gero, ordea, apustua irabazi ondoren, bazkaritan berriz ere lengoak berak egokitu. Orduan onela «Kaixo, Antton!» ta «Ola, Ondartza!» asi ziran. Ta gure aitak:

–Zer? Bizarrrik gabeko ume orren lana ikusi al dezute? Ea onek aña egingo duan bizardunik azaltzen dan!

Koloreak gorri-gorri eginda, zer esan etzekitela utzi omen zituan. Gure aitak patxara izugarria zuan egokiera etorri arte.

Urrena, Andoaiñen, Beizamako Oiarbide aizkolariarekin segan jokatu zan.

Bi segari obenak Naparroara, Leitzeko belaze aundi batera, eraman zizutzen; da an, gaeuz, goizeko ordubietan, prueba egin omen zuten. Oiarbide gertatu zan geiena ta bera prestatu zan gure anaiarekin jokatzera.

Etzuten asko uste, bañan guk ori dana bagendakigun, arreba an baigenduan ezkondata.

Oiarbide ori ikusgarrizko gizon aundia zan, da gureak aren aldean kukua ematen zuan.

Gure ama larunbatero Tolosara joaten zan tratuarekin, da an gizon batek onela galdetu zion:

–Zer esperantza semearekin?

Ta gure amak:

–Eztakigu ba. Gero ikusi bearko.

Ta gizon arek:

–Ba, lengoan galdetu nion Oiarbideri, eta esan zidan: «Oraingo ontan trabesa egin suelto nere alde, poltxilluan ibilliko nuke bera ta».

Amak, etxera etorrita, onela esan zion gure anaiari:

–Aizak: poltxilluan ibiliko omen aute.

Ta gure anaiak:

–Ni poltxilluan sartuko naunik gaur ez dago Beizaman!

Ta apustua jokatu ta gureak irabazi zuan.

Garai artan jendeak izugarrizko jipoiak artu zituan. Begiz jaten zuten gure anaiak etzezakela ezer aundirik egin, txikia baitzan; bañan, asten zanean, orduan komeriak!

Bazan Ernanin Anselmo izena ta *Potrikillo* izengoitia zuan bat, beti «edozeñi jokatuko ziola» ta «iñor baldin bazan» aritzen zana. Beti erronka utsa ta beti buru. Bandua ere eragin zuan.

Gure anaiak desafio egin zion, artean Iturriotzen belarra bazegoan da. Bañan Anselmo orrek, belarrik etze-goala aitzeki eginda, atzera egin zuan, urrengo urtean jokatuko ziola esanaz. Bañan urrengo urtean gureak soldadu joan bear zuan, da arek bazekian ori. Itxura egin alegia.

Gero, Anselmo orren anaiarekin egin zuan apustua pulstuan, igande batean puska luzean 127 ta erdikoarekin, da urrengoan puska motzean jokatzeko. Bañan lenengoan gureak irabazi zion, da urrengoan etzan bestea azaldu.

Beraz, Oiarbideri irabazi ta Ernani-koak atzera egin ondorenean, kontrariorik gabe gelditu zan. «Iñor baldin bazan» Euskalerra guztia markatu zuan, bañan etzan iñor azaldu.

Orduan soziedadean tratatu zan bertsoak jarri bear zirala, ta neri esan zidaten jartzeko. Egunez lanean aritu bearra nuan ezkerro, gau bat edo bitan jardun nintzan, da orrela jarri nituan».

(1928)

## BERTSO BERRIAK

Bertso auek paperetan zabaldu ziran, «*E. López'en etxean.-Tolosa*» moldiztegian argitaratuta. Paper oietako bat Mikela Elizegik eman zidan; Kortajarena bi anai auen amak alegia, eta Pello Errotaren alabak.

Berriz argitara eman aurretik, Bautistak bertsoai ikutu bat edo beste egin zien, utsegiñen batzuk kentzearren.

Amabigarren bertsoa ere, papera puskatuta dago eta ezin da osorik irakurri. Utsune ori Bautistak bete du.

- 1/ Milla bederatzireun ogei ta zortzigarrenge urtian<sup>1</sup>, bertso berriyak jartzera nua Gipuzkoako partian; aspaldi ontan diferentziya badabil gure tartian, atenziyuan egon zaitezte danak kantatu artian.
- 2/ Pasadizo bat publikatzeko artu det pentsamentuba, biar bezela oiek jartzeko eskax daukat talentuba; badakit ondo zuk daukazula gauza guziyen kontuba, Jesus maitia, argi zadazu nere entendimentuba.
- 3/ Juan dan urtian Iturriotzen sega-apustuba jokatu, erremintetan deskuidatuta neri galtzia tokatu.  
«Iru urtian mende biariko dek»  
neroni esan da kontatu, arrazoi ori entzundakuan ez nitzan oso kontentu.



- 4/ Urrillaren azkena zan da  
belarrik etzegon geyo,  
urrengo urtian jokatzeko  
egin niyon desapiyo;  
ainbeste denboran gobernatutzen  
or egona da propiyo,  
ateratzia ez da atrebitu,  
nunbait etzan oso piyo.
- 5/ Itza mantendu nai litzake,  
erronka egiten errez-ta<sup>2</sup>  
orrek bota zuban sakiari  
nik eman niyon erresta;  
orain jokatu nai baldin badu  
jarri diyogu propuesta,  
segari on orrek atzera egin du,  
aurten atrebitu ezta<sup>3</sup>.
- 6/ Neri beste bat jan nai ziraten,  
etzeuden deskantsuban,  
Arteondorekin prestatu zaizkit  
jokatzeko pulsuban;  
nik irabazi biar niyonik  
iñork pentsatzen etzuban,  
denbora asko baño lenago  
bere pasara artu zuban.
- 7/ Arteondorekin pultsun jokatzen  
Juanito ikusi genduan,  
neroni ere urruti gabe  
antxe nitzaden onduan;  
larogei ta amazapi kilo jaso  
irurogei ta amaika kiluan,  
au baño mutil indartsugorik  
ez da azaldu munduan.
- 8/ Segari oiek juntatu eta  
egin due ajustia,  
andik ogei ta bi egunera  
jokatzeko bestia;  
berri xamarrik arrapatuta  
irabazteko ustia,  
pentsamentuba bazuen baño  
ondo atera ezta<sup>4</sup>.

- 9/ Bi segariyak probatu dira  
Naparroara joanda,  
Oiarbide au bota dirate,  
geigo ebakiko zuban da;  
beste konturik etzan aditzen,  
danak aundiyaren banda,  
ark nai zubana nik egin niyon  
esperantza banuban da.
- 10/ Biyak probatu, onena atera,  
jokuba ustez ondo egiña,  
zein obenak giñan ikustera  
joan giñan Andoaña;  
bakoitzak bere alderditikan  
egin gendun alegiña,  
galduta triste gelditu ziñan,  
etzenduben uste baña.
- 11/ Oiarbide orri: «Zer esperantza?»  
egin ziyoten galdera.  
Errespuesta: «Orregatikan  
bildurtuko ez al gera!  
Oraingo ontan dudarik ez da,  
trabes egin nere aldera,  
poltxikuban sartu eta aisa  
ibiliko nuke bera».
- 12/ «Nik umi orren bildurrik ez det»,  
jende guziyai poza eman,  
jokatzen asi giñadenian  
naikua lana bazan an;  
ziaro begiz jaten niñuzun  
baño etzirazun antzeman,  
ni poltxikuban sartuko naunik  
gaur ote dago Beizaman?
- 13/ Oraingo ontan jende geiena  
zan zuregana etziña,  
trabesa ere nere kontrara  
bazan sekula ez aña;  
ni alako bi bazera iya,  
alare iritxi eziña,  
irabaztia etzan milagro  
bizkorra izan baziña.

- 14/ Ernaniko segari ori det  
aitatutzeko idia,  
ni ixilikan egongo nitzan  
eman ezpalit biria;  
beñere inun jokatu ez da  
beti kanpeon ori'a<sup>5</sup>,  
merezi du ta gizarajuak  
entzun biar du beria.
- 15/ Bandua eragiñazi zuban  
arrek Ernaniko plazan,  
belar ebakitzen jokatzeko  
Gipuzkoan baldin bazan;  
inork batere biartu gabe  
erronkan asiya au zan,  
ixil-ixilik egon baziña  
askoz egokiyago zan.
- 16/ Urrena berriz «munduban bazan»  
jarri du anuntziyua,  
bost milla pezta jokatzeko,  
ori zan kondiziyua;  
danak mendian eduki naia,  
au da orren biziyua,  
proatu arte ez da jakiten  
zein izan leiken geyua<sup>6</sup>.
- 17/ Zuk egindako desapiyua  
juan giñan azetatzera,  
zer errespuesta eman zenduban  
akordatutzen al zera?  
«Aurten ez dago nun probaturik,  
ni ez nua jokatzera»,  
belarrrik ez dagon aitzekiyan  
or egin digu atzera.
- 18/ Iturriozko barrutiyetan  
artian bazan belarra,  
jendia frankok ikusteko ere  
ez al da zelai ederra?  
Besterik etzan zure tartian:  
jokatzeko bildurra;  
lastima zan gizon aundi ori  
orla gelditu biarra.

- 19/ Ernaniara juanda ibili  
degu ainbeste komeri,  
zer esan ziran oraindik ere  
akordatutzen zait neri:  
«Urrengo urtian nai baldin badek  
jokatuko diyat iri».  
Nik soldadu jua biat eta  
argatik esan dit ori.
- 20/ Desapiyua egitezkeru  
«iñor baldin bâ munduban»,  
lendabiziko jakin biar du  
abilidadia nun duban;  
zu ikeratu ez baziñaden  
guk jokatu nai genduban,  
bulla utsarekin ikaratzia  
pentsatutzen al zenduban?
- 21/ Zuen gustua olakoa da:  
erronka egiñ galanki,  
ondo lirake oriyen berri  
bestek ez baldin baleki;  
iñork kasorik egiñ ezian  
artara ziran poliki,  
ontaz aurrera obe dezue  
mingaña ixilik iduki.
- 22/ Ara noraño bajatu diran  
segari oriyen famak<sup>7</sup>,  
leku geiotan ere semiak  
egiten ditue amak;  
erronka egiten oso errez da,  
obratzen dirade lanak,  
oraindik kinto ez dan mutillak  
ikeratu ditu danak.
- 23/ Oiarbide ta ernanitarra,  
bestia Asteasukua,  
iru kontrariyo izango dira  
txiki batentzat naikua;  
kuadrilla ori aspaldi ontan  
erronkan jardundakua,  
oraiñ oriyek atzera eginda  
danen buru geratua<sup>8</sup>.

24/ Nere anaiak bertso batzuek  
jartzeko eman dit ordena,  
jende guziya enteratzeko  
orixen dala onena;  
izen da apelido aitortuko det:  
Bautista Kortajarena;  
kejanterikan baldin bada iñor  
etorri deilla nigana.

1. Bertso-paperak: zortzigarren.
2. Bertso-paperak: errez da.
3. Bertso-paperak: ez da.
4. Bertso-paperak: ez dira.
5. Bertso-paperak: ori da.
6. Bertso-paperak: geigua.
7. Bertso-paperak: oyen.
8. Bertso-paperak: gelditua.



Iturriotzko benta. (A. Z.-ren argazkia).

## OSABAREN ERIOTZA

Ona emen, lenengo, Bautista Kortajarenaren itzak:

«Gure osaba Miel Anton il baño len, Aiako Altzolara Santa Ageda bezperan bertso kantatzera joateko deia izan nuan. Osabari bisita eginda, joango ote nintzan kontseju eskatu nion. Osabak oietik onela erantzun zidan:

–Probatu, probatu, illoba, zer lan dan ikasteko.

Oso lan nekosoia baitzan, da berak ondo probatua euki lendik.

Ala, joan nintzan; da Santa Ageda bezperan, baserriz-baserra, jo gora ta jo bera, egun da gau osoa pasatu genduan, nekaturik, bertso ta bertso kantatuaz, eta zakurrengandik eskapada latzak egiñaz.

Urrengo igandeko banketea ere an nintzan; da, andik bueltan nentorrela, Aiara iritxi ta an jakin nuan osaba illa zala.

Gero apaizak bertsoak jartzeko eskatu zidan. Aurrena Astiasuko Pantxok jarri zituan<sup>1</sup>; da urrena, berriz, nik. Gero apaizak Donostira bialdu zituan, da ango periodikoren batean agertu ziran».

Egunkari ori, len esan degunez, Donostiko *El Día* da, 1936-ko otsaillaren 19-koa.

Bertso auek, berriz agertu baño len, Bautistak ikusi nai izan zituan. Baita bi edo iru tokitan ikuturen bat egin ere, berak moldatu bezelaxe uzteko.

Ona emen bertsoak:

- 1/ Miel Errota askok dakigu  
nolakua dan izana,  
bere lanetan biotz umilla,  
kontzientzizko zuzena.  
Gure Jainkoak nai izan balu  
oraindik biziko zana,  
pena ez al da orla il bearra  
tamaña ortako gizona?

- 2/ Nik osabaren maitetasuna  
ezin nezake ukatu,  
mundu onetan etzuan egin  
zenbaitek aña pekatu.  
Irurogei ta lau urterekin  
bere bizitza bukatu,  
oraindik ere nere begiyak  
ondo ez dira sekatu.<sup>2</sup>
- 3/ Mundu ontara jaiotzen danak  
zorretan du eriotza,  
au goatuta lertu bearrik<sup>3</sup>  
jartzen da nere biotza.  
Gure Jesusi al dan maizena  
egin deiogun otoitza,  
premi danian izan dezagun  
berarengandik laguntza.
- 4/ Nere osaba biotzekua  
aztuta ez det utziko,  
alde oietan nai aña urtian  
iñor ez gera biziko.  
Oitik agur bat eman ziran-ta  
bere denbora guziko,  
mundu ontatik juan zan eta  
berriz ez det ikusiko.
- 5/ Bere denboran beti izan da  
oso gizon elizkoya,  
aitortu zuan: «Etorri zait nei  
il bear dedan garaya».  
Amar minutu aurrez esan zun:<sup>4</sup>  
«Jo zazue agoniya».  
Jesusek zion: «Ondora atoz,  
lagun istimagarriya».
- 6/ Otsaillaren amarrian zan  
goizeko zortzitan illa,  
Jesus maitiarena juan zan  
bere kontuaren billa.  
Gaubean berriz errosaiuan  
gutxinaz baziran milla,  
gizarajuai desio diot  
zeruan gerta dedilla.



1. Pantxoren bertso oiek lenago jarriak ditugu liburu ontan.
2. Egunkariak: legortu.
3. Egunkariak: gogoratuta.
4. Egunkariak: zuan.

## PEDRO MARIA OTAÑO ZANARI

1965 urteko maiatzaren 9-an, omenaldi eder bat egin zitzaion Pedro Maria Otañori, bere jaioterria dan Zizurkillen, jaiotetxean, Errekalden, oroitarri bat eta erriko plazan arrizko iduri bat jarriz.

Jaiotetxeko oroitarria agertzera-koan, Bautista zegoan an bertsolari bakarra. Bertso pare au kantatu zuan:

Etxe onetan jaio omen zan  
Otaño Pedro Maria,  
leku guzitan ezagutu zan  
bertsolari dotoria;  
bera ondratzera etorri zaio  
euskaldun jende trebia,  
merezi zuan gizona zan da  
aitortu'iozun beria.

Gazte denboran egin omen zun  
Amerikara bisita,  
bere erriko lagun maiteak  
sentimentutan utzita.

Zeñek etzuan pena artuko  
gizon ura ikusita?  
Euskaldun asko geratu ziran  
begiak malkoz bustita.

Ondoren bi bertso aukeratu zituan plazan:

Poz utsarekin egondu gera  
juan daneko bi urtian,  
bañan gogoa azaldutzen da  
Asteasuko partian.  
Bertsolai oiek fama aundikuak  
len nola izan baidian,  
Pello Errotana egingo degu  
uztaillan amaikian.

Ameriketan Pedro Mai il zan  
bere ezurak utzirik,  
mundu ontara jaiotzen danak  
ez baidu segurantzirik.  
Aldi ontatik juaten bada  
andik ez da notizirik,  
ixtimatuko genduen danok  
gaur egon balitz bizirik.

## AITONAREN OMENALDIAN

1965-eko uztaillaren 11-n, omenaldi eder bat egin zan Asteasun, Pello Errota goratzearren.

Onako bertso aukeratu zituan bere billoba Bautistak.

Lenengoa oian bere artean kantatu omen zuan, egun artako kanpai otsak esnatu ta eman zioten pozarekin:

Oian nagola pozak zorutzen  
jarri zat nere biotza,  
erri guziya gortu bearrik  
ai au kanpanaren otsa!  
Gipuzkoatik egin nayian  
Pello Errotari laguntza,  
pentsatuzten det abitu dala  
beste mundutik onuntza.

Goizeko amarretan, aiuntamentua, erriko jenderik geiena ta kanpoko asko Pelloren jaiotetxera joan ziran, etxafuegoka ta txistu soñuz, erriko neskatxa dantzari talde bat aurretik zala.

Pelloren errotan oroitarri bat agertu ta bedeinkatu zan. Oroitarri onek, Pelloren izen-abizenak eta jaiotze ta il-egunak ez-ezik, beraren azken bertsoa ere badakar: «Au esaten dizutet azken-azkenian...».

Iru bertsolari ziran an: Pelloren billoba Bautista, Basarri ta Mitxelena.


Zegokion bezela billobak asiera emanenez, bertso ederrik kantatu zuten irurok ere. Ona emen Batistarenak:

Kontzejutikan pentsatu degu  
onera abiatzia,  
auxen da poza euskaldun asko  
alkarregana biltzia!  
Len eztaikinak jakin nai badu  
zein dan ezagutuztia,  
auke bera da Pello Errota  
jaiotze ta il zan etxia.

Etxe ontantxen jaiotze omen zan  
aiton Pello errotariya,  
bere kantakin jotzen zitun  
artua eta gariya;  
aiek noranai eramateko  
astua eta iriya,  
ango ta bertson irabazikin  
azi zuen familiya.

Urrengo bertso au bere lengusu Pedrorengatik kantatu zuan, errotan jaiotze ta bizi zan Pelloren billobagatik alegia, berak egin baitzitian oroitarria jarri crazteko lanak.

Banerakiyan aitonarentzat  
beñe aztuko etzala,  
esan ziran nei bere lapida  
ementxe jarriko zala;  
aurrekuentzat beti izan da  
leiala ta serbitzala,



Pello Errotaren oroitarria Asteasuko plazan. (Fernando Rojoren argazkia)

bere illoba portatu zaió  
merezi zuan bezela.

Leku guzitan ezta izaten  
tamaña ontako txakona,  
bizi izateko auxen da etxe  
polit askoa zeukana;  
azpiko aldetik erreka dauka,  
gañeko aldetik botana,  
bero zanean emen igari  
ibilliko zan aitona.

Meza nagusiaren ondorenean, ber-  
riz, Pello Errotaren arrizko iduri bat  
agertu ta bedeinkatu zan Asteasuko pla-  
zan.

Urrena, alkate jaunak, erri guztia-  
ren izenean, zillarrezko errosario bat  
erregalatu zion Pelloren alaba Mikelari  
–orduan larogei ta amasei urte zituan  
onek– eta «Asteasuko ama» izendatu  
zuan.

Ondoren, saio bat egin zuten ber-  
tsolariak: Bautista, Uztapide, Basarri,  
Arozamena, Mitxelena, Lazkano, Agi-  
rre, Jose Lizaso, Lasarte, Etxeberria...  
Iñor aitatu gabe utzi badet, barka naza-  
la arren. Bautistak bertso auek kantatu  
zituan:

Askok maitatzen zuan aitona  
aspalditik il zitzagun,  
bere gañian bertso batzuek  
orain kantatu ditzagun;  
Asteasura gaur azaldu da  
majiñatxo bat ezagun,  
Pello Errotaren omenaje au  
danok zelebra dezagun.

Pello Errota ta bere senide  
danak guziyak il zian,  
gure Jainkuak deitu eta  
mundu ontatik juan zian;

arte gabeko buru ariñak  
lanteri ontan etzian,  
anai ta arreba, seme ta alaba,  
danak bertsolari zian.

Danak aitortu bear diyogu  
jakinduriya dunari,  
emen bezela fama aundiya  
edukitzen du nun-nari;  
oso gogotsu ikusten zaitut  
laguntzen euskaldunari,  
gaur esker milla Arrue jauna  
nere kinto lagunari.

Aurten berrogei eta sei urte  
Pello Errota zana il zan,  
eun da oi ta lau zituen orain  
baldin bizi izan bazan;  
zenbat umore eder jarriya  
naiz tabernan ta naiz plazan,  
amaika bertso eder bota ta  
mundu ontatik joan zan.

Gauden tokitik ari gerade  
Pello Errotari deitzen,  
zalla daduka bein jarritako  
tokitik berriz mugitzen;  
andik onera etortzekorik  
iñork eztiyo agintzen,  
zeru goitikan begira dago  
gure bertsoak aditzen.

Bertsolariak, erretiratzerakoan, ber-  
tso bana bota zuten. Ona emen Bautis-  
tak kantatu zuana:

Jakin nai nuke gure erriyan  
zenbat gusto eman duan,  
Pello Errotak txikitandikan  
ni asko maite ninduan;  
ildako penaz bizi izan naiz  
geroztikako denbuan,

nai ainbat urte pasatzerikan  
eztadukagu munduan,  
aitona maite, gu ere laister  
gera bedorren onduan.

irurogei ta emeretzi urte  
kunpritu eta il zala,  
gure Jainkoak bere ondoan  
arren goarda dezala.

Gauean, berriz, tabernan beste bi  
bertso auek kantatu zituan:

Pello Errota esaten dute  
bertsolari ona zala,  
ark etorriya ba omen zuan  
urak iturrin bezela;

Pello Errotak fama aundiya  
izan omen zun lendikan,  
ez det pentsatzen guregandikan  
beñe galduko danikan;  
asko ainduta estranjerira  
eraman zuen emendikan,  
ordura arte bertsotan etzan  
besteik izan Amerikan.

## AMARI

Bertso sail au, ta onen urrengoa ere, doren jarriak dira, irakurleak ikusiko  
Pello Errotaren omenaldia ospatu on- duanez.

- 1/ Orain sei bertso jartzera nua,  
nere amatxo gaxua,  
makiñat aldiz erana nago  
bedorren bular goxua;  
negarrez asten baldin banitzan  
ematen ziran musua,  
auba beteko izena dala  
pentsa zagun gurasua.
  
- 2/ Larru gorriyan jaio nitzaden  
inozentiaren gisan,  
borondatian faltik neretzat  
beñere etzuan izan;  
ezbear asko etortzen dira  
mundu ontako bizitzan,  
gurasuaren laguntzik gabe  
ni nola aziko nitzan?
  
- 3/ Gure Jainkuak ematen diyo  
osasuna ta graziya,  
egun uraxe allegatzeko  
zuan desio guziya;  
bere aitaren omenaldia  
nola zuan ikusiya,  
gutxieneko aurreratu du  
bost bat urteko biziya.

- 4/ Kalte aundirik etziyon egiñ  
omenaldira etorriyak,  
bestela nola izango zitun  
olako erregaliyak?  
Alkate jaunak an eman zizkan  
errosariyo berriyak,  
pentsa lezake oraindik asko  
maite duala erriyak.
- 5/ Pentsatu zuan omenaldira  
bisita bat egitia,  
istimatzen det oi izugarri  
nik, nere ama maitia;  
edade ortan arritutzen naiz  
olain sano egotia,  
gu askoz leno juan bearrak  
gaude betiko tokia.
- 6/ Zartu xamarra egonagatik  
oraindik ezta nagitu,  
edade ortan ikustiakin  
jendea zuan arritu;  
larogei eta amasei urte  
aurten kunplituak ditu,  
omenaldi bat eingo diogu  
eun iristen baditu.



## AITONARI

- 1/ Bere aitonarentzat  
illobak sei bertso,  
etorri diralako  
oinbeste abiso;  
aztutzerikan beñe  
enuke nai oso,  
merezi duan tokira  
bear degu jaso.
- 2/ Lengo bi gizon zarrekin  
itzezin det berriz,  
alakorik etzala  
diote etorriz;  
mundua korritua  
umoria jarriz,  
ura zala onena  
ziyoten jatorriz.
- 3/ Pello Errota izan zan  
gizon famatua,  
ezin neurtu ondo  
arren talentua;  
bertsolari onenakin  
ondo probatua,  
premiyorik aundinetan  
buru geratua.
- 4/ Jainkoak eman ziyon  
alako doaia,  
noiznai botatzen zuan  
bertso on alaia;  
errez osatzen zuan  
jarritako gaia,  
zer zan aitortutzeko  
bagendun garaia.

- 5/ Lastima gizon ura  
mundutik joatia,  
bere buruba zuan  
talentuz betia;  
gusto aundiya zala  
beira egotia,  
majiñat bertso eder  
bazuan botia.
- 6/ Pello Errota omen zan  
bertsolai biziya,  
korajia're nun-nai  
bear zan guziya;  
onena ura zala  
askon iritziya,  
arrek altxatzen zuan  
gure probintziya.

## ASTEASUN, SAN PEDRO BIGARREN BATEAN

Asteasun, 1970 urteko garagarrillaren 30-ean, San Pedro bigarrenez alegia, bertso auek kantatu zituzten Bau-

tista Kortajarena, Lasarte eta Uztapidek, goizeko saioan:



Ber-tso ba-tzu-ek kan - ta-tu-tze - ko a-gin-du di - da - te ne-ri,  
ta ber-din be-rriz ne - re on-du - an da-duz-ka-dan la - gu - na-ri;  
gaur be-ze-la-ko ko-me-nen-tzi-a ez da i-za-ten non-na-ri,  
se-gi-ra on bat e - man dei-o - gun San Pe-dro bi - ga - rre - na-ri.

Bautistak:

Bertso batzuek kantatutzeko  
agindu dirate neri,  
ta berdin berriz nere onduan  
daduzkadan lagunari.  
Gaur bezelako komenentziya  
ezta izaten nun-nari,  
segira on bat eman deiogun  
San Pedro bigarrenari.

Lasartek:

Jaunak, egun on opa dizutet  
itzikan xamurrenetan,  
oraintxe gera gu kanturako  
garairikan onenetan,  
alaitasuna jarri dezagun  
entzuliaren barrenetan,  
o asteasuar biotzekoak,  
maite zaituztet benetan.

Uztapidek:

Aurrez jakiñak egongo ziran  
giñala etortzekuak,  
bein agindutzen degun garaian  
gera gizon itzekuak.  
Emen len ere pasia naiz ni  
egun itxura antzekuak,  
Jaunak egun on dagizutela,  
astiasuar biotzekuak.

Bautistak:

Festa garaian nola nagan  
umorera mogituta,  
bear bezela ez egon arren  
au det aurretik oituta.  
Nere gustoko lagun maite oik  
aldian egokituta,  
ez dakit nola egingo dedan  
aspaldin ez naiz aitu ta.

Lasartek:

Batista, erantzun dezu berriro  
itzikan xamurrenian,  
iruditzen zaizu ote zauden  
sasoirik ederrenian.  
Oraindik ere bada zer esan  
ugaria barrenian,  
ai zer eguna pasa biagun  
San Pedro bigarrenian!

Uztapidek:

Egun ederra pasako degu  
al baldin bada iñondik,  
asmo orretan ni gaur goizian  
atera naiz Oiartzundik.  
Astiasuk e bertsolai fama  
nola artu zuen lendik,  
Pello Errotan ondorengiak  
bizi dirade oraindik.

Bautistak:

Ni bezelaxe geio're baira  
Pello Errotaren razian,  
urruti gabe bizi diranak  
aurrian edo atzian.  
Beñ ere ez dira iñor izaten  
epokak egokitzen,  
neretzat ere poz geiago zan  
oik asi izan bazian.

Lasartek:

Erria nola zegon, Batista,  
emen bertso batzun eske,  
gure garaia iritxia da  
eta saiatu gindezke.  
Argaltasunez arkitzerikan  
zurekin ez nuen uste,  
ni bezelaxe besteak ere  
oraindik maite zaituzte.

Uztapidek:

Kortajarena, len e zurekin  
aritua naiz aldizka,  
gaur ere ikusi zaitutenian  
pozik luzatu det bista.  
Orrelain gutxi jarduten ziñan  
ta ez genduen sinistra  
zuk oinbesteko bertsoak emen  
kantatutzia, Batista.

Bautistak:

Aiton izanda kastan bakarrik  
segitu det oraindaño,  
razatik ez det aiudarikan  
iñun izan egundaño.  
Asia.....  
majiñatxo bat enpeño,  
sekula ez dute iñork izan nai  
..... dira baño<sup>1</sup>.

Lasartek:

Estimatu're egin degu ta  
zeu asi zera lenbizi,  
eta orrekin egin dirazu,  
Batista maitea, grazi.  
Oso gutxitan alkartzen gera  
naizta urruti ez bizi,  
nere begiak etzaituzte zu  
nai ordurako ikusi.

Uztapidek:

Zu ikustian bai al dakizu  
zer datorkidan gogora?  
Urtiak joan da emen dagola  
lengo arbolaren lora.  
Gaztiak plazan gelditu dira,  
zu iyo zerade gora,  
zuria orain da eta badator  
gazte orien denbora.

Bautistak:

Lanteri ontan toki askotâ,  
ein izan ditut pausuak,  
jendeai asko gustatzen zaizka  
gure izkuntza gozuak.  
Iñor gabian igual juango'ira  
emen gizaldi osuak,  
ni galdutzian akabo dira  
Astiasuko bertsuak.

Lasartek:

Batista maite, gerta liteke,  
ortan arrazoi zenduan,  
len bezelaxe itzegin dezu  
alako asmo senduan.  
Siñistu gero txoraturikan  
gaudela zure onduan,  
ardi txarrikan ez da izaten  
artzai onaren albuán.

Uztapidek:

Aizu, Batista, bear dirade  
emen kontuak atera,  
askotan premi aundirik gabe  
bildurtzen asitzen gera.  
Guk uste degu dala euskeraren  
eriotzaren bezpera,  
baiña oraindik zuen errian  
indartsu dago euskera.

Bautistak:

Bizi nai degu lur maite ontan  
len oitutako legera,  
konturatzia al dan lenena  
ori guretzat obe da.  
Gañerontzian berialaxen  
guziyok galdubak gera,  
izkuntza oni eutsi deiogun  
euskaldun fiñak bagera.

Lasartek:

Gure euskera ibillia da  
berebiziko trantzian,  
baño berriro ikusten degu  
dagola txukun antzian.  
Aizu, Manuel, oraindik ere  
ez dago eriotzian,  
beti bezela bizirik dago  
Batistaren biotzian.

Uztapidek:

Amaika aitatu gure izkuntzari  
guk eman izan diogu,  
geruago ta indar gutxigoz  
beti ikusitzen degu.  
Ola damazki juan daneko  
bi milla urte inguru,  
baiña zaildutzen asiya da ta  
onezkero da seguru.

Bautistak:

Atentziyoan dago jendea  
Asteasuko kalian,  
ori guztia neronek ere  
naiago det igualian.  
Iñor gertatzen baldin bada emen  
gu noiz geraden galdian,  
beste saio bat egingo degu  
zazpi t'erdiyak aldian.

Lasartek:

Emen badira bertsoa beti  
pozik entzuten dutenak,  
egia garbi esatekotan  
maitasuna digutenak.  
Baño ez giñan, dakizutena,  
onuntz betiko ertenak,  
arratsaldian etorri orain  
aspertu etzeratenak.

Uztapidek:

Goiz partetikan bertsolariyak  
egiten ditu gaitzenak,  
pentsa zazute ez diradela  
abek oraingo atzenak.  
Arratsaldian izango dira  
emen bertsorik latzenak,  
estimatuko zaituztegu guk  
etorritzen zeratenak.



## BERTSOLARI ZAARREN OMENALDIA (1974, AZAROAK 17)

Amasei bertsolari zaarri –irurogei ta amar urtetik gorakoei alegia–, omenaldi eder bat egin zitzaien *Balda* pelotalekuan, 1974-ko azaroaren 17-an.

Bertsolari zaar oiek onako auek ziran: Jose Krutz Larrañaga «Nekazabal», Jose Antonio Sorasu «Zubeltu», Jose Maria Aristondo «Muño», Jose Inazio Etxeberria, Klemente Ezkurdia, Jerman Uriguen «Etxagiña», Simon Ibarra «Zubikoa», Pello Aranburu «Sai-kola», Frantzisko Maria Lasa, Jose Maria Mutuberria, Juan Bautista Kortajarena «Ondartza», Tomas Arrizabalaga,

Lorentzo Zulaika, Kosme Ariztimuño, Jose Tejeria «Zula» eta Juan Ormaetxea.

Oietatik iru etziran etorri: Jose Antonio Sorasu, Pello Aranburu eta Jose Krutz Larrañaga.

Bertsolari auek kantatu zuten: Mitxelena, Gorrotxategi, Egileor, Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Lazkano, Lasarte, Arozamena, Larrañaga, Igartzabal, Mugartegi, Agirre, Xalbador, Mattin, Lazkao-txiki, Etxeberria, Kosme Lizaso eta Garmendia.

Bukaeran bertso auek kantatu ziztuan Bautista Kortajarenak:

Be - re - bi - zi - ko mu - gi - men - tu - ak ba - da - bliz - ki Gi -  
puz - ku - ak, gaur A - no - e - tan ja - rri di - tuz - te i - kus - mi - ra ta -  
juz - ku - ak. Eus - ka - le - rri - ko gu - re oi - tu - rak as - kok  
di - tu go - goz - ku - ak, a - gur - tzen di - tut bi - o - tze - ti -  
kan gi - zon ta e - ma - ku - mez - ku - ak.

Berebiziko mugimentuak  
badabilzki Gipuzkuak,  
gaur Anoetan jarri dituzte  
ikusmira tajuzkuak.  
Euskalerriko gure oiturak  
askok ditu gogozkuak,  
agurtzen ditut biotzetikan  
gizon ta emakumezkuak.

Geren txandako lan aldiari  
nola ditudan eraso,  
gusto duenak goguan artu  
eta gerorako jaso.  
Zar jende auxe gertatzen gera  
emen oso animoso,  
juaterako kanta ditzagun  
dozen erdi bana bertso.

Zoragarriya dala uste det  
gure gaurko ibiliya,  
beira dagonak aldamenetik  
artuko digu talaya.  
Noiznai ez gera egokitu gu  
olain zar jende alaya,  
esan gentzake orain degula  
bigarren gazte aldiya.

Bertsotarako gogua bada  
alde eta apartian,  
gu zer garaitan etorri geran  
ondo kontura gaitian.  
Gaurko billera au berrituko da  
gero're urtiak jutian,  
oinbeste zarrek kantatu al du  
beñe gizaldi batian?

Emen geienak bajatzen gera,  
jaunak, denbora juanian,  
zerbait dañua gorputzetikan  
sendatzeko geienian.  
Ez dakiyenak jarriko ditut  
orain jakiñen gañian:  
iroi ta amaika urte nituan  
San Inaziyo eunian.

Alkarrengana ez dezagula  
arren kopetik illundu,  
len daduzkagu biotz gogorrak,  
bear diogu lagundu.  
Geren oitura ezin lezake  
naiagatik iñork kendu,  
bizi ederra izan gentzake  
alkar artuko bagendu.

Euskalerrria ez da maitatzen  
itxuran eta paperez,  
orretarako kariño piña  
barrendik biar du berez.  
Askotan triste samar daukagu  
iñoren laguntzik gabez,  
alkar artuta gutxi gera ta  
artze'ezpadegu baterez.

Lur maite ontan gure Jainkuak  
gu nola egin ginduan,  
emen gabiltza bata bestia  
ondo ezin konponduan.  
Badakizute lur maite onek  
zenbat gauz ematen duan,  
Euskalerrriya bezelakorik  
ez da beste bat munduan.

Donostiyatik asi ziraden  
gure bertsuaren eske,  
esan giñuben. «Gizon maitiok,  
eingo dizuegu oinbeste».  
Zar eta gazte eta ezkongai  
nola senar da emazte,  
nere partetik danak guziyok  
ondo-ondo izan zaitezte.

Erri au dala esan nezake  
dana guziyen eztiya,  
emen badago nai dubanantzat  
legorra eta bustiya.  
Gañerontzian berriz aukeran  
guk bear degun guziya,  
beste bat arte agurtzen zaitut,  
biotzeko Donostiya.

## BERTSOLARI BATEN OIUA

Bere azken urteetan, antziñako bertsolarien antzera, desapio bat bota zuan Bautista Kortajarenak.

Orren berri Basarrik eman zuan, *El Diario Vasco* egunkarian, *Nere borda-txotik* saillean, 1980 urteko otsaillaren 28-an, *Bertsolari baten oiua* izeneko idazlan batean. Onela dio:

«Sail ontan, gure opizioak ala agintzen duenez, sarritan gertatzen naiz baten eta bestearen desapioak argitaratu bearrean. Desapio oiek joko-gizonen desapioak izaten dira ordea.

Bertsolari arteko desapiorik ez det irakurri nere denboran.

Onen jatorria nundik datorren adieraziaz asiko naiz.

Donosti'ko Bertsolari Txapelketaren ondoren, Lekunberri'ko taberna batean berebiziko eztabaida sortu omen zan bi bizkaitar eta bi naparren artean.

Bertsolari gazteak ezezik, zarrak ere bazeuzkatela oso onak, izan bear zuten esana bizkaitarrak.

Etzala Euskalerrian 1924'garren urteko kintorik aien bertsolaria menderatzeorik.

Entzun zituztenak entzunik, napparak Asturias'ra jo zuten Bautista Kortajarena jaunarekin itzegitera. Pello Errota sonatuaren biloba da Bautista; Pello Errotaren alaba zan bere ama.

Bizkaitarrari jokatzeko gertu al ze-

gon galdetu ziotenean, baietzarekin erantzun zuan Kortajarena'k.

Bizkaitarrari ezezik, eguzkiaren azpian dagon edozeiñi jokatuko liokela bere adiñekoa (edadekoa) edo zarragoa izatekotan. 24'ko kintoak 77 urte dituzte.

Berrogeiña milla duro bota bearko lirake alde bakoitzetik.

Neurketa au, Tolosa'n edo Donosti'n izango litzake.

Juradu bezela, artu dezala bakoitzak bertsolaritzan dabillen bat.

Juezen artean alderik edo «diperentzirik» sortuko balitz, irugarren juez bat izango litzake bi alderdiek aukeratua. Ark emango luke azken erabakia.

Lana au izango litzake:

Ogeiña bertso gai librean, eta beste ogeiña puntuak jarrita.

Datorren igandean, epaillak (martxoak) 2, goizeko amarretatik eguardiko amabietara, Donosti'ko Bar Urola'n izango da, Jauna lagun, Bautista Kortajarena. Egun ortan ogeiña milla duro depositatuko lituzteke.

Andik amabost egunera, beste ogeiña milla duro.

Bete det nik Kortajarena jaunaren naia. Ortik aurrerakoa ikusi egin bear.

Oraindik oraintsu ematen nuan sail

ontan, 1802'garren urtean izandako bertsolari arteko desapio baten berri.

Bosna ontzako urre jokatu zituzten leiaketa artan, Amezketako Zabala'k eta Ernani'ko Txabalategi'k, Iztueta zaldibiarrek bere liburuetako batean agertzen digunez.

Bi orduko saioa eginda berdiñean

gelditu omen ziran, irabazle ta galtzailerik gabe».

Oker ez bagaude, Basarrik etzuen geiago desapio onen aitamenik egin. Ziur asko, Bautista an izango zan zai-zai jarrita Bar Urola dalako ortan, esandako egunean eta orduetan. Baiña, itxura danez, etzitzaion iñor ere azaldu.

# Agustin Zakarra

## (Jose Agustin Elola-Olaso Beobide)

### (1816 - 1886)

## BIZITZA

Agustin Zakarra bertsolaria Asteasun jaio zan 1816 urtean, eta bertan il, 1886-an. Ogei ta lau urtez Pello Errota baiño zarragoa, beraz. Eta onen famili artekoa ere etzan. Alde ortatik, ez genituzke aren bizitza eta bertsoak emen sartu bear. Bañan beste aldetik, berriz, asteasuarra izanik eta Pelloren denborakoa, arenak ere liburu ontarako egiten zirala pentsatu degu, eta liburu ontan leku eman diegu.

☆ ☆ ☆

Agustin Zakarraren bertso ta gertaeren berri, Mikela Elizegi Pello Errotaren alabari zor diogu geien-bat. Larogei ta amazapi urte zituan orduan, orain esatera goazenak eman zizkigunean, bañan beraren oroimena batere moteldu gabe zegoan; eta garai bateko Euskalerra zer zan jakin nai zuanak, arengana joatea besterik etzeukan.

Pello Errotaren bizitzarako bezela, Zakarrari buruzko orrialde auetarako ere magnetofonoz bildu genituan Mike-

laren esanak, gero, al dan gutxien ikutirik, paperera aldatzeko. Orregatik, egiazko egilletzat Mikela jo genezake; ni, berriz, aren sekretariotza egin nuana.

Beraz, besterik gaztiazten ez bada, Mikela da Zakarraren bertso ta gertaerak ematen dituana.

Bañan beste laguntzalle prestu bat ere izan genduan: Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna, bere azken urteetan Plazentzin eta gerra aurrean Asteasun bizi izan zana, ta emengo bertso zarrak biltzen gogotik saiatua.

Jaun oni artutako bertsoak zein diran, oarretan adieraziko degu; ta ori bera da, bestek eman digutenekin ere egingo deguna.

☆ ☆ ☆

Agustin Zakarraren abizena nola zan Asteasu guztian iñortxok ere etzekian. Ezta ere, noski, noiz jaio eta noiz il zan. Bañan ori dana argitzen asteko, iru eldu-toki genituan: Zakarrak izena

Agustin zuala; semeak, Jose Domingo; eta etxeak, Esnarritza.

Ala, Asteasuko eliz liburuak artuta, asi giñan garaitsu artako Jose Domingo guztien bataio-agiriak irakurtzen, aita Agustin zuan Jose Domingo bat topatu arte. Noizbait bear-ta, arkitu genduan olako bat: aitak Jose Agustin zuan izena. Urrena, Jose Agustin orren bataio-agiriaren billa ekin genion; ta, au arkitu ondoren, eriotz-agiriaren billa. Ta onek etxearen izena ere badakar: Esnarritza. Esnarritza, beraz, oi dan beze-la, erriaren laburpena da.

Orrela, iru eldu-toki oiei esker, bear genduan argitasun guztiaren jabe egin giñan.

Ona orain emen Zakarraren bataio-agiria:

*«El día onze de abril de mil ochocientos y dies y seis nació á las doze de la noche Jose Agustin hijo legitimo de Luis de Elola Olaso y de Teresa Antonia de Beobide naturales de esta villa: abuelos paternos Juan Bautista de Elola Olaso ntl. de Larraul y Maria Magdalena de Sorarroy. de esta: maternos Juan Bautista de Beobide, y M.<sup>a</sup> Magdalena de Zata-*

*rain natl. de esta: y el dia siguiente fue bautizado por Dn. Juan Ignacio de Larrondobuno comisionado por mi el infrascripto Rector de esta Parroquial de Asteasu: siendo padrinos Francisco Antonio de Garmendia como procurador de Jose de Elola Olaso, a quien (se advierte) que no se dio aviso de esta disposición, y Maria Agustina de Urquizar, a quienes se advirtió el parentesco espiritual que contrageron, y la obligación de enseñarle la doctrina cristiana. Y p. que conste firmamos*

*Dn. Juan Bapta. de Aguirre*

*Dn. Juan Ign. de Larrondobuno».*

Beraz, berak bataiatu ez bazuan ere, Agirre euskal idazle aundia zan erretore Asteasun, Zakarra bertsolaria jaio zanean.

Bataio-agirian Zakarraren deitura Elola-Olaso da. Bañan eriotz-agirian eta semearen bataio-agirian, Elola soil-soillik. Euskal abizen asko era ortan gelditu izan dira puska galduta.

Bañan, besterik gabe, leku utzi zaiengun Mikela Pello Errotaren alabaren esanei.

## ZAKARRA BERTSOLARIA

Agustin Zakarra, Astiasuko bertsolari zar bat izan zan. Esnarrirtza deritzaion baserrikoa. Iru Esnarrirtza dira, bañan ez dakit oraintxen zeñetan izango zan. Esnarrirtza Astiasuko erreka ballaran dago, Ernio aldera. Orain kamioa ere bada Esnarrirtzaraño.

Ezagutzen nuan nik ura. Itxusia zan, izugarri itxusia! Betilleak onenbeste luzeak; eta muturra, beltza. Ta muturrean pipa artuta ibiltzen zan beti.

Bein bakarrik begiratu omen zion ispilluari, ta geiago begiratzeko gogorik gabe geratu omen zan. Ala esaten zuten.

Bozik etzuan. Aren gazte denboran

ere gerra izan omen zan. Orduan presoenero eraman omen zuten, ango kartzelatik katarroa ekarri omen zuan, da bozik ez. Berak ere esaten du beaso batean:

oaindik kendu be daukat  
orduko orrua.

Bañan oso bertsolari ederra zan. Izugarri etorri onekoa. Gure aitak ala esaten zuan beti, ta pozak egoten zan Zakarra arrapatu ta berarekin kantatzeko.



## KARTZELAN

Lengo gerrate zarrean –karlisten lenengoa seguru asko (1833-1839)– Astiasun lau gizon presionero artu omen zituzten: Zakarra ori, Txaparroren aita ta beste bi.

Ta an eduki omen zituzten Donostian kartzelan, miseriaz iltzen, bañan ez iltzen orregatik. Libre atera azkenean.

Zakarra orrek esaten zuan, arratoiak irteten bazitzaizkan, arrapatu ta gustora jaten zituztela; ta lau lagun oiek amaika arrua pisatu zirala. Iruna arrua zirala ere, amabi arrua bear zuten; bañan ez: amaika<sup>1</sup>.

Pasadizo artako bertsoak ere kantatzen zituan arek gero. Aietako bat onelazan:

Orduantxen ez nintzan  
entero arrua,  
oaindik kendu be daukat  
orduko orrua;  
zorriak jan zidaten  
lepoko larrua,  
lau lagun pisatu giñan  
amaika arrua.

1. Arrua, amabi ta erdi kilo da.

## EZTAIETAKO TXALA

Zakarrak bazuan bere kideko lagun aundi bat, Pedro Mari, Elkaita baserrikoa. Baserri ori aundia ta zarra da; antziñakoa.

Pedro Mari ori ezkontzera zijoan, ta pregoi-aparian –pregoi-egunaren gaur ean egiten zana alegia–, lagunak aparitara joan da izan omen zituzten baba beltzak eta urdai puska bana prejituta, pitxarreko botilla ardoarekin, lau lagunnen artean. Etzegoan gaur aña litxarre-ri!

Orduko eztaiak etziran gaurkoak bezela. Zagi ardoa aitapontekoak ekarri bear zuan, ta txal bat gizentzen zan, eztaietako txala. Gero txekor ura il, ta an naiko okela!

Txekorra jan bitartean, bertan gelditzen ziran danak, mandioko belar gañean lo eginda. Aragia egosita, aragia prejituta, aragia erreta... Dana aragizkoa. Orain legatza ta egaztia edo ola usatzen da. Orduan ez; orduan, txekor-aragia ta ardoa.

Lurrezko platera aundi bat jartzen zuten maiaren erdi-erdian, eta jan bear zutenak andik puskak arrapatu; atzaparrarekin ere bai.

Pedro Mari orrek ere eztaietako txala bazeukan; eta, laguna zuan ezkeron, onela esan zion Zakarrari, elizatik etxerakoan, igande batean:

–Aizak, Agustin: an bazeukat txe-

korra nik ere, ta goazemak eta ikusi zak.

Joan ziran eta ikusi omen zuan: adarrak galantak, illea luzea, okela gutxi...

Ta begira-begira jarri ta bertso auk kantatu zizkan:

Pedro Marik badauka  
eztaietako txala,  
iru urte badira  
ori jaio zala;  
besterik ez daduka  
ezurra ta azala,  
Aita San Antoniyok  
bedeinka dezala.

Jaunak, ikaratzen nau  
txekor onen plantak,  
onen gañian jarri  
biar ditut kantak;  
beste askok bezela  
baditu lau anak,  
illia luzia ta  
adarrak galantak.

Kontuan jartzen zaitut  
zu, Pedro Mariya,  
pasatu ez dakizun  
emen komeriya:  
eztaietara artzen bâzu  
kuadrilla aundiya,  
laister jango dizute  
onen aragiya<sup>1</sup>.

1. Mikelá, Pello Errotaren alabari, bi aldiz kopiatu nizkion bertso auk: batean, emen dauden bezelaxe; bestean, berriz, bi aldaketakin: 2/5: beste askoren gisa; 3/5: bodetá artzen bázu.

Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak beste onela jaso zituan bertso auk gerra aurretik, Asteasun: 1/1; Pedro Marik daduka; 1/4: ura jaio zala; 1/5:

beste gauzarik ez du; 1/8: gizendu dezala; 2/2: txekorraren plantak; 2/3: arren gañian jarri; 3/2: nik, Pedro Mariya; 3/4: gero komeriya; 3/5: eztaira artzen badezu; 3/8: aren aragiya.

Agian Mikelari berari jasoko zizkion, bein baño gciagotan bertsoak kopiatu baitzizkion.

## ZENBAIT BERTSO

Bein batean, bertotan ari ziran Zakarra ta gure aita. Gure aita Kontzeju-ko balkoitik eta Zakarra Izkurbaneko leiotik, eta jende asko plazan.

Gu oso umeak giñan orduan, bañan umeak ere ikusitakoa gogoan eukitzen.

Zakarrak neskatxa bat zuan aldame-  
nean, da alako batean onela kantatu  
zuan:

.....  
.....  
.....  
.....

Pello Errota Kontzejuan da  
ni Izkurbaneko leiuana,  
neska polit bat ementxe daukat  
musu bat eman deiuana.

Ta, *plast!*, musu eman zion, da seku-  
lako parrak jendeak. Olakoxea zan Za-  
karra.

☆ ☆ ☆

Neskazar bat bazan, Teresa. Santa  
itxuran ibilli bai, bañan artoa arek ostu  
Zakarrari, ta onek gero bertsoa kanta-  
tu. Uruman soro bat da. Bertso onek  
beste puskaren bat ere eukiko zuan nos-  
ki, bañan nik gogoan ez orain. Zakarrak  
olako bertso asko zuan.

.....  
.....  
.....  
.....  
demonion bat izango aiz i  
santa onaren moldian,  
Urumanetik neri artua,  
Teresa, ik ostu al dian?

☆ ☆ ☆

Bertso au Tolosako Fakundo Adu-  
rriaga *Besamotza*-ren eskuz idatzitako  
bildumatik artua degu.

Mikelak etzekian bertso ori buruz.  
Bañan guk irakurritakoan, berealaxe  
gogoratu zuan, eta onela esan:

–Bai; bertso ori ere Zakarrak kanta-  
tua izango zan. Bai noski. Zizurkilko  
edo eztakit nungo neskatxari kantatu  
zion.

Ona bertsoa:

Sasoia daukan eta  
salta arin-arin,  
egonda gauza oberik  
etzion berdin;  
kolore txuritxuak,  
begitxuak urdin,  
neska mutil-zaliak  
ortan ezagun din.

☆ ☆ ☆

Urrengo bertso au, emen jarri de-  
gun bezela, Astigarragako Txomin San  
Sebastian zanari jasoa da. Patxi Baka-  
lloreña zala esaten zuan arek. Bañan  
Asteasun ere oso ezaguna da, ta ao ba-  
tez Zakarrarena dala diote danak.

Nik irakurritakoan, onela esan zuan  
Pello Errotaren alaba Mikelak:

-Nik ikasi nuan bertso ori. «An-  
dreak mudatzeko enkargatzen nau». Ori  
bai; atzeneko ori gogoan daukat.  
Zakarrarena bertso ori ere. Ain txokan-  
te aren bertsoak jaso ta eukitzen zituz-  
ten. Ori ere Zakarrarena.

Ona bertsoa:

Gizon tabernakoiak  
beti dizu lan au:

jai-arratsak tabernan  
bostetatik lau;  
ez naiz erretiratzen  
ez egun ta ez gau,  
modu ortan gabiltza  
zurrut eta mamau,  
sakelak badirau,  
ez danian barau,  
okerrena nerau,  
badet ezaguer'au;  
andriak mudatzeko  
enkargatzen nau<sup>1</sup>.

1. Bautista Kortajarena Pello Errotaren billo-  
bak ere eman zidan bertso au, bañan aldaketa aue-  
kin: 2; badu lanterri au; 3: jai-arratsak kanpuan; 5:  
erretiratu ezin; 7: jan da eran da kantatu; 8: sakelak  
badirau; 9: zurrut eta mamau.

## ANDREARI

Zakarra ta bere andrea, ezkondu ziranean<sup>1</sup>, Tolosara joan omen ziran. Peri edo merkatu eguna zan, da jende guztia asi omen zan:

–Ara Zakarraren andrea! Ara Zakarraren andrea!

Ta andreak galdetu omen zion:

–Agustin, zuri esaten al dizute Zakarra?

Ta Zakarrak:

–Zuri, zuri. Itxusia zera ta zuri esaten dizute. Neri ez.

Ta zearo sinistu andreak. Malezi aundi gabeko atsoa zan.

☆ ☆ ☆

Bein batean, tentatu zuan bateonbategen eta onela kantatu zuan:

Oi ta amairu urtetan  
nitzaden ezkondu,  
askok esaten zidan  
nuela berandu;  
ojala bein ere  
pentsatu ez bagendu,  
ederki jaten du,  
igual eraten du,  
ezer ezin kendu,  
nik ura biarrian  
ark ni konpondu<sup>2</sup>.

Andria zarra det bañan  
bai erritariya,  
etxera juan eta  
palta apariya;  
atsegin naita ere  
ostikolariya,  
txanponeko eltzia  
autsi zidan iya;  
nik daukân plakiya,  
jateko premiya,  
gañera inbiriya,  
au da komeriya;  
alakuan senarra  
da errukariya.

Esaten det jendia  
konturatu dedin:  
orain ezkonduzen da  
bost buru-arin;  
ume bat besterikan  
ez diot eragin<sup>3</sup>,  
.....  
.....  
egiñalak egin,  
biar diyot ekin,  
libre daukat berdin,  
nork artuko du min?  
Sasoi dedan artian  
diberti nadin<sup>4</sup>.

☆ ☆ ☆

Bautista Kortajarena, Pello Errotaren billoba eta Mikelaren semeak ere

bazekian bertso auetako bat. Bañan motxago, lau puntukoa. Iturta-bitarteko Juan Pello Tapia zanari entzun da ikasi omen zion. Onela esan zuan:

Andria artu nuen  
erritalariya,  
maitatu naita ere  
ostikolariya;  
etxera juan eta  
palta apariya,  
txanponeko eltzia  
autsi zidan iya.

Ta onen segidan beste bertso bat eman zidan, Juan Pello Tapia zanari ikasia au ere:

Atzo juan nitzaden  
berandu antzian,  
aukera aundirikan  
etzegon etxian;  
aparitan asi ta  
bi baba eltzian,

aitatikan erdiya  
andriak jan zian.

1. Zakarraren ezkontzaren berri ez degu Astea-suko eliz liburuetan arkitu. Andrea kanpotarra izanik, onen jaioterrian-edo ezkonduko ziran. Bañan semearen bataio-agiriak amaren zenbait argibide ematen dizkigu:

«*Maria Joaquina de Odriozola, natural de Urrestilla... (Abuelos) maternos José de Odriozola y María de Unanue, ambos difuntos, naturales que fueron de Azpeitia*».

2. Bertso au bederatzi puntukoa izango zan, Bañan orain puska falta du.

3. Zakarrak seme bakarra izan zuan, eta alabarik bat ere ez.

4. Iru bertso auek, seguru asko, alkarren segiran botoak edo jarriak izango ziran. Bañan bi tokititik jaso ditugu: lendabizikoa Pello Errotaren alaba Mikelari; ta beste biak Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna zanaren kuaderno batetik. Onek Zakarrarena bezela jaso zituan; eta Mikelak ere, irakurri genizkionean, onela esan zuan:

—Zakarrarenak dira oiek. Txanpon kontu ori —«txanponeko eltzia autsi zidan iya» alegia— ta oiek ikasi nituan nik. Alako ateraldiak zituana zan, bai, ura. Bañan orain guzti-guziak argi-argi ez nituzke esango. Aztu-ordua ere ez al degu?

## TXURINGAIKO ERROTA

Esnarrirtza baño lenago, Astiasu alderago, kamioan gora joan da ezkerretara, Txuringaiko errota dago. Baratza Astiasuko partean dago, ta etxea Larraulkoan, bien artetik erreka pasatzen dalako.

Nik ezagutzen nuan Joakin Txuringai ura. Aitona zar bat zan.

Aren alaba jarri zan etxean, errotan, bañan alargundu zan, bi alabakin geldituta. Ta anaia izan Amerikan, da anaiaak ara otsegin zion.

Aita gureak pikatzen zion errota. Ura nik gogoan det. Eta, emendik joaterakoan, auntza aita gureari erregalo utzita joan ziran ama-alaba aiek.

Anaiagana joanda, nunbait mendian zeukan lana arek, eta bei jeizten jarri

ziran; da ango gizon guztiak baño geiago irabazten omen zuan.

Gure aita joan zanean, an ikusi zituán, da berebiziko diruak eginda omen zeuden.

Ba, Joakin Txuringai ori errotaria zan, da Zakarra bertsolaria, ta betikoa. Gure aita Azpeitira eraman zutenean ere, beste biak<sup>1</sup> nekazariak ziran; da, errotaria bakarria izanik, errex txautuko zutela uste zuten, bañan gure aita aterazuan premioa: jenero ona eramaten bazuten, errotariak eoko zuala ona; jenero ona eramateko, eta munduan dan iriñik onena aterako zuala...

Ara, ba, Zakarra nekazariak Joakin Txuringai errotariari nolako bertsoak kantatu zizkan bein batean:

1/ Txuringaiko errota,  
errota lasaia,  
datorren aliari  
alegiña saia;  
amarretatik zazpi  
egiten du zaia,  
alare utsa litzake  
ez balu usaia.



- 2/ Joakin Txuringaikoak  
kontu txarrak dauzka,  
arriyak egiten diyo  
alia bi puska;  
ordu t'erdi gutxinaz  
taluari ozka,  
baten erdiya jatia  
etzait gutxi kosta.
- 3/ Garizuman bezela  
nabil ni barauan,  
goserik ezin kendu  
ez egun ta ez gauan;  
egiñalak eginda're  
ezin pasa auan,  
sekulako bildurtu naiz  
itoko ote nauan.
- 4/ Olako errotariak  
munduan nor dia?  
Irin usaiduna dauka  
neretzat gordia;  
*por cierto* jan ezinda  
autikan lerdia,  
berriz e eukiko det  
kolore berdia.
- 5/ Orrenbeste esatia  
zitzaizun komeni,  
Agustiñek bost bertso  
dizkizu ipiñi,  
iñor autan artu gabe  
bakarrik Joakiñi;  
gustua eman diyezu  
amaika oikiñi<sup>2</sup>.

1. Dakigunez, Jose Bernardo Otaño eta Uda-  
regi.

2. Bertso auek, Jose Antonio Loinaz-Otaño  
apaiz jaunak gerra aurrean Asteasun bildu zituan  
bezela jarri ditugu. Bañan baliteke berak Pello Erro-  
taren alaba Mikelari berari jasoak izatea. Ontaz Mi-  
kelari galdetu ta onela erantzun zigun:

—Arek neregandik jakiten zituan. Meza nagusi  
ondoan eramaten giñun salda artzera, ta orduan es-  
kribitzen zituan, gu saldarekin engañatuta.

Bañan Mikelak ori esan zuancrako, ia ogei ta  
amabost urte joanak ziran, eta ctzekizkian iru bertso  
auek besterik: 1, 2, ta 3'garrena. Orregatik jarri  
ditugu Loinaz-Otaño jaunak bildutakoak, era ori  
osoagoa eta zarragoa dalako.

Mikelak, urteen buruan zekizkian iru bertso  
oiek, aldaketa auekin eman zizkigun: 1/3: dakarren  
aliari; 1/4: egiñala saia; 1/5: amarretatik zortzi; 1/6:  
badaduka zaia; 3/2: gabiltza barauan; 3/5: egiñalak  
ein ditut; 3/6: txikitutzen auan.

## MEDIKUARI

Garai artan, Don Julian Irigoien zan erriko medikua. Urte asko egin zuan. Oso mediku ona ta jatorra zan. Arek esaten zuana, or nunbait ibilliko zan. Petxua estudiantu zuala geiena esaten zuan.

Iru seme ta bi alaba izan zituan. Iru semeak mediku estudiantu zuten. Oraindikan ere Ernanin edo or nunbait ditu<sup>1</sup>. Karrera emateagatik, Tolosara eraman zituan; eta, or asko kostatzen zitzaizkela-ta, len Astiasun erosi zuan etxea saldu ta Tolosara joan zan bera ere bizitzera.

Sosik gabeko andrea artu ta semeak gizon egin zituan arek Astiasuko medikutzarekin. Etzan motela!

Aberea ere bazuan; eta, *tiki-taka, tiki-taka*, aren gañean joaten zan bear zuan tokira.

Astiasun azkeneko jaiotza, orain irurogei ta amairu urterekin Naparroan dagoan nere alaba zarrarena izan zuan. Otsaillaren 8-an konpritu zaizka. Gazteak gaude!

Egun batean, bertsoa botatzeko ta botatzeko asi omen zitzaion Zakarrari.

Ta Zakarrak esaten zion:

–Bai; nik esana libre det eta ez diot botako.

Ta Don Julianek:

–Neri zer inporta zaidak, ba?

Txintxatu ta txintxatu egiten zuan, da azkenean Zakarrak au bota zion:

Beok baño gaiztogorik munduan ote da?  
Nolakuak diraden nua esatera:  
botikarako egin aguro papera,  
alimentuak kendu,  
odolak atera,  
lenbailen bialtzeko satorren tartera.

Ta medikua zeero asarretu egin zitzaion. Bañan gure aitak ala esan izan omen zion:

–Ez du Zakarrak kulpik, e? Arek asterako esan dio. Berorrek ere badaki ori zer dan. Aita Santuari ere orrek ez lioke barkatuko ta...<sup>2</sup>

1. Irakurleak kontuan artu dezala argibide auek 1966 urte inguruan jasoak dirala.

2. Bertsoa ta gertaera guztia, Pello Errotaren alaba Mikelari jasoak dira.

Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna zanaren bilduman bertso au ere badago, bañan aldaketa auekin: 3: zein nolakuak diran; 5: botikara aguro; 6: bialdu papera.

## MUTIL EDERRA AIZELA

Zakarrak buru aundiya zuben Pedro izeneko bati, isekaz:

1/ Mutil ederra aizela  
ik eorrek ust'ek,  
buru aundiya aizela  
esan zirak bestek;  
kreditu ederragua  
au iretzako eztek,  
burla egingo ditek  
zenbait neskatx gaztek.

2/ Berdinduko nauala  
gaurkuan kantetan,  
ez diyat ba utziko  
nik ere batetan;  
buru orren azpiko  
lepua neketan,  
apuntatuko nitek  
zenbait ataketan.

3/ Bestenak esate'ituk,  
ixilik eriak,  
oraindaño izan gaituk  
gu adiskidiak.  
Zertako paratze'izkiak  
olako izpidiak?  
Toriatutzen banauk  
aituko dizkiak.<sup>1</sup>

1. Pello Errotaren alaba Mikelak bertso auek etzekizkian. Iru bertsoak, eta goiko adierazpena ere bai, Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna zanaren bildumatik artuak ditugu. Bañan jaun onek bertso

auen bi kopia zituan, ta aldaketa xixtrin batzuk beren artean: 2/7: batean *nitek* eta besteak *likek*; 3/2: batean *eriak* eta bestean *euriak*; 3/7: batean *banauk* eta bestean *banak*.

## ZAKARRA TA BARIA

Errekalden<sup>1</sup> beti *Bariak* izan dira. Izengoiti ori aurreko zarretatik dator, Jose Bernardoren aurrekoetatik. *Bare* kasta izan da an beti.

Gure aita ta Jose Bernardo lengusu propioak ziran andrearen aldetik. Argatik nik Pedro Mari ori asko ezagutzen nuan. *Kattarro* esaten genion, burla egin bear genion guztietan. Oso eztarri baja baitzuan.

Jose Bernardoren aita, berriz, larrauldarra zan, Larronbide baserrikoa. Ura ere bertsolaria zan. Zakarrak beti burla egiten zion *Bare* kontu orrekin:

Ongi-etorri zera,  
*bare* adar duna,  
nola tratatu dezu  
nere babarruna?  
Soruan billatuta  
il nizun laguna,  
arrezkero bakarrik  
zaude alarguna,  
laster botako zaitut  
sasian barruna.<sup>2</sup>

☆ ☆ ☆

Au ere burla egiteko kantatu zion:

Aparaju ona da  
Larraulko *baria*,

lotsarikan ez duan  
ardura gabia;  
gaubian neri kendu  
bere lan-taria,  
illunpetan ere igual  
billatu biria,  
galduko balitz bota  
biaiot karia.<sup>3</sup>

☆ ☆ ☆

Ta au da burla egitea! Gure aitak ikusi omen zuan nola kantatu zion:

Zenbait jenerok erreparorik  
etziyo izaten ezeri,  
zeriarekin kabitu zaitez,  
utzi besteren gauzari;  
lengo astian jeneru ortatik  
bete nituen sei ziri,  
artian ere geratu ziran,  
eniyon sartu guziri.

Ta, kantatu bitartean, beatza ola luze-luze berari jarri omen zion. Alegia, berari etziola sartu oraindik; bizirik zegoala artean.<sup>4</sup>

☆ ☆ ☆

Tabakua ere igual jaten du bareak,  
eta tabakua emango zion da:

Besteren gauza arrapatzeko  
zeren ez diran zabarrak,  
jeneru oiek zaitzen dituzte  
goiz eta illunabarrak;  
oartu gabe jan dizkirate  
neri tabako ederrak,  
berriz aitara abitzen bada  
nik moztuko'izkat-adarrak.<sup>5</sup>

Gizon orretzek badaduka, bai,  
kantuz abilidadia,  
zierto badakit izango dala  
askoz ni baño obia;  
jendiak ere ala diyo ta  
emana dago fedia,  
*zakar*-pilla aundiya botatzen badek  
tapatuko dek *baria*.<sup>6</sup>

☆ ☆ ☆

Urrengo bertso auek Mikelak etze-  
kizkian; eta, orain guk irakurritakoan  
ere, len iñoiz entzun ez balitu bezela  
entzun zituan. Jose Antonio Loinaz-  
-Otaño apaiz jauna zanaren bildumatik  
artuak ditugu.

Errekalde zarrak, Jose Bernardoren  
aita eta Pedro Mariren aitonak alegia:

.....  
.....  
.....  
.....

auzo erriyak bezela dira  
Probintziya ta Naparra,  
Soraindarra zala usten nuen  
ta Esnarritzako Zakarra.

Zakarrak:

Bost sufritu biar dik  
Agustin Zakarrak,

neri jan dizkirate  
tabako ederrak;  
gizon abillak dituk  
Errekaldetarrak,  
zuzen botatzen dizkik  
*bariak* adarrak.

Bidian billatu det  
Larraulko *baria*,  
gaubian egiten du  
bere lanteria;  
onek janda kontentu  
ez dago jabia,  
malezi asko duban  
babarrun jalia.<sup>7</sup>

☆ ☆ ☆

Urrengo bi bertsoak Erreteriko Pe-  
llo Zabaleta bertsolaria zanari kopia-  
tuak dira. *Zakarra* eta *Baria* oiartzua-  
rrak zirala uste zuan Pellok. Bañan ba-  
dakigu nungoak ziran. Gertaera eta  
bertsoak onela eman zizkigun:

«Garai batean ba omen ziran *Zaka-  
rra* ta *Baria* izengoitia zuten bi gizon.  
Zakarrak tabakoa jarria zeukan txoko  
batean. Bareak joan da kendu egin dio.  
Jakin du Zakarrak; ta, urrena alkar to-  
patu zutenean, onela kantatu zion:

Neri *Zakarra* deitzen didate  
ta iri berriz *Baria*,  
besterenetik arrapatzeko  
baduk abilidadia;  
gauza ondatzen ikusi eta  
ez da kontentu jabia,  
ez-irudian pranko pixkorra  
ganadu ezur gabia.

Ganadu orrek zaitutzen ditu  
goiz eta illunabarrak,

besterenetik arrapatzeko  
zeren eztiran zabarrak;  
uste gabeen eraman dizkit  
nere tabako ederrak,  
berriz aietan topatzen badet  
moztuko dizkat adarrak».

1. Jose Bernardo ta Pedro Maria Otañoren  
jaiotetxea, Zizurkillen.

2. Bertso au oso ezaguna da Euskalerrian. Ba-  
ñan batzuek Otañotarrena eta besteak Txirritarena  
bezela jotzen dute. Txirritaren liburuan bertso au  
ere jartzen degu. Bañan, dudan baigeunden, agian  
Otañotarrena izango zala esanik.

Auzi au Pello Errotaren alaba Mikelak erabaki  
du. Ainbeste argibide emanik, itxurarik gabe utzi  
ditu gañontzeko iritzi guztiak. Ez Otañotarrena ta ez  
Txirritarena, beraz; Zakarrak Jose Bernardoren aita  
ta Pedro Mariren aitona zanari botca baizik.

Bertso onen beste era bat Txirritaren liburuan  
arki diteke. Ona emen beste bi.

Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna zanak  
gerra aurretik Asteasun bildua:

Ongi etorri zerala  
*bare* adarduna,  
nola tratatu dezu  
nere babarruna?  
Soruan billatuta  
il dizut laguna,  
arrezkeroztik zaude  
beti alarguna,  
arrika botako zaitu  
sasiyaz barruna.

Geok Errezilko Loidisaletxe baserrian bildua:

Bidian billatu det  
*bare* adarduna,  
atzo soruan il diot  
berari laguna,  
itaia sartu eta  
sasian barruna,

nola tratatu dek ik  
nere babarruna?

3. Pello Errotaren billoba zan Asteasuko Bau-  
tista Kortajarenak:

Ara gaur nola tokatu zaidan  
Errekaldeko *baria*,  
motel-itxuran azkarra dezun  
azienda ezur-gabia;  
nere babarrun ederretara  
sumatu dezu biria,  
berriz aitara juaten bada  
nik botako'iot karia.

Bat puntu motxean eta bestea puntu luzean ba-  
daude ere, nabarmen dago biak bat dirala. Bautistak  
ez omen zion bertso au bere amari ikasi, Iturta-  
-bitarteko Juan Pello Tapia zanari baizik.

4. Adierazpena, besteetan bezela, Mikelari zor  
diogu; bertsoa, ordea, bere seme Bautistari. Mike-  
lak bertsoaren erdia eman zigun:

jeneru ontatik bete nituan  
atzo goizian lau ziri,  
artian ere gelditu ziran,  
ez nien sartu guziri.

5. Mikelak erdizka zekian bertso au, eta bai  
urrena ere. Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna  
zanak bildu zuanetik osatu ditugu. Onek jaso zuanak  
beste onela dio: 7: berriz aitara juaten badira.

Bautista Kortajarena Pello Errotaren billobak:

Jeneru oiek beria egiten  
nola ez baidiran zabarrak,  
ederki asko zaitzen dituzte  
goiz eta illunabarrak;  
lengo astian moztu zizkidan  
nere babarrun ederrak,  
berriz aitara juaten bada  
nik moztuko'izkat adarrak.

6. Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunaren  
bilduman: 7: *zakar*-pilla ona jartzen bazaio; 8: estali-  
ko dik *baria*.

7. Bertso onek, Mikelak esan da atal ontan bi-  
garren jarri degunarekin zer ikusi aundia du.

## ZAKARRAREN SEMEA

Zakarrak seme bakarra izan zuan<sup>1</sup>,  
Jose Domingo; au jaiotzetik iñozo xa-  
marra zan. Ta aitak billatu zion andrea;  
arentzat tokatzen etzana billatu ere.  
Oso *señorita* zan andre ura.

Ezkondu zan gauean, andrearekin  
ikaratuta, loko-pillan<sup>2</sup> lo egin omen  
zuan Zakarraren semeak.

Gogoan izaten det: egun batez, Le-  
zora joanda, antxe giñan ama ta biok.  
Nik amabi urte nituan orduan. Zakarra-  
ren semea ere eldu da bere andrearekin,  
ta andreak iges egin dio. Orduan gure  
ama zanari galdezka, andrea galdu zi-  
tzaiola ta. Ta guk ikusten andrea, kaba-  
llero batekin balkoi batean.

Alaxe bizi ziran, da andreari itze-  
gin zion Zakarrak. Berak errañari esanda-  
koa ta onek erantzundakoa, bertsoan  
jarri zuan gero.

Zakarrak:

Matrimonioak badu  
milla eginkizun,  
jakin bear zenduke,  
ez dakit dakizun;  
etxian daukazula  
ez besterena jun,  
ba al dakizu, Manttoni,  
zer egiten dezun?

Errañak:

Matrimonio santua  
guk artu genduan,  
alkar serbitutzeko  
biar zan moduan;  
ni ere askoren gisa  
besterena juan,  
etxian ez neukan ta  
zer egingo nuan?

Beste bertso bat ere bazuan:

.....  
.....  
.....  
.....  
ustez itze-  
gin nion  
biar zan moduan,  
atiak itxi eta  
ark utzi niñuan.<sup>3</sup>

Zakarra-ta ondo bizi zirala esaten  
zuten. Nere koñadu bat ere, Jose Mari,  
Ameriketara joan zana, etxe artan mo-  
rroi izana zan.

Bañan ezkondu ta laister, diruak eta  
al zituan guztiak arrapatuta, Amerike-  
tara alde egin omen zuan Zakarraren  
errañak.

Bai; nik aditu nion bein sermolari  
bati, abererik gaiztoena muturra lotuta

bentzitzen dala; bañan emakume gaiztoa ez.

Esaera zarra ere bada, emakume gaiztoa piztirik gaiztoena baño okerragoa dala. Ta egi aundia gañera!

1. 1852-ko agorraren 4-ean jaio zan, gaueko amabictan. Biaramonean bataiatu zuten, «Jose Domingo Paciens» izena ezarririk. Aita-ama ponte-koak: «*Siendo Padrinos el Licenciado Dn. Jose Antonio de Zuaznabar natural de Alzo-Arriba y su hija D.<sup>a</sup> Dominica de Zuaznabar, natural de Azcoitia y residentes ambos en Aduna*».

2. Lokoa, artaburua aletu ta gero, alea kendu ta gero alegia, gelditzen dana da. Lokotsa esaten diote beste batzuek.

3. Lenengo ta bigarrenko bertsoak ezagunak dira Euskalerrian. Bañan senar-emazte batzuek alkarri kantatu zizkiotela diote. Pello Errotaren alaba Mikelari entzunda, ordea, argi ta garbi ikusten da ori ez dala gertaeraren ezjakinean bertsoak nolabait ere jantzi naia baizik. Aldaketarik geienak ere ortik sortuak dira.

Moldiztegiaren izenik gabeko bertso-paper ba-

tean, beste askoren artean, bi bertso auek arkitu ditugu. Aldaketak: 1/1: Matrimoniyuak ditu; 1/7: kuidaro, Mari Antoni; 2/5: ni're zu bezelaxe.

Tolosako Estanislao Urruzola «Uxola» zanaren kuadernoan:

Familiak badauzka  
milla eginkizun,  
jakin bear zenuke  
ez dakit bákizun,  
Joxepa Erramuna,  
zer egiten dezun;  
ni etxian utzita  
bestegana ez jun.

Matrimonio santu au  
guk artu genduan,  
alkar serbitutzeko  
bear zan moduan;  
ni ere zu bezela  
bestengana juan,  
etxian ez nuen da  
zer egingo nuan?

Lasarteko Sasucta-aundi baserriko Migel Zuaznabar zanak: 1/7: Mantoni, beiratu ondo; 2/5: zu bezelaxe ni're; 2/7: falta zinduzten eta.



## AZKENA

Olako paraderoa izan zuan Zakarra. Aurrena andrea illa izango zuan; guk ez genduan ura ezagutu. Gero, emakume ondadora arek danak ondatu.

Ola gelditu zan azkenerako Zakarra gizarajoa.

Bañan ez dakit noiz il zan. Ez orain-txe beñepein!<sup>1</sup>

1. Agustín Zakarra bertsolaria 1886-ko abuztuaren 22-an il zan, goizko seiretan, *endocarditis* gaitzarekin, Esnarritzaga baserrian. Ala dio Asteasuko elizako laugarren eriotz-liburuak, 79 orrian:

«*En la Villa de Asteasu, provincia de Guipuzcoa, Obispado de Vitoria, á veinte y tres de Agosto, de mil ochocientos ochenta y seis, yo el infrascrito Pres-*

*bítero, Cura ecónomo, de la Iglesia parroquial de San Pedro Apostol, mande dar sepultura eclesiática, al cadáver de Dn. Agustín de Elola y Beovide, natural de esta, de setenta años de edad, y de profesión labrador. Falleció a las seis de la mañana del día anterior, en la casa denominada Esnarritzaga, de muerte natural, ocasionada, según certificación facultativa, por endocarditis. Era hijo legítimo de Dn. Luis de Elola, y de D.<sup>a</sup> Teresa Antonia de Beovide, naturales de esta. Se hallaba en el acto del fallecimiento viudo de D.<sup>a</sup> Joaquina de Urrizola, natural de Azpeitia provincia de Guipuzcoa. Recibió los santos sacramentos de Penitencia, sagrado Viático, y Extrema Uncion. No testó. Se le hizo entierro de cuerpo presente. Fueron testigos del sepelio Dn. Angel de Zavala de profesion labrador, y Dn. Justo German de Bengoechea, de profesion Sacristan, naturales, y vecinos de esta villa de Asteasu. Para que conste firmo, fecha ut supra. Tomas de Eguibar».*

**ARKIBIDEA**

Itzaurrea .....	9
-----------------	---

## **PELLO ERROTAREN BIZITZA, BERE ALABAK KONTATUA**

Itzaurrea .....	17
Gure aiton-amonak .....	19
Senideak .....	22
Gure bizimodua .....	23
Gure idi Txikito .....	26
«Bejondaiala, mutil!» .....	27
Karidadeko bentan .....	28
Karlisten gerratea (1872-1876) .....	29
Zakur amorratuen kontuak (1876) .....	32
Elizondora (1879) .....	35
Parte gaiztokoak .....	38
Konportako morroia .....	41
San Migel .....	42
«Nere guraso zarrak» .....	45
Apustua .....	46
Laurkiñen .....	48
Meza-dirua .....	50
Urnietako alkateari .....	53
«Larru gorrian...» .....	54
«Gizonari egiozute ondo» .....	55
Aiako apustua .....	57
Fidel Lizarraga .....	58
Billabonako jiboso bati .....	60
Astoaren pasadizoa .....	61
Bi trataririri .....	63
Gure aizpa Joxepa Iñaxi .....	64

Jose Joakin Korta .....	66
Anaiaren soldaduska .....	68
Nere eztaietan (1893-X-14) .....	71
Ameriketara (1895) .....	75
Gure anaiaren ezkontza (1897) .....	78
Gure amaren eriotza (1897) .....	81
Itzetik ortzera .....	83
Santa Ageda bezperan .....	85
Gure aizpa Dolores (1881-1901) .....	86
Zenbait bertso .....	89
Gaixorik .....	91
Jendearen aurreko azken bertsoa .....	93
Erniora zijoazenai .....	95
Eriotza .....	98

## PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK

Itzaurrea .....	103
(1868) Anoetako astoa .....	105
(1879) Bertso berriak Asteasuko Elizegik jarriak .....	108
(1879) Bertsolarien jostaguda .....	118
Amasako sega-apustua .....	124
(1883) Bertso berriak kolera eta txanpanen gañian jarriak .....	127
(1892) Bertso berriak (Andoaingo asto-apustua) .....	134
Iturriozko sega-apustua .....	139
(1893) Bertso berriak ordañetan jarriak .....	140
Bertso berriak («Disponitu det asunto bati...») .....	149
Bertso berriak Lorenzok Franziskari jarriak .....	155
«Lenago nitzaden ni...» .....	161
(1893) Bertso berriak .....-i jarriak .....	164
«Juana Joxepa...» .....	171
Arozpide .....	174
(1894) Bertso berriak neronek nere gertaerari jarriak .....	176
Arantzazuko peleginazioak .....	183
Arantzazuko bertso-paperak .....	185
(1886) (I) Bertso berriak Birjiña Arantzazukoaren koroazioan Pello Errotariak jarriak .....	188

(II) Bertso berriak («Bertsuak jarritzeko atera det plana...»)	193
(III) Bertso berriak Arantzazuko alegantzian jarriak	200
Gernikako arbolari	206
Bi indiano	208
(1899) Bertso berriak (Barrenen dedan sentimentuba)	213

## ERRIAREN AOTIK JASOTAKO BERTSO ETA GERTAERAK

Itzaurrea	223
Karidadeko bentan	225
Trenari	228
Pello Errota eta Xenpelar	229
Itzetik ortzera	231
Ameriketatik etorritakoan	236
Nork emango dit neri pipa bat tabako?	241
Pelloren astoak	242
«Pelok ere kunplitu»	244
«Goizian jeiki eta»	247
Pello Errota eta Udarregi	248
Pello Errota eta Olegario	252
Pello eta Xardia	254
Pello Errota eta Txintxua	255
Pello Errota eta Gaztelu	257
Pello Errota eta <i>Goixueta</i>	258
Pello Errota eta <i>Bollo</i>	259
Zenbait bertso	260
«Bertso polit bat»	262
Erriz-erri	264
Kontzejura etorri naiz	267
Alkandora	268
«Fabore egin zazu»	271
Pello Errota Aian	272
Iritzi batzuk	280
Pello Errotaren etxea	284

## PELLO ERROTAREN ITZALA (SENIDE ETA ONDORENGOAK)

### Sabina Elizegi Maiz (Pello Errotaren arreba) (1842-1932)

Bizitza .....	291
Sabinaren seme-alabak .....	292
Sabinaren ateraldiak .....	293

### Juan Krutz Elizegi Maiz (Pello Errotaren anaia) (1851-1902)

Bizitza .....	299
«Eperra» .....	300
Eperrarekin bertsoan .....	303
(1894) «Presidiyuan arkitzen gera» .....	307
«Errepela-Jainko» .....	310
(1895) Bertso berriak .....	312

### Joxepa Iñaxi Elizegi Bengoetxea (Pello Errotaren alaba) (1864- ?)

Bizitza .....	319
---------------	-----

### Mikela Elizegi Bengoetxea (Pello Errotaren alaba) (1869-1967)

Bizitza .....	321
Bertsoak .....	322

### Miel Anton Elizegi Bengoetxea (Pello Errotaren semea) (1872-1936)

Bizitza .....	325
Aita-semeak bertsoan .....	327
Erniora joan ziran neskatxai .....	328
Bi gertaera .....	332
(1895) Bertso berriak Pello Errotaren semiak jarriak .....	333
(1916) Antiguako andre alargunarenak .....	341
(1918) Bertso berriak Asteasuko Misio Santuan gañian jarriak .....	347
(1932) Agate Deunaren olerkiak .....	356
Aita zanari .....	360
Miel Anton zanari, biotzez .....	362
Bertso berriak Ugartemendiak jarriak .....	364

### Lukasia Elizegi Baraibar (Pello Errotaren iloba) (1896-1941)

Bizitza .....	369
Semearen eriotza .....	371
Adan da Eba ta gure Jaunaren bizitza ta eriotza .....	373

Errepublika denboran .....	382
Eukaristiari .....	385
<b>Bautista Kortajarena Elizegi (Pello Errotaren biloba) (1903-1992)</b>	
Bizitza .....	389
Zenbait bertso .....	391
Anaiaren apustuak .....	393
(1928) Bertso berriak .....	395
Osabaren eriotza .....	402
Pedro Maria Otaño zanari .....	405
Aitonaren omenaldian .....	406
Amari .....	410
Aitonari .....	412
Asteasun, San Pedro bigarren batean .....	414
Bertsolari zaarren omenaldia (1974, azaroak 17) .....	420
Bertsolari baten oiua .....	423
<b>Agustin Zakarra (Jose Agustin Elola-Olaso Beobide) (1816-1886)</b>	
Bizitza .....	425
Zakarra bertsolaria .....	427
Kartzelan .....	428
Eztaietako txala .....	429
Zenbait bertso .....	431
Andreari .....	433
Txuringaiko errota .....	435
Medikuari .....	437
«Mutil ederra aizela...» .....	438
Zakarra ta Baria .....	439
Zakarraren semea .....	442
Azkena .....	444




1009239

B0-2191

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALIZAGIA
BILBO
76704
1992 MAI 11





**auspoa**

---